



Miren Etxezarreta

**Euskal baserriaren
oraina eta geroa**

JAKIN

Miren ETXEZARRETA

Euskal baserriaren oraina eta geroa

Asala: Antton Elizegi

Euskaratzailea:
Etxano

JAKIN

ARANTZAZU
OÑATI - 1977

JAKIN liburu sorta (26)

Azala: Antton Elizegi

© M. Etxezarreta eta
«Fundación Iturriaga y Doñabeitia»

Edit. Franciscana Aránzazu
Número Registro 1.692
Depósito Legal S. S. 623/77
I S B N 84 - 7240 - 098 - 0

Aurkibidea

Hitzaurrea	11
Lehen Zatia	
Kanpoko markoa	17
1. Kapitulu	
Nekazaritza gaurko munduan	21
2. Kapitulu	
Lurgaien eskaria	27
Lur ondasunen eskariaren berezitasunak	28
Eskarien joerak	29
Munduko egoera	29
Europa	30
Espainia	32
Baso gaiak	37
Herrialdeko berri	37

3. Kapitula	
Lur politika	41
Esne merkatuaren arauketa	42
Okela kanpainaren arauketa	43
Garantiazko prezioak	43
Ekoizpenari hobariak	46
Ekintza batuko eta abere desarroiloko programak ...	47
Ekintza batua	47
Abere desarroiloko programa	49
Labore politika	51
Estrukturazko neurriak	53
Lur Berrikuntza eta Desarroiloko Legea	53
Kooperatibagintzarako bultzada	55
Baserri gaien inportazioak	55
4. Kapitula	
Herrialdeko ekonomia eta bertako baserri sektorea	61
Herrialdea	61
Probintzia hauetako ekonomia Estatuko ekonomian ...	62
Herrialdeko nekazaritza eta Estatukoa	64
Herrialdeko nekazaritza bertako inguru ekonomikoari buruz	65
Baserri sektorearen eboluzioa: gehitu ala gutitu? ...	66
Herrialdeko eskualdeak	66
Herrialdeko nekazaritzaren eboluzioaren laburpentxo bat	67
1900 arte	67
Oraintsuko eboluzioa	69
Lan eskuaren irenspena	71
Lurraren irenspena eta prezioen gorakada ...	72
Hartzen diren gaien aldakuntza	73
Aldakuntzak teknologian	75
Ongarriak	77
5. Kapitula	
Baserria: estruktura eta eboluzioa	81
Baserria, lurantzako elementu oinharritzkoa	81
Zenbat baserri	83
Baserrien kopurua eskualdeka	85
Baserrien kopuruaren eboluzioa	86

Baserritarra: lur entresaria eta lan eskuaren iturri bakarra	88
Baserriko ekoizpen antolamendua	95
Baliakizun produktiboak	95
Lurra	95
Lana	99
Instalazioak eta makineria	100
Kapitala eta finantzamendua	102
Ekoizpena	102
Lur gaien komertzialmendua	104
Baserri motak	105
Antolamendu soziala	106
Bizi mailak eta kontsumua	107
Emakumea baserrian	108
Gizarte eta kultur bizitza	109
Hizkuntza	111
Begiramendu soziala	111
Baserriko krisia	112

Bigarren Zatia

Baserriaren azterketa ekonomikoa	115
--	-----

6. Kapitulua

Azterketaren metodologia	119
--	-----

7. Kapitulua

Baserri tradizionalaren egoera	125
--	-----

Baserriko eredu «normal» errepresentagarria	125
--	-----

Dedikazio osoko baserri tradizionala	126
---	-----

Ateratako emaitzak: baserrirako programarik onena	128
--	-----

Emaitza hauen azterketa	130
----------------------------------	-----

Baserri tradizionalerako egoeran aldakuntzak	136
---	-----

Gai printzipalen prezioetan aldakuntzak	136
--	-----

Esnearen prezioaren handikuntza	136
--	-----

Okelaren prezioan aldakuntzak	138
--	-----

Artoaren prezioan aldakuntzak	139
--	-----

Sagarren prezioen aldakuntzak	140
--	-----

Arrisku egoeren aldakuntzak	141
--------------------------------------	-----

Aldakuntzak arrisku osoaren muga	143
---	-----

Aldakuntzak etxaldearen tamainian	145
--	-----

Ikuspen orokorra	148
Planik onenen ekoizpen konbinaketei buruz	148
Atzeman daitekeen sarrera mailari edo tarte gordin osoari buruz	149
Beste aukera batzuetaz gonbarazioak	151
Dedikazio osoko baserri tradizionalerako irtenbidea	152
Dedikazio erdizko nekazaritza	153
Dedikazio erdizko nekazaritza zer menpeko gisa	154
Erdizko nekazaritzaren garrantzia	155
Erdizko dedikazioa Bizkaian eta Gipuzkoan	158
Erdizko dedikazioaren eredia eta honen emaitzak	159
Erabilitako baliakizunak	160
Ekoizpen konbinaketa	162
Baserriko sarrerak lanorduetatik	162
Erdizko hustirapena desegurtasun maila desberdinez	168
Denbora erdizko baserrirako ondorioak	169
Ondorio hauen balioztapena	173
8. Kapitulu	
Baserriaren modernakuntza	177
Ikuiluaren zabaltzea	178
Ihardun berrietara jokatzea	181
Soluzioak	185
Mekanikapena intentsifikatu	189
Baserriaren modernakuntzaren errentakortasuna ...	192
Baliakizunen emankortasuna enplegu alternati- boetan	192
Lana	192
Kapitala	192
Lurra	193
Baserriaren modernakuntzaren errentakortasuna, honetarako behar diren baliakizunek beste sail batzutan eduki lezaketen errentakortasunari buruz	193
Ondorioak baserriaren modernakuntzaren erren- takortasunari buruz	195
Baserri espezialduak	197
Okelatarako txahalen hustirapena	198
Abelxehearen hustirapena	201
Barazki hustirapenak	203
Plastikapeko barazkintza	206
Barazkintza erdi-industriatua	209
Hustirapen espezialduetarako emaitzen laburpena	210

9. Kapituluia	
Baserriaren eraldakuntza	213
Ekoizpeneko baserri elkartuak	214
Azterturiko kooperatiba motak	215
Elkartearen tamainari buruz	217
Tarte gordinei buruz	218
Baserriko errentagarritasunari buruz	222
Bakarkako eta elkarrekiko hustirapenen ekoizpen mailak eta konbinaketak	225
Konklusioa	226
Kooperatiben porrota	227
Abelazkuntza estentsiboko sistemak	231
Irtenbideak	233
10. Kapituluia	
Azterketa ekonomikoaren laburpena	237
Tarte gordina eta baserri gainki garbia	237
Ekoizpenaren osakera	243
Beste gai batzu	244
11. Kapituluia	
Egoeraren azterketa bere elementurik garrantzikoenei begiraturik	247
Lurra	248
Beharrezko kapitala, bere finantzaketa, kreditua ...	252
Teknologia	255
Arriskua eta merkaturatze sistemak	257
12. Kapituluia	
Ondorioak eta zenbait gomendio	263
Gomendio batzu	270
Hobekuntzak gaien merkaturatzean	270
Giza teknologiaren eta kapitalaren garrantzia ...	270
Azpiegitura eta zerbitzuak	274
Baserriko galen prezioak	274
Lurra eta kapitala	276
Hiztegia	283



Hitzaurrea

Baserria da euskal nekazaritzako era oinarrizkoa, bakarra, tradizionala, bai eta familiaren eta baserriko gizarte antolamenduaren muina ere. Baserria, Euskal Herriaren oinarriztat jotzen da, zeren euskal jatorriko edozein pertsona baserritik bait dator. Gure mendiak ez dira ezer, beren etxe zuri teilatu gorridunak, han-hemen sakabana-tuak, kenduz gero. Baserriak eta Euskal Herriak elementu bereizgaitzak dirudite.

Azken urteotan, ordea, erakunde garrantzitsu honen zorteak bere kezkek sorterazi ditu. Baserriko gazteria lurra bertan behera uzten ari da eta baserriak hutsik geratzen. Gazteek industriako enpleguak eta kaleko bizimodua nahia-go dute. Baserrian geratzen diren apurrek ere ez dute be-

ren geroa argiegi ikusten. Baserritar gazteak eta hauetariko talde batzu hainbat ahalegin egiten ari dira baserriari eusteko, lurreko diru-bizitzaren oinarri gisak iraun dezan, gaur eguneko bizitzari eta teknikari dagokion antolamendua bilaka dadin, baina ez dirudi irtenbide egokirik lortzen denik. Zer egin eta norantz jo, horra baserriaren zortiaz arduratzen diren guztien galdera larria.

Lan honek, galdera hauen erantzuna izan nahi du. Orain arte ez da erakunde honetako ekonomiarik zehazki ezagutzen. Baserriari buruz asko hitz egin, baina gutxi jakin. Lan honetan, beraz, baserriko egoera ekonomikoa sakonki estudiatzera eta azterkatzera eta zein gerobide duen neurtzera goaz. Baserriko oraingo egoera ezezik, epe luzera eta erdikora dauzkan posibilitateak aztertzea goaz, erakunde honek bihar-etzi edukiko duen eboluzio probablea igarri nahirik, pronostiko hauk posible diren neurrian, jakina.

Baserria eta bere geroa estudiatzeko alderdi bikoitza kontuan eduki behar da: alde batetik derrigorra da baserriarraren eta honen familiaren ongizateari begiratzea. Bestetik, baserria, ekonomia bateko nekazari alderdia, komunitateko aberastasun sozialaren zati bat dela ikusten da eta horren antolamenduak bertan lan egiten dutenei bakarrik ez ezik, kolektibitate osoaren antolamenduari begiratu behar diola. Horregatik, baserriaren ikusmirak baserriar familiaren ongizatearen ikusmiratik aztertuko ditugu, baina Herrialdeak bere biztanleria osoaren ongizaterako duen lur ondaren probetxamendu handiago eta hobea izateko moduan.

Lan honetan, Gipuzkoako eta Bizkaiko baserriak estudiatzen dira. Arabako eta Nafarroako baserri-baserrietarako ere balio dezake, baina gehienez probintzia horietako lur esplotazioen egoera desberdintzat jotzen da eta horregatik ez ditugu estudio honetan sartu. Frantziako Estatupeko euskal lurretako baserriak ere ez da estudiatzen, haien eta hauen baldintzak oso desberdinak bait dira. Ez da, beraz, euskal nekazaritza osoari buruzko lana, askoz apalkiago bi euskal probintziatako baserrien estudioa baizik. Idazke-

ta errazteko, bi probintziori batera «Herrialdea» deituko diegu, «aztertzen ari garen herrialdea» adieraziz. Baserriaren egoera *Programazio Lerrozkoa* deritzan teknika matematikoz estudiatu da batez ere. Horretarako analisiaren barruan sartzen diren elementu guztien planteamendu zehatz eta berezia behar da, horrela edozein mementutan jakin daitekeelarik komentatzen ari diren emaitzak nola lortu diren. Azken batez, teknika hau zera da, alegia, baserri eredu bezalako bat egin terminu matematikoetan, ekuazio era hartzen duena. Lehenengo 41 ekuazio eta 53 ezagukizunetako sistema bat jarri zen baserri tradizionala adierazteko. Sistema hau geroagoko fasean 67 ezagukizunetarako gehitu genuen anitz bariazio konbinaturik elkarren artean. Eredu honekin batera, baserriaren bakarkako beste aldakuntza eta posibilitate batzu aztertu genituen baserrirako ehun jokabide desberdin posibletatik gora ikusirik. Eginiko lan guztia liburu honetan bildu da: «El caserío vasco», argitaraturik dagoena. Hemen azaltzen duguna, lan horren laburpen bat besterik ez da; irakurterrazago izango dela uste dugu, zehaztasun gehiegiren eta alderdi teknikoagoen bila ez doazen irakurleentzat. Argitalpen hau *laburpen* bat besterik ez denez gero, baliteke hemen egiten diren baiezpenei batzu hutsak iruditzea eta oinarri sendo eta zimendaturik ez edukitzea. Berriro diogu hau honela gertatzen bada, lerro hauek laburpen tankera dutelako dela eta honela ez dago komentatzen diren alderdien iturriaren azalpen zehatzik ematerik. Azalpen hori nahi duenak aipaturiko lan nagusian aurkituko du. Lan honetako alderdiren bat gehitzerik edo elementuren batzu nola lortu diren zehazkiago jakiterik nahi duen irakurleak, beste lan nagusi horretara jo beharko du.

Lan hau burutzeko, gaiari dagozkion liburu eta estadistiketara joaz gainera, inguruko nekazaritzatik bertatik zuzenki bildu ditugu datuak, bai baserritarrekin edukitako eta baserriekin harremanean dauden profesionalekin edukitako hautuen bidez, bai bi probintzietako ehunetik gora baserritako datu txit zehatzen bilketaz. Datu hauen lanaketak eta estudioak denbora handia behar du. Horregatik

orain azaltzera goazen emaitzak 1973ko baserrien egoerari dagozkio eta ordutik hona gertaturiko aldakuntzak ezin izan ditugu sartu. Oso kontutan hartu beharreko alderdia da hau, batez ere, lan honetan agiri diren zifrak neurtzean, zeren hala prezioak nola gastuak eta sarrerak 1973koak bait dira, eta ordutik hona horietan aldakuntza handiak izan dira, Estatuko ekonomia inflazio gogorraren menpe bait dago. Beste aldetik, ordea, 1973rako atera ziren konklusioak baliozkoak izan daitezke gaurko ere, zeren, nahiz eta kantitateak aldatu, baserriaren egoera ez bait da funtsez aldatu, ez eta baserriko egoerari, industriakoari eta ekonomiaren orotasunari dagozkien magnitudeen arteko erlazioa ere. Oraingo egoera beraz, estudio honetan dezentente adierazten delakoan gaude, nahiz eta zifrak 1973ri dagozkiola kontutan eduki behar, zeren aldakorrik garrantzitsuenen arteko erlazioak ez bait dira ordutik hona aldatu.

Lan hau, Kandido Iturriaga eta Maria Doñabeitia de Asua Fundazioaren finantz laguntzari eskerrak egin ahal izan da. Fundazioa honetarako sortu zen, hategia, «nekazarien, abeltzainen eta, jeneralki, lurra lantzetik bizi diren pertsona guztien giza, gizarte eta teknik formaziorako eta eragintzarako» eta egun batez ere lan hau agintzea erabaki zuen, norantz jo behar den hobeki ezagutzeko. Fundazioaren egiteko nagusiaz gainera, lan honetan hainbat pertsonak eta erakundek parte hartu du: egikera teknikoan, lehen etapan, Jesus Agirre eta Maria Jesus Gonzalez ekonomistek parte hartu zuten eta geroago ekiporatu zen Jon Manzidor, ekonomista hau ere. Haseratik lana Miren Etxezarretak asmatua eta desarroilatua izan da. Hauxe da ekipoa gidatu duena eta lan honetan daudekeen akatsak eta errakuntzak beroni bakarrik dagozkio.

Iberduero S.A.k bere ordenatzaileak erabiltzen utzi zuen, beharrezko hainbeste kalkulu egiteko. Oso laguntza inportantea izan zen. Informatikako zerbitzu-burua, Jaime Etxebarria jauna, laguntzaile txit baliotsua izan zitzaigun, ordenatzailearen bitartezko emaitzak lortzeko.

Beste anitz pertsonari ere eskertu nahi diegu beren laguntza, albaitariei, baserri apaizei, beste arlo batzuetako

inbestigatzaileei... gaiari eta beste zenbait alderdiri buruz hitz egin digutenei. Horien ikuspen eta laguntzarik gabe, lan hau askoz mugatuago eta kazkarrago izango zen.

Eta hona, azkenez, laguntzarik inportanteena: gure asmoa onartu eta ulertu zuten nekazari guztiak; beren astiari eta lanari zatia kendurik, beren baserrietako berri eta egorearen eboluzioa eman ziguten guztiak; batez ere beren baserrietako datuak ematera prestatu zitzaizkigun nekazari eta nekazarisa guztiak. Jakin bezate guzti hauek, beren laguntzarik eta begi onik gabe, lan hau ezin izango zela egin. Gure eskerrik beroena eta gogorik haundiena, lan hau berei ere zerbait ongarri izan dakien.

Asua, 1976ko Udaberria

Leher Zatia
Kazkarrago markoa

infirmitas, karena ia telah (1) berpacaran, (2) berkeluarga, dan (3) beranak. Jika ia meninggal dunia, ia akan meninggalkan anak-anak yang memerlukan biaya untuk hidupnya.

Keempat, sebagai akibat dari berpacaran, berpacaran dan berkeluarga, ia akan meninggalkan anak-anak yang memerlukan biaya untuk hidupnya.

Keenam, sebagai akibat dari berpacaran, berpacaran dan berkeluarga, ia akan meninggalkan anak-anak yang memerlukan biaya untuk hidupnya.

Kedelapan, sebagai akibat dari berpacaran, berpacaran dan berkeluarga, ia akan meninggalkan anak-anak yang memerlukan biaya untuk hidupnya.

Kesepuluh, sebagai akibat dari berpacaran, berpacaran dan berkeluarga, ia akan meninggalkan anak-anak yang memerlukan biaya untuk hidupnya.

Kesembilan, sebagai akibat dari berpacaran, berpacaran dan berkeluarga, ia akan meninggalkan anak-anak yang memerlukan biaya untuk hidupnya.

Kesepuluh, sebagai akibat dari berpacaran, berpacaran dan berkeluarga, ia akan meninggalkan anak-anak yang memerlukan biaya untuk hidupnya.

Kesepuluh, sebagai akibat dari berpacaran, berpacaran dan berkeluarga, ia akan meninggalkan anak-anak yang memerlukan biaya untuk hidupnya.

Kesepuluh, sebagai akibat dari berpacaran, berpacaran dan berkeluarga, ia akan meninggalkan anak-anak yang memerlukan biaya untuk hidupnya.

Kesepuluh, sebagai akibat dari berpacaran, berpacaran dan berkeluarga, ia akan meninggalkan anak-anak yang memerlukan biaya untuk hidupnya.

Kesepuluh, sebagai akibat dari berpacaran, berpacaran dan berkeluarga, ia akan meninggalkan anak-anak yang memerlukan biaya untuk hidupnya.

Kesepuluh, sebagai akibat dari berpacaran, berpacaran dan berkeluarga, ia akan meninggalkan anak-anak yang memerlukan biaya untuk hidupnya.

Kesepuluh, sebagai akibat dari berpacaran, berpacaran dan berkeluarga, ia akan meninggalkan anak-anak yang memerlukan biaya untuk hidupnya.

Kesepuluh, sebagai akibat dari berpacaran, berpacaran dan berkeluarga, ia akan meninggalkan anak-anak yang memerlukan biaya untuk hidupnya.

... gurea eta hori gogor guztia baino alfer izan da
... dagoen unitate ekonomiko berriaren er
... ekonomiko inguneko
... eta munduko egoera osaren gora
... eta ezarria eta estralazio
... munduko, Europako eta
... ekonomia berriaren baldintza
... berriaren baldintza berriak az
... berriak.

Lehen Zatia
Kanpoko markoa

Kanpoko markoa
Lehen zatia

I. Kapituluia Nekazaritza gaurko munduan

Gaurko munduan egoera guztiak hain elkar loturik daude, non ez bait dago unitate ekonomiko kazkarrenik ere banaka aztertzerik. Edozein unitate ekonomiko inguruko unitate ekonomikoen eta munduko egoera osoaren gora-beheran dagoke beti. Horregatik, eta gezurra eta estrainioa badirudi ere, gure mendietako baserririk baztertuena estudiatzeko ere, munduko, Europako eta Espainiako nekazaritza kontuan eduki beharra dago. Horregatik, lanaren zati honetan, baserrietako ekonomiaren hazkuntea baldintzatzten duten edo baldintza dezaketen kanpo-elementuak aztertuko ditugu laburki.

Handiak dira, baina pobretasunagatik, ez dute diru-

Gariko munduan egoera guztiak hain elkar loturik daude, non ez baitago unitate ekonomiko bakarrenik ere, baina aztertzerik. Edozein unitate ekonomiko inguruko unitate ekonomikoan eta munduko egoera osoan gerta-beretan dagoke beti. Horregatik, eta gezurra eta errealia bereizi behar direla, gure mendetako bazarrik baztertuak ez direlako ere, munduko, Europako eta Espainiako nekazaritza kontuan eduki behar da. Horregatik, lanaren zati honetan, bazarretako ekonomia hazkuntza baldintza-zen duten edo baldintza dezaketen kanpo-elementuak aztertuko ditugu laburki.

1. Kapituluua Nekazaritza gaurko munduan

Munduko nekazaritza osoaren ikuspen panoramikoa txit nahasia da. Mundua gehienbat laterri aberats eta pobreetan banaturik dagoela kontutan eduki behar da, bien bitarteko laterri mordo bat egonik, bi kategoria nagusiotan batetik bestera tokiz aldatuz joan daitezkeenak. Laterri pobreetan janariak behar dira biztanleriaren premiak asetzeko, baina laterri hauetako nekazaritzak, nahiz eta biztanleriarik gehiena okupatu, efizientzia gutikoak dira eta ez dute beren premiak hornitzeko lain ere ekoizten ments agrkola dute eta ments hori bihar-etzi handiagoa izango dela, jotzen da. Baina laterri hauek, beren pobretasunagatik, ez dute diru-

mediorik, nazioarteko merkatuan behar dutenik erosteko, eta horregatik, nahiz eta lur-gaiak behar izan, ez dezakete munduko merkatura erostera jo, edo behintzat ez behar dituzten kantitate osotan. Laterri aberatsetako nekazari-tzak, ordea, biztanleriaren zati ttiki bat bakarrik hartzen du, eta hala ere txit emankorra da. Munduko laterri aberatsetan —Estatu Batuetan eta Mendebal Europan— laterri horietan behar den baino askoz lur-gai gehiago ateratzen da. Horregatik nazio hauetako nekazaritzek gainkiak —ekoizpen gehiegiak— dituzte, munduko merkatuan salgai jarri nahi dituztenak. Gainki hauk gainera gehituz doaz.

Beraz, ba, bi talde haundi ditugu: alde batetik janariak behar dituzten lain erosi ezin dituzten laterri pobreak eta bestetik beren lur gainkiak saldu beharrean dauden eta hartarako eragozpenak dituzten laterri aberatsak. Bi alderdiak ez dira, ordea, independenteak. Bien artean elkarlotura bat dago, era batera bakoitzak merkatuan dituen egoeren kausa eta ondorio dena.

Bitarteko laterriak ere aipatu beharra dago. Pobreak izan diren eta orain munduko merkatuan lur-gaiak erosi ahal dituzten laterriak. Gainera biztanleria haundiko laterriak dira eta hauen erosketek garrantzi izugarria ukan dezakete merkatuan. Honela, esaterako, Errusia eta Txina nazioarteko merkatuan lur-gaiak erosten hasi dira. Erosten dituzten kantitateak hain haundiak dira, non horik merkatuan sartzek edo irteteak prezioak arras alda bait ditzake. Hona, bada, ez dago munduko merkatuan zer gertatuko den antzematerik erosle posible hauek edo sar daitezkeen beste batzuk, nola jokatuko duten jakin gabe, petrolioari eskerak lehen baino orain askoz ere modutsuago dauden Estatu Arabeak. Honela, bada, munduko merkatuaren egoera igar ezina da, zeren, nahiz eta munduko alderdi batzutan premia gorriak eta beste batzutan gainkiak izan, salerosketaz beste ekarreramanetarako mekanismorik ez egotean, laterri behartsuek ezin dute aberatsen gainkirik berengatu. Beren erosketak munduko merkatuan egiten hasi be-

rri dauden edo laster has daitezkeen laterri hauek egingo dutenaren pentzudan ere izango da nazioarteko merkatuan gertatzekoa.

Munduko mailatik Europakora jaitsirik, Mendebal Euro-
pari bakarrik ekingo diogu, hemen situaturik bait dago Ibe-
riar Penintsula. Mendebal Europan ere bereizi beharra da-
go laterri aberats aurreratuak eta Hego Europako laterri
eskasago aurreratuak; hauen artean dago Espainia.

Laterri aberats horietako nekazaritzak hiru problema na-
gusi ditu, elkarrekin herstuki lotuak: Lehena, Europako la-
terri aberatsetako nekazaritza gainezkoa da bere gaitetan,
mendebal Alemania izan ezik. Bigarren, laterri hauetako
nekazaritza artisau erako esplotazioetatik gaurko entrep-
sa gisako esplotazioetara aldatuz etorri da, inbertsio sen-
doz eta efizientzia emankor haundiz. Hirugarren, kontutan
ukan behar da gaurko hustirapen hauek, errentakor izate-
ko, tamainia handikoak izan behar dutela. Horregatik, beren
esplotazioak aldatzen hasten diren entpresari ttikiak eta
erdikoak zor handiez eta sarrera kazkarrez aurkitzen dira,
ondoez politiko eta sozial gogorra sorturik. Horregatik la-
terri hauetako nekazaritzak era batera lortu behar du ta-
mainia egokiko hustirapenak, sortzea beren jabeentzat sa-
rrera dezenteekin, eta lur-gainkiak atondu ezineko kantita-
teetaraino ez igotzea. Merkatuzko ekonomian gero eta lur
entrepesa handiagoak sortuz eta erdikoien eta ttikien desa-
gerpen gradualez bakarrik konpon daiteke hau. Baina, trans-
formazio hau, bere gisa utzirik, ez da behar bezain bizko-
rra edo ez da gertatzen hustirapenak antolamendu efikazak
bihurtzeko baldintzetan. Horregatik, mendebal Europako la-
terri aurreratuetao gobernu guztiak ahaleginetan dabilta
beren lur hustirapenen egitura hustirapen handietara alda
dadin, inbertsio gogorrez eta efizientzia tekniko handiz...
honek berriro lur-gaien gainkiak gehierazten dituelarik. La-
burki, Mendebal Europako nekazaritza oso efizientea da,
emankortasun etengabe gehikorraz eta gero eta handiago
preikusten diren gainkiez.

Behe-Europako laterriak (Turkia, Grezia, Portugal, Espainia) pobregoak dira, gutiago industrialdurik daude eta nekazaritzak garrantzi haundiagoa du ekonomiaren osotasunean, nahiz eta garrantzi hau gero eta motzagoa izan nazio-ko industrialpenaren erritmoa aurreragotzean. Laterri erdi-industrialdu hauen artean, Espainia izango da behar bada transformazio ekonomikorik azkarrena ukan duena berrogei eta hamarretik honantz: 1950ean biztanleria aktiboaren % 48,3 nekazaritzan ari zen, 1970ean, ordea, lur biztanleria osoaren % 28,5era jaitsirik zen. Zifra hau, nahiz eta laterri industrialduei buruz oraindik oso garaia izan, Espainiako ekonomiaren barruan beherapen dezentea da. Ez dago esan beharrik baserri sailaren garrantzia txikiagotze honek zer ekarri duen, halegia, laterriko biztanleria aktibo zati haundi batek masiboki lurra uztea, laterriko edo europar beste laterri batzutako industrietara jorik.

Europakoak bezala, Espainiako nekazaritzak ere, egun, hiru problema nagusi ditu: lehena baserriko produkzioa nazio-ko gustotara eta eskarira egokitu. Bigarren, gaurko teknologiarri eta produktibitate handiari dagokion neurriko esplotazio produzikorrak jarri. Hirugarren, irabazpide egoki bat eman nekazariari. Begirada batean Espainiako nekazaritzak dituen problemak, Mendebal Europako laterri aberatsentzat izendatu ditugunentzakoak dira. Baina problema motak, antzekoak izanik ere, bada horien artean argitu beharreko alde haundirik. Laterri aberatsetako nekazaritza, bere problemak eta guzti ere, Espainiako nekazaritza baino esturukturazko, teknikazko eta produkziozko maila askoz hurbilagoetan dago ia, funtzionamendu egokirako behar den mailatik. Espainiako nekazaritzak, Europako nekazaritzarekin konpetitu behar badu, are gehiago konpetitu beharko du egunen batez Espainia Merkatu Batura sartzen bada, baina haik baino askoz urrunago dago lur egitura egokietatik. Problema, beraz, tamainia askoz handiagokoa da. Espainiako nekazaritzak bere estruktura zaharra azkar baino azkarrago transformatu behar du, sektore bizi, gaurko eta efizientea eginik. Baina laterriko oraingo baldintzetan zaila

dirudi transformazio hau behar den direkzioan eta behar den azkartasunez egitea. Espainian, egun, oso zaila da baserrian geratzen diren nekazariak hustirapen arrazionalik edukitzea, batez ere Espainiako nekazaritzako minifundio sailari begiratzen badiogu. Transformazio honetarako ezinak ekarriko du —ekarriko du ia— baserri aldeko zati handi bat, sail minorizko, baina oparoa bilakatu beharrean, aurre-rapen orokorreko elementu baztertu bat bihurtzea. Gehienak zaharrak eta beste inon etorkizunik ez duten pertsonak dira, laterriko beste sektore batzutan nabari den oparotasun nahiz eta laburraren prozesotik arras bazterturik ego-teak sorrarazten duen etsipenari emanak.

Osoko ikuspegi honetan Gipuzkoako eta Bizkaiko nekazaritzara heltzen gara. Guztiz garrantzizkoa da haseratik argi uztea tankera industriadunak direla, batez ere, eta, beraz, Herrialde honetako nekazaritza, berau baldintzen eta determinatzen duen inguru industriadun horren ingurunean aztertu behar dela. Ez dago euskal nekazaritza bere ekonomiaren tankera gehienbat industrialetik aparte iker-tzerik.

Bi probintzietako nekazaritzaren egoera laterri aberatsetako nekazaritzan izendatu ditugun berezitasunen eta probintziok dauden Estatuko berezitasunen konbinazioa txit apartekoa da. Lurralde oso industriatuak dira biok. Baserri sektorearen garrantzia oso ttikia da biotan, bai sektorean enplegatutako jendez bai ateratzen den barruko ekoizpen brutoz ere. Beste Ipar Probintzietan bezala, hauen ekoizpena aberezkoa da batez ere, Europako laterri aberatsetako ekoizpen moduetatik urrago izanik, Espainiako nekazaritza laborezko eta olibazkotik baina. «Positiboak» diruditen alderdi hauen aurrez, baserriak oso ttikiak direla ikusten dugu. Irabazi urriak jabearentzat, inguruko industriak eskaintzen dizkion posibilitateen ondoan batez ere, eta beraz, baserriak erruz bertan behera uztea. Egund, Herrialdean diren lur entrepresaririk gehienak adintsuak dira eta sektorean geratzen diren gazte banakak konturaturik daude be-

ren instalazioak, antolamendua eta ekoizpen sistema sustarritik aldatu behar direla, entpresari gisa jarraitzekotan behintzat. Herrialdeko baserrien etorkizunari buruz urduritasuna eta desitxaropena besterik ez dago non-nahi. Herrialdeko gaurko egoera eta honen geroko posibilitateak aztertzea, horra lan honi ezarri zaion eginkizuna.

2. Kapituluua Lurgaien eskaria

Herrialde bateko nekazaritza baldintzapetzen duten kanpofaktoreetan, toki aparta du lur-gaien eskariak. Lur entrepresaren aurrerapena, beste entrepresa guztiena bezala, gehienbat bere gaien prezioen eta eskariaren menpe dago, eta entrepresa batean ezartzen diren ekoizpen planak haien-tzat espero diren prezioen eta eskariaren arabera alda-tuko dira. Horregatik, bada, baserri estudio batetan ezin falta, azaletik bada ere, estudioak ukitzen dituen lur-gaien eskariaren azterketarik.

Baina honez gainera, estudio honek sektorearen erdiko epeko eta epe luzeko aurrerapenari ekin behar badio, ezin

ahantzi, nahi litzatekeen eboluzioak zeren menpe egon beharko duen, halegia, aztertzen ari den Herrialdeari ondoen dagokiola uste den ekoizpeneko lur-gaien eskarirako preikusten den martxaren menpe.

Kapitulu honetan, bada, dagoen informazioa ematen da laburki, Herrialdeko gai nagusien geroko eskariari buruz.

Lur ondasunen eskariaren berezitasunak

Lur gaien eskariak apartekotasun handi bat du: jendeak, familiek, zenbat eta gehiago irabazi, ez dute janean proportzio handiagoa gastatzen, areago ondasun industrialak erostera dedikatu baizik. Familia batek, oso pobrea denean, ia bere sarrera osoak janera dedikatzen ditu, baina sarrerak gehitu ahala, *proporzio* txikiagoa dedikatzen da janera, eta beste gai batzuren erosketa gehitzen. Honen arrazoina ez da besterik, behin halako jan-maila batetara heldutakoan, ez dagoela *gehiago* jaterik, *hobeki* jatera jotzen dela baino. Baliteke garbantzuak gabe xerra jatea, edo gurina marginariaren orde, baina janean gastatzen den sarrera osoaren proportzioa, egunean baino egunean apalagoa da.

Gertaera honek, bi ondorio ditu: bata biztanleriaren bizi-maila goratu ahala janeko gastua ez dela proportzioz handitzen, eta bia, erosten diren jan-gaiak ere aldatu egiten direla, eskariak kalitate hobeko gaietara jorik. Gurin, gazta okela, fruitu, ortuari eta honelako gaien eskaria gorantz doa eta beherantz ogi, patata, lekadun idor etab.ena.

Mugimendu hau indartsua izan da laterri aurreratu guztietan, eta azken urteotan Espainian ere bai, hazkuntza ekonomikoa handia ukan bait du. Janean gastatzen den sarrera proportzioa oraindik handia izan arren, txikitzen ari da, eta jan-ohituretan aldakuntza gogorra nabari da: esnegai, okela, fruitu eta ortuarien eskaria handituz doa, gai «bete-garriak» orde, gutituz, hala fekulak, ogia eta baita ardo arruntak ere. Gipuzkoa eta Bizkaia izanik Estatuko sarrerarik gorendun alderdietariko bat, joera hau Herrialde hone-

tan bereziki nabarmena izango da. Esaterako, 1964-65eko Famili Presupostuen Inkestari jarraikiz, Gipuzkoa da, pertsonako, abelgorrikirik gehien jaten duen probintzia; Bizkaia eta Gipuzkoa, berriz, esne freskorik gehien hartzen duten hirugarrena eta laugarrena, pertsonako hau ere. Inkesta berean ikusten da baita famili sarrerak 10.000tik 50.000 pezetatara igon ahala, okela kontsumuko gastu proportzioa % 12,1etik % 31,1era handitzen dela etab. Hau da, eskariaren aurrerapena jan-gastuaren proportzio konstante edo txikikorraren barruan sar daiteke, eta erosten diren gaietan kalitate hobeko gaietarantz jotzen da, hala Espainiako Estatu osoan nola batez ere aztertzen ari garen bi probintzietan.

Eskariaren joerak

Munduko egoera

Lur-gaien eskariaren munduko egoera aurreko kapituluan komentatu genuen; zenbait laterritako nekazaritzaren egoeratik datorrena da. Munduak, guztira, jan-gaien mentsa du eta ments hori, gerora handitu egingo dela, uste da. Erosi ahal izango diren janariak bakarrik —eskari efektiboa— eta ez benetan beharrezko direnak kontuan hartuta ere, FAOk jotzen du 1985ean laterri pobreek % 80 ian-horniketa handiagoa beharko dutela, oraingo elika-mailari berrari eusteko. Herrialde horietan biztanleriaren irabaziak handituko balira, eskariak are gehiago handituko lirateke. Bestalde laterri horietako ekoizpenaren handitzea urtean % 2,7 izango dela jotzen da eta honela ekoizpena % 84 bakarrik handituko da 1985 arte, eskaria ordea % 142 handituko da. Eta kontutan ukan munduko biztanleriarik gehiena laterri pobreak direla. Honek esan nahi du, laterri pobreek 1985ean 26.000 milioi dolarretako janari pila inportatu beharko luketela, 1962an inportatzen zuten 2.000 milioiren orde. Baina nondik atera lur-gaien kantitate hau? Geroago ikusiko dugu laterri aberatsek kantitate batzu hornitu ahal di-

tuztela, baina gai batzutan ments handiak agertuko dira. Jeneralean, mundu mailan, janari mailak hobetu gabe ere, lur-gaien eskariaren gorakada izugarria preikusten da.

Baina mundu mailan ere, ez uste, eskaria gai guztietan berdina izango denik. Janari beharrezkoak ez dira hauen eskari efektiboari dagozkionak, biztanleriak erosteko modurik ez badu; kasu honetan premiak hornitzeko geratzen dira.

Berriro ere, FAOri jarraituz, labore eskaria urtean % 3,1 handituko dela jotzen da, okela, arrain eta arraultze eskaria, ordea, urtean % 5,6. Hona, ordea, produkzioaren joerak kontrakoak direla zeren, 1971n esaterako, munduko okela ekoizpena eskariaren azpitik zebilen, eta 1972an abelgorri larriaren eskasia handia izan zen Mendebal Europan eta batez ere Europar Elkarte Ekonomikoan.

Honela, bada, janarien munduko eskaria asko handitu da, eta eskari honek ia gai guztiak harrapatu baditu ere, abere gaietan askoz handiagoa izango da. Ez dakigu munduko eskari hau, prezioei gorantz sakatuz gainera, noraino transmititu ahal izango den gure Herrialdeko mailetara. Probabilitate gutxi dago, horrek gure inguruko lur eta abere gairik aurrenen eskarian eragin zuzenkorik ukan dezan, baina bai oso litekeena da eragin handia edukitzea bi alde zeharkakotatik: a) abereei emateko inportatu behar diren bihien prezioen gorakada; honek nekazariei oker handia lekarkieke; b) gaien prezioen gorakada, eta beharbada Herrialdeko nekazaritzako gaiez gaur konpetitzen ari direnak inportatu ezina, eta honek hemengo nekazarien egoera hobetu egingo luke. Ez dago antzematerik bi joera hauetatik zein izango den indartsuagoa.

Europa

Mundu mailatik, Europako ekonomietara jaitsirik, bi joera hauk ditugu: Mendebal Europako laterririk gehienak hartzen dituen Kooperazio eta Aurrerapen Ekonomikorako Antolamenduko laterrientzat (KAEA = OCDE gaztelaniaz)

lur ekoizpenaren handitze bizia sumatzen da. Laterri aberatsetan, ordea, buruko jan kontsumua halako mailara helduta dago, non handik gorako kantitate kontsumatuen handitzea oso laburra bait da. Beraz,

«Oso zalantzakoa da, KAEAREN barruan gaien irteerak nekazaritzako ekoizpen ahalezko guztia hartu ahal izateko aina hazitzea. Behe Europako zenbait laterritan, besterik gertatzen da: zenbait gairen kontsumuak gorakada handia egin lezake oraindik. Baina lehenengo laterri taldeko eboluzioak, bigarren honetakoak baino garrantzi handiagoa du, eta badirudi, KAEA aldeak esportazio netoen ahalmen gehikorra edukiko duela, beste laterri batzutara destinatzeko» *.

Beste hitz batzutan, Mendebal Europak, osoan, lur-gainki handiak ditu. Teoriaz laterri pobreak berenganatzekoak izanik ere, praktikan ez da hain erraza traspaso hau gertatzea, eta, beraz, probable da, Europako laterrietako nekazaritzek produkzio gainkien arazo astunari aurrea eman beharko diotela. Hau oso garrantzizkoa da gure laterriko nekazaritzaren geroaz pentsatzean, zeren oso zail ikusten bait da lur-gaien prezioen gorakada handirik etortzea, Europako ekoizpenean, gai batzutan behintzat, gainki haundiak lehendik badaude, Espainiak barruko ekoizpena baino prezio merkeagoan erosteko modukoak.

Baina gai guztiak ez daude egoera berdinean laterri aberatsetan. Oso probable da, okela eta zenbait esnegairen kontsumua handitzea. Okeletan lehentasunak abelgorrirako badira ere, honen kontsumua handitzea bere prezioaren pentzutan dago, eta hau ia oso goitik dabil. Esne gaietan, handitze nagusia gaztak du, esne freskoaren eta gurinaren kontsumua, ordea, oso probable da txikitzea edo konstante irautea. KAEAKO laterri guztiak batera harturik, hala 1975-erako nola 1985-erako gai guztien ekoizpen gainkiak preikusten dira abelgorrikian izan ezik, eta hau beste laterri batzutatik inportatu beharko.

(*) KAEA, *Projections agricoles pour 1975 et 1985*. Paris 1968.

Gure Herrialdeak ekoizten dituen gai nagusiak kontutan hartuz gero, ekoizpena ia gainezkoa dela ikusten da esne-gaietan; abelgorrikian ordea, hartzeko ahalmen arretagarria ikusten zaio. Honek esan nahi du, ez dagoela Europa esne eta esnekien merkatu posibletzat jotzerik, aitzitik ordea, Europako gainkiek Herrialdean lehiaketa gogorra egin dezakete. Abelgorrikiak ordea, merkatu dezentea topa lezake Mendebal Europako laterri aurreratuetan. Eskariaren joerei begiraturik, beraz, okela ekoizpena handitzea egoki dirudi, gaur garrantzi haundiagoa duen esne ekoizpenaren bizkarretik. Guztian, jakina, iragarpen hauk baliozkoak diren neurrian, zeren, esan dugun bezala, nazioarteko merkatu baldintzak agudo alda baitaitezke. Bestalde, gaiaren prezio aldakuntzek eskarian ukan dezaketen eragina ere kontutan ukan beharrekoa da, zeren, gai baten prezioak hura ordeztu dezaketenak baino gehiago igotzen badu, oso posible da haren eskaria gutitzea gai merkeagoen onez. Honela, esaterako, abelgorrikiaren eskaria Espainian ez dela handitzen ikusten da, okela mota honen prezioak oso goitik dabiltzalako. Kontsumatzaileak beste okela mota merkeago batzutarara jotzen du, hegaztikira eta zerrikira. «España Agraria» aldizkariak, adibidez, hauxe dio 1972ko otsailean: «Laster okelaz autohornituko gara, produkzionik handitu gabe. Kontsumua gutitu eta kito». Halaber «El Campo»k hauxe dio 1975eko maiatz-ekainerako: «Kasik abere sail guztietan (idiki, ardiki, zerriki eta hegaztikietan), kontsumurako eskariak atzerapen jenerala egin du gehienbat...».

Predikzio guztien aldetik mentsezko kantitateetan lego-keen okelak, beraz, eskari apala du, bere prezio garaiaगतिक. Horregatik lur-gaien eskariari buruz egiten diren predikzio guztiak oso kontuz erabili beharrekoak dira.

Espainia

Azter dezagun ondoren zehazkiago Espainiarako preikusten den eskaria:

Espainian janera dedikatzen diren gastuen zatia txikia-

gotzen ari da, nahiz eta Europako laterri aurreratuen aldean oraindik handia izan. Laterri aurreratuetoako jan-mailetatik nahiko urrun gaude oraindik, zenbait gaitan batez ere... Honela 1966-67 bitartean Frantzia laguneko eta eguneko 59,3 abere proteina, eta Estatu Batuetan 65 kontsumatzen ziren bitartean, Espainian 31 bakarrik kontsumatzen ziren. Honek esan nahi du famili sarrerak handitu ahala, janaren kalitatea hobetu egingo dela, edo berdin dena, gai batzuren eskaria handitu egingo dela, kalitate apalagoko beste batzuren bizkarretik. Prozesu hau gertatzen ari da ia azken urteotan. Adibidez, 1953-54 urteetako kontsumua 100 dela joaz gero, 1964-67 urteetako kontsumua ondorengo kuadrak adierazten duena da, lehen gaitan.

2.1. *Kuadrak.—Janari sailik aurrenaren kontsumuaren eboluzioa*

Gaia	1953-54etako kontsumu indizea=100	
	1964/65	1966/67
Laborea	94	
Patatak	99	
Lekadunak	109	
Okela	204	
Arraultzeak	210	
Esnea	114	
Ardoa	146	

Garbi agiri da jana hobetu egin dela eta gairik proteina-suenak, batez ere aberekoak, direla kontsumuan gorakadatik handiena izan dutenak. Ikus nola esne kontsumuaren handitzea ttikia den, okela eta arraultze kontsumuaren gorakada askoz handiagoa delarik. Era batetara fekula tan-kerako janarien kontsumua txikiagotu egin da. Zalantzarik ere ez, joera hauek berdin jarraituko dutela Espainiar familien sarrerak handitu ahala, zeren aipatu dugun okela kontsumuaren gorakada eta guzti ere, Espainia, 1965ean,

laguneko okelarik gutien kontsumatzen zen Europako laterrietarik bat bait zen, KAEAtik (OCDE) hartutako hurrengo laukiak adierazten duenez:

2.2. *Kuadrua.—Okela kontsumua Europako laterririk aurrenetan 1965ean.*

Laterria	kiloak laguneko
Frantzia	84
Ingalaterra	69
Alemania	66
Grezia	37
Italia	35
Espainia	28
Iugoeslabia	27
Portugal	22

Nekazaritzako Ministergoak urteko okela kontsumuan 1966an *, 35 kilotako zifra ematen badu ere, eta 1965etik 1975era egoera hobetu bada ere, ez dago zalantzarik okela kontsumua handitzeko ahalbide handia dagoela oraindik, Europako laterri aberatsen mailetara hurbiltzeko.

1966an FAOk (Nekazaritza eta Janerako Nazio Batuen Erakundea) eta Munduko Bankuek txosten bat egin zuten Espainiako nekazaritzari buruz; eta bertan ematen zen jangairik aurrenen eskariaren erizpide bat 1975erako. Erizpide horien arabera, 1964etik 1975era, gairik aurrenen eskaria hurrengo kuadruko zifren arabera handituko zela preikusten zen:

(*) Zaila da datuen diferentzia hau onartzea, urtebeteren barruan bakarrik.

2.3. *Kuadrua.*—Lur gairik aurrenen eskarian preikusten ziren handitzeak.

Gaia	Handitzearen portzentaia eskarian, 12 urtetan
Garia	— 10
Patatak	0
Barazkiak	28
Fruituak	30
Behikiak eta txahalkiak	75
Bildotsa	60
Zerriak	50
Hegaztikia	75
Esnea	60

Hona berriro ere, janari «apalagoen» —ogiaren eta pataten— eskaria beherantz ari dela eta kalitate hobeko gaiena gorantz.

Baina, eskariaren begirapena erdizka geratzen da, ekoizteko ahalmenez konparatu ezik, behintzat: oso desberdina da eskari gehikor bat ekoizteko ahalmen sendoago batez aurkitzea, Europako kasua den bezala, edo ekoizteko ahalmen kazkar batez topo egitea. Espainiarako, 1975 eta 1985-erako, preikusten diren eskari eta ekoizpen handitzeak alderaturik, FAOko datuen arabera, ekoizpena ez litzateke aski 1975eko kontsumua hornitzeko. Gai guztiak inportatu beharra legoke, zerriak, hegaztiak, arraultzeak eta ogitarako laboreak izan ezik. KAEAREN ustez 1985erako, kantitate handiak inportatu beharko dira abereen janaritako laboretan eta abelgorri okeletan, baita esnetan ere zerbait. 3. kapituluaz aztertuko ditugu lur inportazioak, baina oraindixe esan dezakegu, aipatu berri ditugun prebisioetatik, zera ateratzen dela, halegia, gure Herrialderako garrantzitsuenak diren gaien Espainiako ekoizpenak —esnea eta okela— ezin izango duela eskari preikusia hornitu. Areago oraindik, gauza jakina da, FAOK preikusi ez bazuen ere, 1975ean ze-

rrikia, hegaztikiak eta arraultzeak inportatu direla. Honek esan nahi du, gai horik hartzeko ahalmen handia dagoela nazioko eskaria asetzeko.

Bestalde, konproba daiteke 1975eko Espainiako lur ekoizpena, jeneralean, FAOk eta KAEAk garai horretarako iragartzen zutena baino nahiko handiagoa izan dela *. Esaterako, FAOk 1962-64 urteetatik gora iragartzen zuen idiki ekoizpenaren handitzea % 86 zen, eta KAEAk % 35, benetako ekoizpenaren handitzea % 94,3 izanik. Hegaztikian FAOk % 75 iragartzen zuen eta KAEAk % 143, benetako handitzea % 211,4 izanik, etab. Zerriki eta hegaztikien inportazioak ere —preikusit gabeak, hain zuzen— handiak izan dira, idikiaren inportazioak programatuak baino ttikiagoak izan badira ere. Guzti honek esan nahi du, 1975eko okela kontsumua, aipaturiko erakunde internazionalak uste zuten baino askoz handiagoa izan dela, bai sarrerak uste baino azkarrago handitu direlako, bai urtero Espainia bisitatzen duten milioi turisten eraginagatik, edo beste arrazoinen bategatik. Ikusten dena da, ekoizpena uste zen baino gehiago handitu bada ere, kontsumua askoz gehiago igon dela.

Nahiz eta gero ere honelaxe izango dela ezin baieztatu, Espainiako eta Europako eskariaren joerak ikusita, atera daiteke gure Herrialdeko gai nagusientzat ekoizpena han-

(*) Desfase arretagarri bat dago okela ekoizpenaren gehikuntza-
ren eta abelteriaren gehikuntzaren artean urte beretan:

Abere ekoizpenaren eta abelteriaren gehikuntza 1961etik 1975era.
Portzentaiak.

	Idikia	Zerriki	Hegaztiak
Okela ekoizpenaren handitzea	94,3	91,7	211,4
Abelteriaren gehikuntza	17,3	35	19,5 (oilok)

Eboluzioek arras berdinak izan beharrik ez badute ere, ez dago zalantzarik, elkarren artean zerikusit heretua dagoela —gutxiago oiloen kasuan—. Horregatik hain desberdintasun handiak nekez onartzekoak dira. Estatistiken «misterioak»...

ditzeko arlo zabala dagoela, batez ere abelkian. Hala, abelkiaren prezioen eboluzioari ongi begiratu beharko zaio, prezioen gehitzeak eskaria ito ez dezan. Laburturik: esnearen eskari preikusia apur bat gehitu egingo da Espainian, gai honentzat Europako gailkien konpetentzia gogorrez; abelki ekoizpena handitzeko ahalbide handia dago bai Espainiako bai Europako merkaturako, gai honen esportazioak antolatzerik baldin bada.

Baso galak

Eskariaren azterketa hau baso gaien begiraldi batez osatuko dugu laburki, gure Herrialdean baso ekoizpenak gero eta garrantzi handiagoa bait du.

1972an Espainiak bi milioi tonatik gora baso gai inportatu zuen, esportazioak ia hutsak izanik. Argi dago, bada, Espainia zur gaitan oso menstun dela. Guzti horretatik, zur koniferoei dagozkienak —gure Herrialdean gehien ekoizten den arbola mota— 4.611.785 tona dira, eta milioi erdi tona inportatzen da zur ore, paper eta kartoitan, beste mota batzutatik datorrena. Badirudi, bada, Herrialdean gehien dagoen zur gaiarentzat Espainiako merkatuak badiela hartzeko ahalmena. Gainera, gaurko munduko eboluzioak, plastiken konpetentzia eta guzti ere, paper eta kartoi kontsumu handikorra ematen du, baita zurean ere, eta hortik esan daiteke Herrialdeko baso gaiek geroan eskari zabala ukan dutela, nahiz eta entrepresa pinu erosleen estrukturagatik, ahalezko eskari horrek beti ez eman gai horrenztako prezio egoki eta iraunkorrik.

Herrialdeko berri

Herrialdeari buruz bereziki esatekorik ia ez dago, ez bait dago eskariaren daturik, Espainiako Estatu osorako izan ezik. Alderdi hauexek jo daitezke bakarrik:

Lehena: Herrialdeak bere lur eta abere ekoizpen guztia kontsumatzen du, penintsulako beste herrialde batzutara esportatzen diren sagardo eta txakolin apur bat izan ezik.

Bigarrena: Herrialdea, bere ekoizpen osoa irentsi ez ezik, lur gaietan menstuna da eta ezin ditu bere ekoizpenez jan premia guztiak hornitu. Segur asko, esne eta hegazti ekoizpenean bakarrik hornitzen dira premiak barruko ekoizpenaz. Abere larriaren okelari buruz ere, Herrialdea menstuna da, nahiz eta Espainiako Estatuko ekoizpen osotik % 15 ekoiztu. Honek esan nahi du, Espainiako beste probintzien aldean okela asko jaten dela hemen. Gipuzkoako hilean 700.000 kilo inguru okela, bere mota desberdinetan, inportatzen duela jo daiteke, eta Bizkaiak ere zerriki hutsetan —datuak ditugun mota bakarra— hilean 450.000 kilo inguru ekartzen ditu beste probintzietatik. Hau da, bi probintziok, beren ekoizpen osoa irentsiz gainera, lur gaien erosle oso garrantzitsuak dira Estatuarentzat.

Hirugarrena: Jan-gaien kontsumu maila, lehendik oso handia denez gero, ez da probable lagun bakoitzeko kontsumatzen diren lur gaiak asko gehitzea. Bai dela, ordea, oso posible kantitatez ez dena kalitatez izatea. Errentaren banaketa ere ez da berdina Herrialdean, eta oraindik familia mordo handiak daude, sarrera gizenagoak ukanez gero, beren jana asko hobetuko luketenak. Hemendik, bada, oso probable da, Herrialdeko aurrerapenak jarraitzen badu, kalitate hobeko jan-gaientzat eskari handikorra egotea, hau da, esnekiak, barazkiak eta abelkia. Gai hauek ia Herrialdeko abere-lur ekoizpen osoa egiten dutenez gero, gaur base-rietan ekoizten diren gaientzat eskari perspektiba onak ikusten direla esan daiteke, batez ere abelkian. Geroa gakotsuen jarri zaion gaia esnea da zalantzarik gabe, ekoizpena asko handitzen bada, kontuak egongo bait dira hura irensteko.

Joera jeneralak laburki bildurik, hala munduko nola Europako, Espainiako eta Herrialdeko bertoko mailan, esan daiteke gai proteinatsuen eta batez ere abelkien eskaria gorantz joango dela. Esne eskaria Europako eta Espainiako ekoizpena baino gutiago handituko dela dirudi, eta barazki-ena gorantz joango dela uste da, baina eskari handitze

hau aisa hornitu ahal izango da preikusten diren ekoizpen handitzeaz. Eskariaren joerek, beraz, bi alderdi seinalatzen dituzte garbi:

a) Herrialdeak, abere kontuan, perspektiba onak dituela gerora.

b) Esnegintza handitu beharrean, okela ekoizpena bultzatu behar litzatekeela.

Azkenez, arretazko alderdi bat ukitu behar dugu abelgintzarako behar diren lehen-gaiei buruz. Herrialdeak ez du pentsurik ekoizten eta den dena beste herrialde eta laterri batzutatik ekarri behar. Honek esan nahi du abere espezializazioa handitu ahala, herrialdearen dependentsia ere handituz doala gainerako Espainiatik eta nazioarteko merkatuko beste laterri batzutatik. Oso garrantzizkoa da, beraz, transmisio sistema egoki bat badela segurtatzea, trasbase guttuz derrigorrezko hau, problemarik gabe gerta dadin.

Kapitulu honetan ez goaz Espainiako lur politikaren azalpen orokorrik egitera. Gobernuak ezarritako neurri betzuren, herrialde honetako nekazaritzari bizirik utzitzen dioten, etorketa ebaluatibo bat egitera balizik. Lur enpresariaren erakiletan eragina duten siententziak eta neurriak eraginak dituzte, bidez ere, eta eragin hori nola agertzen den praktikan.

Baserri sektoreari dagokion politika ekonomikoko neurri hobeak neurriren artean, honek gure ustek herrialdearentzat garrantzirik handiena utzi dute:

Herriaren ondoan dauden hainbat sektorek, hala nola,
 nekazaritza, merkaderia, abeltzaintza eta besteak,
 horien artean, garrantzi handia duenak dira.
 Horiek, beraz, Herriaren ondoan dauden sektore
 garrantzitsuenak dira.

Herriaren ondoan dauden sektore garrantzitsuenak
 dira, nekazaritza, merkaderia, abeltzaintza eta
 besteak. Horiek, beraz, Herriaren ondoan dauden
 sektore garrantzitsuenak dira.

Herriaren ondoan dauden sektore garrantzitsuenak
 dira, nekazaritza, merkaderia, abeltzaintza eta
 besteak. Horiek, beraz, Herriaren ondoan dauden
 sektore garrantzitsuenak dira.

Herriaren ondoan dauden sektore garrantzitsuenak
 dira, nekazaritza, merkaderia, abeltzaintza eta
 besteak. Horiek, beraz, Herriaren ondoan dauden
 sektore garrantzitsuenak dira.

Herriaren ondoan dauden sektore garrantzitsuenak
 dira, nekazaritza, merkaderia, abeltzaintza eta
 besteak. Horiek, beraz, Herriaren ondoan dauden
 sektore garrantzitsuenak dira.

Herriaren ondoan dauden sektore garrantzitsuenak
 dira, nekazaritza, merkaderia, abeltzaintza eta
 besteak. Horiek, beraz, Herriaren ondoan dauden
 sektore garrantzitsuenak dira.

Herriaren ondoan dauden sektore garrantzitsuenak
 dira, nekazaritza, merkaderia, abeltzaintza eta
 besteak. Horiek, beraz, Herriaren ondoan dauden
 sektore garrantzitsuenak dira.

Herriaren ondoan dauden sektore garrantzitsuenak
 dira, nekazaritza, merkaderia, abeltzaintza eta
 besteak. Horiek, beraz, Herriaren ondoan dauden
 sektore garrantzitsuenak dira.

Jorja Jeneralek jakurki bildurik, hainbat neurri
 Europako, Espainiako eta Herrialdako bertoko
 mailan, ean daitteke guri proiektuak eta baita
 ere abeltzaintza eskaria gorantz joango dela.
 Eane eskaria Europako eta Espainiako
 ekarpena baino gutxiago handituko dela dirudi;
 eta baratzkiak gorantz joango dela uste da,
 baina eskaria hantitze

3. Kapituluua Lur politika

Kapitulu honetan ez goaz Espainiako lur politikaren estudio osorik egitera, Gobernuak ezarritako neurri batzuren, Herrialde honetako nekazaritzari bizikien ukitzen diotenen, azterketa ebaluatibo bat egitera baizik. Lur entrepresarien erabakietan eragina duten elementuei eta neurriel ekingo diegu, batez ere, eta eragin hori nola agertzen den praktikan.

Baserri sektoreari dagozkion politika ekonomikoko hainbeste neurriren artean, hona gure ustez Herrialderako gaarrantzirik handiena ukan dutenak:

- 1.—Esne merkatuaren arauketa.
- 2.—Okela kanpainaren arauketa.
- 3.—Ekintza Batuko eta Abere aurrerapeneko programak.
- 4.—Labore politika.

Hona orain beste elementu batzu, praktikan garrantzi txikiagoa ukan arren, eduki behar luketenak: esplotazioen eboluzio egiturei dagozkien programak, Lur berrikuntza eta Desarroiloko Legean batez ere bilduak, baita ekoizpen kooperatibei sakadak ere. Azkenez, Herrialdeko nekazaritzan garrantzi handiko alderdi bezala, nahiz eta izatez baserri politikako zatia ez izan, lur gaien inportazio kontuari ere ekingo diogu.

Esne merkatuaren arauketa

Hauxe da baserri saileko entresarientzat neurririk zaharrenetarikoa eta ezagunenetarikoa. Gauza jakina da esnea kalean kontsumatzaileari zuzenki saltzea debekaturik egotean, ekoizpenik handiena inguruan ari diren Esnetxeek eramaten dutela eta Esnetxeok Esne Kanpainako Arauketa Dekretoek ezarritako prezioetan erosten dutela. Inoiz esnetxeren batek, hobari gisa etab., Arauketan izendatua baino prezio handixeagoa ordaindu izan du, baina gehienez, diferentziarik badago ere, oso ttikia izan da. Esan daiteke, beraz, inguruko gairik garrantzitsuenaren prezioa Administrazioak jartzen duela. Zeharka publikoaren salmenta zuzeneko prezioa ere jartzen du, zeren hau ere, nahiz eta Arauketakoa baino nahiko haundiagoa izan, Esnetxeentzat jarritako prezioaren eraginpean bait datza. Arauketako prezioak igotzen badu, herrietako azoka librean ere esnearen salmenta prezioak igo egiten du.

1975eko Arauketa arte, prezioak desberdinak ziren penintsulako zona desberdinetarako. 1975eko Esne Kanpainako Arauketan, ordea, diferentzia hauk kentzen dira eta esnearen prezioa litroko 12 edo 13 pezetatan —ikusirik behar zein utearo— jarri, prezioa Estatu guztirako berdina izanik.

Ez dago esan beharrik, ezarritako prezio minimoen ezas-kitasunak nolako problemak dakartzan eta zeinen protesta amorratuak baserriarren aldetik. Eztabaida honetan orain sartu gabe, bai nabarmendu behar da, esnearen komertzial-mendu sistemak, jarrita dagoen bezala, nolako garrantzia eta eragin positiboa ukan duen. Prezio jakina egotea izan da, eta da, esne guztia hartzea segurtatzen duten esnetxee-kin batera esne ekoizpena gehien bultzatu duen elemen-tuetariko bat. Ez legoke Herrialdeko oraingo ekoizpen mai-lak inola ere irensterik salmenta zuzeneko hutsez. Sistema honen abantailak galdu egin daitezke, esnetxeek, ekoizpe-na handitzeagatik, eskaintzen zaien esne guztia hartzen ez badute. Baina, etxeok ekoizpen osoa hartzen duten bitar-tean, eta esnearen prezio merke eta guzti ere, esan daiteke prezio jakin batzu izatea eta merkatuko segurantzaz izan di-rela esnegintzaren gorakada handiaren eta baserriak es-nean espezialtzearren arrazoinetarik bat. 10. kapituluan, ko-mertzialmenduari dagokion atalean, zehazkiago ekingo diogu alderdi honi, eta gai honen ardura duen irakurleak, jo beza hara.

Okela kanpainaren arauketa

Garantiazko prezioak

Esneaz ez bezala, 1964rarte ez zen okela merkatuaren arauketarik hasi. Urte hartan zerrikiarentzat garanti siste-ma jarri zen, geroago beste okela motetara zabaldurik.

Funtsean, sistema hauxe da: FORPAk CATen bitartez abere kanaleak erosten ditu, hauen prezioak, «lekukotzat» jotako hiltegiatan, «beheko interbentziokoak» deritzaten prezio minimoen azpitik dabiltzanean. Erosketak «garantiaz-ko prezioak» deitzen zaien horietan egiten dira, beheko interbentzioko prezioen azpitik beti. Era berean merkatuko prezioak «goiko interbentziokoen» goitik dabiltzanean, CAT-ek hornituko ditu arauketako okela izoztuan egiten zaizkion eskari guztiak. Sistema, beraz, okelari prezio zerrenda bat

jartzea da. Zerrenda horren barruan prezioa libreki dabilke, baina ez zaio uzten okelarentzat jarritako goi-beheak pasatzen.

3.1. kuadruan biltzen ditugu bi azken kanpainetako garranti prezioak eta horien arteko aldeak.

3.1. kuadrua.—Okela kanpaina.

Mota bakoitzeko gai ereduarentzat jarritako prezioak (kiloko pezetak kanalean)				
Mota	Nolako prezioa	1974	1975	% diferentzia
Idikia	Garantia	118	126	6,78
	Beheko interbentzioa	122	130	6,56
	Adierazlea	127	135	6,30
	Goiko interbentzioa	132	140	6,06
Zerrikia	Garantia	64,5	69	6,98
	Beheko interbentzioa	68	72	5,88
	Adierazlea	73	76	4,11
	Goiko interbentzioa	77	81	5,19
Ardikia	Beheko interbentzioa	120	132	10,00
	Adierazlea	135	145	7,40
	Goiko interbentzioa	145	155	6,90

Iturria: «BANCA MAS SARDA»-ko Ikasketa Zerbitzua, **Estatuko Boletin Ofizialeko** datuez.

Sistema honek, berez, okela ekoizpenari ere esne ekoizpenean gertatzen dela esan dugunaren antzeko sakada eman behar lioke. Baina bi eskemen artean, bada diferentziarik, alderdi garrantzitsuetan, eta hauexek direla dirudi okela kanpainaren arauketak ekoizpenik ez handitzeko arrazoinak. Alderdiok komertzialmendu sistemei ekitean —10. kapitulu— komentatuko ditugu luzeago, baina oraindixe aurrera ditzakegu diferentziarik handienak:

—Esnearen kasuan ekoizpenik handiena esnetxeek daramate. Okelean, ordea, garantiatzko prezioak merkatuko prezioa «normaletik» nahiko behera jaitsitakoan bakarrik jotzen du. Esnean Arauketaren prezioa bera da «normala», okelean ordea, garantiatzko prezioa gauzak oso gaizki doazenerako salbamena besterik ez da. Garantiatzko prezioa beheko interbentziokoa baino beherago jartzean, ondorio hau are zorrotzagotzen da.

—Garantiatzko prezioen nibela oso apala da. Abeltzainarentzat normaltzat eta beharrezkotzat jotzen den prezioetik urruti dago. Merkatuko prezio normaletan ere okela ekoizpena emankortasun motzeko lana bada, aurrerago demostratuko dugunez, nibel horretatik askoz beheragoko garanti prezioez ez dago okela ekoizpenerako inolako pozik.

—Esnetxeek lan sistema erraza muntaturik dute, egunero saltzaileen etxeetan esnea bildurik. Okelaren kasuan, ordea, prozedimendu burokratiko luzea behar da eta gainera «Entitate laguntzaileak hiltzeko kapaz diren kopuruz eta erritmoz» erosten da aberea. Sistema hau, beraz, oztopo gogorra da baserriar ttikientzat. Hona, ordea, berauk direla laterriko okelarik gehien ekoizten dutenak, zeren, nazioko % 76,8 baserri sei behi txahalgiletatik behera bait dabilta eta % 15,6etatik 10 behitara bitartean. Honek esan nahi du, laterriko % 92 baserrik 10 behi txahalgiletatik behera dute-la. Garantiatzko prezioen funtzionamendu sistema hauentzat egokia ez bada, nekez ukanen du eragin positiborik ekoizpenean.

—Esan dezagun gainera sistemak ez duela era automatikoz iharduten, merkatuko prezioa interbentziokoaren azpitik dabilenean, baizik FORPAren erabaki berezi bat behar dela erosten hasteko. Honek atzerakuntza handiak ekarri ditu sistemaren ihardunean. «La Gaceta Rural»en bilduriko kexa batetan, esaterako, agiri da nola Salamancan 1974eko maiatzaren azkenetan salatu zen merkatuaren hondamendia; FORPAk, ordea, Abendura arte ez zuen ezer egin. Atzerakun-

tza hauk sarri gertatuz gero, ez da zalantzarik, sistemaren balio guztia praktikan hankaz gora doala.

—Baita esan daiteke, programa hau ezagutu ere ez dela ondo ezagutzen. Herrialdean kontsultaturiko ezein baserritarrek ez du holakorik aipatu. Ondoren aipatuko ditugun garantiako hobarien berri, ordea, ondo zekiten abeltzain guztiek. Honek susma erazten digu ez dela jakin eza, beste gabe, garantiako sistemaren efizientziarik eza baino, euskaldun baserritarrek sistema hori ez ezagutzeko arrazoina. Nolanahi, publizitate ahalegin haundi baten bidez, ezagutzen ez duten baserritarrek jakin dezakete programa horren berri. Baina —berriro diogu—, publizitate ahalegin hau alfer-alferrekoa litzateke, Arauketa programaren funtzionamendua hobetu ezik.

Ekoizpenari hobariak

Garantiazko prezioekin batera, hobari bultzagarriak jarri dira okela ekoizpenerako. Lehenez abelgorriari bakarrik ematen zitzaizkion, kanaleko pisutik, baina orain goiz-bildotsei ere ematen zaizkie eta umegileen zentsoaren egokimendurako hobariak ere erantsi dira, 1975eko ekaineko Arauketa Dekretoak dakarrenez.

Abelgorrientzako hobari bultzagarriak bigarren hortzaldia osatu orduko honenbestetik gorako pisua zuten zekorrei ematen zitzaizkienak ziren. 1975 arte, hobaria kanaleko kiloko 3 pezeta zen kanalean 175 kiloko abereentzat, 6 pezeta 210 kilotatik gorakoentzat eta 9 pezeta 250 kilotatik gora. Aurten hobari bakarra jarri da, kanaleko kiloko 8 pezeta kanalean 220 kilo pisuko zekorrentzat. Hobari sistema hau oso ezaguna zuten euskaldun baserritar guztiek. Eta uste dugu pisu handiagoko abereak hazten nahikoa lagundu duela, nahiz eta hiru oztopo haundi izan sistemaren efizientzia laburtzen dutenak.

—Lehenik, hobari hau ez dela hiltegi ttikietan ematen.

—Bigarrenik, bigantzentzat ez dela ematen. Hau bidezkoa da nazioko abelteria gehitu nahi bada, baina nola kasu

askotan bigantxak ere hiltzeko diren, azken ondorioa da abeltzainari irabazia erdira datorkiola, gehienez etxean jaiotako txahalez hornitzen baita (ordotz-urruxak guti gora behera % 50-50 proportzian jaiotzen dira). Beraz hobaria erdiei bakarrik emateak ekoizpen osoaren errentakortasuna laburtu egiten du.

—Hirugarrenik, eta beharbada hobari sistema honen martxarako gako nagusia Herrialdean zera da, hategia, harrakinek abere ttikia astuna baino gehiago baloratzen dutenez gero, hobaria «beheratu» egiten dutela beren eskaintza prezioetan, abere hobaridunengatik gutiago eskainirik pisu txikiagokoengatik baino. Honela hobariaren abantailak hutsan geratzen dira, abere nagusien azken prezioa ez baita txahal ttikiena baino handiagoa. Ez da egiteko erraza, baina bai garrantzi handikoa, abere produkzioaren alde erabiltzen den dirua efizientziaz erabiltzea.

Ekintza batuko eta abere desarroiloko programak

Ekintza batua

Ekintza Batuko programa Administrazioaren ahalegin bat da, abere ekoizpeneko baldintzak bultzatzeko eta hobetzeko, esplotazio haundiago eta modernoagoetan. Programa hau 1964eko irailean jarri zen lehenez. Bertan, halako laguntza batzu jartzen ziren urtean 30 abelgorri buru okelarako, 20 hilabetetik beherakoak eta 350 kilotatik gorakoak bizi-pisuan, haztera eta saltzera konprometitzen zirenentzat. 30 burutako zifra honek Ipar Espainiako baserririk gehienak programatik kanpora uzten zituenenez gero, 1966an aldatu egin zuten Asturias, Galizia, Santander, Bizkaia eta Gipuzkoarako, urteko 15 burutan jarririk programan sartzeko zenbakia. Alde honetako gehienak harrapatzeko baino zifra haundiagoa da oraindik, aurreko atalean txahalgileen numeroari buruz eman ditugun datuei sinestekotan behintzat.

Ekintza Batuko programak honelako abantailak dakartzkie, barruan hartzen dituen baserritarrei:

- % 10eko subentzioak abeletxe eta ekipoen inbertsioetan.
- % 70eko kredituak inbertsio finkoetan.
- % 50eko kredituak abereentzat.
- % 25eko kredituak urteroko funtzionamendu gastuetarako.
- Zenbait zerga abantail.

Ekintza Batuko programak, berez, arretagarria dirudi, nahiz eta, esan dugun bezala, Herrialdean eta Ipar alde guztian programan sartzeko moduko baserriak oso guti izan. Beharbada honegatik, beharbada beste arrazoin batzurengatik, baina ez da Estatuko abelazkuntza osoan txahal mordo handirik harrapatu duen programa izan. Geuk eginiko erizpen batzuri jarraiki, —guti gora-beherakoak noski, erizpen egokiagorako daturik ez bait dugu— esan daiteke 1965-73 urteetan Ekintza Batuko programan sarturiko txahalen proportzioa, onenean ere, nekez izango dela aldi horretan hildako txahaletan % 5. Hona Herrialderako kuadru bat, gure probintzietan programa noraino heldu zen gehiago zehazten eta horren garrantzi urria baitesten duena.

3.2. *kuadrua.—Herrialdeko abelteriaren eta Ekintza Batuan sartutakoaren gonbarazioa.*

74eko 12aren 31 arte bilduriko datuak	Esplotazioak	Txahalak	Txahalgileak	Inbertsio partikularrak	Kredituak	Subentzioa	2 urtetatik beherako zenbat txahal 1972an
Zenbat esplotazio martxan jarritako agiridun							
Gipuzkoa	62	2.750	880	43.225.000	61.100.000	4.621.000	32.022
Bizkaia	32	2.286	348	14.696.762	44.309.117	3.612.913	39.823
Herrialdea	94	5.036	1.208	57.921.672	105.409.117	8.233.919	71.845

Iturria: Geure elaborazioa Bizkaiko eta Gipuzkoako Baserri Buruzagizetako datuez eta 1972ko «Anuario de Estadística Agraria»-ko datuez.

Ekintza Batuko txahalen portzentaia, *programa guztian zehar*, URTE BAKAR BATERAKO, bi urtetatik beherako txahalei buruz:

$$\frac{5.036}{71.845} = \% 7,0.$$

Datu hauetatik ateratzen da, «urteroko» txahaletan okerlerako asko ez zirela emanda ere, Ekintza Batuko programan sarturiko txahalen proportzioa oso motza izan dela gure Herrialdean.

Ez dirudi, beraz, Ekintza Batuko programa hori abere ekoizpena bultzatzeko tresna efikazegia gertatzen ari denik.

Abere desarroiloko programa

1969an sorturiko Abere Desarroiloko Ajentzia, Santanderren eta Hegoa-Mendebaleko probintzietan lan egiteko batez ere egin zen, nahiz eta geroago ingurua zabaldu, Bizkaia ere harturik. Helburu hirukoitza du: abere esplotazioak hobetu, abelgorrien ekoizpena handitu eta, beraz, okela eta esnekien inportazioak txikiagotu. Programa hau burutzeko behar ziren hondoak hornitzeko, Berreraikuntza eta Bultzapeneko Banku Internazionaletik kreditu bat lortu zen. Honetaz eta barruko edukinez 2.870 milioi pezetatako hondak ziren guztira programarako. Oraintsu beste kreditu berrit bat lortu da programaren bigarren zatia finantzatzeko.

Programa zera honetan datza: parte hartzen duten abeltzainei kredituak eman, zerbitzu teknikoak eskaini, abereen horniketarako zerbitzu bat martxan jarri eta Espainiako teknikoak atzerrian espezialtzeko bekak eman. Kreditu laguntza larreak egiteko eta hobetzeko da, hesi, urbildegi eta edanguak egiteko eta makineria, abereak eta kapital zirkulatzailea lortzeko. Abeltzainei emaniko kredituak, gehien jota, % 85 dira Ajentziak programaturiko inbertsio osotik. Abere Desarroiloko programaren bitartez datozen kreditu proiektuetan emango diren subentzioak inbertsioen % 20 izango dira; 500.000 pezetakoa da sapaia.

Abere Desarroiloko programa oraindik berriegia da, ekoizpenean zein eragin benetako ukanen duen zehazki jakiteko. «España Agraria» aldizkariak dioenez, «Abere Desarroiloko Programaren ondorio bikainak eta Munduko Bankuak hartaz duen uste ezin hobea ikusirik, bigarren programa bat martxan ipintzeko jestioak hastera erabaki zen...». Hala ere, «El Campo» aldizkariak dioenez, ez programa honek ez aurreko Ekintza Batukoek lortu dute abelgorriaren desarroiloan benetako jaurtikuntzarik, zeren tarteko diren abeltzainen eritziz, merkatuko prezioak ez bait du orain arte, kredituz harturiko kapitalek eta hauen interesak bihurtzeko modurik segurtatu, aurrerako ilusioari eusteko behar den empresa irabazia geraturik. Hona, bada, bi eritzi, guztiz kontrakoak. Zein informaziotan oinarritzen diren batek ere ez dioenez gero, ezin jakin zein dabilen zuzenago. Baina Abere Desarroiloko programa Ekintza Batukoaren antzekoa izanik, ez da gaizki esatea izango, haren ondorioek ez zutela komentaturik dugun honen eragin kazkarra askorik aldatuko.

Bizkaian, 1975 arte, programa honetarako eskabideak 12 ziren, eginiko aurreproiektuak 11 eta hauetatik lau bakarrik praktikan jarri, 80 hartzen dituztenak, 106 behi txahal-gile eta 85 txahal, 2.730.000 pezetatako kredituekin.

Zifra hauek argi uzten dute programa honek zeinen garrantzi urria ukan duen probintzian. Aipatzekoa da, ordea, urte-txahalen hobarien garrantzia, Bizkaian hau ere, 37 milioi pezeta izan zela 1972an eta 46 milioi 1973an.

Abere politikaren eragina nekazaritzan kantitatez neurtzeko, abelteriaren aboluzioa aztertu da, alde batetik abere politikarik izan ez zen 1955etik 1964era eta bestetik politika hori martxan zebilen 1964etik 1973ra. Hurrengo kua-druan biltzen dira bi aldietan izaniko gehikuntzak, Espainia-ko Estatu osorako eta abere gairik aurrenetarako.

3.2. *kuadrua.*—*Espainiako abelteriaren eboluzioa azken urteotan. Gehikuntzaren portzentaiak.*

Abel-buruak	Idikia	Ardikia	Zerrikia	Hegaztiak (oiloak)
1955-1964	35,7	10,5	79	50
1964-1973	20,7	8	81	28,3 (1970 arte)
Okela: Tonak				
1955-1964	62,6	56,7	70	1.216
1964-1973	64,2	12,4	55	144
Iturria: Geure elaborazioa Baserri Estatistiken Urtekaritik hartutako datuez. 1973.				

Datuak argi daude beste gabe eta hauetatik argi ateratzen da Espainiako abelteriak ez duela bigarren aldirian aurreko aldiko gehitze erritmorik eraman. Txit arretagarri da nola bi aldirietan hegaztikien ekoizpena izugarritzko erritmoan hasi den, okela mota hauxe izanik hain zuzen inolako baserri politikazko neurritz babestu gabea. Honek adierazten bide du, ez dela baserri politika, halako okela mota baten ekoizpena bultzatzen edo ateratzen duena, beste elementu batzu baizik, nola bait dira eskari handi bat prezioen ertzi hobeago bati eskerrak, eta ekoizpen masiboa ematen duen teknologia. «La Gaceta Rural»en ustez:

«Abelteriaren laguntzarako 11 urtetako legegintzak ondorio hauek lortu ditu: abelgorriak 315.000 buru gutiago, ardiak 239.000 buru gutiago eta ahuntzak 173.000 buru gutiago urtean. Gobernu berriak suspendituko ahal ditu laguntza klase guztiok Espainiako abelteria guztia gal ez dadin».

Labore politika

Labore politikarik hemen aipatzen badugu, ez da Herrialde honetan ekoizten direlako, abereen elikamenduan bigarren mailako bihiak duten garrantziagatik baizik.

Gauza jakina da gerrate zibil ondoren Gari Zerbitzu Nazionala jarri zela, bihi honen hornikuntza segurtatzeko. Zerbitzu honek ekoizpen guztia hartzen zuen, aurretik jarritako prezio batean. Politika honek garia nahikoa ekoiztea lortu zuen, baina ekoizpena handitzeko joera ez zen berdina izan, abere ekoizpenerako batez ere ziren bigarren mailako bihientzat. Gariaren pribilejiozko egoerarik ez zute-nez gero, bihi hauk gariari pasoa ematen hasi ziren. Era berean, bigarren mailako bihien eskaria gehitzen ari zen eta hauen premiak abelazkuntzarako inportazioez hornitu behar izan ziren.

Hirurogeiaren haseran egoera honen seriotasuna ikusten hasi ziren eta giza elikamendurako eta abel elikamendurako bihien ekoizpena orekatzeko neurri batzu hartu ziren. Gari Zerbitzu Nazionalak izena aldatu zuen eta bihien prezioak ere bai, bigarren mailakoen alde. 1967-68 urteetako kanpainatik gora, politika honen eragina ikusten hasi zen, gari ekoizpena txikiagotuz eta bigarren mailakoena handituz, garagarra batez ere. Ez da berdin ordea, artoarentzat. 1968an 1968-71 urteetako Artoaren Laguntza Plana ezarri zen, berez, 1971ko arto ekoizpena bibidertzea nahi zuena. Plan oraindik bijente hau honetan datza: laguntza teknikoa artodunei, haziak eta ongarriak erosteko eta lur plagen kontrako burrukarako subentzioak eman, eta gainera uzta erosteko azken prezio garantiazkoen sistema eta grabamen babeskoiak inportazioari. Plan honek ez bide du gauza handirik egin eta Kantauri alderako beste plan berri berezi bat hasi zen, lau urtetarako. Plan honen bidez SNCK, Herrialde hau hartzen duen Kantauri aldeko artodunei, haziak, ongarriak eta plagen kontrako gaiak emango zizkien, era berean honelako laguntzak eman ahal izanik: Haziaren inportetik % 75eko subentzioa, ongarrietan % 50, artaberde zuloak egiteko obrentzat ere % 40.

Ez programa hau ez 1960ko prezioa kintaleko 360 pezetatik 1970-71 urteetan kintaleko 570era igotea ez dira nahikoa izan, arto ekoizpenean gorakada handirik eragiteko. Gai honen mentsa inportazioz hornitzen jarraitzen da, nahiz

eta argi egon Espainian artoaren ekoizpena problema nahasia dela, artodunen erreakzioek oraintsu argi utzi duten bezala. Hemen ere galdetu beharra dago ea barruko ekoizpenik eza den inportazioen zergatia ala inportazio politikak dakarren barruko ekoizpenik eza.

Arto politikako ondorio kazkarrek salatzen dute politika hau ez dagoela arto ekoizpenari eragiten dioten elementu garrantzitsuetara zuzendurik eta politika honen enfokea okerra dela edo gutienez oso urria, bihi garrantzitsu honen ekoizpena patxadan eramateko.

Estrukturazko neurriak

Lur Berrikuntza eta Desarrolloko Legea

Lege honen helburu nagusia lur estrukturen berrikuntzari buruz eginik zegoen lege mordoa ordenatzea eta sistematzea da. Ez dago beraz, estuktura politikazko gauza berririk aurkitzerik hemen.

Gerra ondoko nekazaritzako egituren aldatze ahaleginaren puntu nagusietariko bat Sail Bilkuntzak ezartzen zituen manuak ziren. Manu hauen bidez lurralde bat birsailkatu egiten zen, sail edo unitate handiagoak lortzeko. Aztertzen ari garen Herrialdean, segur asko hemengo orografia mal-kartsuagatik eta etxaldean ttikitasunagatik ez da Sail Bilkuntzarako lanik egin.

1968an, Sail Bilkuntzako programa zabaldu egin zen Lur Eraketako programen bitartez. Lur Eraketa hau, honela definitu zen Legean bertan: «Estatuaren ekintza bat lur entrepresa nahiko handiak eta egituraz, kapitalizazioz eta entrepresa antolamenduz tankera egokidunak lortzera batez ere zuzendua...». Lur Eraketako programen bidez Administrazioak lurren erosketa eta birbanaketa bultzatzen du. Sail Bilkuntzako eta Lur Eraketako Zerbitzu Nazionalak berak ere, eros ditzake borondatez eskaintzen zaizkion lurak, organismo erosleak eginiko baloramendutik datorren prezioan. Honela, erositako lurak gero baserritarrei edo baserri koo-

peratibei salduak izan daitezke. Legeak lurra erosteko kredituak ere ematen zituen eta egiten diren lur hobekuntzen % 20rainoko subentzioak.

Lur Eraketako programak lur klase batzutarako bakarrik ziren. Laguntza haiek beraz, bakarrik hartzen zituzten programak efikaziarik gehien edukiko zuela uste zen inguruak. Sistema hau, Gipuzkoan ez zen inoiz ere erabili, baina bai Bizkaiko eskualde batzutan (Karrantza eta Mungia aldean).

Gure Herrialdean programa hau baserrien hobekuntzarako subentzioak eta kreditu preferenteak ematen geratzen da, lurren erosketarik eta bir-banakatarik nekez egin baitaiteke, Herrialdeko lurren tankera ikusirik. Hemen lur guti saltzen da etxagintzarako izan ezik eta saltzen direnak ere Institutuaren baloramendutik gorako prezioan eta bizkortasun handiagoko operazioetan.

1971n IRYDA (Lur Berrikuntza eta Desarroiloko Institutu Nazionala — Instituto Nacional de Reforma y Desarrollo Agrario) eta 1973an Lur Berrikuntza eta Desarroiloko Legea ateratzen da, esan dugun bezala, aurreko lege maniak biltzen eta birlantzen dituena. Aurreko sisteman bezala, Institutuak lurra erosi eta subentzioak eta kredituak eman ditzake. Nazio guztira hedatzen da laguntza teknikoak eta diruzkoak emateko posibilitatea, halako zona edo eskualde batzuri ematen zaizkien laguntzetatik aparte edo gehigarri gisa, Aurreko sisteman bezala, laguntza hau kreditu preferenteak eta subentzioak dira.

Sistema, beraz, ez da aldatzen eta, beraz, honi buruz ere lehen komentatu dugun Lur Eraketaz esana bera esan daiteke. Kreditu eta subentzio laguntzak Legeak preikusten dituen instalazio hobekuntzetan erabiltzen dira, baina sistemak ez du eraginik etxaldearen tamainaren berrestrukturamenduan. Lege honetako laguntzak direla eta, abere ekoizpena handitu egin da baserririk sendoenetan, empresari ausartago eta hobeki informatuekin, baina euskal etxaldeek oso ttikiak izaten dira. Geroago ikusiko dugunez, gaindu ezineko eragozpenak daude handiagotzeko.

Kooperatibagintzarako bultzada

Politika ofiziala ekoizpen kooperatibagintzaren alde dago, batzutan ia baserriko problema guztien soluziotzat jotzen delako antza emateraino. Lan honetan, 9. kapituluan, luze estudiantuko dugu ekoizpen kooperatibek euskal baserrietarako zein posibilitate duten. Atal honetan kooperatibagintzari buruzko politika ofiziala biltzen dugu bakarrik. Ekoizpen kooperatibak bakarrik estudiantuko ditugu, zeren, nahiz eta komertzialmen kooperatibak inportanteak izan Herrialdean, honelakorik Esnetxeak besterik ez dago, eta hauk goitik beheraino aztertuko ditugu lan honen 10. kapituluan.

Oso oraintsu arte kooperatibei buruzko legegintza 1942ko urtarrileko Kooperazio Legea, eta 1971ko abuztuaren 13ko Araudia zen. 1974eko abenduaren 19an Kooperatiben Lege Jenerala atera bazen ere, haren araudia oraindik ateratzeko dago; beraz ez da oraindik lege bijentea, eta kontuak kontu, aurreko legea da bijente dagoena, Baserri Kooperazioko Lege hain itxarona oraindik ateratzeko bait dago.

Penintsulako sekain lurretako kooperatibek eta gari talde nagusiek beren hazkuntzarako laguntza eta subentzio ofizialak eduki badituzte ere, hau ez da berdin lurra elkarrekin lantzeko prest dauden baserriar guti batzuren kooperatiba ttikietarako, gure Herrialdean gertatzen den bezala. Praktikan baserriarrek jarritako ekoizpen kooperatibak ia inolako laguntza ez subentzio ofizialik gabe muntatu dira. Esan litekeen bakarra, zera da, halegia, jeneralean Lur Berrikuntza eta Desarroiloko Legean, baserriar guztientzat jarritako kreditu eta subentzio gisako eskabideak errazago ematen zaizkiela taldeei, banakako baserriarrei baino. Baina hementxe bukatzen da dena eta 9. kapituluan ikusiko dugun bezala, laguntza hori oso urria da elkarrekiko esplotazio moderno batek dakartzan premietarako.

Baserri gaien inportazioak

Hauxe da estatuko nekazaritza guztian gairik eztabaidatsuenetariko bat. Espainiar Estatuko nekazariak oso gaizki

ikusten dituzte baserri gaien inportazioak eta penintsulako nekazaritza nahikoa dela uste dute gaur inportazioz hornitzen diren beharrik gehienak hornitzeko eta inportazio horiek duten baino gustu txikiagoz. Nekazariak uste dute barruko nekazaritzaren okerrak inportazioetatik datozela, eta ez alderantziz. Gainera uste dute inportazioen helburua sarritan industri gaien salmenta beste laterri batzutara bultzatzea dela, edo baserri sektoreaz beste helburu oraindik ezkutatzekoagoak. Nekazariak, beraz, industri sektoreko interesei sakrifikaturik ikusten du bere burua, eta hain hala ikusi ere, non Komertzioko eta Industriako Ministergoak jotzen bait ditu Nazioko nekazaritzaren etsairik okerrenztat.

Beste komentatzaille batzuk, ordea, inportazioak beharrezkoak direla uste dute barruko ekoizpena ez omen bait dago eskari agudo aldakor baten nahietara egokiturik, nahiz eta berek ere bai onartu inportazio horiek nekazariak hartzen dituzten prezioetan beherakada «ustegabeak eta guztiz deserazkoak» sor eraz ditzaketela, inportatzen diren gaien ekoizpena oso arriskupean jartzen dutenak, honela lehen-go mentsak okerragoturik. Hau da, inportazioak justifikatzen dituzten egileek ere onartzen dituzte hauen ondorio negatiboak nazioko ekoizpenean.

III. Desarrollo Planeko Nekazaritza Txostenaren ustez, baserri gairik aurrenen auto-hornitze gradua gutitu egin zen 1960tik 1969ra. Honek esan nahi du, inportazioak gehitu egin zirela. Honela artotan, nazioko ekoizpenak 1960an barruko kontsumuan behar zenetik % 80 hornitzen zuen; zifra hau 1969an % 39 bakarrik zen. Behikitan barruko ekoizpenak 1960an % 94 hornitzen zuen, eta 1969an % 68 bakarrik, etab. Hemen aipaturiko gaietatik, garitan eta esnetan bakarrik auto-hornitzen da Estatu 1969an. Honela, bada, janari kontua Espainian gero eta kanpoaren menpeago dagoela gairik garrantzitsuenetan. Ondoko kuadrutan gairik aurrenen inportazio indizeak tonatan biltzen ditugu 1964-74 aldirako, aldi horretako lehen urteari dagokion zifra 100tzat jorik.

Neurritzat tona inportatuak erabilirik, gaien prezioetako aldakuntzek ez dute inportazioaren eboluzioa ukitzen.

3.3. *kuadrua.*—*Kanpoko baserri komertzioa. 1964 = 100 Tonatan.*

Zer	1966	1967	1968	1969	1970	1971	1972	1973	1974
Abere biziak eta abere errelnuko gaiak	261	262	317	288	327	441	501	455	
Okelak	542	510	530	535	461	197	746	547	
Idikiak	454	552	564	580	512	177	406	383	
Esnea, etab.	184	199	327	247	398	828	415	372	
Laborea	168	161	121	118	107	155	126	145	
Garagarra	72	60			0,008	24,5		0,009	
Artoa 1966=100	100	101	95,3	91,8	81,2	84,6	98,1	112	169

Kuadruan ikus daiteke, nola baserriko inportazioak handituz doazen aldiaren azkenerantz, gai guztientzat goia 1972 delarik, 1971n zifra anormalki garaia duen esnearentzat izar ezik. Gainera 1974erako,

- okela inportazioak oinarri urtearen bost bider dira.
- behiaren inportazioak lau bider.
- esne eta arraultze inportazioak 1964ekoen hiru bider, eta badira urteak, okela inportazioak zazpi bidertu egiten direnak (1972), esne eta arraultzearenak zortzi bidertu (1971) eta behiarena sei bidertu (1969). Diogun gainera 1964 hartu dugula oinarritzat, gonbaraziorako hamar urtetako aldi bat edukitzeko, baina inportazioen eboluzioa askoz biziagoa da edozein aurreko urte oinarritzat harturik. 1961-ean adibidez, baserri inportazioak nekez heltzen dira 1964-eko zifraren erdira. Horregatik Estabilizazio Planetik (1969) gorako eboluzio jenerala, esaterako, gure zifretan agertu dena baino askoz biziagoa da.

Bestalde, bi gai garrantzitsuren inportazioak, artoaren eta gariarenak, barruko ekoizpeneko portzentaiatzat hartuz gero, hona zer dugun:

3.4. *kuadrua.*—*Inportazioak barruko ekoizpeneko portzentaiatzat.*

Zer	1964	1965	1966	1967	1968	1969	1970	1971	1972
Okela	2,6	13	12,8	10,7	10,9	10,3	7,9	3,4	13,1
Artoa			210	205	157	148	106	100	124

Iturria: Geure elaborazioa «Anuario de producción Agraria»-ko datuez.

Hau da, aldi honetan zehar, okela inportazioak praktikan barruko ekoizpeneko % 10 dira, eta artoarenak barruko ekoizpen osoa aina gutienez, urte batzutan bi bidertu ere egiten delarik. Gaiaren konposamendu honekin: haragi inportazioak kendu nahia, esaterako, bihizko pentsuen eskasiak eragotzirik aurki daiteke, edo gai honen inportazioen gorakada oso gogorra ekar dezake. Laterriaren kanpodependentzia ez da azken gaietan bakarrik konkretatzen, baizik —eta hau da garrantzitsuagoa— orain barruan lortzen diren gaiak ekoizten jarraitzeko behar diren elementuetan.

Atal honetan esan dugunetik ateratzen da, baserri gaien inportazioek zeinen garrantzi handia duten, nekazaritza ukitzen duen elementu gisa. Behar-beharrekoa da, hain garrantzi handiko elementu bat oso kontuz planteatua eta burutua izatea, ekoizpenean eragin negatiborik ukan ez dezan. Inportazioei buruz honako elementu hauk kontutan eduki behar direla uste dugu:

— konprobatu ea oraingo inportazioak benetan beharrezkoak diren.

— inportazioak egin beharrezkoak badira, beren programazio zehatza eta beren ondorioak, baita beren kostua lanterrirako ere, jakitera eman.

— baserri gaien prezioak ekoizpeneko prezio egiazkoei eta gai desberdinen egoera erlatiboari dagozkienak jarri.

Hitz batez, politika egiazko bat izan dadila kolektibitatearen onerakoa izatekoa, eta ez gaurko inportazioez kon-

pondu nahi diren problemak, bihar-etzi handitu besterik egingo ez dituzten itsumustuko neurri aislatuak.

Egun:

«Lur entrespresariak ezin du bere ekoizpenik erdiko epera planifikatu ez bait daki estatuaren politika ekonomikoak ekoizpen guzti hori edo zati bat kanpoko konpetentziaren akuilupera kondentatuko ez duen, arantzel kentzez, Espainiako agintarien beren subentziaz eta prezio anormalezko txoke-inportazioz lagunduriko konpetentzia, noski». (Montarco-ko Kondea, *La Gaceta Rural*-en).

Herrialdea

Aztertzeraz goazen Herrialdea Gipuzkoako eta Bizkaiko probintziak osatzen dute. Bi probintziok Estatuko gurtietatik trikiensak dira. Gipuzkoak 1907 km²ko hedadura du eta Bizkaiak 2.217 km²koa. Bion artean, beraz, 4.214 km²ko hedadura, Estatuko lurralde osoaren % 8,82. Estatuko probintzia gurtietatik Araba, Las Palmas eta Santa Cruz de Tenerife dira lan hau dedikatzen diogun Herrialdean baino lur hedadura gutxiagoko bakarrak.

Herrialdea oso menditsua da. Goisra handitiko gailurrik ez du —guti deude 1.000tik gorakoak—, baina dena dago bailara heratuz banaturiko mendil multzoz egina. Ez dago inolako lautaderik eta erreka batzuren uhaok bakarrik hauek dute mendil eta bailara katea, horien zabalera motzeen industri eta hiri nukleoak daudelarik. Klima opela eta hezea

berria nahi duen proiektuak, dibarretan landutu behar diren proiektuak, eta azkenik, ez ditzuten itxarpenak, berria nahi duen proiektuak, eta azkenik, ez ditzuten itxarpenak...

Egun: ... lur erreserbatuak ezin dira erreserbatuak erabili. ... ez ditzuten itxarpenak, berria nahi duen proiektuak, eta azkenik, ez ditzuten itxarpenak...

berria nahi duen proiektuak, eta azkenik, ez ditzuten itxarpenak, berria nahi duen proiektuak, eta azkenik, ez ditzuten itxarpenak...

berria nahi duen proiektuak, eta azkenik, ez ditzuten itxarpenak, berria nahi duen proiektuak, eta azkenik, ez ditzuten itxarpenak...

berria nahi duen proiektuak, eta azkenik, ez ditzuten itxarpenak, berria nahi duen proiektuak, eta azkenik, ez ditzuten itxarpenak...

berria nahi duen proiektuak, eta azkenik, ez ditzuten itxarpenak, berria nahi duen proiektuak, eta azkenik, ez ditzuten itxarpenak...

berria nahi duen proiektuak, eta azkenik, ez ditzuten itxarpenak, berria nahi duen proiektuak, eta azkenik, ez ditzuten itxarpenak...

berria nahi duen proiektuak, eta azkenik, ez ditzuten itxarpenak, berria nahi duen proiektuak, eta azkenik, ez ditzuten itxarpenak...

4. Kapituluua Herrialdeko ekonomia eta bertako baserri sektorea

Herrialdea

Aztertzeraz goazen Herrialdea Gipuzkoako eta Bizkaiko probintziak osatzen dute. Bi probintziok Estatuko guztietatik ttikienak dira. Gipuzkoak 1997 km²ko hedadura du eta Bizkaiak 2.217 km²koa. Bion artean, beraz, 4.214 km²ko hedadura, Estatuko lurralde osoaren % 0,82. Estatuko probintzia guztietatik Araba, Las Palmas eta Santa Cruz de Tenerife dira lan hau dedikatzen diogun Herrialdea baino lur hedadura gutxiagoko bakarrak.

Herrialdea oso menditsua da. Goiera haundiko gailurrik ez du —guti daude 1.000tik gorakoak—, baina dena dago bailara herstuz banaturiko mendi multzoz egina. Ez dago inolako lautadarik eta erreka batzuren uahoek bakarrik haus-ten dute mendi eta bailara katea, horien zabalera motzean industri eta hiri nukleoak daudelarik. Klima epela eta hezea

da. 1930-60 aldiko temperatura urtean 13,1° zen batuz beste, goi beheak 37° eta -7° izanik. Urtean 316 egun zero es-taliz edo lainotsuz, hezetasun indizea % 77 eta urtean batuz beste 1.906 mmko zaparradak.

Bizkaiak 1973an 1.103.521 biztanle zituen eta Gipuzkoak 661.141. Biok batera, bada, 1.746.662 biztanle, Espainiako Es-tatuko biztanleriaren % 5 guti gora-behera.

Probintzia hauetako ekonomia estatuko ekonomian

Urte askotan zehar nabarmendu dira Bizkaia eta Gipuz-koa beren garrantziagatik Estatuko ekonomian. 4.1. kuadrak erakusten du zeintzu diren Espainiako bost probintziarik gorenak ekonomi arloan, 1973an. Lehen bosten artean sartzen ez direnean, habe bat gehiago jarri da, aztertzen ari garen euskal probintziak klasifikazioan zenbakarren dato-zen jakiteko. Araba eta Nafarroa ere sartzen dira Euskal Herri osoak Espainiako estatu barruan duen garrantziaren ikuspegi osoa edukitzeko.

4.1. kuadrak.—Probintzien garrantzia Estatuko ekonomian. 1973.

Adierazleak	BOST PROBINTZIARIK GORENAK 1973an					6-7-8
	1	2	3	4	5	
Ekoizpenaren pilakuntza	Bartz.	Mad.	Valen.	Bizk.	Ovi.	Gipuz. 8
Biztanleriaren pilakuntza	Bartz.	Mad.	Valen.	Sev.	Bizk.	
Ekoizpenaren pilakuntza biztanleko ekoizpen netoaren arabera	Bal.	Araba	Gipuz.	Bartz.	Ger.	Bizk. 6
Sarrera pertsonalen pilakuntza, Errenta per capita-ren arabera	Bizk.	Mad.	Bartz.	Araba	Gipuz.	Naf. 9
Ekoizpen netoaren banaketa probintziala enpleguko	Bizk.	Araba	Gipuz.	Mad.	Bal.	Naf. 10
Sarrera per capita-ren banaketa probintziala	Bizk.	Mad.	Bartz.	Araba	Gipuz.	Naf. 9
Per capita sarrerak, famili errenta erabilgarriaren arabera	Mad.	Bartz.	Bizk.	Gipuz.	Bal.	Araba 6
Iturria: Espainiako errenta nazionala eta honen banaketa probintziala. 1973. Bilboko Bankua. 1975eko Iraila.						

Kuadru honetan sarturiko zazpi adierazleetatik azkenengo bostek, euskal probintzietako ihardunaren eta sarrerren mailen erakuspen bat ematen dute. Den-denetan euskal probintziok leku berezi bat dute, Bizkaiak eta Gipuzkoak batez ere. Esan dezagun, gainera, Gipuzkoa zela urte askotan zehar, eta 1971 arte, 4, 6 eta 7. adierazleetan lehen tokia zuena; 1973an bakarrik galdu zituen puntu batzu klasifikazioan.

Herrialdeak Estatuko ekonomian zenbat aportatzen duen jakiteko, hona 4.2. kuadrua. Hemen 1etik 5erako adierazleek probintzia hauei osotik dagokien portzentaia ematen dute, 6. eta 8. adierazleek balioa pezetatan ematen dute eta 7. eta 9.ek bakoitzari dagozkion indizeak, Espainia osokoa 100-tzat jorik.

4.2. *kuadrua.*—*Gipuzkoaren eta Bizkaiaren parte portzentuala Espainiako ekonomian. 1973.*

Adierazleak	Gip.	Bizk.	Herrial.	Ara.	Naf.	Eusk. Herria	Bartz.	Mad.	Espai.
Biztanleria osoa	1,9	3,3	5,1	0,6	1,4	7,1	12,0	11,6	100
Biztanleria landuna	2,0	3,1	5,1	0,7	1,4	7,2	12,7	11,5	100
Ekoizpen osoa (balio erantsi brutoa)	2,5	4,1	6,6	0,9	1,5	9,0	15,6	14,7	100
Sarrera osoak	2,5	4,4	6,9	0,8	1,5	8,4	14,6	15,3	100
Famili errenta erabilgarria	2,3	3,9	6,2	0,7	1,5	8,4	14,6	15,3	100
Produktibitatea (milaka pezetak)	322,6	334,6	329,9	324,9	277,1	319,1	312,2	321,5	256,7
Produktibitate indizea	126,1	130,0	129,0	127,0	108,0	124,0	122,0	125,0	100
Per capita errenta (milaka pezetak)	130,4	138,8	135,7	131,1	109,9	130,3	132,4	138,6	99,3
Per capita errentaren indizea	131,0	140	137	132	111	131	133	140	100

Iturria: Geure elaborazioa datu hauetaz: **Espainiako Errenta Nazionala**. op. cit.

Datu hauek beste gabe ematen dute Probintzia hauen garrantzia, batez ere Herrialdearen tamaina tikiarekin gonbaraturik, esan dugunez, Espainiako Estatuko lurralde osoaren % 0,8 baino ez dena.

Herrialdeko nekazaritza eta Estatukoa

Herrialdeko eta beste euskal probintzietako nekazaritzaren garrantzia oso laburra da Espainiako nekazaritzan. 1973an Gipuzkoak eta Bizkaiak batera Estatuko baserri ekoizpen azkenaren % 1,56 bakarrik ematen dute. Araba eta Nafarroa, probintzia nekazariagoak, sarturik, lau probintzien aportazioa ere ez da osorik % 4,67tik gora pasatzen. Are gehiago, Gipuzkoaren eta Arabaren aportazioa hain txikia da, non 60tik 73ra azkenengo probintziak bait dira Estatuko probintzia guztien baserri ekoizpen azkenari begira. Gai bakar batzu azterturik, ordea, probintzia hauetako ekoizpenak garrantzi askoz handiagoa hartzen du osoari buruz. «Anuario de Estadística»ren ustez probintzia hauen ekoizpen proportzioa abere eta pinu ekoizpenean hauxe da:

4.3. *kuadrua.*—Herrialdearen portzentaia abere eta pinu ekoizpenean. 1972.

Zer	Gipuzkoa	Bizkaia	Herrialdea
Buruak. Zenbat 1973	2,5	2,4	4,9
Idikia	1,5	1,9	3,4
Ardiak	0,4	0,2	0,6
Zerriak	0,6	0,3	0,9
Okela. Tonak 1972	7,9	7,8	15,7
Idikia	4,6	5,4	10
Ardikia	1,3	1,5	2,8
Zerrikia	2	0,9	2,9
Behi esnea.			
Milaka litroak 1972	1,9	3,7	5,6
Pinuak. Hak 1971	1,2	1,6	2,8

Hau da, Herrialdeak okela ekoizpen osotik guti gorabehera % 15 ematen duela. Honek argi erakusten du euskal abelteriaren garrantzia, batez ere, haren hedadura Es-

tatuko lurraldetik % 0,8 bakarrik dela kontutan edukiz gero. Beraz, Gipuzkoako eta Bizkaiko baserri ekoizpena gai batzutarako oso handia da eta geroan eskari handikorra sumatzen zaien gaiak hain zuzen. Oker izugarria litzateke, bada, Herrialdeko baserri ekoizpenaren txikiagotze funtsez-kora edo desagertzen praktikora lerramakeen krisitik etor litezkeen ondorioak gutiestea, Espainiako ekoizpenean bere aportazio orokoi urria bakarrik kontutan edukirik.

Herrialdeko nekazaritza bertako inguru ekonomikoari buruz

Gauza jakina da probintzia hauk industriadunak direla, batez ere. Hau argi dago horien baserri ekoizpena Herrialdeko ekoizpen osoaren (Balio Erantsi Brutoa) % 2,56 baino ez dela eta nekazaritzak haren biztanleria aktibotik % 5,75 baino ez duela hartzen ikusirik. Produktibitateari buruz, larterri guztietan bezala, baserriko produktibitatea beste sektoreetako baino askoz apalagoa da. Honela Herrialdeko batz besteko produktibitatea 100tzat jotzen badugu, nekazaritzako produktibitatea % 46,5 besterik ez da, nahiz eta euskaldun baserritarrek lan orduko luzea baino luzeagoa ukan.

Beste alde batetik, baserri sektorea bakarka beste sektoreez gonbaratuz gero, ihardun ekonomikoa sailka daitekeen 22 sektoreetatik, nekazaritzak ekoizpen osoari buruz 15. tokia duela konproba daiteke, atzetik geraturik janari sektorea, arrantza, zura, zeramika, larrugintza, oinetakoak, oihalgintza eta mehatzeria, eta aurretik industriako eta zerbitzuetako beste sektore guztiak. Pertsona landunei buruz, ordea, nekazaritzak 6. tokia du 22 sektoreetatik. Honek erakusten du nolako ondoren sozialak sorreraz ditzaketen sektoreko gorabeherek, nahiz eta haren ekoizpenak garrantzi urria ukan. Sektore baten garrantzia neurtzean, oso beharrezko da bereiztea zeln garrantzi duen ekoizpenari buruz eta enpleguari buruz, zeren, euskal nekazaritzan be-

zala, garrantzi ekonomiko laburreko sektore batek (ekoizpena) garrantzi sozial handia (enplegua) ukan dezake bertan lan egiten duen jendeagatik.

Baserri sektorearen eboluzioa: gehitu ala gutitu?

Sarritan esan dugu euskal nekazaritzak garrantzi ttikia duela Herrialdeko eta Estatuko ekonomian. Hala ere, baserri ekoizpenaren beraren ekonomiari begiratzen bazaio, industriarekin alderatu gabe, 1962tik 1972ra bitartean baserri ekoizpena neurri egiazkotan (prezioen handitzeak deskontaturik) % 41 hazi dela ikusten da urte batzutan (1964) eta % 7 beste batzutan (1971), 1973an % 14 izanik. 1971 arte Espaniako nekazaritza Euskal Herrikoaren azpitik hazi zen, baina 1971tik aurrera Herrialdeko hazte erritmoa Espainiako osoa baino ttikiagoa da.

Aipa berri ditugun mugimenduak irregularrak dira eta ez dago horretaz askorik esaterik, baina bai ikus erazten dute sektoreko ekoizpena ez doala beherantz, gorantz baizik, eta aldi batzutan oso gorantz joan ere. Euskal nekazaritzaren garrantzia, beraz, aberastasun iturri gisa ez da txikiagotzen ari, gero eta haundiagotzen baizik, nahiz eta eboluzioa irregularra izan. Oso kontutan hartzekoa da hau, baserri politikako neurriak aztertzean edo proposatzean. Sektore bat erlatiboki garrantzi ttikia duelako ahazteak, gizartearen txirokuntza besterik ez lekarke. Herrialdeko nekazaritza sektore minorizkoa baina garrantzizkoa da, denen aberastasunari aportazio handia dakarkiona.

Herrialdeko eskualdeak

Gehienetan, probintzietako baserriek, huzotegiek, herriek eta areek hain zona edo eskualdetakotzat dute beren burua, honekin batuago sentitzen direlarik probintziako area osoarekin baino. Probintzi mailako hainbat gauzatan ikusten da zonaka edo eskualdeka banaketa hau. Lan honetan

ere probintzia bakoitza zona edo eskualde bereziz osaturik dagoela jotzen da. Nahiz eta Herrialdea hedadura ttikoa izan eta bere elementu nagusietan oso berdintsua, bi probintzietako han-hemengo zenbait toki geografikotan, arreta merezi duten alderdi fisikoak, ekonomikoak eta antolamendu sozialekoak egon daitezkeela uste dugu, bi probintzien berdintsutasunaren barruan.

Hau kontutan edukirik, lehendik dauden zatiketak oinarritzat harturik, Herrialdea zonaka edo eskualdeka zatikatu dugu *. Ondoren sartzen dugun mapan Gipuzkoako eta Bizkaiko sailketa agiri da zonaka edo eskualdeka, hauen eragin-nukleo nagusiekin.

Herrialdeko nekazaritzaren eboluzioaren laburpentxo bat

1900 arte

Herrialdeko nekazaritzaren eboluzio historikoari begira, hiru aro haundi bereiz daitezke:

— Lehen aroa, XIII. mende aurretik, baso lanak eta abereek nekazaritzak baino garrantzi handiagoa eduki bide zuena. Aldi honetan, nekazaritza pixkanaka sartuz eta goiak hartuz doa, biztanleriaren gorakadak bultzaturik. Baso- eta abel-aroa da, basoek, sagarrek eta larreek garrantzi handia dutela dirudiena eta kultiboak lekutuz doazena presio demografikoak eskatu ahala.

— Bigarren aroan, nekazaritza finkatzen da, eta XVI. mendearen bigarren erdian gai nagusiak garia, arta-xehea eta gaztaina dira eta oso atzetik, sagarra. Mendi-mendiko herri batzutan bakarrik dute abereek garrantzi apurren bat.

— Hirugarren aroa, artoaren agerpenak definitzen du Bizkaian eta Gipuzkoan. Artoaren agerpenak lur ekoizpenaren egitura azpikoz gora aldatzen du, arta-xehea bazter-

(*) Mila esker Jose Luis Lizundia, Euskaltzaindikoari, bere zuzenbide hain baliotsuengatik, Bizkaiko sailketa definitiboa egiteko.

Herrialdea eskualdeka sailkaturik



Eskualdearen izena

Eragin-nukleo nagusiak

Gipuzkoa

1. eskualdea

DONOSTIA

Donostia eta 1. karretera nazionalaren inguruan Iru-nerraino dauden herri guz-tiak.

2. eskualdea

TOLOSA

Tolosa-Andoain-Billabona.

3. eskualdea

GOIERRI

Beasain, Ordizia, Urretxu, Zumarraga.

4. eskualdea

ARRASATE-EIBAR

Arrasate-Bergara-Eibar.

5. eskualdea

AZPEITIA

Azpeitia-Azkoitia.

6. eskualdea

ITSASERTZA

Deba-Zarautz.

Bizkaia

1. eskualdea

URIBE (Mungia)

Mungia.

2. eskualdea

BUSTURI

Gernika.

3. eskualdea

DURANGALDEA

Durango-Elorrio.

4. eskualdea

LEA-ARTIBAI

Markina-Lekeltio.

5. eskualdea

ARRATIA-NERBIOI

Igorre.

6. eskualdea

ENKARTAZIOAK

Balmaseda.

turik, eta batez ere, garagarra, oloa eta haran barrenak okupatzen zituzten larreak. Honek, abel-xehearen hazkuntza dakar abere larriaren orde. XVIII. mendean, baserrietan garia, artoa, indaba, zekalea, arta-xehea eta gaztainak hartzen dira, batez ere, lehen hirurak, besteak baino askoz garrantzitsuagoak izanik. Sagardoa ere dezente egiten da, eta Bizkaian, ardo apurren bat ere bai.

XIX. mendeak, garrantzi handiko beste kultibo baten agerpena dakar: patata. Belardi artifizialak ere pixka bat ugaritzen hasten dira mende honetan, ugariak izanik sekula-belarra eta garrantzi gutiagoz alfalfa. XX. mendearen lehen erdi arte, iraungo duen ekoizpen konbinazioa agiri da ia, laborea, tuberkuluak eta belardiak. Gerra ondoko urteetatik honantz bakarrik hasten dira labore gaiak pixkanaka uzten, abereei eta beraz belargintzari ekiteko.

XIX. mende azkenerako eta XX.aren haserarako, hona S. Mujikak zein deskripzio damalgun Gipuzkoako baserritarrez: «Gipuzkoako baserritarra, neurri ttikian bada ere, nekazaria eta abeltzaina da. Bataz beste lau-sei behi ditu, lur lanerako eta esnetarako, etxean sobratzen dena, kalean saldurik. Ikuiluan (etxe barruan berau) lurrak ontzeko zimaurrea egiten du gorotzez. Abere hauexek erabiltzen ditu, baso fruituak eta belarrak biltzeko ere, hauen artean daudelarik irak eta orbelak, azpigarritzat eta ongarriritzat gorotzez nahasirik. Esne, zimaurrea eta lanaz gainera, abere horietan ateratzen dizkie ferian saltzeko txahalak, ekoizpenerako destinatuak bakarrik etxean gorderik».

XX. mendearen haseran, beraz, labore eta abere konbinazio bat dugu. Laborea, oraindik, indartsu dago, artoa, indaba eta garia batez ere, baina abereek gero eta garrantzi handiagoa dutela ageri zaigu.

Oraintsuko eboluzioa

XX. mendean indartzen eta finkatzen da erabat eskualdeko tankera industrial. Bi probintziok aspaldidanik zuten tankera industrial, baina XX. mendearen bigarren er-

ditik aurrerantz, batez ere, hasten dira burdingintza astun modernoa eta industria arina egiteko lehen pauso nagusiak ematen. Hasera hauk, erabat finkatzen dira mende horretan zehar, aztertzen ari garen probintzietako tankera, batez ere, industrialak nabarmen geraturik.

Zein da nekazaritzaren eboluzioa aldi honetan zehar?

Eskualdean izan den industriakuntza sendoa da, batez ere, nekazaritzaren eboluzio joera determinatzen duena. Industriaren aurrerapen honek, nazioko merkatuen eta munduko komertzioaren zabalkunde indartsuaz eta teknologiaren aurrerapen bizkorraz batera, nekazaritzako elementu nagusi batzuren aldakuntza handia ekarri du. Aldakuntza hau, ordea, orain arte kantitatezkoa bakarrik izan da, eta ez, nekazaritzaren egitura sustraitik transformatzeko bestekoa. Hala ere, gure ustez, salto kualitatibo bat gertatzen hasita dago ia, abiada azeleratuan jarraituko duena eta mendeetan zehar iraun duen euskal nekazaritzaren artisau egitura desagerrereziko duena.

Aurrerapen industrial eta teknologikoaren eragina, nekazaritzan, honako alderdi nagusi hauetan bil daiteke:

— Industriak lan esku gehigarria behar du, nekazaritzak eman beharko diona.

— Gurea bezain hedadura urriko herrialde batetan, industriakuntzak eta horrek dakarren hirigintzak lur mordo handiak kentzen dizkio nekazaritzari. Garrantzizkoago dena, industriaren aldetik dagoen lur eskariak baserri lurren prezioak jaso egiten ditu, lurraren prezioen eta horren baserri errentakortasunaren arteko erlazioa kolokaturik.

— Premia hauk beste herrialde batzuetako inportazioz hornitu ezik behintzat, industriakuntzak gero eta janari gainki gehiago behar du industriako biztanleria elikatzeke. Merkatuak ekoizpena handitu beharra dago, auto-konsumuak garrantzi handiagoa zuen aurreko etapaz gonbaraturik.

— Lan esku gutxiagoz ekoizpena handitzea nekez litekeena da, era batera baserri lanetan ere iraultza teknologiko sakon bat gertatuko ez balitz.

Ondoren, laburki aipatuko dugu nola elementu hauek ukitu duten eskualdeko nekazaritza, daramagun mende.

Lan eskuaren irenspena

Industriak lehen eta behin hartara inola ere dedikatu ez ziren baserrietako seme-alabak irensten ditu. Badakigu primutzako legea dela eta, semerik zaharrenaz beste guztiek etxea utzi eta beste bizipide bat bilatu behar dutela. Pertsona hauek, lehenago emigratu edo baserrietan morroi gisa lan egiten zutenak, orain industriak irensten ditu. Morroien kasuan izan ezik, besteek industriara jotzarekin ez da nekazaritzako lan eskurik gutitzen.

Bigarren, nekazaritza utzi duten baserritar eta beste lur langile batzu ere eramaten ditu industriak, beren etxaldeak saldu edo pinuak sartu dituztelako, kalera alde eginik lanera eta bizitzera. Fenomeno hau hiri nukleoetatik urrun dauden baserrietan gertatu da, batez ere ekoizpena eta gaien komertzialmendua arras baldintza okerretan egin behar zen eta bizimodua kale bizikeratik urrun zegoen lekuetan.

Azkenez, baserriko eta industriako lanen konbinazioak garrantzi handia ukan du hemengo inguruetan, bietara jokaturik, hau da, baserri zati bat erabili, baina, etxeko buroak industrian lan eginez. Esplotazio mota hauetaz luze ariko gara baserriaren azterketa ekonomikoan.

Hurrengo kapituluan, baserriko eboluzioa aztertzean, lan eskuaren irenspen honen garrantzia kantitatez neurtzen saiatuko gara. Datu argitzaile bezala, hauxe bakarrik esango dugu hemen, halegia, 1962an eta 1972an eginiko baserri zentsoak % 34 baserriren gutxitzea ematen duela Gipuzkoan eta bitarte horretan % 27 Bizkaian eta % 29 Herrialde osoan.

Erdizko dedikazioari buruz, 1972ko Zentsoak % 36 Gipuzkoan, % 59 Bizkaian eta % 51 Herrialdean «lan nagusia baserritik kanpora» egiten duten enpresariak direla dio.

Beste neurketa batzuk ematen dutenez, Herrialdeko % 60 baserritar guti gora-behera bietara jokutzen dutenak dira.

Baserri herrietako biztanleria aztertzen bada ere, joera berbera ikusten da. Baserri herrietako biztanleria beherantz doa edo probintziako batzuek oso azpitik hazten da. Demografia gutikordun herrien portzentaia, Bizkaian Gipuzkoan baino askoz gorago dabil. Honen arrazoina, Bizkaian industri puntu txit konkretuen inguruan lekukurik dagoelako dela, uste dugu, hala Bilbo Nagusia, Mungia, Gernika, Durango. Horregatik, industri lekuetatik urrun bizi direnek beren etxaldeak guztiz utzi behar, industrian sartzen badira. Gipuzkoan, ordea, industria sakabanatuago dagoenez gero, errazago da baserriko eta industriako lana konbinatzea, baserriko utzi gabe. Bilboko Bankuak dakarren informazioak ere nekazaritzan ari den lan eskuaren beherakada bat ematen du 1962tik 1973ra: % 72 Bizkaian, % 41 Gipuzkoan, Herrialde guztian eta aldi honetan % 50.

Lurraren irenspena eta prezioen gorakada

Industriakuntzako eta hirigintzako prozesu azkarrak zenbat lur irensten duen jakiteko, daturik ez dago, beraz, zeharreko elementu batzuek bakarrik aipa genitzake horren garrantziaren antz bat emateko.

1951tik 1970era, Gipuzkoan etxegintza bibeidertu egin da.

1950 urtetako historian lorturiko bizitzetxe maila hogei urtetan bakarrik bibeidertzen da. Erants diezalogun honi industriagintza eta transformazio guzti honi eusteko derrigorrezko azpi-egiturari dagozkion konstruksioak eta hortik atera industriakuntzak eta hirigintzak nolako garrantzia edukiko zuten baserri lur erabilgarrien gutikuntzan, hain tamaina ttikiko herrialde batean.

Argitu beharra dago, ordea, lur premia hau ez dela hainbeste agertzen nekazaritzaren eta industriaren arteko lur burrukan, lurren prezioetan baizik. Etxeak eta industriak egiteko eskaini diren prezioak eta halakotzat jotako lurren etengabeko ugariltzea direla bide, prezioek gora egin dute

baita lur jabeen usteak ere lurrak geroan izan ditzakeen prezioei buruz, eta horregatik lurrak nekezago jartzen dira salgai. «Erosten diren lurrek gero eta gehiago balioko dutela uste izateak eta lurraren espekulazioan sinesteak dakar guzti hori. Espekulatzailleek geroko gorakadaren zihurtasun subjektiboz jokatzten dute. Honek geroko sumatzen diren plusbalioak berehalaxe gaurkotzera darama, espirale bat sorturik etengabeko gorakada handiez. Behin mekanismoa martxan jarriz gero, bere buruaren inguruan ugaltzen jarraitzen du geratu gabe» *.

Hartzen diren gaien aldakuntza

Bigarren kapituluan esan dugunez, industriaren eta hirigintzaren indartzeak eta hortik datorren per kapita errentaren gehitzeak halako janari klase batzuren eskaria asko handitzen du, aurreragoko aldietako beste batzuren bizkarretik. Gure Herrialdean merkaturako ekoizteko joerak inguruko baserri lana gero eta gehiago darama abere gaietara dedikatzen eta hauetaz baturik dauden lur gaietara, pixkanaka ia arras galdurik abereen janarizat balio ez dutenak.

Mendearen haseran, garia eta artoa hartzen zela esan dugu Herrialdean. Garia guztiz galdu da gaur eta bihidun artoa lur apur-apurretan bakarrik ereiten da etxe hegaztien janarizat. Era berean, mahatsak ere, nahiz eta beti eduki garrantzi txikia hemen, atzerakada handia egin du. Gai hau folklorezko elementu garrantzitsu bati loturik dago, txakolina, halegia, baina hala eta guztiz ere, txakolinerako lantzen den mahasti saila gaur eta 1910ean berdina da Gipuzkoan, 32 hektarea bakar-bakarrik, Bizkaian ordea, 890etik 50 hektareatarra jaitsi da.

Laborearen ordeztatu diren ekoizpenak, belarkiak dira zalantza gabe. Belar-arto motak, erremolatxa, alfalfa, sekulabelarra, belardi artifizial polifitoak eta berezko larreak

(*) GAUR informea etxegintzari buruz, 184. orrialdea, III. alea.

dira lurrez eta ekoizpenez egundoko hazkuntza ukan dutenak. Alfalfak, esaterako, Gipuzkoan 1922an baino lau bider lur handiagoa okupatzen zuen 1970ean eta bi bider Bizkaian. Belar-artoak, nahiz eta oraindik belarki minorizkoa izan, Gipuzkoan 1922an 80 hektareatik 560ra igon du 1970ean. Bizkaian, ordea, belar-artoaren hedadura txikitu egin da 1922tik 1970era, baina probintzia honetan belardi artifizial polifitoak eta abar gehiago ugaritu dira. Honela, bada, labore gaien ekoizpenak atzerakada handia ikusi badu ere, belarki ekoizpenak lur handia irabazi du, eta, egun, honetarakoxe erabiltzen da ia Herrialdeko lur osoa, bertako abelazkuntzari jarraikiz.

Herrialdeko abere espezializazioaren kinka 50. urte inguruan jar daiteke. Alde batetik, laboregintza eskatzen zuten gerla ondoko ezaldiak desagertzen dira, eta bestetik, eboluzio hau azeleratzen duten Esnetxeak agertzen.

Esnetxeek esne produktoreak biltzea lortzen, edo derri-gortzen, dute eta ekoizpen osoaren erosketa garantitzen dute prezio jakin batean. Honek esne eskaintza handi erazten du, baserrietan ateratzen den esne guztia erosiko dutela segurtatzean. Honela, bada, abelazkuntza gehitu egiten da, ikuiluak handiagotu, gobernua hobetu, arraza eman-korragoak bilatu... Hitz batez, baserrietako abere eta esne espezialpena gorantz doa, abereen gaitasun produktiboa hobetzeagatik, batez ere.

1858an, lurreamendiko behitegi ereduan, ba omen zeuden behiak «urte guztian zehar, eguneko, eta batz bestea, 6,5 litro esne ematen zutenak». 1929an, urteko eta behiko batz besteko esne ekoizpena 1800 litro zen, 1966an, 2.500 eta Herrialdean gaur urtean 3.500 litro guti gorabehera.

Abere bakoitzeko emankortasunaren handitze hau, hemendik etorri da batez ere:

— Arraza hautaketaren eboluzioa, esne emaile handia den Frisoiaren aldera makurturik balantza, lehenago txahalgintzarako eta lanerako batez ere balio zuten behien ordez.

- Abere janarien aurrerakuntza, batez ere pentsu nahasi enplegu masiboz eta indar elikagarri handiagoko belarkiak lorturik.
- Ernalkuntzaren taxuketa, honela behien ernalmena ahalik gehien esplotaturik.
- Abereen osasun kontua hobetu, bularrerian, batez ere.
- Ikuiluetako baldintzak ere hobetu.
- Txahalak orain gizontzera dedikatzen dira; lehenago ordea, hondakin abereetatik batez ere ateratzen zen okela. 1930ean, adibidez, hondakin abereak % 37 ziren Gipuzkoan eta % 29 Bizkaian. Portzentaia hauk 1970ean % 20ra eta % 18ra jaitsi ziren.

Eboluzio guzti honek, eta makineria sartzeak eginkizun bikoitzeko aberea desagerrera eta ekoizpen handiko abereetan kontzentratzea ekarri du pixkanaka, eta horra, nola bi elementu itxuraz kontrako agertu diren: abelteria gutitzea edo establetzea eta era batera abere ekoizpenetan gorakada handi bat.

Bukatzeko, esan dezagun laburki baserrietako lur ekoizpenean barazkiak garrantzi urria duela. Ia baserri guztietan hartzen da barazkia, baina oso neurri txikitik, eta herrietako azoketan saltzen da kantitate txikitik. Badira barazkitara beste gabe dedikatzen diren esplotazio batzuek, baina hauk oso guti dira.

Oraingo esplotazioaren ekoizpen plangintza argi dago: abelgorri ekoizpena, esnerakoa batez ere, eta okela gai eratorri gisa. Lurrak belarkietara dedikatuak ia guztiz, eta etxetik urrun daudenak baso landaredietara. Garrantzi apurren bateko —nahiz eta oso txikitik— lur gai bakarra barazkiak dira kaleko azokan zuzenki saltzeko.

Aldakuntzak teknologian

Hala lan eskuaren nola aipa berri ditugun gaien aldakuntza hain handia, era batera gertatu den eta baserrira

ere sartuz joan den aurrerapen teknologiko handiari zor zaio batez ere. Aurrerapen teknologikoaren eboluzioa neurtzeko indizerik maizenekotako bat makineriaren gehikuntza artertzea izaten da. Indize honen aurka ez dugu ezer, baina esan beharra dago gure Herrialdeko baldintzetan —etxalde oso ttikiak, orografia oso malkartsuak eta aberetara dedikatuak— makina saila balitekeela, lorturiko maila teknologikoa neurtzeko indizerik onena ez izatea.

Maila teknologikoa neurtzeko sarri erabili ohi den beste elementuetariko bat ongarrien erabilkuntza aztertzea da. Honek lehengoak baino balio handiagoak ukan lezake gure baldintzetan, baina hemen ere kontuan eduki behar da estatistiketan ez datorren ongarri organikoa hain ugari den lekuan, ongarri kimikoen erabilkuntza ttikiagoa ez dela beste gabe hartu behar, ongarri guti erabiltzen delakoaren frogatzat; zeren oso litekeena bait da zimaurrea botatzea preparatu ezorganikoen orde.

Izatez, gurea bezalako harrialde aberetsuan, maila teknologikoaren elementurik adierazkorrenak zenbatu ezin ditugun zenbaitzuk lirateke. Esaterako, abereen arraza, jan sistema, osasuneko hobekuntzak, abeltegien hobekuntzak eta abar. Baina hauen daturik ez dago, eta horregatik guk ere makineriarenak eta ongarrienak hartu beharko. Har kontuan, hala ere, elementu hauk ez direla erabili behar genituzkeenik egokienak.

1960tik 1970era soromotoak 47tik 2.698ra pasa dira; edonolako traktoreak 49tik 897ra. Beraz 1960an soromoto bakoitzeko 1.000 hektareatatik gora lantzen bazen, 1970ean 10 Gipuzkoan eta 25 Bizkaian lantzen dira. Era berean, 1962an traktore bakoitzeko 855 hektarea lantzen ziren Gipuzkoan eta 1.079 Bizkaian, 1970ean ordea, 44 eta 51 bakarrik. Bi kasuetan Herrialdeak desberdintasun handia agiri du Espainiako batz-besteekin, zeren Estatu osoan traktore bakoitzeko 70 hektarea bait dira eta soromoto bakoitzeko 239. Gipuzkoa dago lehen Estatu osoan soromotoko 10 hektarea landuaz, gero Santander 15ez eta Bizkaia 25ez.

Bizkaian, gainera, % 100 gehitu da horien zentsoa 1970etik 1973ra, eta beraz, egun, hektarea-sorimotoen erlazioa, 12,5 hektareatarra jaitsi da guti gora-behera.

Belarmakinen daturik ez dago, baina inguruetan gehituz doazela nabari da. Hala ere, lur sailen tamainia ttiagiagatik eta orografiagatik ez da hain erraza honelako makineriarik sartzea.

Eraizgailu elektrikoei buruzko informaziorik ere ez dago, baina argi dago, Herrialdeko etxalde handi samar gehienetan dutela.

Baserrri estatistiketan biltzen ez den «mekanizazio» elementu oso garrantzitsu bat, automobila da. Automobila da, baserriko gaurko eboluzioko elementu nagusietarik bat, bera bait da pertsonen eta salerosgaien eraman-ekarrirako bidea eta kalearekin harremantzeko elementu handi bat. Honen konturik ordea, ez dator estatistika formaletan. Beste behin nabarmendu nahi dugu zein garrantzi duen «ohiko» estatistikez ez itsutzeak, egiazko bizitzako fenomeno bat neurtu nahi denean.

Oro har, egun, Herrialdeko nekazaritzak mekanizazio indize garaia duela, esan genezake, batez ere, estatu mailarekin gonbaratzen badugu.

Ongarriak

Urte askotan zehar, euskal baserrietan erabiltzen zen ongarri bakarra, ongarri organikoa zen, karez eta desfosforamendu hondarrez edo Thomas hondarrez osaturik. Ongarriei buruzko geroagoko informazioek zioten ongarri bakun nitrogenodunak, fosfatodunak eta potasiodunak erabiltzea komeni zela. Hauk etxeetan bertan nahasten zituzten, lur desberdinen tankerari egokien zetozkion nahasketak egirik. Hauen erabilkuntzak ez zuen ongarri organikorik baztertzen. Zimaurrea zen beti ongarri nagusia, ongarri kimiokoak marjinalak izanik. 1964/65 inguruan ongarri anizkunen agertzen dira merkatuan eta hauen kontsumua gorantz etorri da gaur arte, aurrerantz ere eboluzio berdina su-

matzen zaielarik. Ongarri anizkunok, ez dirudi bakunak baino hobeak direnik, baina bai aurrezten dute nahasmendu lana, honela kitaturik prezioan duten aldea. Gipuzkoan eta Bizkaian 8-8-8 eta 0-14-14 motak gastatzen dira batez ere, biak iraul-ongarriketan erabiliz.

Nahiz eta dakitenek ongarri kimikoa ez dela organikoaren ordezkoko, gehigarri baino, esan, erabili ordezkoko bezala erabiltzen dira, ongarri kimikoa etxean egiten den organikoa guti denean bakarrik erabiliz, beti ongarri kimikoz ontzen diren belardi artifizialak bezalako lanketa batzutarako izan ezik.

1968an, Herrialdean 1828 tona ongarri anizkun kontsumatu ziren, 1973an, ordea, 10.653. Bestalde ongarri kimikoei buruz, Herrialdeko kontsumua honela etorri da:

Nitrogenoa 1964tik 1970era gehitu zen = % 118

Fosfatoak 1964tik 1970era gehitu ziren = % 78

Potasa 1964tik 1970era gehitu zen = % 330

Hau da, bai ongarri bakunek, bai ongarri anizkunek eboluzio teknologiko positiboa adierazten dute inguruko ekoizpen nagusietako lantze sistemetan.

Laburturik: Estudio honen haseran nekazaritza Herrialdeko ekonomian oso sail minorizkoa dela aurkitu dugu. Nazioko nekazaritza osoan ere, ez du zeresan handirik, nahiz eta garrantzi dezentea ukan abere gai batzuetan, oke-latan eta esnetan batez ere.

Herrialdeko ekoizpena ia guztiz aberezkkoa da, esne ekoizpena izanik ekin nagusia, eta okela bigarren. Ekoizpen guztia merkatutarako dela antolatutako dago nekazaritza, auto-kontsumua haintzat ez harteko zati bat izanik. Ekonomia guztiz komertzialdua da, nahiz eta baserriek oraindik artisauro eran funtzionatu.

Lanesku erabilgarria etengabe gutitu da, eta gutitzen ari da, abere ekoizpena handitu egin da eta are handiagoa oraindik abere bakoitzeko emankortasuna, eta hau teknologia asko sartzeak bakarrik ekar dezakeen: abere arrazetan, janarietan, osasunean eta abeltegietan hobekuntza

handiak. Lurraren mekanizazioa eta ongarri kimikoen erabilera ere asko handitu da. Mende honetako urteetan zehar inguruko baserritarrek egundoko ahalegina egin dute ekonomia modernoko baldintzetara egokitzen. Ahalegin honek, egun, behar diren etxalde modernoak ezartzerik lortu ez badu, segur asko ez da baserritarren beren erruz. Gaur baserriaren etorkizunari buruz pesimismo gogorra badago eta gazteria baserritik alde egiten ari bada, ez da baserritarrek baldintza berrietara egokitzen ez dakitelako, baizik baldintza hauengatik baserritarrak, mila ahalegin eta guzti ere, bere buruz gainditu ezin dituen eta ezin izango dituen oztupoak aurkitzen dituztelako.

Baserritok lantzeko elementu oinarriak

Gipuzkoako eta Bizkaitako lurriketak antzatesk, baserritok dira. Herrialdeko kondaira moderno gurtian, eta egun, baserris da, lantzeko plaza nagusia, ia bakarra. Ez da egon, eta egon ere ez lingo oraindik, baserriak beste lurriketarik, garrantia praktiko erabait dionik. Ingeuruko nekazaritza baserris da, eta baserris inguruko nekazaritza. Baserris ez lortuak dira, era batera Herrialdeko nekazaritza sektorean da. Gura lantze, nekazaris, baserris devituan ekonomia sektorearen lantzeak sartzea da, baina estudio hau egi-

herrialdeko sektorearen metakuntza eta organo-antolatzearen
 bidez ere ahal izango da. Mendebaldeko herrialdeetan
 inguruko baserriak egundako antolatzearen eragin dute eta
 normalean modernoko baldintzetara egokituak. Antolatzearen
 egun, behar diren etxalde modernok ezarriak izan dira.
 Baina, eguneko sektorearen eraginak ez dira horietan
 baserriaren antolatzearen bidez pasatzen diren bideak
 eta gaztaria baserriaren antolatzearen bidez, ez da baserri-
 tariak baldintza berberetara egokituak. Ez dute, baina,
 baldintza berberetara egokituak. Baserriaren eraginak
 ere, bere bidez gaitzen ezin dituen eta ezin izango dituen
 osorok gaitzen dituztako.

1970. urtean, 10.552.000 hektarea ziren baserriak, 1975. urtean
 10.411.000 hektarea ziren, 1980. urtean 10.330.000 hektarea ziren.
 1970. urtean, 10.552.000 hektarea ziren baserriak, 1975. urtean
 10.411.000 hektarea ziren, 1980. urtean 10.330.000 hektarea ziren.

Baserritza, baserriaren antolatzearen bidez, baserriaren
 teknologian aurreratuak diren teknologien bidez, baserriaren
 antolatzearen bidez, baserriaren antolatzearen bidez.

Estudioaren helburua baserriaren antolatzearen bidez,
 baserriaren antolatzearen bidez, baserriaren antolatzearen bidez,
 baserriaren antolatzearen bidez, baserriaren antolatzearen bidez,
 baserriaren antolatzearen bidez, baserriaren antolatzearen bidez.

Baserritza, baserriaren antolatzearen bidez, baserriaren
 antolatzearen bidez, baserriaren antolatzearen bidez, baserriaren
 antolatzearen bidez, baserriaren antolatzearen bidez, baserriaren
 antolatzearen bidez, baserriaren antolatzearen bidez.

Baserritza, baserriaren antolatzearen bidez, baserriaren
 antolatzearen bidez, baserriaren antolatzearen bidez, baserriaren
 antolatzearen bidez, baserriaren antolatzearen bidez, baserriaren
 antolatzearen bidez, baserriaren antolatzearen bidez.

B
 di
 se
 et
 ga
 se
 te
 da
 tat

5. Kapituluua Baserria: estruktura eta eboluzioa

Baserria lurantzako elementu oinarrizkoa

Gipuzkoako eta Bizkaiko lurantzako unitateak, baserriak dira. Herrialdeko kondaira moderno guztian, eta egun, baserria da, lurantzako pieza nagusia, ia bakarra. Ez da egon, eta egon ere ez dago oraindik, baserriaz beste lurantzarik, jarrantzi praktiko zerbait duenik. Inguruko nekazaritza baserria da, eta baserria inguruko nekazaritza. Baserria azterturik beraz, era batera Herrialdeko nekazaritza aztertzen da. Gure lehen helburua, baserria deritzan esplotazio unitatearen ikusmirak aztertzea da, baina estudio hau egi-

tean, era batera Herrialdeko nekazaritzaren azterketa bat egiten dugulakoan gaude, nahiz eta begirada, esplotazio unitate mikroekonomikoetan zentratu. Gure estudiorako, bada, baserriak hasten gara, hauxe bait da Gipuzkoako eta Bizkaiko lurantzak berezia, baita Arabako eta Nafarroako eskualde batzutan ere.

Baserrira funtsean, lurantzako eta famili bizitzako unitate bat da, bertan familiaren lanak, dituen lurak lantzen dituenak, etxagun gisa edo maizter gisa. Etxea, etxaldea, abereak eta basoa dira baserriaren elementu osagarriak. Bizitzetxeak esplotazioko ardatzarena ere egiten du. «Bizitza-ikuiluak» eraikuntza unitateak lan lurrez batera, horixe da baserrira fisikoz.

Etxea, baserrira bera, hiru pisutako eraikuntza da: Beheko pisuan, baserriko bi tokirik garrantzitsuenak daude: sukaldea, famili bizitzako euskarri fisikoa, eta etxearen atzeko aldean ikuilua, abereak daudena. Bigarren pisuan, logelak daude eta, hirugarrenean ganbara edo baserriko gaien almazena, batez ere belar idorra, urte guztian zehar abereen janari izatekoa. Bizitza bikoitzeko baserriak ere ugari dira, bi familiek lurak erdibana dituztela eta etxea ere simetriaz erdibiturik. Lan honetan esplotazio unitate aparteko bakoitza baserriak jotzen da, etxe osoa berena duten ala ez kontutan hartu gabe.

Esplotazio hauek berezitasunik aurrena beren bakartasun geografikoa dute. Baserrira sakabanaturik dago, mendian isolaturik, herritik eta beste baserrietatik ere urrun. Eraikuntza isolatua da, teilatupe berean daudelarik bizitegia, abeltegia eta esplotaziorako behar diren makineria eta lanabesak. Etxea, teoriak, lantzen dituen lurren erdi geometrikoan dago, lurak soroka zatiturik daudela.

Inoiz «hauzoak» deritzaten baserri talde ttikiak ere badira. Denbora askotan zehar «hauzoa» izan da baserrietako lagunen harramanerako oinharri muina, sortzen ziren premiei erantzuteko elkarte bat osaturik, zenbait lur lanetarako laneskua elkarri emanik eta laborantzako lanabes

batzu ere elkarrekin erabiliz. Egun, hauzoak ez du hainbeste garrantzi elkarbizitzako muin bezala, baina oraindik ere badu bere indarra hauzotarren batasunak. Honela, inoiz baserri lan batzu, zuloratzea etab, elkarrekin egiten dituzte, edo elkarte osoaren onerako obretan batera lan egiten dute. Hauzoa ere lehen aipatu dugun isolamenduan bizi da, zeren bertako baserri apurrak hala beste hauzoetatik nola inguruetakoko beste baserrietatik ere aparte bait daude.

Zenbat baserri

Esan dezagun lehenengotatik, inork ez dakiela zenbat baserri dauden. Are gutiago, oraindik zenbat hustu berri diren, zenbatek jarraitzen duten esplotazioan, baina erdizka bakarrik eta zenbat jo daitezkeen dedikazio osokoak. Datu hauk jakitea oso garrantzizkoa litzateke, Euskal Herriko gaurko egoeran baserria zertan den eta gerora zein joera dagoen jakiteko, baina zoritxarrez datu hauk ez direla zehazki ezagutzen aitortu behar. Nabari da, bai, baserrien kopurua oso jaitsi dela azken aldian eta gutituz doala, baina ez dago, edo guk behintzat ez dugu aurkitu, izan den eboluzioaren neurketa zenbatezko zehatzik. Ondoren esango dugun guztiak, beraz, ez du beste oinharririk erdizkako informazioak, guti gora-beherako kalkuluak, susmoak etab. baizik. Baina beharrezko da konturatzea, inork ez dakiela baserrien kopuruaren eta horien eboluzioaren berri ziurrik, nahiz eta Euskal Herriko oraingo haroa ulertzeko behin-behineko elementuak izan.

Baserrien kopuruari antz bat emateko, 1962ko eta 1972ko Lur Zentsoetara jo dugu lehen. Baina hauek 0,1 hektareatik gorako edozein lur zati jotzen dute «esplotaziotzat» eta horregatik baratzeak edo lorategiak besterik ez diren hainbat sartzan dituzte baserri ez direnak. Honela 1972ko zentsoak 12.365 esplotazio ematen du Gipuzkoan, 23.867 Bizkaian, Herrialdeko baserri zenbakiaren edozein sumaketa egiakorretatik oso goi bietan. Zifra hauetatik irtenik, guk 4tik 50 hektareatarako lur langarri duten esplotazioak ba-

karrik jo ditugu baserriat. Ondoren 5.1. kuadrant 1972ko zentsotik dakargu baserrien kapuruari buruz hartu dugun informazioa, hedaturaz eta eskualdeka sailkatirik.

5.1. *kuadrant*.—Zentsotik kalkulaturiko «baserrien» kopurua.

ESPLOTAZIO GUZTIAK HEKTAREAKA SAILKATUAK										
«baserriak»										
Eskualdea	1,9 Ha. tarraino	2tik 3,9ra	4tik 9,9ra	10etik 19,9ra	20tik 29,9ra	30etik 39,9ra	50etik 99,9ra	100etik gora	500etik gora	GUZTIZ
GI. 1	625	515	925	289	47	22	4	13	6	2.446
2	328	217	583	528	86	41	9	19	5	1.811
3	416	831	1.003	751	147	63	24	9	4	2.748
4	504	352	784	840	244	109	49	17	2	2.901
5	64	113	489	452	115	40	12	8	—	1.293
6	188	116	336	349	116	41	13	6	1	1.166
GIPUZKOA	2.125	1.644	4.120	3.204	755	316	111	72	18	12.365
BI. 1	2.455	1.342	1.572	407	73	44	17	10	1	5.942
2	726	565	967	359	77	37	20	12	1	2.764
3	730	643	850	508	194	84	46	21	2	3.078
4	459	268	564	308	75	37	13	8	—	1.804
5	2.042	658	786	393	121	70	40	30	5	4.145
6	3.262	1.103	1.179	395	79	42	23	27	12	6.122
Definitu gabe	2	2	1	6	1					12
BIZKAIA	9.696	4.581	5.919	2.488	620	314	159	109	21	23.876
HERRIALDEA	11.821	6.225	10.039	5.652	1.375	630	270	181	39	36.232
PORTZENTAIA	32,6	17,1	27,7	15,6	4	1,7	0,7	0,5	0,1	100
Iturria: Geure elaborazioa 1972ko zentsotik harturiko datuez.										

Zifra hauek duten gako astun bat zera da, halegia, Zentsoak esplotazio baten hedadura izendatzean, lur osoa bakarrik jotzen duela, hau da, ez dituela bereizten sorolurrak eta baso-lurrak. Hortik atera daiteke gure Herrialdeko baserriak gehienek duten lur langarria zentsoko zifrek ematen dutena baino askoz tikiagoa dela. Geroago ekingo diogu luzeago euskal esplotazioaren tamainari.

Zentsoko zifrak beste iturri edo kulkulu batzuz osatu nahi ukan ditugu: Diputazioak, Baserri Kamara Sindikalak, Nekazarien eta Abeltzainen Anaigoak, A. Lekuonaren «Baserri errentakorra» eta I. Linazasororen «Gipuzkoako baserria» bezalako argitalpen pribatuak, eta abar; baina, iturri bakoitzak kalkulu desberdinak ematen dituela aurkitzen dugu. Gauzak honela, baserriak geuk zentsatzeari ere ekin genion, baina guk ere ezin izan genuen lan hori taxuz burutu. Horregatik, tamal handiz bada ere, ez dugu beste erremediorik, geuk ere kalkulu bat botatzea baizik, aipaturiko datu guzti haietan eta euskal baserri aldeko berri daiten hainbat eta hainbat pertsonetik elkar-hizketetan oinharriturik. Gure kalkulutik 1973an, gutxi gora behera, Herrialdeko baserriak goi-behe hauen barruan zeuden:

Gipuzkoa	7.500etik	8.500era barruan
Bizkaia	9.000tik	12.000ra barruan
Herrialdea	16.500etik	20.500era barruan

Baina, beheko mugatik urrago segur asko goikotik baino. Herrialdeko baserri kopururako zifra bakar bat eman beharrik balego, uste dugu urte horretako errealitaterik hurbilena 17.500 litzatekeela. Zifra hau eten gabe ttikiagotuz doanez gero, 1976an baserrien kopuruak aipatu duguna baino askoz ttikiagoa izan behar. Baina 1973rako, Herrialde honetan, kalkulu hauetaz jokatu dugu:

Gipuzkoako baserriak:	8.000
Bizkaiko baserriak:	9.500
Herrialdeko baserriak:	17.500

Baserrien kopurua eskualdeka

Probintziako baserrien kopuru osorik jakin ezik, askoz gutxiago jakin behar zenbat diren eskualde bakoitzeko. Lan honetan, jarri ditugun eskualde bakoitzak zenbat baserri dituen kalkulatzeko ditugun datu bakarrak hauk dira: emanik ditugun Zentsokoak, Gipuzkoarako I. Linazasororen —egile honek egin duen lan handiagatik, zuzenentzat ditugunak—, eta azkenez, geuk bilduriko datuak, Gipuzkoa-

rako bakarrik hauk ere. Ez dago hain gorabehera handirik Linazasorenen datuen, gureen eta zentsokoen artean zentsotik, 4etik 50 hektareatar bitarteko esplotazioak bakarrik baserrizat hartuz gero. Beraz, bi probintzietarako kalkulurik egokientzat 5.2. kuadruan datorrena onartzen dugu.

5.2. *kuadrua.—Herrialdeko esplotazioak eskualdeka sailkatuak. 1972.*

Eskualdea	Zentsoko informazioa						Geure informazioa	Linazasorenen informazioa
	Gutiz esplo. 2tik 50 ha-ra	%	2tik 4era bitartekoak	%	4etik 50era bitartekoak «Baserriak»	%		
GI. 1	1.796	18	515	37	1.283	15	1.434 (Don. gabe)	2.100
2	1.450	14	217	13	1.233	15	1.303	1.385
3	2.295	23	331	20	1.964	23	1.695	1.653
4	2.329	23	352	21	1.977	24	1.565	1.737
5	1.209	12	113	7	1.096	13	1.033	1.045
6	958	10	116	7	842	10	786	783
GIPUZKOA	10.039	100	1.644	99	8.395	100	7.816	8.703
BI. 1	3.438	25	1.342	29	2.096	23		
2	2.005	14	565	12	1.440	15		
3	2.279	16	643	14	1.646	18		
4	1.324	10	268	6	1.056	11		
5	2.028	15	658	14	1.370	15		
6	2.798	20	1.103	24	1.695	18		
Definitu gabe	10		2		8			
BIZKAIA	13.882		4.581		9.301			
HERRIALDEA	23.921		6.225		17.696			

Iturria: Geure elaborazioa 1972ko Lur Zentsoko datuez, I. Linazasorenenak eta geureak harturik.

Baserrien kopuruaren eboluzioa

Nahikoa esanik gaude alderdi honi buruz ere ez dagoela datu zehatzik. Zentsoetako datuez azterketa bat egin nahi ukan dugu, baina lorturiko emaitzak hain errealitatetik urrun iruditzen zaizkigu, non ez bait dugu uste erabiltze-

koak direnik. Esaterako, 1962ko eta 1972ko zentsoetako datuak harturik, bi urteetako esplotazio kopuruak gonbaratu genituen, baina azaleraz sailkaturik. Gonbarazio hauen emaitzak, hauxe agertzen zuen:

—2 ha-tatik beherako esplotazioak, % 50 gutitu zirela Herrialdean bi urteen artean. Emaitza honek, arrazoinezkoa dirudi eta esplotazio ttikiak sailean desagertu direla, adieraziko luke. Hala, «Esplotazio» hauek baserritzat nekez jotzekoak direnez gero, hauen desagertzetik ezin atera daiteke baserri-baserriak hainbeste galdu direnik.

—2tik 4 ha-tara bitarteko baserriak ez zirela gutitu, hauen kopuruak iraunkor zirauela baizik. Litekeena ahal da hau? ala zentsoak lur osoa biltzean, beren lurak pinu sartu dituzten baserriak ere esplotaziotzat hartzen ote ditu? Galdera hauentzat ez dugu erantzunik.

—4etik 10 ha-tara bitarteko baserriak ez gutitu ezezik, % 7,4 gehitu direla. Estatistikaren emaitza hau ez dugu inola ere ulertzen, baserri aldeko berri dakiten pertsonen diotenarekin, guztiz bestera bait dago.

—10etik 50 ha-tara bitarteko baserriak, gutitu egin direla, baina oso guti, % 4,2 bakarrik Herrialdean. Eta hau, gainera, Gipuzkoako beherakadagatik, zeren Bizkaian honelako baserriak ere gehitu egin omen bait dira.

—Azkenez, 50etik 500 ha-tara bitarteko baserriak ere, gehitu egin direla. Honela, bada, esplotazio oso ttikiak alde batera utziz gero, Herrialdeko baserriak gehitu egin omen dira zenbakiz.

Baserrien gutikuntza jendeak sarri esaten duen bestekoa ez izatea balitekeela, uste badugu ere, ezin genezake onar esplotazioen gehikuntza hori. Derrigor egon behar dute Zentsoetan okerrera daramaten elementuren batzu. Gai honi buruz, beste informazio iturri batzu ere aztertu ditugu, baina ez dugu inon beharrezko daturik aurkitu. Horregatik, baserrien kopuruaren eboluzioa azken aldion zein izan den neurtzea bertan behera utzi behar ukan dugu. Possibleago dirudi baserrien kopuruaren eboluzioa aurreran-

tzean zein izan daitekeen iragartzea, oraingo baserridunen adina eta ondorengotasuna batez ere oinharritzat harturik. Alderdi honi hurrengo atalean ekingo diogu zehazki.

Baserritarra: lur empresaria eta lan eskuaren iturri bakarra

Baserriaren geroko egoera posiblea neurtu ahal izateko eta nekazaritzako egoeran elementu nagusia baserritarra denez gero, azter dezagun ondoren baserritarren eta honen familiaren egoera eta eboluzioa.

Baserriko familian, guraso zaharrak daude, gehienez baserriaren jabeak edo behintzat titulutasun juridikoaren jabeak. Beren adinagatik etxeko lanetan lagun besterik ez dezakete egin. Sarritan amona da etxe barruko ardura daramana, andre gaztea baserri lanetan ari delarik.

Baserritarra edo baserriko burua eta bere emaztea dira familiako muin oinharrikoa. Gizona da izatez, lur empresaria eta andreak etxe barruko antolamendua darama eta baserri lanean ere asko laguntzen du. Baserritarrak erabaki handietarako gurasoekin kontatu behar, hauk bait dira baserriko tituludunak, eta honek, sarritan, nahaste gogorrek ekar litzake bi belaunaldien artean, inoiz gazteek baserria bertan behera uzteko arrazoina gertaturik. Hala ere, baserritar gaztea independentea da eguneroko erabakietan eta nahaste gogorrek ez dira hain sarritakoak.

Senar-emazte gazteen seme-alabek osatzen dute baserriko familia. Hauek eskola sasoinen dauden bitartean, zerbait laguntzen dute baserri lanetan, baina baserritar familiako hezi-mailak gorantz igon ahala, eskola lanaren sakada ere gorantz doa eta baserrian egiten duten lana, bat ere eztat jo daiteke, udako oporraldi laburrean izan ezik.

Seme-alaba hauk etxean bizi dira, ezkondu arte. Primuak ez bestiek industrian lan egingo dute eta mantenu eta aloiamendu alde lan egingo dute etxean. Gehienez soldaduskatik etorri arte, edo sasoin horretaratsu arte neskek,

apenas egiten dute diru prestamenik etxean, edo egiten badute ere oso guti. Moduren batez, ezkondu arte baserriaren bizkarretik bizi izatea eskubidetzat hartzen da baserri lanetan lagundu ordez. Sistema hau, primutza sistematik datorren ondorio hau, egun arrenkura bide gertatzen da sarritan primuaren eta industrian lan egiten duten anaien artean. Industri laneko erritmoen eta orduen erruz eta lan hark ematen dion independentzia ekonomikoari esker, baserrian gero eta lan gutiago egiten du. Primuak ordea, ikusten du, neba-arreba ezkongeak asko badira, batez ere, hauek etxeko ekonomi zati handia kentzen diotela. Etxe askotan hau dela eta, desatsegin giro handixea sumaerazi digun beste zerbait ere badago, problema iturri: primua, gaztea denean, aita adintsuak berak dirau baserriko aginpide ekonomikoaz. Semea, ia urteetan gora, menpekotasun ekonomikoan aurkitzen da eta batzutan, hain menpekotasun handia, non baserriatik alde egiten bait du. Ez dugu uste erakundezko elementu hauk direnik baserriak uzteko arrazoin nagusia, baina zalantzarik ere ez, joera hori indartu egiten dutela, nahiz eta joera hau faktore ekonomikoetan, batez ere, oinharriturik izan, geroago ikusiko dugun bezala.

Baserriko lana gehienbat baserriar senar-emazteen lana da. Ikusi dugu laguntzeko guraso zaharrak bakarrik dardela, eskola sasoineko haurrak eta ezer guti lagun dezaketen neba-arrebek. Lehenagoko «morroinak» ia arras galdu dira. Baserriko lan eskua, egun, aurreko denboretan baino urriagoa da. Ekoizpena, ordea, handiagoa da eta horregatik senar-emazteen lanaldiak luzeak baino luzeagoak dira eta beren etxaldeari lotu-loturik bizi behar beti. Baserrian egin behar den beste lan egin behar dela pentsatzea, horra baserriar familiak baserria bertan behera uzteko pentsamenduetan hasteko arrazoinik handienetariko bat.

Ez dago lur entpresari euskaldunaz hitz egiterik erdizkako baserriarrak aipatu gabe. Lur entpresari hauk bietan, industrian eta baserrian, lan egiten dutenak dira,

industrian lanaldi osoa sarturik, gaineko orduak baserrian sartzan dituztenak. Baserritar familiak, honela, bi iturrieta-ko sarrerak konbinatzen ditu, etxeko guztien lana asko eta asko handiturik eta baserriko lana bera txikiagoturik.

Erdizko lan sistema honek indar handia hartu du berrogei eta hamargarren urte bueltatik honantz. Badira sistema honen bidez baserriari eustea posible izango dela uste dutenak, industriaren erakarmen handikorraren aurrean. Fenomeno hau, arreta handiz aztertzea oso garrantzitsua delakoan gaude eta baserriko azterketa ekonomikoa egitean, atal oso bat dedikatuko diogu.

Ondoren, baserritarren eta baserrien dinamikaren neurketa kantitatezko bat egiten saiatuko gara, zenbait indize oinharritzat harturik.

—1960tik 1970era bitarteko baserritar biztanleriaren eboluzioak hauxe ematen du:

Gipuzkoako biztanleria osoa % 31,9 gehitu da bi urte horien artean; Bizkaikoa % 38,2. Aldi berean, Gipuzkoako 26 baserritar udaletxetakoa % 11,5 gutitu zen eta Bizkaiko 46 baserritar udaletxetakoa % 15,5. Honek esan nahi du, biztanleria hirietan biltzen dela lurra utzirik. Esaterako, Lea hibiaren arroan —baserritar udaletxeak— Lekeition izan ezik, biztanleria % 13,9 gutitu da 1965etik 1972ra. Garaiko biztanleria, Durangon, % 21 gutitu da 1960tik 1972ra, Durango aldeko biztanleria, ordea, tarte berean, % 19,4 gehitu da. Hala datu jeneralek nola aipaturiko kasu bereziek argi ematen dute baserriak husten ari direla Gipuzkoan eta Bizkaian.

—1962tik 1973ra bitartean, baserritar biztanleria aktiborearen eboluzioak hauxe ematen du:

Bilboko Bankuko estatistikek honetaz emaniko datuak interpretatzeko oztopo handiak aurkitu baditugu ere, esan dezakegulakoan gaude 1962tik 1973ra nekazaritzako biztanleria aktiboa % 46,1 gutitu zela, hau da, 11 urteren buruan ia erdiratu egin zela. Berrero ere, adibide gisara, eta Bilboko Bankuko zifra batzuk sorrerazten dituzten zalantza

astunak nolabait leuntzeko, Garain gertatuaren berri eman-go dugu. Herri honetan ere, 1950etik 1972ra nekazaritzako biztanleria aktiboa % 40,4 gutitu zen. Garaik azken urteetan 48 baserri zituen, hauetatik zortzi hutsik 1972an. Honen % 16 baserriren uzpen osoa ematen du.

—Lur entpresarien kopuruak hauxe ematen du:

Baserrien dinamika neurtzeko modu egokiagoa lur entpresarien, baserritarren, kopuruak izan dituen gorabeherak aztertzean datza. Zoritxarrez, 1972ko Lur Zentsoko datuak besterik ez daude honetaz, baina hemendixe ere arretazko alderdi batzu atera daitezke.

5.3. kuadrak lur entpresarien kopurua biltzen du adinez eta lanbidez sailkaturik.

5.3. *kuadrak*.—*Entpresarien kopurua adinez eta lanbidez sailkaturik.*

Ingurua	Zenbat entpresari (pertsoneko fisikoak)	Adinezko taldeetan				Lanbide nagusia		Pertsoneko fisikoak ez diren entpresariak
		34 urte arte	35etik 54era	55etik 64era	60tik gora	Baserri- tar ezak	Baserri- tarrak	
Gipuzkoa	11.601	263	3.867	3.281	4.190	7.413	4.188	855
Bizkaia	21.727	457	7.755	5.870	7.645	9.016	12.711	2.354
Herrialdea	33.328	720	11.622	9.161	11.835	16.429	16.899	3.209
Herrialdea %	100	2,16	34,8	27,4	35,5	49,2	50,7	

Iturria: Geure elaborazioa II. Lur Zentsoko datuez, 1972.

Begien bistan dago baserritar gazterik eza. Baserritarrek baserriak baino askoz gehiago izan arren, nabari da hala eta guzti ere:

—Baserri guztietarik heren bat 65 urtetatik gorako pertsonen eskuetan dago.

—% 63 baserri 55 urtetatik gorako pertsonen eskuetan daude.

Baliteke kuadrutan baserritar gazterik ez agertzea base-
rrien titulutasuna gurasoen eskuetan egoteagatik. Hau kon-
tutan edukirik, erizpen bat egin dugu biztanleria aktibo osoa
eta dauden baserritar guztiak oinharritzat harturik eta kal-
kulu hauetara heldu gara, halebria, oraingo lur langile guz-
tiak, beren guraso zaharrak ez direnean, entpresariak iza-
nik ere, onenik onenean eta oso goitik ibilita, oraingo
17.500 baserrietatik 7.455 baserri 55 urtetatik gorako per-
sonen eskuetan daudela eta baserrirako ondorengorik ga-
be. Horregatik, bada, urte gutiren buruan, eta *adinaren arra-
zoin hutsagatik, Herrialdeko baserriak 10.000tik behera
izango dira (% 42,6ko gutipena).*

Entpresarien kopurua eta adina baserrian duten dedi-
kazioaz erlaziotuz gero, hainbat eta hainbat aieru kalkulu-
tatik gutti gora-behera atera dezakegu:

—Dedikazio osoko baserrietatik ia hiru laurdenek 65
urtetatik gorako entpresariak dituzte, % 84 entpresari
55 urtetatik gora dabilta eta beraz % 16 entpresari ba-
karrik dira 54 urtetatik beherakoak.

—Erdizko dedikazioko baserritarretan ere, % 44tik go-
ra 55 urtetatik gorakoak dira. Guztira, —dedikazio osokoak
eta erdizkoak— % 63 baserritarrek 55 urte baino gehiago
du aurreko esaldian esan bezala.

Aurreko esaldian erantsi ditugun baserritar gazte posi-
bleak ere kalkuluan sartuta —eta hori gauzak oso optimis-
ta ikustea litzateke—, hona zer dugun:

—Horrelaxe ere, % 42 baserritar 55 urtetatik gora da-
biltza eta ondorengorik gabe.

Honela, bada, egun dedikazio osokotzat ditugun 8.626
baserrietatik, 4.926 baserritan bakarrik litzateke entpre-
sari gazterik.

Emaizta honi, guti gora-beherakoa izanik ere, oso arre-
tagarri deritzagu: *Oraingo 17.500 baserrietatik 8.600 baka-
rrik dira dedikazio osokoak eta haueetatik 5.000k bakarrik
dituzte entpresari gazteak, eta hori oso eta oso goitik
ibilita.*

Hauei erdizko dedikazioko 5.095 baserritar gazte erantsita ere, gehien jota, hamar mila baserri bakarrik direla atera dezakegu jarraipiderik dutenak. Hauetatik, bost mila guti gora-behera dedikazio osokoak izango dira eta beste bost mila, dedikazio erdizkoak. Dedikazio erdizko baserriak ere, uste dugun bezala, galdu egingo direla posible da; atera kontu zenbat gutituko diren baserriak, etorkizun hurbil samarrean.

Bestalde, Bizkairako eginiko lan monografiko batetik datuak harturik *, Bizkaiko % 38,64 baserritan ez da ikusten jarraipiderik. Hauetatik, % 30,78 dedikazio osokoak dira eta % 7,86 dedikazio erdizkoak.

Azkenez, hona nola ageri den lur entpresarien, eta beraz baserrien, eboluzio probablea, zehazki aztertu ditugun 112 baserritan geure kontura bilduriko datuak oinharritzat harturik. Baserri hauetatik ateratako erizpenek ematen dutenez:

—kotsultaturiko baserrietarik heren bat guti gora behera dedikazio erdizkoak dira,

—% 25 baserrik bakarrik dute dedikazio osoz bertan lan egiten duen pertsona bat, eta

—heren batek bi pertsona ditu baserrian lanean, aita-semeak batzutan, senar-emazte gazteak gehienez. Gipuzkoan, azterturiko 53 baserrietatik, zazpitan, bakarrik lan egiten zuten baserrian 50etik 60rako gizon batek eta beste gazteago batek, eta Bizkaian bi baserritan bakarrik gertatzen zen konbinazio hau. Baserri guztiok, batz bestea, Herrialdeko baserriak haundien eta modutsuen artean zeuden.

Datu hauek baserritarren eta baserrian lan egiten duten pertsonen adinaz erlaziotuz gero, hona zer dugun:

—Bizkaian, % 75 baserritar dedikazio osokok 50 urtetatik gora dute. Gipuzkoan ere, dedikazio osoko % 50 ba-

(*) Osés, Alvaro y Aredillo: **Estudio del medio rural vizcaíno**. 1974.

serritar adin horretatik gorakoak dira. *Herrialdea osoan harturik, dedikazio osoko % 62 baserritarrek 50 urtetatik gora dute.*

—Jarraipideari buruz, dedikazio osoko baserritarrentzat, 50 urtetatik gorako oraingo % 75 baserritarrek, % 6,5 ondorengo posible dute bakarrik, Gipuzkoako % 50ek, ordea, % 28,5 dute. Herrialde osorako, 50 urtetatik gorako % 62k % 17,8 ondorengo bakarrik dute. Beste suposamen egiazkorrago batez, Bizkaiko oraingo % 75 baserritarrek, % 3,2 oinordeko bakarrik ukanen dute; Gipuzkoako % 50ek % 6,3 bakarrik. Herrialde osoan, beraz, % 62k % 4,8 baserri geroko bakarrik dute. Gure erizpenak zuzenak badira, hauxe esan nahi du honek: *gaur 5.425 baserritarrek dedikazio osoz lantzen dituzten baserriak bihar-etzi 420 baserritarrek erabili beharko dituztela.*

—Zifra hauk hain gogorrak izanik, ezinezkoak dirudite. Gure datuak nola bilduta zeuden, kalkuluak nola atara ditugun, eta holakoan gora-behera izango ote den pentsatzen izan gara, baina, datu hauetan okerrik egotekotan, ez dugu beste erremediorik aitortzea baino, baserrien iraupenaren alderago jo dugula, alderantziz baino. Zifra hauen gogortasunak, azaltzen duen errealitatea denik mingarriena bada ere, hauxe adierazten du, halegia, baserritarrik ezagatik baserriak ia arras galtzea ganean dugula, baserriko eta industriako egoerak inguruan sustraitik aldatzen ez badira. Hau progatzeko, ez dago baserri herri batzutatik jira bat egitea eta zenbat gaztek dirauten baserrietan hartarakotasun osoz galdetzea baizik. Beldur gara gure iragarpenik pesimistenak baieztatzeko erantzunak izango ez ote diren.

—Erdika lan egiten den baserriari buruz ere, adinen sailkatzeak baserritarren gero eta zahartasun haundiagoa ematen du. Gazteen artean enplegu bikoitza beherantz doala dirudi. Baserritar gazteek gaitasun profesional hobea lortu eta soldata handiagoak irabazteko modua eduki ahala, baserriko lana utzi eta kale bizimoduan sartzea nahiago dute, bi lanak hain bizi-eritmo gogorrez eramatea baino.

—Azterketa hau burutzeko, esan dezagun baserritarra, gehienean entpresari burutsua dela, eta baserririk eza gutzen ez duten askok hain buru-arinki uste dutenez kontra, oso gizon irekia dela berrikuntzetara eta edonolako eboluzio teknologikotara. Kasurik gehienetan baserritarra ez da gizon itxi, fidagaitz eta aintzinakoia, hitz honen zentzurik eskasenean, entpresari ernai, trebe eta berrizalea baizik bere baliakizun urriez ahalik eta irabazirik handiena ateratzen duena. Ez nahas baliakizunen urritasuna eta baserritarrak aurkitzen dituen hainbeste kanpoko oztopo —bere erabaki guztiak nahi eta ez ondo neurrerazten eta oinak oso lur sendoan ipinarazten dizkiotenak—, eta baserriko lan antolamenduaren nahasitasuna zer den tutik ere ez dakigunok, hain erraz ezartzen diegun oskurantismoa.

Baserriko ekoizpen antolamendua

Baserriko ekoizpen antolamendua aztertzeke, zein baliakizun duen ikusiko dugu lehen, ondoren ekoizpen egitura laburki emanik.

Baliakizun produktiboak

Lurra.—Mundu guztiak daki aztertzen ari garen Herrialdeak oso orografia malkartsua duela. Lurra ondo probetxatzeko mugaketa haundia da hori. Lur menditsuak, aldapa haundiak eta haran herstuak, horra euskaldunen lurlantzak maneiatu behar duen lekua.

Lurraz zerikusia duen elementurik garrantzitsuenetakoa lurraren hedadura bera da *. Herrialdeko baserriak oso tikiak dira, hain tikiak izan ere, non sarritan ezinezko bait dirudi nola hain lur erabilgarri apurrean entpresa antze-

(*) Lurraren kalitatea ere kontuan hartzekoa da, baina elementu hau ez dugu azterketa honetan sartu, beharreko informaziorik ez dugulako eta gainera epe laburrera lurraren kalitateak gorabehera tikiak duela uste dugulako.

ko zerbait eraman litekeen. 5.4. kuadruan baserrien sailketa hedaduratik ematen dugu, zentsoan bilduriko 2 ha-tatik gorako esplotazioak bakarrik harturik «baserritzat».

5.4. kuadrua.—Hedaduraren tamainiaren sailketa. Portzentaiak.

Non	Baserrien hedadura. (Ha.k)								Guztiz
	2tik 3,9ra	4tik 9,9ra	10etik 19,9ra	20tik 29,9ra	30etik 49,9ra	50etik 99,9ra	100etik 499,9ra	500etik gehiago	
Gipuzkoa	16	40,2	31,2	7,3	3	1	0,7	0,1	100
Bizkaia	32,6	41,7	17,2	4,3	2,2	1,1	0,7	0,1	100
Herrialdea	25,5	41,1	23,1	5,6	2,5	1,1	0,7	0,2	100

Iturria: Geure elaborazioa, II. Lur Zentsoko datuez. 1972.

Kuadru honek baserrien hedadurari buruz esana guztiz baiezen du. Herrialdeko baserririk laurdenak, 2tik 4 ha-tara dabilta, baserri guztietatik % 66k 10 ha-tatik behera dute-larik. Lehen ere behin baino gehiagotan esanik gaudenez, Bizkaiko baserriak Gipuzkoakoak baino tikiagoak dira. Bizkaiko baserrietatik heren bat 4 ha-tatik behera dago, % 74 izanik 10etik behera dabilzanak. Gipuzkoan ordea, % 16 «bakarrik» 2 ha-ren azpitik eta % 56 10 ha-ren azpitik. Bi probintzietan ia ez dago % 10 baserri 20 ha-tatik gorakorik.

Gainera zifra hauek baserri bakoitzeko lur erabilgarri osoa ematen dute, hau da, *soro-lurra eta baso-lurra*. Beraz pinadietatik-eta aparte, lurlantzara dedikatzen den lurra oraindik askoz tikiagoa da baserririk gehienetan. Euskal baserria esplotazio minifundista bat da eta oso gradu handian gainera.

Guk inkestaturiko baserrietan —gehienak Herrialdeko batz-beste baina handiagoak— esplotazioen sailketa hedaduraz hauxe da:

5.5. *kuadrua.*—*Baserrien tamainia osoa eta lur langarriarena.*

Non	HEKTAREAK.						Guztira
	2etik 3,9 ha.tara	4etik 9,9ra	10etik 19,9ra	20tik 29,9ra	30etik 50era	50etik 90ra	
Herrialdea							
Lur osoa:							
zenbat baserri	12	12	32	29	10	2	112
%	10,7	24,1	28,5	25,9	8,9	1,7	100
Lur langarria	28	61	18	3	2	—	112
%	25	54	16	3	2		100

Inkestaturiko baserrietatik % 75ek 10 ha. lur langarri baino gutiago dute, eta % 35 dira tamainia horren azpitik dabilzanak, lur erabilgarri osoa kontuan hartuz gero. Honen esan nahi du, baso lurren proportzioa handia dela baserrietan. Honela argiago geratzen zaigu baserrietako hadadura langarriari buruz lehen esana, halebria, Zentsoak dakartzan baserrien hadadurako zifrak baino askoz ttikiagoa dela lur langarria. «Normaletik gorako» baserriak harturik % 75ek 10 ha-tatik behera lur ez-baso badute, Herrialdeko gehien-gehienak tamainia honetatik behera dueda atera behar. Jeneralean Gipuzkoako eta Bizkaiko baserrien batz besteko hadadura 4etatik 6 ha-tara dabilela esaten da eta, baieztapen hau egiaztatzeke datu zehatzik ez badago ere, nahiko errealista ematen du. Baliteke Gipuzkoako baserriak 6 ha-tatik hurbilago ibiltzea eta Bizkaikoak beheko mugatik hurbilago —4 ha—, probintzia honetan gainera tamainia horretatik beherakoak ere hainbat izanik.

Estudio honetako kalkuluetatik 5 ha lur langarri * eta

(*) Estudio honetan lur «langarria» diogunean, soroak eta belardiak esan nahi dugu beti.

6 baso lur dituen baserria hartzen dugu oinharritzat, Herrialdeko baserri normalen batz bestekoen adierazle gisa. Geroago, hainbat kalkulu egingo da tamainia handiagoko baserrien posibilitateei buruz ere. Baserri ttikiagotan zailentzarik ere ez, sarrerak ere ttikiagoak izango direla, 5 ha-tako baserrian baino.

Lurra nola erabili baserritik dagoen distantziak erabakitzen du batez ere: etxetik hurbilen dauden lurrak soroztat erabiltzen dira, batez ere barazkiak, indabak, patatak eta abar. Lantzen den lurra oso ttikia dela ikusiko dugu geroago. Urruntxoago dauden lurrak laborerako, belardietarako eta larreetarako ziren lehenago. Egun laboreak galdu-takoan dena da belardi eta larre. Eta azkenez, basoak geratzen dira. Oraintsu oraintsu arte urruneko lurrak hartzen zituzten, baina orain lurrik onenak eta baserriak urrenak ere jaten ari dira lan eskua gutitu ahala. Lehen zuhaitz motarik ugariena haritza, bagoa eta ezkia ziren, baina ez dago esan beharrik, orain, insignis pinua dela nagusi non-nahi.

Jendeak lurren zatiketari eta baserriak urruntasunari buruz uste duenez bestera, esan beharra dago lantzen diren lurrak etxe inguruan edo oso hurbil daudela. Lan esku erabilgarria gutitzeak lur langaitzak zituzten baserriak galtzea ekarri du. Baserri inkestatuetan % 74k beren lur langarria edifizioa edo baserria jotzen zeukaten; % 19,6k kilometro baten barruan eta % 1,96 baserri bakarrik zuen lurrik distantzia horretatik gora. Lurrik Bizkaian Gipuzkoan baino etxearen ingururago daude —% 85,7 baserri beren lurrez inguraturik Bizkaian—, baina bi probintzietan ageri da euskal baserriak, beharrez indarrez, lurrik egokienek halako batz besteko bat egin duela irauteko.

Lurren ukantz araua etxaguntza da batez ere, nahiz eta Bizkaian oraindik maiztergoak eta erdirakoak beren inportantzia ukan, % 19 baserri izanik honelakoak. Herrialdea, osoan harturik, % 86 baserri lantzen dituzten baserri-tarrenak berenak dira eta % 14 bakarrik dabilta beste sistema batzutatik.

Lan honetan, edozein lur aipu ha-tan egiten bada ere, jakingarri da oraindik neurri zaharrek ere badirautea, Gipuzkoan goldea eta Bizkaian giza lana, hura idi uztarri batek egunean egin zezakeena, eta hau, gizon batek egunean egin zezakeena.

Lana.—Kapituluon bertan baserritarrari dedikatu diogun atalean giza elementuaren egoera aztertu dugu, bera bait da ihardun ekonomiko guztiaren oinharri. Atal honetan, baserri lanaren egoera homologaturik aztertuko dugu, hau da, dagoen lan erabilgarri guztia «gizon-egun» bakarrari dagokiona emanik. Horretarako, dedikazio osoz ari den etxeko buruaren lana 1-tzat hartzen da, andrearena 0,50tzat, 0,75-era igoten duen udaldian izan ezik, eta laguntzen duten familiako beste lagunena 0,25tzat. Erdizko dedikazioan etxeko buruari 0,50 ematen zaio, baina andrearen lana 0,75 da urte osoan, familiako beste lagunena berdina izanik. Indize hauetaz, inkestatu ditugun baserrietako lan-indar erabilgarria 5.6. kuadrak biltzen duena da.

5.6. *kuadrak.*—*Lan-indar erabilgarria baserrika eta portzentaiaka.*

Non	Lan esku erabilgarria								
	1,1	1,1-1,25	1,26-1,50	1,51-1,75	1,76-2	2,1-2,50	2,51-3	3,1-3,5	Gehi 3,5
Gipuzkoa	1	5	4	4	12	11	11	2	3
%	1,8	9,4	7,5	7,5	22,6	20,7	20,7	3,7	5,6
Bizkaia	1	1	5	3	15	21	11	1	1
%	1,6	1,6	8,4	5	25,4	35,5	18,6	1,6	1,6
Herrialdea	2	6	9	7	27	32	22	3	6
%	1,7	5,3	8	6,2	24,1	28,6	19,6	2,6	5,3

Iturria: Geure elaborazioa inkestetako datuez.

Kuadrak ikus daitekeenez, ia baserrikerdiek 2 lan unitate baino gutiago du, nahiz eta baserri mordo handi batek (% 41 Gipuzkoan eta % 54 Bizkaian) 2tatik hiru unitatera ukan. Honek esan nahi du baserriko familia bertan dedikazio osoz lan egiten ez duten pertsonen laguntzaz kon-

tatzeko moduan antolaturik dagoela. Beraz, familia osoak egin behar du industriaz gaineko lan bat, eta erdizko dedikazioz ari diren baserrietan atsedetik elementalenik ere ezin hartu sarritan. Gauzen egoera honi ez deritzagu bat ere egoki. Horregatik etorkizuna planifikatzean, ez dira oraingo lan orduak oinharritzat hartu behar, baserriko familiarentzat egoera erosoago eta orekatuagoa baino. Gure baserri «ereduan» «egun/lana» 1,75 unitate jotzen dugu dedikazio osoan eta 1,50 erdizko dedikazioan.



Baserriko lan eskuak, gehienez lehen mailako ikaskuntza besterik ez du. Noizbehinka bakarrik aurkitzen da Gipuzkoako Zabalegi Baserri Eskolan ikasten egoniko enpresari gazteren bat. Baserritarrak ez du medio idatzirik erabiltzen bere heziketa profesionala hobetzeko. Hala ere, baserritarren artean komunikazio ona dago baserrian dabilen praktikei eta hauen emaitzei buruz. Abereen jangaien enpresa komertzialak dira ekoizpeneko abereentzako elikatura sistema berrien transmisio biderik inportanteenetarikoak. Baserriko seme-alabak etorkizun industrialerako profesio eskoletan prestatzen dira, eta baserrian geratzeko asmorik duten apurrei ez zaie beren heziketa profesionalerako ardura handirik ikusten. Etxean bertan ikasiz joango direla uste dute. Ezagutzea komeni zaien elementu batzu badaudela ez sumatetik datorrela gehien bat uste dugu hau, zeren sumatzen dutenean saiatzen bait dira. Zaragozako Lur Makineriaren Feriara, esaterako, hainbeste joateak erakusten duen bezala. Gakoa gehienbat hemen dago, halegia, bere egoerari egiazko aurrerapenik ekarriko dion eta beraz bere ezagutzak hobetzera bultzatuko duen ezagutza teknologikorik ez zaiola baserritarrari azaltzen. Alderdi hau inestigazio urritasunaz lotu beharko genuke eta batez ere, ez dagoela inolako egokimendurik baserritarrak dabilen baldintza konkretuetarako. Hori da kontutan ukan behar dena, baserritarrak axolagabekeriaz akusatuta aurretik.

Instalazioak eta makineria.—Baserriko instalazioak dira bizitzetxea babesten duen edifizioa, ganbara eta ikuilua. Azken urteotan, bizitzetxeak eta ikuiluak alderdi askotan hobetu dira. Ikuiluetan egun denek dituztela esan daiteke zementuzko azpiak eta askak, ur korrontea eta elektrika argia. Etxe askotan plaza bateko eraizgailuak ere badira. Bada nahikoa ikuilu handi eta modernorik ere. Belar zuloak ere asko egin dira, Gipuzkoan Bizkaian baino gehiago.

Baserriko makineria hauxe da: lanabesak, belar makina, soro motoa, motozerra eta eraizgailua. Baserri askotan traktore ttiki bat ere badago. Baserriko bizimoduan automobilak zein garrantzi duen aipatzea ere beharrezkoa da, eta honi geroago ekingo diogu. 5.7. kuadruan dator, guk inkestaturiko baserrietako hornitura.

5.7. kuadrua.—*Esaniko elementuak dituzten baserriak. Portzentaiak.*

Non	Ikuilu tradizionala	Ikuilu modernoa	Zuloak	Traktorea			Soromotoa	Eraizgailua	Automobila
				Guztiz	25 CV	26 CV			
Gipuzkoa	70	28	56	49,7	86	14	89	59	43
Bizkaia	83	17	33	38,7	90	10	57	42	42
Herrialdea	75	24	43	46	87	12	79	50	42,3

Iturria: Geure inkesta datuak.

Instalazio hobekuntzak eta makineria erosteak inbertsio handia egin erazi du. Bizkaian, inkestaturiko % 20 baserrik 60. urtetik gora, 250 milatik 400 mila pezetatara inbertitu dute, Gipuzkoako % 20k ordea, milioi erdi inguru, kopuru inbertituak oso behetik jota beti. Baserrietan lurrik, ez abererik, ez jatorriko instalaziorik jo gabe, gutienez milioi erdiren inbertsioa dago makineriatan eta hobekuntza ttikietan. Baserriko urteroko irabazi gordinak ere milioi erdiren inguruan dabilzala (ikus 7. kapitulua) eta makineria 5etik 7

urtetara amortizatzea dela kontutan ukanez gero, oraingo mekanizazio mailari eusteko baserriarrak bere irabazi gordinetatik % 20tik 14era horretaraxe dedikatu behar. Zifra hauek beste gabe sartzen dute errespetua.

Kapitala eta finantzamendua.—Kapital zirkulatzailean ez bide dago eragozpen handirik eta jeneralean baserriar guztiek dute zerbait aurrezturik, gerra ondoko urteetan eta pilaketa aldi nahiko luzean lorturik. Aurrezpenok ez datoz hainbeste baserriatik bertatik, pinutik, lur saltzetik edo industriako lanetik baizik. Baina egon badago inbertitzeko ahalmena. Baserri askotan gehiago inbertitzen ez bada, ez da gehienbat dirurik ezagatik, baizik inbertitzeko bizgarririk ezagatik, baserriaren errentakortasunik ezagatik.

Baserriarren kontsumu maila nahikoa beherago dago kontsumismora emanago dagoen langile industrialaren aldean.

Kreditua oso guti erabiltzen du. Baserri helburuetarako kreditu eskariak hain guti dira Herrialdeko erakundeeetan, non kreditu mota hau ia ezagutu ere ez bait da ezagutzen kreditu etxeetan. Aitzitik ordea, badira hamaika baserriar beren aurrezpenak baserriatik kanpora inbertiturik dituztenak. Honela, argi dago, baserriar euskaldunak ez duela bere baserrian irabazpide handirik ikusten, eta bere inbertsio ahalmena beste toki batzutan erabiltzea nahiago du.

ekoizpena

Euskal baserria gehienbat, ia oso osorik, abelazkuntza da. Baserrietako abererik gehienak honako hauk dira: fri-soi arrazako behiak esnetarako eta txahalgintzarako, eta txahalak gizentzeko eta okelatarako. Gure inkestetan bil-
duriko datuen arabera, esan daiteke:

- Bost baserriatik batek lau behitak behera du (% 20)
- lautatik batek (% 25) 4etik 6ra behi ditu.
- hirutatik batek sei burutatik behera du

- baserririk erdiek 7 behi eta 6 txahaletatik gora daukate
- % 40 baserrik 7tik 10era behi eta 15etik 25era buru daukate.
- hamarretik baserri batek bakarrik du 10etik gora behi edo 25etik gora buru.

Bi probintzietan, abelazkuntza oso indartsua da. Buruen zifra baserriaren tamainiaz gonbaratuz gero, erlazio hertua ageri da baserrien tamainiaren eta dituzten abereen kopuruaren artean. Hektareako-buruen indizea 2tik urrago dabilela dirudi baserri ttikietan, eta batetik hurbilago haundietan. Honen arrazoina zera da, halegia, lur txikidun baserriarrak bere abereen mantenua pentsuez hornitu behar duela, lur handiagoa duena ordea, belarkitan duen abantaila haundiagoaz balia daiteke. Honek esan nahi du, baserri ttikietan abereen errentakortasuna ttikiagoa dela eta beraz hauen iraupena zailagoa dela.

Lurraren erabilerari buruz, esan behar da % 85ek bere % 85etik gora lur belarkitara dedikatzen duela. Berezko belardiei ekiten zaie, batez ere. Gero distantzia handira belardi artifizialak datoz, baserri gutik ematen bait die hauei % 25etik gora lur, eta baserri askok bat ere ez. Baserri batzutan —ez askotan— urte belardiak ere badituzte, Bizkaian batez ere. Gainerako belarkiek oso garrantzi txikia dute.

Kontsumu zuzeneko gai landuetarako lur zati ttiki bat bakarrik erabiltzen da. Oso baserri guti dira gai hauei % 10etik gora lur ematen dietenak. Herrialdeko baserrietatik bi herenek guztiz 5.000 m²tik behera lantzen dute, dena delakoa izan baserriaren tamainia. Lanketarik aurrenetarikoak barazkiak, artoa, indaba eta patata apur bat dira, nahiz eta hauk garrantzia agudo galtzen ari. Laburki euskal baserriak aberera jokaten duela ia oso osorik, esne-hargien esplotazio bitarikoa izanik gaurko baserriaren oinharri ekonomikoa, ardatza eta giltza.

Lur gaien komertzialmendua

Herrialdeko gai nagusien komertzialmendu sistemak hauexek dira:

—Esnerako: gai hau Esnetxeek erosten dute, Administrazioak ezarritako prezioan esne guztia eramanik. Baserritarrak baserrian bertan edo nonbait hurbil jartzen du eguneroko bere merkantzia. Hilero ordaintzen zaio bere alde duen kopurua eta bere herriko aurrezki kutxan kobra dezake. Esnearen prezioa eztabaidatzekoa bada ere, —eta oso garraski izan ere, dakigun bezala— komertzialmendu sistema hau erraza eta efizientea da, baserritarrari neke handirik ez dakarkiona.

Baserritar batzuk, esnea zuzenki saltzen diote kontsumatzaileari herrietan, Esnetxeari baino prezio nahikoa goragoan, baina eguneroko banaketa izanik eta etxerik etxe gainera, laneku gehiegi behar da baserritarrak honetara dedikatu ahal izateko. Bestalde salmenta zuzen hau herrietan bakarrik egin daiteke, hirietan debekaturik bait dago esne salmenta zuzenekoa.

—Txahaletarako: hemen lehengoaz beste kontu bat dago. Salmenta zuzen egiten zaie harakinei edo tratulariei, noiz-behinka eta arauketarik gabe. Bada garantiazko prezio minimoen sistema bat, baina azalduz dugu ez duela honetarako Herrialdean funtzionatzen, prezio horik merkatuko prezioen oso azpitik bait daude. Txahalen salmenta, beraz, merkatu librean egiten da. Horregatik prezioetan gorabehera handiak egon daitezke eta egon ere egoten dira epe laburrean. Gainera, baserritarra ez dago inoiz segur hiltzeko moduko txahal bat edo batzu dituenean, hartuko dizkion harakinik edo tratularirik aurkituko duen ala ez. Merkatua, beraz, arrisku handikoa da; ez bait dago segurantzarik ez prezioenik, ez behar den sasoiari saltzeko modurik egongo denik. Sistema hau, okerrago gerta lekioko txahal asko hazten dituen baserritarrari.

—Baserrian hartzen diren barazkiak, indabak, patatak, hegaztiak eta untxiak kontsumatzaileari zuzen saltzen zaiz-

kio, edo tratulariei herriko azoketan. Merkatu honek ez du inolako arauketarik eta ez du «koltxoitzat» egin dezakeen tresnarik ere, eskariaren egoerak gaiak hartzen ez baditu. Merkantzia hauen ekoizpena ere, beraz, oso arriskutsua da.

—Sagardo-sagarrak, merkatua guztiz menpe duten Herrialdeko sagardo industrietan saltzen dira.

Merkatuak beren arriskutik eta gaien emankortasunetik sailkatuz gero, hauxe genuke:

—Esneak: emankortasun laburra, arriskua ere laburra.

—Txahalak: emankortasun erdizkoa, arrisku handia.

—Barazkiak eta gai landuak: emankortasun handia, arriskua ere handia.

Baserri motak

Esaten ari garen berezitasun jeneralen barruan honako baserri motak bereiz daitezke:

Lehenengo, baserri tradizionala, «betikoa», daukagu. Honek bere abeltegiak eta bizitzetxea hobetu ditu, baina ez du ez produkzio neurririk ez erritmorik aldatu.

Hauekin batera badira baserri guti batzu, instalazioak hobetuz eta gai berriak esperimentatuz, baserriko problematzat irtenbide bat bilatzen ari direnak. Gehienok, aberea gehitu dute eta instalazioak hobetu, ikuiluak batez ere, ikuilu handiagoak eta simaurketa mekanikodunak (parriladuna eta abar). Baserri hauek txahalak gizentzera jotzen dute, behiak haztera eta beraz, esne ekoizpena edo bietara batera. Baserri batzutan fruitu zuhaizti modernoak ere jarri dituzte. Beste batzutan barazkiak plastikapean esperimentatzen ari dira. Baserri guztioi «Baserri modernoak» deitzen diegu egitura zaharren modernakuntzan ahalegin-zen ari bait dira, premia modernoetara egokitzeko.

Badira beste esplotazio mota batzu ere, gehienetan baserritar ez direnek muntatuak. Gai bakar batean espezialduriko esplotazioak dira hauk, gehienez hegaztitan edo

okelarako abelgorritan. Instalazioak modernoak dira eta edukiera erdizko edo handikoak eta baserritar normalak baino kapital gehiago dute horietan. Sarritan, lan esku alokatua erabiltzen dute horietan. Esplotazio moderno hauk guti badira, askoz gutiago izan behar, horietako esplotazioak Herrialdean, baina kopurua gorantz joan liteke eta beraz, kontutan hartzekoak dira.

Azkenez, aipa ditzagun baserri elkartuak, ekoizpeneko lur esplotazioei bakarrik gagozkielarik. Gehienez lankideek lurra jartzen dute, etxeko baratzea eta basoak izan ezik, diru mordo bat jartzen dute elkarkuntza bakoitzaren eta lankide bakoitzaren egoeren arabera eta bakoitzaren lana elkarrekin egiten dute esplotazio berriko lurrak lantzeko, emaitzetan ere elkarrekin parte harturik. Elkarkuntzok, gehienez, beren tokiak probetxatzen dituzte ondo mekanizatzeko.

Ekoizpen kooperatibok ez dira asko Herrialdean. Cesin-eko Lur Arauketako Hitzaldiaren ustez, 1968an Gipuzkoan sei kooperatiba zeuden eta beste hainbeste Bizkaian. Gure datuetatik, Gipuzkoan sei baserri elkartu daude 1972an: bat Itziarren, bat Aizarnan, bat Zestuan, eta bi Azpeitian. Asteasun beste bat martxan edo hasteko ote zegoen, baina ezin izan dugu segurtatu. Bizkaian, bederatzi baserri elkartu daudela dirudi. Ajurian, Meñakan, Elorrion, Lezaman, San Salvador del Valle-n, Mungian, Otxandion, Olaetan eta Markinan. Hemen beste bat ere ba omen zen lehenago, baina pot egin zuen. Bi probintzietatik batean ere ez dira lankideak sei lagunetatik gora pasatzen.

Antolamendu soziala

Baserria ez da ekoizpen unitate bat bakarrik, harreman sozialen oinharritzko zelula bat, baizik. Beraz, baserriko elementu soziologikoen azalpen labur bat sartu dugu hemen.

Baserriko familiakideen arteko harremanak lehen ere izendatu ditugu. Baserritarren kanpoko harremanei buruz,

honela jar ditzakegu; a) hauzoarekin, b) baserrien komunitate edo herriarekin eta c) inguruko kale edo industri lekuekin.

Lehen, hauzoak eta herriek zuten garrantzi nagusia baserritarren gizarte bizitzan. Gauzak errotik aldatu dira. Hauzoak eta herriak, honek batez ere, harremanen barruti indarra galdu dute. Diruz modutsuago aurkitzeak, gaurko ibilpideak, familia guztietan lagunen batzuk enplegu industria- la edukitzeak, haurren heziketari ematen zaion garrantzi handiagoak, jolaskeren aldakuntzak... baserritarren bizi-mailan eta gustoetan buelta handia ekarri dute, beren herri ttikiarekiko loturak lasatuz eta hurbilen dagoen hiri edo industri nukleoarekin herstutuz. Areago oraindik, kaletiko urruntasuna deskonformitate bide bat da, harekin gizarte harreman batzu eduki ahal izateko kasuan. Zalantzarik ere ez, baserritarra gero eta sartzenago joango dela hiri nukleoko bizimoduan, eta laster izango da ez kaletarrendandik bizikera desberdina daraman pertsona, lehenago zen bezala, kaletik geografiaz urrunago bizi den pertsona bat bakarrik baizik.

Bizi mailak eta kontsumua

Oraingo baserritarrak bizi-maila «dezentea» du. Zaila da honekin zer ulertzen den jakitea, baina jeneralean esan nahi du baserritarren bizi-maila inguruko batzaz besteko biztanleriarik gehienaren pare dagoela gutienez, eta gorago gehienean.

Baserritarren bizikera azken urteotan oso hobetu da. Bizitzetxeetan aldakuntza handiak egin dituzte. Gaurko baserrietan kale etxeetako elementu guztiak daude, egonleku zabalak eta erosoak dira kaleko etheen aldean.

Etxearen berrikuntzak eta etxeko konforta handitzen duten elementuak erosteak baserritarren inbertsio zati galanta eraman du. Kontutan hartzekoa da, gehienetan, etxea hobetzen ekoizpen inbertsioetan baino gehiago gastatu de-

la, nahiz eta, esan dugun bezala, ekoizpen inbertsioak ere nahiko handiak izan.

Lehen ere, aipatu dugu, zein garrantzi duen automobila edukitzeak eta baserrietaraino bidea egiteak. Garraio medio hau edukitzeak, baserritarren bizitzako elementu berezi-tarik bat arras azpikoz goratu du; haren isolamendu geo-grafikoa. Baserritarrak orain lan lekuetatik eta gizarteko harremanetatik hurbilago bizi dira, gaurko hiri handietako inguru hauzoetako langile industrialak baino.

Baserriko alderdirik gakotsuenak haur ttikien eskola, eta osasun kontua dira. Baserriari iraun erazi nahi bazaio, hauxek dira konpondu beharreko lehen alderdiak. Baserri-tarra, hiritar langile industrialarekin gonbaratuz gero, diru maila goragoan bizi da. Entrepresari ttikiarekin gonbaratuz gero, ordea, baserritarra okerrago dago segur asko.

Baserritar familiaren ametsik handienetarikoa lan ordu-ak gutitzea da, baita baserriko menpekotasuna ere, ezin bait du inoiz etxea bakarrik utzi, abereek eguneroko ardu-ra dutelako. Soluzio oso gaitzeko alderdia da hau. Zalan-tzarik ere ez, gaurko baserriko lana gogorregia dela eta baserritar familia osoa iharduera guztiz anormaleko erritmo-etara behartzen duela. Honek baserritarrari industriako lan-gilerik pobreena baino gaizkiago bizi dela sentierazten dio.

Emakumea baserrian

Baserriko ekoizpen lanak bi sexuen eskua behar du. Na-hiz eta emakumeak etxeko antolamenduari ekin, batez ere, baserriko lan guztietan ere parte hartzen du. Areago orain-dik, etxeko burua erdizko dedikazioz ari bada, orduan ia baserriko ardura eta lan guztia berak darama. Beraz, hone-lako baserritar emakumeen bizitza bakarra eta osoa lana eta lana da, etxean eta baserrian, eta harentzat ez dago beste konturik. Haren ezkontza, familiari eta baserriari oso osorik ekitea da, ia inolako harreman sozialik gabe. Kale bizitzan ez du ia batere parterik hartzen, bere senarrak eta seme-alabek ez bezala. Hitz batez, kondenaturik bizi behar.

Ez da beraz, hain zaila ulertzea, zergatik gaurko neska euskaldunek ez duten baserrian bizi nahi edo baserritarrekin ezkondu nahi. Baserrian segitu nahi duen gizon gazteak, komediak ditu halako bizimoldera egokitze moduko lagun bat aurkitzen. Benetako gako oso latza da hau, baserritar mutil askoren mutil-zahartza dakarrena eta beraz, baserriaren geroko jarraipiderik eza.

Gizarte eta kultur bitzita

Bizi-mailen arlo garrantzizkotzat aipatu beharra dago, zein ahalbide duen baserritarrak halako kultur maila bat harrapatzeko eta bere giza aberaskunde osokorra dakarrenten beste bide eta harreman sozial batzu edukitzeko.

Kulturara heltzeko medioen artean hauk aipa ditzakegu: a) eskolakuntza; b) nagusien kultur bide bereziak (hizaldiak, elkarrizketak, eta abar); c) liburuak; d) masen komunikabideak (irradi, telebista, zine, eguneroko, aldizkari, eta abar).

Arlo honetan, baserritarren eta kaletarren arteko alde nagusia, bi alderdiotan datza batez ere: lehen, hizkuntza. Baserritarrak eragozpen haundiak ditu bere ama-hizkuntzaz kanpo datorkion beste kultur mundu bat atzemateko. Eta bigarren, baserrietatik kultur eta gizarte bitzita egosten den lekuetara dagoen distantzia.

Azalez ulertzen, baina ez menperatzen den hizkuntzan kultura guztia etortzeak ondorio gogorak ekarri behar, derrigor. Gakorik haundiena, oinarri heziketa jeneralean dago. Hemen, eskolara hasi arte giro arras euskaldunean zebilen haurra, kolpera dena erdaraz dabilen mundu berrira sartzen dute. Baliteke, haur hauetariko askok, eskola mundura behar bezala egokitzerik izan ez zutelako, beren bitzita guztian edozein letra idatziri muzin egitea. Beldur gara, honelako haur asko ez ote dagoen euskaldun gazte jendearen artean.

Problema honetarako, soluzio bat ikastolak izan daitezke. Baina ikusten denez, baserriko gurasoek, erdararen be-

harrizanaz kargaturik, ez dute haurrak hara bidaltzeko joerarik. Eskola erdararen ikasbidetzat jotzen dute, hemendik hurrei zeinen problema gogorak datozkien konturatu gabe beharbada. Oso arretagarri litzateke, ikastolak euskal hiztunak erdarara egokitzen egin dezakeen lana hobeki ezagutzea, haurrak berentzat hain ulergaitz den munduan kolpera sartuta baino era mailatuagoz eta arrazionalagoz noski.

Desberdintasunaren beste alderdia distantzia da. Baserriarrak kulturara heltzeko dituen ahalbideak, distantzien eta ibilbideen menpe daude. % 34 baserritar herritik bi kilometro baino urrunago bizi dira, % 10,5 kilometro baino urrunago. Automobila jeneraltzeak gizarte integrazioa erraztu duela esan dugu, baina oraindik gure baserrietan ez dago kalera jotzeko ohiturarik, berehalako onura mailan beharrezko ez diren alderdietan. Baliteke, gaurko gazteek baserrian, bizilekutzat baino ez bada ere, irauten badute, kale bizitza sozialean askoz ere gehiago sartzea. Garrantzizkoa da, ibilbide publikoak egotea ere. Jarri duten hainbeste autobus lerro pribatuk, biztanleriaren mugimendurako erraztasun haundiak ekarri ditu. Komunikazio eta karretera sare on bat egotea oso garrantzizkoa da, baserriarrak kultur bizitza zabalago eta egokiagora sartuko badira.

Azkenez, aipa ditzagun ahantzi behar ez diren kultur bideak: liburuak eta aldizkariak eta masen komunikabideak, irratia eta telebista. Irratia eta telebista ia baserri guztietan daude, eta etengabe entzuten dira. Zoritxarrez, ez dira kultur tresna egokiegiak gure ingurunean. Arreta haundia sorrerazten duten irrati lokalak dira, zalantzarik gabe, efikazia haundiz erabiltzeko moduko bide bat.

Liburuei eta aldizkariari buruz, baserrietan oso guti irakurtzen dela esan behar. Egunerokoak igandez edo aste barruan noizbehinka bakarrik erosten dira. Aldizkariak, oso guti. Euskaraz atereak dira baserriarren kutunenak, nahiz eta gazte artean erdarazko kirol eta maitasun aldizkariak ere sartzen ari. Irakurgaien maila oso eskasa eta kalitate urrikoa da. Irakurtzea, luxotzat jotzen da, eta oso arreta guti jartzen zaio. Familiarik gehienetan, denbora galtzetzat

jotzen da. Euskaldun baserritarrak, zalantzarik gabe, bide luzeak egin beharra du kultur munduan. Pobretasun zati bat kanpoko elementuek eragin dute, bai, baina ezin ukatu, kulturako balioen mesprezutik eta ardurarik ezetik datorrela beste zati handi bat.

Hizkuntza

Baserritarrak bi-eledunak dira, euskaraz eta erdaraz hitz egin dezakete. Baina baserritarrak, askoz ere erraztasun handiagoa du euskaraz. Hauxe du bere hizkuntza eta erabilketan laster igartzen zaio. Gazteek erdaraz ere aisago eta maizago egiten dute. Gerla ondoko hainbat urtetan gazteek erdaraz egiteko joera zuten, berak ere kale bizitzara sarturik eta kaleko gazteen pare zeudela erakusteko. Euskaraz egitea, gizarte eta kultur maila apalagoaren ezau-garriztat jotzen zen. Sentikera honek, egun ere, badu bere indarra, baina euskararen bizkundera ere indartsu nabari da; hala baserrian nola kalean euskarara bihurtze kontziente bat nabari da, gazteriak harro daraman jatorri txartel bat bezala. Neska artean, fenomeno hau makalagoa da; badirudi hauek berdintzat joak izateko, erdararen premia sentitzen dutela, oraindik. Baliteke, talde eta egoera ez hain euskaldunetan sartuago bizitzeagatik izatea hau. Mutilek ordea, —beren jatorri sozialagatik bilduago— gero eta gogotsuago erabiltzen dute euskara. Urte askotan zehar, euskara ezjakinen hizkuntzatzat jo izan da, eta honek argi nabari diren ondorioak utzi ditu.

Begiramendu soziala

Ez dago esan beharrik nolako txikiagotasun zentzua ezarri zaien baserritar, menditar eta horrelako hitzei, gizarte maila behezagoko pertsonak balira bezala. Interpretazio honek, ez du erru txikia eduki, baserri giroko gazteak beren jatorria ukatzen edo estaltzen saiatzeko. Urte askotan zehar, baserritarren gizarte maila kaletarrena baino beherago egon da.

Egoera hau, oso aldatu da eta oso sustraitik aldatzen ari da. Baserriko belaunaldi gazteak kale bizitzan parte handiagoa hartu ahala, inguru sozialeko portakera diferentziak galduz doaz eta baserritarrak berak nahi dituenek edo eutsi nahi dienek bakarrik irauten dute. Baserritarra txikiagotzat jotze hori, ia guztiz galdua dela eta baserritarrak industri herrietako biztanleen pareko begiramendu soziala duela, uste dugu orain. Nolabait, baserrien «kaletartze soziala» gertatu dela esan genezake, kale ingurutik bere urragotasun fisiko eta psikologiko.

Euskaldun baserritarraren klasetasuna definitzea, askoz zailagoa da. Alde batetik, baserritarra bere ekoizpen bideen (lur eta hornituren) jabe da, bestetik industriako langileen antzeko sarrera maila du. Baina nabari da, bien arteko alde ideologikoa, baserritarra euskal burgesia ttikiaren zati bait da. Oinharri ekonomikoaren eta ideologikoaren arteko kontradikzio bat sortzen da hemen. Industrian lan egiten duten baserritarrengan biziago den kontradikzioa noski. Gehienez —salbuespenak beti daude eta egoera hau bizkor aldatzen ari da, beharbada— baserritarra bere baserri estamentukoagoa da ekoizpen prozesuan duen mailagatik, soziologiaz egon behar lukeen lekukoa baino. Bikoiztasun hau, gazteen artean beharbada gutiago gertatuko da, industriako lanean sartzean, baserriarekikoak ia guztiz eginda sartzen bait dira. Bestetik, nahiz eta baserriko gaztea langile industrial hutsa baino diruz modutsuago aurkitu, bere kale harremanetan gehienez langile mailan irauten du, bere maila ekonomikoagatik legokiokkeen burgesia ttikiaren estamentu sozialean jarri gabe.

Baserriko krisia

Baserria krisian dagoela noiznahi esaten da. Zer esan nahi du benetan krisi kontu honek? Azken batez, honek esan nahi duena zera da, hulegia, baserria ekoizpen egitura gisa gainbehera doala. Gaurko teknikak eta ekoizpen siste-

ma kapitalistak artisau tankerako ekoizpen egituren desegipena dakar pixkanaka, eta horien artean dago baserria... Ekoizpen egitura honek, ez dio entresariari behar bezalako irabazirik ateratzen uzten, beste ekoizpen sistema bat nagusi den ingurura sartzen denean. Lehengo egituraren —gure kasuan artisauzkoaren— hauspena astirokoa da, anitz elementuk atzera oztopa araz dezake, baina historian zehar, noizbait gertatu beharrezkoa. Bi antolamendu sistemen arteko kontradikzioa bigarrenaren alde ebazten da, honek artisau sistema pixkanaka irensten duelarik.

Baserri tradizionalen ez dago ia behar besteko errenta mailarik ateratzerik, ez baserriarrak bizikera gustokorik eramaterik, jendeak hainbat enplegu aukera duen industriakuntza handiko ingurura sarturik dagoenean baserria. Baserriko maila ekonomikoa eta bizikera asko hobetu da lehengo aldean. Hau ez dago ukatzerik. Orain gertatzen dena ordea, orduan ez zeuden aukerak agertu direla, gonbarazioz, baserrian baino diru aukerak eta bizikera hobeak emanik. Baserriko krisi kontzeptu horretan, beraz, oso garrantziko da ez nahastea baserri barruko eboluzioa bera —oso baina oso hobetu dena— eta beste aukera batzuren aurrez duen egoera gonbaratiboa —hau da baserriaren galera ekarri duena—.

Baserriko krisia era dramatiko ageri da gazteek baserriaren aurrez hartu duten jokabidean. Ikusia dugu, nola gaurko baserrietan oso gazte guti geratzen den. Geroko baserriarrak industriako enplegua eta kaleko bizikera nahiago ditu, eta joera hau, egunean baino egunean handiagoa da. Erdizko dedikazioak, eboluzio edo baserrien galera posible hau, atzeratu egin du, baina belaunaldi gazteei ez zaie bi lanbideei batera eusteko gogo handirik ikusten, batez ere preparazio handiago batez enplegu industrial hobeetara jo dezaketela kontutan edukiz gero.

Zer gertatuko da baserrian orain han lanean ari den jende adintsua berezko legez desagertzen denean? Bai ahal du baserriak berak ekonomia industriatu baten barruan ekoiz-

pen kapitalista aurreratu batetara egokitzeko elementurik? Lortu ahal ote du, edo eman ahal ote zaio, oraingo artisau egituratik lur entpresa efiziente batetara pasatzeko behar den faktorerik? Zein aldaketa behar da elementu hauk sartzeko? Baserriak baserri gisa, bai ahal du irauteko itxaropenik?

Badira baserria modernotu egin behar dela diotenak. Posible dela errentakortasun handiagoa ateratzea, etxaldea handituz edo kooperatibak sortuz, inbertsio sendo batzu bertan eginez gero; ala baserria eraldatu eta nekazaritza eta kapitalismo aurreratuetakoko premiez adosago dagoen beste hustirapen mota batera jo behar ahal da?

Hauexek dira, hain zuzen, estudio honek erantzun nahi dituen galderak. Baserriko perspektiban azterketa serio eta zehatz bat derrigorrezkoa dela uste dugu, baserriak zer iraupide duen edo haren aurrerabideak nondik norantz joan behar lukeen neurtzen hasi aurretik. Erantzunak jaso nahiko pertsona asko dago: lehen, beren geroko ahalbideak zeintzu diren galdezka dauden baserriar batzu, baita baserri aldeaz arduraturik dagoen jendea ere eta oraingo egoerari irtenbide bat aurkitu nahirik dabilen beste zenbait baserriar gazte. Esperimentuzko irtenbide bila ari dira: baserri elkartuak, abeltegi intentsiboak, barazkien lanketa industriatuak. Garrantzi handikoa da gazte hauek ahalik zehazkien jakitea zein ahalbide duten eta zein problemez topo egingo duten. Azkenez, bere lur baliakizunen hustirakera tradizionala gainbehera doala dakusan Euskal Herriarentzat ere arazo garrantzizkoa delakoan gaude. Bere etorkizunaren jakile eta erantzule bada, lur horik etorkizunean probetxatzeko zer eta nolako antolamendua behar den ere jakiten saiatu beharko. Lan honek, galdera guzti hauei erantzun nahi lieke, bere hainbeste mugadura eta guzti ere.

Bigarren zatia
Baserriaren azterketa ekonomikoa

Orain arte baserriko marxismoaren eragina ez dugu ezazaketen
barkoki ezagutzen eta gaurko baserriaren deskripzioari ekin
diegu. Haindik aurrera, baserriaren azterketa ekonomi-
koa da eta horixe da lan honen helburu nagusia.

...kapituluaren berrantolaketa batzuen eraginez? ...
 ...eraginaren ondorioz, eta horren ondorioz, ...
 ...eraginaren ondorioz, eta horren ondorioz, ...

...Baserria modurik onena dela dinterak.
 ...Baserria dela errentak jasotzen dituen errenta, etxal-
 ...Baserria dela kooperatibismoaren errenta, etxal-
 ...Baserria dela kooperatibismoaren errenta, etxal-
 ...Baserria dela kooperatibismoaren errenta, etxal-

...Baserria dela kooperatibismoaren errenta, etxal-
 ...Baserria dela kooperatibismoaren errenta, etxal-
 ...Baserria dela kooperatibismoaren errenta, etxal-
 ...Baserria dela kooperatibismoaren errenta, etxal-
 ...Baserria dela kooperatibismoaren errenta, etxal-
 ...Baserria dela kooperatibismoaren errenta, etxal-
 ...Baserria dela kooperatibismoaren errenta, etxal-
 ...Baserria dela kooperatibismoaren errenta, etxal-
 ...Baserria dela kooperatibismoaren errenta, etxal-
 ...Baserria dela kooperatibismoaren errenta, etxal-

Baserrian azerketa ekonomikoak

5. Kapitulu Azterketaren metodologia

Orain arteko metodoak beraxe izan da:

1. --daren el buruz gauduzkan datu guztiak baserri eredu iradizkoak, oleru uste duguak eta hiri espai dugu. Hain da, inguruen datu baserriek gehienek erabiltzen dituzten egoera adieraz dezaketen baserriak. Baserri hau, Herrialdetako baserri guztiak ari diren herrialdetako jarri ditugu teknologiaz ekonomiaz eta gizartez. Hain batez, euskalduen baserri erabiltzeko egoera oso paperaratu nahiz ukan dugu. Egoera horretan, baserri

Orain arte baserriko martxan eragina eduki dezaketen kanpoko kondizioei eta gaurko baserrien deskripzioari ekin diegu. Hemendik aurrera, baserriaren azterketa ekonomikoa dator, eta horixe da, lan honen helburu nagusia.

Koa dator, eta horixe da, lan honen helburu nagusia.
Hemendik aurrera, baserriaren azterketa ekonomi-
kangoko kondizioei eta garuko baserrien deskripzioari ekin
Orain arte baserriko merkatu eragina eduki dezaketen

6. Kapitulu Azterketaren metodologia

Gure lan metodoa hauxe izan da:

1.—Baserriei buruz geneuzken datu guztiez baserri eredu tradizionala dela uste duguna eraiki egin dugu. Hau da, inguruan diren baserririk gehienen oraingo egoera adieraz dezakeen baserria. Baserri hau, Herrialdeko baserri guztiak ari diren baldintzetan jarri dugu, teknologiaz, ekonomiaz eta gizartez. Hitz batez, euskaldun baserri ereduazkoaren egoera osoa papereratu nahi ukan dugu. Egoera horretan, baserritarrak zenbat sarrera gehien eta nola atera dezakeen kalkulatzeko saiatu gara. Lan hau, zazpigarren kapituluaren dator titulu honetaz: «Baserri tradizionalaren egoera ekonomikoa».

2.—Baina baserriak, eboluziotu egin daitezke. Eten gabe ikusten ari gara nola abere ahalmena handituz eta baserriak modernotuz doazen. Eta ez hori bakarrik, baserria beste antolamendu desberdin bat bilaka daitekeela baizik, kooperatibak, adibidez. Baserritarrak sarritan ez daki ahalbide guzti horietatik zer komenien litzaikekeen eta bere baserriaren modernakuntzak edo eraldakuntzak zein aukera dakarkion zehazkiago ezagutu nahi luke. Horregatik, baserritarrari agertzen zaizkion ahalbide guztiak, banaka aztertu ditugu. Hauen konklusioak 8. eta 9. kapituluetan bildu ditugu: «Baserriaren modernakuntza» eta «Baserriaren eraldakuntza».

3.—Azterketa hau egiteko, «Programazio lerrozkoa» dertzan teknika matematikoa erabili dugu, eta hauxe da: baserriko egoera ekuazio bidez adierazi eta baserria adierazteko behar diren hainbeste eta hainbeste ekuazioren soluzioak ordenagailu baten laguntzaz atera. Soluzioak, kasu bakoitzean egin daitekeenik onena ematen digu, gure kasuon baserritarrak bere etxaldean atera ditzakeen sarrearrak gorenak. Baserri tradizionala adierazteko, berrogei eta bat eskuazio behar izan dira, berrogei eta hamar ezagukizunez. Baserriaren modernakuntza eta eraldakuntzarako gehiago behar izan dira. Dena jota, problema mordo handia aztertu da, berrogei ekuazio eta berrogei eta hamar ezagukizunetatik gorakoak guztiak, egin dugun lanaren oinharri diren soluzioak lortzeko.

4.—Kalkulu honetan, baserrian lor daitezkeen «tarte gordina» atera da. Hau da, baserrian atera daitezkeen sarrera osoak kalkulatu dira, gastu aldakorrak kendurik. Horregatik, ez uste, ematen dugun zifra irabazia dela. Benetako irabaziak, hemen ematen dugun zifratik askoz beherago ibiliko dira. Tarte gordin horren kontzeptuan deskontatu gabe ditugu:

- eralketa finkoak (argia, konponketa, zerga eta abar)
- instalazioen amortizaketak
- kapital inbertituaren korrituak
- lan eskuaren saria, alokairua edo soldata
- lurraren errenta.

Adibidez: Behi batek urtean baserriko ekonomiari eman diezaiokeena hartuz gero, hona zer egiten dugun:

Behiak ematen dituen sarrerak:

— esne ekolizpena	E	pezeta
— txahal ekoizpena	T	pezeta
— urtean hondakin gisa salduko den okelaren proportzioa	H	pezeta
Sarrera osoak	E+T+H	

Eralketa aldakorrak:

— pentsuak	P	pezeta
— osasun kontua	O	pezeta
— beste janari batzu	J	pezeta
— urtero erosi beharko litzatekeen behia- ren proportzioa	B	pezeta

P+O+J+B

TARTE GORDINAE+T+H Ken P+O+J+B

Baina argi dago ez dela deskontatu ez ikuiluko elektrika, ez edifizioaren amortizaketarik, ez belarkitarako behar den lurraren baliorik, ez kapital inbertituaren korriturik, ez lan eskuaren soldatarik.

Honela egin dugu, alde batetik kalkuluetarako errazago eta egokiago zelako, baina batez ere baserriarrak bere kalkulak honela jotzen dituela, uste dugulako: «Nik dudan baserriarekin —lur, instalazio, makineria eta lanabeseria— eta etxekoen lanaz, zenbat irabaz dezaket urtean». Azterketaren etapa honetan, beste elementu batzu sartzea, alderdi guztiz artifizialak sartzea zatekeen. Kopuru honetatik geroago deskontatuko dira orain ezagutzen ez ditugun kontzeptuak, baina erabiltzen ditugun zifrak «tarte gordinari» zentzu honetan dagozkionak dira, baserriarrak, kontzeptu guztietatik, bere baserri lanean atera ditzakeen kopuru garbi guztiak sarturik bertan.

5.—Estudio honetan argi utzi nahi dugun zera garrantziko bat dago: Baserriko errealitatearen azterketa egokirik egiterik ez dagoela uste dugu, ARRISKU elementua kontuan eduki ezik. Gai bakoitzak zein arrisku dakarkion, baserri-

tarrak oso arretaz neurtzen duela uste dugu, eta ez duela tamainia batetik gorako arriskura sartzeko gogorik. Tamainia hori, atera ditzakeen urteroko sarreren proportzioan izango da. Adibidez, urtean 500.000 pezeta inguru atera dezakeela jotzen badu, okerreanean ere, 100.000 pezetatik gora ez galtzeko moduan planifikatuko ditu bere gaiak. Horregatik, ongi joanik irabazi handia, baina gaizki joanik, galera haundiak ekartzeko gaiak badira, baserritarrak nahia go izango ditu beste gai batzu gutiago ematekoak baina seguruagoak. Baserritarra, irabazirik handienaren bila doa, baina arrisku maila batzuren *barruan*, segurantza tarte batzuren *barruan*. Alderdi hau ahantziz gero, baserritarraren sarrerarako lortzen diren emaitzak ez direla batere egiakorrak, uste dugu.

Guk jotzen dugun arriskua, komertzio egituraren akatsagatik gertatzen dena da, batez ere. Gai baten arriskua, honetan datza batez ere, halegia, prezio jakineko salmenta seguruaren —seguru saldu, uste zen prezioan— eta gai haren egiazko salmentaren artean egon daitekeen aldea: salmenta probable samarra, uste zen antzeko prezioan. Bi egoera hauen arteko diferentzia da gai batek duen arrisku komertziala. Gure Herrialdeko egoeretan arrisku biologiko soila baino handiagoa da hau, nahiz eta egin dugun tratamenduan biak sartu ahal daitezkeen. Honela, gai bakoitzak arrisku desberdina du, merkatuan duen egoeraren arabera. Esaterako, esneak merkatu segurua du esnetxeek jarritako prezioan, eta beraz oso arrisku txikia du. Letxuek edo esne txahalek, ordea, merkatu askoz aldakorragoa dute eta gainera horien prezioetan gorabehera handiak izan daitezke, eta horregatik hauen arriskua, askoz haundiagoa da. Gure lanean gai bakoitzaren arriskua hartu eta baserritarra jasateko prest dagoen arrisku osoaren goiaz gonbaratzen da.

Azterketa honetan garrantzi handia eman diogu arriskuaren eraginari. Kalkulu normaletan nekez sartzeko elementua da, baina erabili dugun Programazio Lerrozkoa delakoaren abantail bat da hau ere sistemán sartu ahal iza-

tea. Geure buruon propaganda egitea bada ere, ezin esan gabe utzi, honelako estudio oso gutitan sartzan dela, inon sartzan bada, baserri arloan hinbesteko garrantzia duen arriskua.

6.—Atal honetan aipatu diren elementu guztiak, zehaztasun osoz bildurik daude, aparte argitaratzen den *Eraskin Metodozkoan*. Kalkuluak nola egin diren zehazki jakin nahi duenak, lanaren zati hartara jo beharko. Ondoren, ordea, erabili ditugun daturik garrantzitsuenen batzu laburki azalduko ditugu, argitalpen hartara jotzeko erarik ez duten irakurleentzat.

6.5. Kuadrua.—Ikusitako gai buketaei buruz oinarritzko datu batzu.

GAIAK	Tarte gordinen Pezetak	Salmenta unitateko prezioa	Ekolozpene	Gala	Unitatea	Kalitatea	Prezioa
Behia Behia eta urte txahala	17.400 33.000	8,5 pta. litro esnea *	3.500 litro urtean	Pentsua Pentsua	Kiloak egunean	3	8
Zekor jaito berriarren salmenta	9.235	10.000	—	Esnea	Litroak egunean	6	8,50
Bigantxa jaito berriarren salmenta	6.235	7.000	—	Esnea	(15 egun)		
Urte zekorra (jaito berritako eros-prezioa berru)	22.000	132 pezeta kiloko (Hobaria berru)	280 kilo	Pentsua	Kiloak egunean	4 kilo (270 egun)	8,50
Urte bigantxa (jaito berritako eros-prezioa berru)	17.000	125 (Hobari gabek)	200 kilo	Pentsua	Kiloak egunean	2 kilo (180 egun)	8,50
Oliolak (lehun olioren arraultzeak)	8.400	40 pezeta dozenako	0,80 egunean	Pentsua	Gramoak egunean	120	12,40
Untxi emeak (10 ama eta beren umeak)	1.300	60 pezeta kiloko Umeak bizirik	50 ume urtean 2 kilotakoak	Pentsua	Kiloak bizitzan	175	12,40
Zerriak urteko/buruko	1.000	50 pezeta kiloko	100 kilo	Pentsua	Kiloak bizitzan	300	9,50
Zekor jaito berriarren eros-prezioa	10.000	—	—	—	—	—	—
Bigantxa jaito-berriarren eros-prezioa	7.000	—	—	—	—	—	—
Behien eros-prezioa	42.000	—	—	—	—	—	—
Patatak (Ha. erdi ereinda)	23.450	5 pezeta kiloko	6.000 kilo	Ereintza	Kiloak	600	8
Indabak (Ha. erdi ereinda)	26.640	90 pezeta kiloko	300 kilo	Ereintza	Kiloak	12	80
Jareko sagarrak (Ha. erdi sagarrondo)	30.000	8 pezeta kiloko	40 kilo sagarrondoko	Insektizidak	Pezetak urtean	3.480	3,480
Jareko sagarrak (Ha. erdi sagarrondo)	21.800	3 pezeta kiloko	80 kilo sagarrondoko	Ikus AM.	Pezetak urtean	3.480	3,480
Barazkia	200.000	Ikus AM.	Ikus AM.	Ikus AM.	—	—	—
Arto/indabak (biak saldurki)	42.800	Artoak 9,25 pta. kil.	3.000 kilo arto 200 kilo indaba	Ereintza	Kiloak	a - 15	10
Artoa (Alaearn salmenta)	34.850	9,25 pezeta kiloko	4.000 kilo	Ereintza	Kiloak	1 - 10	80
GEHIGARRIAK							
Urte zekorra (pentsu hutsez)	5.000	130-133 kiloko, hobari eta guzti	250-270 kilo kanalean	Pentsua	Kiloak egunean	6,50	10
Behia eta txahala (belarki hutsez)	27.500	8,50 pezeta litroko	500 litro esne	Pentsua	—	—	—
Behia (belarki hutsez)	16.150	125 pezeta kiloko 8,50 litroko	180 kilo kanalean 2.400	Pentsua	—	—	—

* Esnearen salmenta prezioa gure estudioa oso aurrera generamala aldatu zuten. Aldi berean pentsuek ere gorakada handia egin zuten, beraz gero, biak aldatu gabe urte gordinen genuen, azken tarte gordinari buruzko emaitza oso berdintsu geratu bait zen. Nolanahi ere, baitake behiko tarte gordinen eta baserrilarentzat ateratuko tarte gordinaren emaitza pikta bat txikiagoatik egotea esne prezioaren gorakada honegatik. Aurrerago aztertuko dugu baserria zertan den, txikiagoz hori gabeko esne prezio garestiagoz.

7. Kapitulu Baserri tradizionalaren egoera

Baserri eredu «normal» errepresentagarria

Aurreko kapituluan esan dugun bezala, estudio honetan baserri «eredu» edo «normal» baten egoera aztertzen da. Baserri honek inguruko baserri guztiak errepresentatzen dituela jotzen da. Zalantzarik ere ez, badaudela baserri handiagoak edo tikiagoak, lan esku gehiagodunak edo gutiagodunak, instalazio hobeez edo txarragoez, baina garrantzizkoa bestea da, halegia, baserri honek, handi-handika, bi probintzietan dauden baserri egiazkorik gehienak errepresentatzea. Nola midikuak, aurrerago estudianturiko pertsona

«eredu» batengan oinharriturik, giza gorputzik gehien funtzionamendua ezagun dezakeen, hala baserrien egoera eta funtzionamendua ezagun dezakegu baserri «eredu» honen —dauden gehienak errepresentatzen dituen honen— estudioan oinharriturik. Hemendik ateratako emaitzak aldatu egin beharko dira, baldintza desberdindun baserrietarako eta hau geroago egingo duguna da, baina estudioaren oinharritzat Herrialdeko baserri gehienak errepresentatzen dituen baserriaren azterketa jarri behar da.

Baserri eredu «normaltzat», honako berezitasun hauk dituen lurrun-aberredun etxaldea jotzea erabaki genuen:

5 ha. lur langarri dituen baserria (lur langarri eta belardi); ikuilu tradizionala, gehien ere 20 buru edukitzekoa; sormoto edo lurlangailu bat; 25 CV inguruko traktore ttiki bat; ia beti eraisgailu elektriko bat; gehienetan turismo kotxe bat edo furgoneta ttiki bat eta gainera behar diren makineria eta lanabes guztiak, segamakina, erremolatxa zehagailua, eta lanabes ttikiak. Baserri batzutan belar zuloak ere badira, baina beste batzutan ez, bi baserri motatarako kalkulak eginik, zulodunak eta zulogabeak.

Baserriko familia honela osatzen da: erdi adineko senar-emazteak, seme-alabak eskola sasoinan edo industrian lanean, eta famili buruaren gurasoak. Lehen, dedikazio bakarreko edo osoko baserri tradizionala aztertzen da, hau da, famili buruak edo seme hazi batek baserrian bakarrik lan egiten duela emanik. Bigarren zatian, dedikazio erdizko baserria aztertuko dugu.

Dedikazio osoko baserri tradizionala

Dedikazio osoko baserri tradizionalerako, famili buruak baserri hutsean diharduela ematen dugu, batez ere emazteak eta aitona-amona zaharrek lagundurik eta askoz gutiago seme-alabek eta neba-arrebek, bai ikasleak edo industriako langileak. Familiak, lehen mailako eskolaldia du, nahiz eta orain seme-alabarik gazteen batzu bigarren mai-

lako ikastetxeetara joan, Institutuetara eta Profesio Eskoletara.

Famili burua, egunean hamalau orduz lan egiteko gertu dagoela jotzen da. Emaztea honen erdi urtean zehar, baina udan 10 ordu eta erdirarte hel daiteke. Familiako beste pertsonak egiten duten lana guztira egunean hiru ordu eta erdi jotzen da eta udan beste hainbeste gehiago egunean.

Honela, neguan lan eskuaren GOIA egunean 24,5 ordu dira eta udan 31,5 ordu. Honek, astean industrian baino 3,5 eta 4,2 bider gehiagoko lanaldia ematen du, industriako lanaldia astean 44 ordukotzat jotz gero. Kontutan eduki behar da, baserri lanean pertsona bat bakarrik ari dela dedikazio osoan, eta besteek «lagundu bakarrik» egiten dutela. Hemendik atera, baserriko familiak zeinen lan erritmo bizia daraman. Lan erabilgarriaren zifrarik gorenak dira hauk, eta aldi batzutan ez dira guztiak enplegatzen. Pertsonako eguneko bihurturik, lan honek 1,75 unitate ditu neguan eta 2,25 unitate udan.

Baserritarrak ekoiztu ahal dituen gaien artean hauk daude:

- a) Abelgorria, esnerako eta okelarako.
- b) Lur lanak: abelazkuntzarako behar diren gaiak, belarkiak batez ere, (berezko belardiak, artifizialak, artaberdea, urte belardia, erremolatxa eta arbia) eta aleartoa. Giza kontsumurako gai landuak: indabak, patatak eta zenbait ortuari.
- c) Zuhaitz hustirapenak, batez ere jateko fruitudunak eta sagardotarako sagastiak. Azkenez, pinadiak, lehen esaniko bost hektareetan sartzan ez ditugunak eta lur langarriaren kopuru erabilgarria baino hedadura askoz aldakorragoa dutenak. Har kontutan, guk baserriko egoera planteatzen dugun bezala, ez dugula bereziki zer ekoizten den aipatzen, ekoiz daitezkeen gaiak zeintzu diren baizik. Irteerak berak emango digu zeinek izan behar duen baserriko ekoizpen mailarik eta konposaketarik onena.

lako ikastetxeetara joan, Institutuetara eta Profesio Eskoletara.

Famili burua, egunean hamalau orduz lan egiteko gertu dagoela jotzen da. Emaztea honen erdi urtean zehar, baina udan 10 ordu eta erdirarte hel daiteke. Familiako beste pertsonak egiten duten lana guztira egunean hiru ordu eta erdi jotzen da eta udan beste hainbeste gehiago egunean.

Honela, neguan lan eskuaren GOIA egunean 24,5 ordu dira eta udan 31,5 ordu. Honek, astean industrian baino 3,5 eta 4,2 bider gehiagoko lanaldia ematen du, industriako lanaldia astean 44 ordukotzat jotz gero. Kontutan eduki behar da, baserri lanean pertsona bat bakarrik ari dela dedikazio osoan, eta besteek «lagundu bakarrik» egiten dutela. Hemendik atera, baserriko familiak zeinen lan erritmo bizia daraman. Lan erabilgarriaren zifrarik gorenak dira hauk, eta aldi batzutan ez dira guztiak enplegatzen. Pertsonako eguneko bihurturik, lan honek 1,75 unitate ditu neguan eta 2,25 unitate udan.

Baserritarrak ekoiztu ahal dituen gaien artean hauk daude:

- a) Abelgorria, esnerako eta okelarako.
- b) Lur lanak: abelazkuntzarako behar diren gaiak, belarkiak batez ere, (berezko belardiak, artifizialak, artaberdea, urte belardia, erremolatxa eta arbia) eta aleartoa. Giza kontsumurako gai landuak: indabak, patatak eta zenbait ortuari.
- c) Zuhaitz hustirapenak, batez ere jateko fruitudunak eta sagardotarako sagastiak. Azkenez, pinadiak, lehen esaniko bost hektareetan sartzan ez ditugunak eta lur langarriaren kopuru erabilgarria baino hedadura askoz aldakorragoa dutenak. Har kontutan, guk baserriko egoera planteatzen dugun bezala, ez dugula bereziki zer ekoizten den aipatzen, ekoiz daitezkeen gaiak zeintzu diren baizik. Irteerak berak emango digu zeinek izan behar duen baserriko ekoizpen mailarik eta konposaketarik onena.

Ateratako emaitzak: baserrirako programarik onena

Aipa berri ditugun baserri tradizionalako bidez, baserriarrari emaitzarik onenak ekarriko dizkion ekoizpen programa hauxe izango da:

7.1. kuadrua.—Baserrirako programarik onena.

GAIA	ZULODUN EREDUA				ZULOGABEKO EREDUA			
	Unitateak	Lur osotik % zenbat	Pezetak tarte osoa 554.523 *	Tarte osoatik % zenbat	Unitateak	Lur osotik % zenbat	Pezetak tarte osoa 459.954 **	Tarte osoatik % zenbat
Abereak:								
Esne behiak	10		174.000	30,8	8,4	146.160	31,8	
Zekor jalo berria					3,39	31.306	6,8	
Bigantxa jalo berria	3,8		23.693	4,1	3,39	21.136	4,6	
Urte zekorra	4		89.000	15,5				
Urte bigantxa	0,19		3.230	0,5				
Gutziz: abere larriak			288.923	51,1		198.602	43,2	
Oiloak	100		8.400	1,4	100	8.400	1,8	
Untzi amak	10		13.000	2,3	10	13.000	2,8	
Zerriak	10		10.000	1,7	10	10.000	2,1	
Gutziz: abereak			320.323	56,50		230.002	49,9	
Gal landuak M'ak								
Barazkiak	2.250	4,5	180.000	31,80	2.000	160.000	34,8	
Arto/Indabak	7.500	15	64.200	11,30	7.950	68.952	15	
Gutziz: Ez belarkiak	9.750	19,5	244.200	43,10	9.950	228.952	49,8	
Belardi artifiziala	40.200	80,4	Kontsumua belardi artifizial freskoa	% zenbat belarki guztitiak 41,2	27.000	54	K.B.A.F.	% zenbat belarki guztitiak 72,6
Erremolatxa	—	—	Kontsumua belardi zuleratua maiatzean	5,49	7.000	14	maiatzean zuleratua	—
Arbia	—	—	abuztuan	4,1	5.000	11	abuztuan zuleratua	—
Gutziz: belarkiak	40.200	80,4	Idorra ekainean abuztuan	23,7	39.500	79	Idorra ekain.	27,3

(*) Zifra hau eta tarte gordin onentzat ematen duguna, ez dira berdinak, belarkiak hartzeko gastuak kendu behar bait dira.

Ez dago zertan esanik, emaitza hauek zifra zehatzak ematen badituzte ere, hauk ez direla, gure egoeran, hain zehazki hartu behar. Eredu teoriko eta matematiko batek ez dezake inoiz ere bizitza errealeko zehaztasun guztirik bil. Beraz, irteerak ere, nahi eta ez, guti gora-beherakoak izan behar, baserritarrak nondik jo behar duen eta zer atera dezakeen handi-handika erakusteko eta ez argibide guztiz zehatz bat emateko. Esate baterako, gure baserrian barazkia eta arto/indabak dira ekoiztu beharreko gaiak. Barazkitarako ha. laurden inguru landu behar litzateke eta arto/indabarako hiru laurden, baina honek ez du esan nahi 2.250 m² justu-justu barazkitarako izan behar duenik, nahiz eta kantitate horixe izan ereduko emaitzak justuki emango litzukeena datu guztiak guztiz zehatzak izanez gero.

Atera ditugun eta kuadruan azaltzen ditugun emaitzen arabera, baserritarrak abere ekoizpenari ekin behar dio gehienbat, batez ere esne behiak, behi hauek egiten dituzten zekorrak urtean hazi eta bigantxen salmenta, eta ginera oilo, untxi eta zerri mordotxo bat. % 80 lur belarritara dedikatu behar du, batez ere belardi artifizialera, % 20tik behera bakarrik utzirik gai landuetarako, barazkiak batez ere eta arto/indaben ekoizpen batetarako.

Belardi artifiziala irteera gomendatua da, beraz berezko belardiak emankortasun txikiagoa du eta beraz artifizialik ezin denetan bakarrik erabili behar litzateke (bai lur aldapatsuagatik, bai bere kalitateagatik edo lan eskurik ezagatik). Gure baserri «eredu» honetan baliteke belardi artifizialaren abantailak pixka bat gehiegitzea, eta honen eta berezkoaren artean ez da beharbada hain alde handirik egongo, baina ez dago zalantzarik, belardi artifizialak arreta handia merezi duela baserritarren planetan. Ikusten denez, konbinaketa hauk, gure baserrietako ekoizpen egiazkoen antz-antzekoak dira, nahiz eta, bidezko denez, diferentzia batzu ere bai egon, *Metodozko Eraskineko* 5. kapituluaren komentatzen ditugunak. Handi-handika ordea, gure eredu matematiko honen emaitzak eta gomendioak baserritarrek egiten dituztenen antz-antzekoak dira. Honek esan

nahi du, baserritarrak, praktikaren urte askotan zehar, *egin lezaketenik ondoen egiten ari direla, dituzten bideez*. Oso garrantzizko ondorioa deritzagu honi, baserritarren argitasuna eta trebetasuna erakusten duena eta baserritarren irabazi urriak, horien «tradizio zaletasunagatik eta merkatalgo gogo kazkarragatik» direla uste dutenen eritziak hausten dituen.

Ekoizpen honetaz, baserritarrak atera dezakeen tarte gordinik GORENA urtean 543.000 pezeta dira zulodun baserrietan, eta 447.709 pezeta zulogabeko baserrietan, bietan, pinadirik-eta sartu gabe.

Baserri batek 6 ha. pinu duela eta ha. bakoitzak urtean guti gora-behera 20.000 pezeta ematen dituela joz gero (pinualdi osoaren tarte gordinak urteko honenbestekotara bihurturik), baserritarrak kontzeptu guztietatik 663.000 pezeta inguruko tarte gordina atera lezake lehen kasuan eta 567.000 ingurukoa zulo gabeko baserrian. Puntu honetatik aurrera, ordea, ez dugu pinu konturik kalkuluetan sartuko, baserri bakoitzak oso sail desberdinak bait ditu. Baserri bateko irabazi osoa kalkulatu nahi izanez gero, ez legoke lur eta abere ekoizpeneko zifrari ha.ko 20.000 pezeta gaineratu besterik, eta honela, osoa aterako genuke.

Ekoizpen hau lortzeko, baserritarrak duen lur langarri guztia (5 hak) erabili behar du, familia osoak mukururaino lan egin behar du apirilaren 15etik abuztuaren 15era eta Urrian, eta galtze arrisku posiblea 119.640 edo 98.340 pezeta dira belar zuloak eduki ala ez*.

Emaizta hauen azterketa

Emaizta nagusi hauetatik irtenik eta lan honen zati behinenean agertzen diren, eta hemen eman beharrik ez da-

(*) Arrisku zifra honek, ez du esan nahi kopuru hori galdu egingen dela, galtzerik gehiena kopuru horixe dela baino, jarri dugun sistemaren arabera. Kontutan hartu, ordea, sistema honek ez duela katastroferik eta izurritterik jotzen.

goela uste dugun kalkuluen arabera, zera hauetara heltzen gara:

—Baserrian atera daitekeen tarte garbia (gordinari ken amortizaketa eta eralketa zeharkakoak) 490.000 eta 400.000 pezetaren inguruan dabil zuloak eduki ala ez. Honi pinuen errentakortasuna erantsiz gero, aisa ikusten da *bost ha.ta-ko baserriko urteko tarte garbiak milioi erdiren inguruan edo goitik dabiltzala*. Ez dirudi hain zifra kazkarra hilean 25.000 pezeta irabazten dituen langile baten urteko zifra 350.000 pezeta dela kontutan edukiz gero.

—Baina baserrian askoz ere lan ordu gehiago behar da. Ager berri ditugun irabaziak ateratzeko urtean 7.000 lan ordu inguru behar dira, industriako langileak, ordea, 2.000 ordutatik behera lan egiten du. Beraz orduko ordaintzat industriako langile peoiak orduko 120 pezeta inguru hartzen ditu, ofizialeak 160 pezeta eta *baserriko familiak orduko 85 pezeta inguru, pinuak barru direla, eta orduko 69 pinurik jo gabe*, eta dena kasurik onenean.

—Baserrian egiten diren lan orduak industriako alokairutan kotizatuko bagenitu, peoi alokairuan eta baserrian lanik gutien egiten den kasuan ere, urtean 775.000 pezeta atera beharko lirateke. Industriako ofiziale mailako langileen pare kotizatuz gero, *urtean 1.200.000 pezeta inguru atera beharko lirateke*.

—Emakumeak industrian ezin duela lanik egin eta, beraz, ez dagoela alokairu bat industriako alokairu mailan kotizatzerik kalkulatuta ere, famili buruak bakarrik industrian lan egin dezakeela baina baserriko orduak berak jota ere, urtean 504.000 pezeta jaso beharko lituzke, peoia izanik, eta urtean 705.000 pezeta, ofizialea izanik. Zifra bitzuok argi erakusten dute *baserri tradizionaleko famili buruak baserrian egiten dituen ordu berdinak industrian egin ahal izanez gero*, ez duela merezi baserrira dedikatzerik. Egon litekeen gako bakarra da industriako langileak urtean hainbeste ordu sartzeko lekurik ezin aurkitzea.

—Baina, nahiz eta baserriko emakumeak industrian ezin lanik egin, bai egin lezake etxe lanetan laguntzaile gisa. Lan hau herrietako etxe laguntzaileek irabazten duten alokairuz baloraturik, eta gizonak industrian irabaz lezakeenari erantsirik, baserritar senar-emazteek urtean 609.000tik 810.000 pezetatara jaso lezaketek, segun zein baserri modu duten. Honek esan nahi du, *baserriko orduak berak lan egirik eta haurren eta zaharren lanik jo gabe, baserritar senar-emazteek baserrian baino 200.000tik 312.000 pezetatara gehiago irabaz lezaketela senarrak langile bezala eta emazteak etxe laguntzaile bezala lan eginez gero*. Honetaz gainera, baserriko seme-alabek, hala mutilek nola neskek, gero eta prestasun profesional hobea dutela eta proportzioz gure kalkuluan sartu ditugun lanbideetan baino gehiago irabaz dezaketela joz gero, etorkizunean diferentzia askoz handiagoa izango da industriako enpleguen alde.

—Baina kalkulu guztiotan baserritarra eta bere familia industriako langileekin gonbaratu ditugu. Baserritarra, ordea, entrepresari bat dugu, bere entrepresari bere lana ezezik, duen lurra, etxaldean inbertituriko kapitala eta bere entrepresarako gaitasuna dedikatzen diona eta beraz, industriako langilearekiko diru gonbarazioa ez da hain egokia. Baserritarrak ainatsu kapital inbertitu eta entrepresarako gaitasun antzekoa duen industriako entrepresari batekin gonbaratu beharko litzateke baserritarra. Gonbarantza zaila, noski. Alde batetik, komediak leudeke baserriko kapitala neurtzen, eta bestetik, zaila da zeintzu entrepresarirekin gonbaratu beharko litzatekeen. Baina nolana ere, gauzak sinpletu egiten dira aurreko esaldietan ikusi dugunetik, baserritarrak bere lanaren saririk ere ez duela hornitzen kontuan edukiz gero. Beraz, *gutziz ezineko da, baserritarra industriako entrepresari ttikiaren mailan egotea*, edonolako kapitala jo nahiz edonolako entrepresari mota hautatu. Hau da, entrepresariaren egoerara heltzerik ez duela hain argi izanik, behar ere ez da zifren gonbarantzarik behar, eta gainera egin ere, ezin genezake gonbarantza hau egin.

—Bai ordea, kalkula daiteke zenbat irabaz lezakeen baserritarrak bere baliakizun produktiboak baserri sailean gabe beste sail batzutan enplegatuko balitu. Baserritarrak lurra salduko balu, bere lana industriara dedikatuko balu eta bere kapitala beste ihardun ekonomiko batzutan jarriko balu, urtean irabazi batzu aterako lituzke. Irabazi hauek dira baserritarrak bere baserrian ateratzen duenarekin gonbaratu beharrekoak. «Kanpoko» irabaziak askoz handiagoak badira, apurka-apurka baserritarrak hantxe jarriko ditu bere edukiak. Segur asko, bere diru likidotik hasiko da, baina gero bere seme-alabak industriarako preparatzen saiatuko da eta azkenean, lurra ere saldu egingo du. Egitez horixe gertatzen ari da ia neurri handiz: baserritarrak beren aurrezpenak baserritik kanpora ipintzen ari dira, beren seme-alabei baserritik kanporako lanbideak ematen ari dira eta lurra saltzeko aukera on baten zain daude edo bitartean pinu sartu. *Bere baliakizunek beste leku batzutan emango luketen baino irabazi handiagoak ematekotan bakarrik dago baserria diruz justifikaturik eta orduantxe bakarrik, Iraungo du baserriak.*

7.2. kuadrant biltzen dira baserritarrak atera ditzakeen sarrerak, bere baliakizunak beste ihardun batzutara dedikaturik eta sarrera horik baserriko sarrerekin gonbaraturik:

7.2. *kuadrua. Baserriko irabazien eta beste lanbide batzuetako enonbarazioa*

	Beste iturri batzutatik lortzen diren sarrerak	Baserri zuloduna. Tarte garbia: 488.750 pta.	Baserriko lan ordu bakoitzeko ordaina, industriako lanaren goitik
Lanorduak	Industrian: 2.082	7.087,50	5.005,5
Supostua	Baserritar izatearen aukera kostua	Aukera kostuarekiko diferentzia. BASERRIKO GAINKIA	
Peoia eta pinuak	354.000	134.750	26,90
Ofiziala eta pinuak	424.000	64.750	12,93
Artisaua eta pinuak	499.000	-10.250	-2
Ofiziala eta lurra metroko 100 pezetatan saldua *	724.000	-235.250	-47
Artisaua eta lurra id.	794.000	-305.250	-60,90
Ofiziala eta lurra metroko 250 pezetatan saldua	1.324.000	-835.250	-166,90

(*) Lurraren salmentako sarrerak %8an ipinita ateratzen den kointuariaren saria.

(—) ikurdun zifrek esan nahi dute, baserritarrek ez duela, baserritarra izateagatik, inolako gainkerik jasotzen, aitzitik ordea, diru mordo hori galdu egiten duela baserritarra izateagatik eta bere lana eta baliakizunak beste ihardun produktibo batzutara ez dedikatzeagatik. Eta hau pertsona bakar baten lana bakarrik balioztatutik eta ez baserrian egiten den gutzia.

—Kuadru honetan datozen datuak ikusirik, ez da irazkin askorik behar baserriak zergatik husten eta gainbeheratzen ari diren ulertzeko. *Baserriko lanak kasu batean bakarrik ematen du baserria utzita baino gehiago, halegia, lurra pinu sartu eta peoitzan lan egitea besterik ez denean bakarrik. Beste kasu guztietan, emankorrago da baserria utzi eta industrian lan egitea.*

Eta gonbarazioan erabili ditugun mugak nahiko apalak dira. Baserritarrek lurra metroa 100 pezetatan saldu ahal

izanez gero, ia ez du baserri lanak merezi. Bestalde, baserriarrak bere lanaz industrian hilean 25.000 pezeta * irabazi ahal izanez gero, orduan ere hartara dedikatzea eta lurra pinu sartzea emankorrago da baserriko lana baino.

—Baserriarren lana gabe baserriko lurraren beraren emankortasuna aztertu nahi bada, problema handi batez topo egiten dugu bapatean: halegia, esan dugunez, baserrian egiten den lan guztia industriako prezioan baloratuz gero, ez dela enparaturik geratzen lurrari ezarri ahal izateko. Hau da, lan industriako alokairutik baloratuz gero, baserriak ez du inolako errentakortasunik uzten ez lurrarentzat ez bertan enplegatutiko kapitalarentzat. Hau honelaxe dela eta hala ere baserriak egon daudela ulertzeko era bakarra da, baserriarrak konformatu beharra duela bere alokairua eta bere familiaren lana industriako balioaren oso azpitik daudela, lan egitera.

Horregatik, lan eskuztat famili buruaren alokairua bakarrik baloratzen dugu industriako langile gisa —honela lan ordutan benetan egiten den lan heren bat baino gutiago baloratzen dugu— eta baserrian egiten den beste lan guztia alde batera uzten dugu. Alderdi garrantzitsua da hau, ondoren egingo ditugun irazkinetan etengabe kontutan edukitzeko. Tarte osoaren baliotik kapitalaren ordainketa alternatiboa ere, deskontatu behar da.

Gonbarazio hau egindakoan, hona hemen lurraren errentakortasunaren baliorik gorena Ha.ko 57.811 pezeta dela, honekin berdin delarik lurra Ha-ko 722.637 pezetatan baloratu eta balio hau % 8an jartzea. Hau da, lurra prezio horretan saldu ahal izanez gero, baserriarrari hobe zaio saltzea, lantzea baino. Baserriarrak lurra metroa 72 pezetatan saldu ahal izanez gero eta peoi gisara hilean 15.000 pezeta irabazi, hobe zaio saltzea, baserriar jarritzea baino. Haren profesio maila gorantz badoa eta horrela industrian irabaz dezakeen alokairua ere gorantz badoa, lurraren pre-

(*) Kontuan eduki, hala sarrerak nola alokairuak 1973. urteari dagozkiola.

zioak ttikiagoa izan behar, baserritar ez segitzeko. Hone-
la, hilean 25.000 pezeta irabazi ahal izanez gero, eta lur-
raz metroko 37,25 pezeta hartu, hobe zaio saltzea, lan-
tzea baino.

Bere alokairuan Gizarte Seguruak ere sartu behar di-
rela joz gero, orduan, lurra 20 pezetatan saldu ahal due-
nean, hobe zaio aukera hau, lantzen jarraitzea baino. Azke-
nez, langileak egunean bi orduz extra-lan egin lezakeela
joz gero, eta soldata finkotzat hilean 20.000 pezeta irabazi,
orduan, baserriak ezin du inola ere lurraren errentakortasu-
nik hornitu bere lanez gainera. Kontuak kontu, lanaren ba-
linoa hain behetik jota ere, lanaren errentakortasunik gore-
na Ha.ko 57.811 pezeta da, berdin aterako litzatekeelarik
lurra 72 pezetatan saldu eta inportea % 8an jarrita. Beraz,
lurra prezio horren goitik saldu ahal izanez gero, errenta-
korrago da saltzea, baserritar jarraitzea baino.

Baserri tradizionalako egoeran aldakuntzak

Baserriko azterketa ekonomikoan, hala ere, ez dago
oraingo egoeraren begirada hutsean geratzerik. Baserriko
egoera ekonomikoa aldatu egin liteke, egun eragiten dio-
ten alderdi inportante batzu aldatuz gero. Baserriko elemen-
tu batzuren aldakuntzak ekar ditzakeen ondorioak aztertze-
ko, hala, tarte gordinari nola honen ekoizpenari eragin die-
zaioketen alderdi batzu estudiatu ditugu.

Hona zeintzu diren elementuok:

- 1.—Gai printzipalen prezioetan aldakuntzak.
- 2.—Baserritarrak onhartuko lukeen arriskuan aldakun-
tzak, edo zenbait gairi dagokien arriskuan aldakuntzak.
- 3.—Etxaldearen tamainian aldakuntzak: baserri haun-
diagoen azterketa.

Gai printzipalen prezioetan aldakuntzak

Esnearen prezioaren handikuntza. Nola hauxe bait da

baserriko gairik garrantzitsuenetarikoa, esnearen prezioa handitzeak zein ondorio lekarkeen aztertu da. Kuadruak, lehen habean datozen esne prezio desberdinetatik, zein ondorio datorren azaltzen du:

7.3. *kuadrua.*— *Baserriko ekoizpen sistemako aldakuntzak, esne prezioaren handikuntzak eraginak.*

Litro esnearen prezioa. Pezetak	% gehikuntza	Tarte gordin osorik onena. Pezetak	% gehikuntza	PRODUKZIO KONBINAKETA						
				Behiak zenbat	Esne ekoizpen osoa. Litroak	% gehikuntza	Txahal jalo berrien salmenta	Urte txahalak	Barazkiak M ²	Arto/Indabak M ²
8,5	—	543.055	—	10	35.000	—	3,9	4,1	2.250	7.500
10	17	604.604	11	11,5	40.250	15	9,2	—	3.250	6.500
11,5	35	665.590	22	11,5	40.250	15	9,2	—	3.250	6.500
13	53	725.590	33	11,5	40.250	15	9,2	—	3.250	6.500
14,5	70	800.337	47	13,4	46.900	34	10,6	—	2.425	—
16	88	871.073	60	13,4	46.900	34	10,6	—	2.425	—

Esnearen prezio handitzeak dakartzan eta hirugarren habean datozen tarte gordinen handitzeaz gainera, kontutan hartzekoak dira honako alderdi hauek:

—Esnearen prezioa % 17 handitzean, esne ekoizpena ere handitu egiten da, baina hau gero gelditu dago, prezioak % 70 igon arte, eta orduantxe agertzen da berriro ekoizpena handitzea komeni dela.

—Era batera, esnearen prezio eta ekoizpen handitzeak okelaren ekoizpenaren beherakada dakar. Irtenbiderik onenak txahal jaso berriak saldu eta esne ekoizpena jo behar dela ematen du. Barazkien ekoizpena handitzea ere komeni dela ageri da arto/indabaren bizkarretik.

—Ekoizpenik onenen konbinaketak ez dira askorik aldatzen, esnearen prezioa aldatzean. Lehen gaiak berak komeni zaizkio gehien baserriarari, nahiz eta, esan berri dugunez, bakoitzetik har dezakeen proportzioa aldatu ahal izan.

—Esnearen prezioak asko igon dezake —% 17tik % 70-era— esnearen ekoizpenik handitu gabe. Honek esan nahi du, esne ekoizpena handitu nahi izanez gero —eta hau ez da hain segur komeni denik eskariaren kapituluan esaten genuenetik— ez dela nahikoa prezioa beste gabe handitzea, baserritarra zein sistema puntutan dagoen jakin baizik.

—Esnearen prezioa handitzeak esne ekoizpena handitzea ere ekar dezake, baina horretarako, okela ekoizpena ttikiagotu behar. Eta gogora okela dela eskari itxaropenik onenak dituen gaia. Esnearen prezioa handitzea, beraz, epe laburrerako irtenbide bat izan daiteke, baina bai baserriko problemak laster batean gehitu ere.

—Esnexetan, esnearen prezio igotea aztertzean, kontsumatzaileari esnea zuzenki saltzen dion baserritarraren egoera ere azterturik geratzen da.

1973ko esne prezioen arabera, argi dago honek, programarik onenari jarraikiz, esnera eta barazkietara guztiz jotzea lekarkeela eta hauxe da hain zuzen baserritarrak orain egiten duena.

Okelaren prezioan aldakuntzak.—Esne prezioan bezala okelaren prezioa handitzeak ere zein ondorio dakarren, aztertu da. Baina aldakuntzatzat okelaren prezioa txikiagotzea jarri da, eskariaren kapituluaren arabera, okelaren prezio handiak kontsumoa gutitzea ekar lezake eta. Beraz arretagarri litzatekeela uste genuen, zein egoera lukeen baserritarrak abeltzainari ordaintzen zaion prezioa % 15 jaitsiz gero.

7.4. kuadruan okela prezio desberdinetarako programarik onenak biltzen dira.

7.4. *kuadrua.*—Okela prezioen aldakuntzetatik datozen aldakuntzak.

Kiloaren prezioa. Pezetak		Tarte gordinik onena. Pezetak		EKOIZPEN KONBINAKETA							
% gehikuntza		% gehikuntza		Behiak buruak	Txahal jalo berrien salmenta	Urte zekorrak	Urte bigantxak	Kiloak okela ekoizpena	% gehikuntza	Barazkiak	Arto/Indabak
112	15	540.111	0,55	11,5	9,2	—	—	—	—	3.250	6.500
132	—	543.055	—	10	3,8	4	0,19	1.158	—	2.250	7.500
152	15	574.970	5,8	8,9	—	3,5	3,5	1.680	45	2.000	7.500
172	30	609.334	12,2	8,9	—	3,5	3,5	1.680	45	2.000	7.500
192	45	689.014	26,8	3,2	—	1,29	20,6	4.453	284	—	12.750
212	60	778.880	43,4	3,2	—	1,29	20,6	4.453	284	—	12.750

Kuadruan argi ageri da okelaren prezioa kiloa 20 peze-ta gutitzeak ekoizpena uztea dakarrela, hau da, okela ia ez dela errentakor. Honelako beherakada bat nahiko erraza litzatekeela kontutan edukiz gero, garbi dago okela ekoiz-pena errentakortasun txikikoa eta ekoizpen aldakorra dela.

Prezioak kiloko 20 pezeta igoz gero, ordea, ekoizpenak asko jotzen du gorantz: % 45 lehen gorakadan eta prezioak kiloko 60 pezeta igoz gero, ekoizpenak % 248raino igoko luke. Era batera, esne eta barazki ekoizpenak beherakada galanta egingo luke, arto/indabek, ordea, gorantz egingo lukete. Gure ustez, gai bietariko hau zerak eskatzen du, halegia, okelarako txahalek desegurantz maila handia du-tela, eta arto/indaben arrisku laburrez kitatu behar dela. Beraz, handiagoa da arriskuaren oreka gisako gaia, bere errentakortasunagatik baino.

Artoaren prezioan aldakuntzak.—Espainian hainbeste ar-to inportatzen denez gero, eta gure Herrialdean hori ekoiz-teko klima egokia dagoenez gero, artoaren prezioa jaso-tzeak zein ondorio lekarkeen aztertzea pentsatu genuen. Honela artoarentzat zenbait prezio aztertu zen 9,25etik hasi eta % 86 gehiagoraino. Irtenbiderik onenak ezein kasutan ere ez zuen gomendatzen aleartoa ekoizterik. Hauk honela,

gai honen desegurtasuna kentzea ere pentsatu genuen, eta hala ere, emaitza negatiboak berriro, programarik onenetan artoak agertu gabe segitzen bait zuen. Aleartoa, beraz, euskaldun baserritarrari oso errentakortasun urrikoa zaiola ateratzen da, eta konklusio hau ondo dakite, bai, baserritar guztiek, gai horri ia-ia ez bait diote ekiten.

Galdezka izan gara, nola litekeen Ipar Euskal Herrian artoa hain lantze haundiko gaia izan eta ez, ordea, Hegoan. Azalpen probable bakarrak hauexek direla dirudi:

- Iparaldean, artoaren prezioaren eta beste gaien prezioen artean, erlazio desberdina eta artoarentzat egokiagoa egon daitekeela.
- Beste gaiantzako merkatua iparraldean, hegoan baino tikiagoa izatea.
- Iparreko baserriak haundiagoak izatea eta honek programarik onena artoaren alde aldatzea. Azken azalpen honexek dirudi probableena, zeren, aurrerago esango dugunez, Gipuzkoako eta Bizkaiko baserri handiagoak aztertzean ere, programarik onenak arto ekoizpena eskatzen bait du. Emaitza hau oso garrantzizkoa da, zeren, baserriko ekoizpen egitaurik onenak beren tamainiaren arabera aldatzen direla esan nahi du eta baserri baterako egoki dena baliteke beste batzutan errentakor ez izatea, hauen egoera aldatzean.

Nolanahi ere, azterketa zati honek argi uzten duena, zera da, halebria, Herrialdeko baserririk gehienetan artoa ez dela, eta nekez izango ere, egitamu errentakorra.

Sagarren prezioen aldakuntzak.—Sagarren, hala jatekoen nola sagardotakoen, prezio igotzeak lekarzkeen ondorioak ere aztertu ziren, baita bere ekoizpeneko arriskuan aldakuntzak ere. Izatez, artoarentzako emaitzak berak gertatu ziren, zeren prezioak % 80 igorik bakarrik gomendatzen zuen programak, sagardotarako 740 sagarrondo sartzeari.

Bestalde, jateko sagarren desegurtasuna guztiz kendurik eta prezioak % 30etik gora igorik bakarrik gomendatzen zuten 360 jateko sagarrondo sartzea. Baina bi kasuetan, sagastiaren tarte gordinak % 4etik behera txikiagotzen ziren, eta nekez hel dakioke gai berri bati, irabazien diferentzia hain kazkarra izanik. Beraz, hauxe atera genezake, halegia, sagarren prezioa eta merkatua (desegurtasuna txikiagotzea) oso hobetuz gero, sagarrak baserritarren irabaziak pixka bat mardul ditzakeela, baina hain hobekuntza urriak izanik, sagar ekoizpenak nekez egingo duela gorakada handirik gure Herrialdean, batez ere, sagar ekoizpenerako hobeki dauden Estatuko beste herrialde batzuren kompetentzia kontutan ukanez gero.

Arrisku egoeren aldakuntzak

Estudio honetan baserritarrak jasan behar duen arriskurik handiena haren gaien merkatalgo egoeratik datorrela jotzen da. Beraz, Merkaturatze sistemen antolamendu eta funtzionamendu hobe batek ikusten ari garen arriskua txikiagotu eta ia desagertu ere egin lezake. Horregatik gai batzuren arriskua txikiagotzeak, baserriko ekonomiarako zein ondorio lekarkeen aztertzea erabaki genuen: artoa, sagarrak, barazkiak eta urte txahalak, batez ere. Arriskua txikiagotze hau eta gaien merkaturatze sistema hobetzea, gauza bat da.

Beste alde batetik, hau ere pentsa liteke, halegia, gai batzuren arriskua txikiagotu beharrean, baserritarraren «arrisku gogo», handitzea. Hau da, baserritarra gehiago arriskatzeko prest egotea. Nahiz eta alderdi hau lortzen zailago izan, baserritarraren ekonomiari bere aldetik «arrisku gogo» gehiagok zein ondorio learkiokeen ere aztertu dugu. Hona ondoren bi kasuetan zer atera dugun:

Lehen ere esan dugu, artoaren eta sagarraren arriskua txikiagotzea —merkatalgo sistema hobetzea— ez dela nahikoa baserritarren sarrerak hobetzeko, ez gaion ekoizpe-

na handitzeko. Beraz, bada, gai hauk errentakor ez izatea eragiten duen elementua ez da merkatalgo arriskua.

Arreta handiagoa merezi du barazkien eta urte txahalen arriskua aldatzeak zein emaitza dakarren. Emaitza hauk 7.5. kuadruan azaltzen ditugu.

7.5. *kuadrua.*—Aldakuntzen azterketa zenbait gairen desegurtasunean.

Gaiak	Oinharri egoerako arrisku maila		Aipaturiko gaien desegurtasunik gabeko irtenbidea						
	%	gututz	Onen osoa		Behia	Urte txahala	Ekoizpen konbinaketa		
			pezetak	% gehitzea			Barazk.	Art./Ind.	Pinuak
Oinharri irtenbidea			543.055	—	10	4,19	2.250	7.500	6
Barazk.	40	80.000	841.469	55	1,8	31,5	5.500	1.500	—
Urtekoak 1 (arrisku erdiz)	15	3.300	567.420	4,5	9	7,2	2.500	6.500	6
Urtekoak 2 (arrisku gabe)			794.608	46	—	38,8	—	8.500	3

Kuadru honetan ageri denez, barazkien salmentako arriskua kendu ahal izanez gero, baserritarren sarrerek % 55 igo lezakete. Baina igote hau, ez letorke ortuari ekoizpena handitzetik bakarrik, zeren, haien arriskua aldentzean, soluzioak haien ekoizpena 5.500 m²raino (oinharri irtenbideko 2.250 m-ren ordean) gehitzeko eskatzen bait du, baina era batera, behiak kentzeko eta 32raino urte txahal hazteko. Hau da, gai batetan —barazkian— arriskua aldatzeak horren ekoizpena handitzea ezezik, txahal ekoizpena ere oso handitzea dakar, eta gogora txahala dela eskari perspektibarik onenak dituzten gaietarik bat. Begira gainera aipatu ditugun irtenbide guztietatik hementxe agertzen dela lehenengoz ez dela lurrik pinu sartu behar, beste gai batzutarra dedikatu baizik. Hau da, ortuarien salmentako arriskua aldentzeak aldakuntza handia lekarkeela, ez baserritarren sarreretan bakarrik, —orain 841.000 pezeta hartuko lituzke— hauk ateratzeko landu eta ekoiztu liratekeen gaitan ere baizik.

Urte txahalentzat, Herrialdeko ekonomian duten garrantziagatik, bi aldakuntza sartu ditugu: a) zer gertatuko litzateke arriskua erdira bakarrik jaitsirik, hau da, merkaturatze sistema zerbait hobetuko balitz, baina ez hain sakonki; eta, b) zein ondorio letorke, merkaturatze sistema gai honen arriskua ia guztiz desagertzearaino hobetuko balitz.

Lehen kasuan, —kuadrako hirugarren zerrendan— lor daitezkeen hobekuntzak oso laburrak dira. Sarrerak % 4,5 bakarrik gehituko lirateke eta zazpi urte txahal hazi behar. Hain hobekuntza ttikiak ez du haintzat hartzerik ere merezi. Honek esan nahi du okela merkaturatze berrikuntza erdizko batek ez duela oraingo egoera askorik aldatzen.

Beste kontu bat litzateke, okela merkaturatze hobekuntza dezente bat lortuz gero —azken zerrenda—. Orduan sarrearak % 46 gehitzen dira eta 39 txahal ekoiztu beharko. Lurra pinu sartzea ere gutitu egiten da 6 hektareatatik 3tara.

Beraz, bada, hala barazkien nola okelaren arriskua aldentzeak euskaldun baserriari hobekuntza bide handiak dakarziola. Baina hobekuntza hau bakar-bakarrik atzeman daitezkeela, baldin merkaturatze sistema merkatal desegurtasun hutsa izateraino hobetzen bada. Era batera bi hobekuntzotariko edozeinek lekarke eskaririk onena sumatzen zaien gaiak ekoizteko joera, honela baserriarren eta komunitatearen ona baturik. Guzti honetatik merkaturatze prozesuen hobekuntza elementurik arretagarrienetarikoa dela ateratzen da, Herrialdeko baserrien ekonomia hobetzekoan.

Aldakuntzak arrisku osoaren muga

Gure oinharri eredian baserriarra, irabazteko asmoa duen 1.000 pezetako 250 pezeta arriskatzeko prest dagoela jotzen dugu, eta hau, arrisku tarte nahiko handia da. Honela, tarte hori zenbait baliotan handituko edo txikituko balitz, zer gertatuko litzatekeen pentsatu genuen. Balio horik hurrengo kuadrako lehenengo habean datozenak dira:

7.6. *kuadrua.*—*Baserriko egoeraren eboluzioa arrisku muga aldatu ahala.*

Arrisku muga	Tarte gordin gorena	% «normala»	EKOIZPEN KONBINAKETA					
			Behia	Txahal jaito berria salduta	Urte txahalak	Barazk.	Art./Ind.	Pinua
100	422.416	— 22,2	10,8	8,6	—	750	11.000	6
130	460.040	— 15,3	11,08	8,6	—	1.250	9.500	6
160	505.079	— 7	11,2	9	—	2.000	8.000	6
190	539.833	— 0,6	11,6	9,2	—	2.750	6.000	6
250 normala	543.055	—	10	3,8	4,19	2.250	7.500	6
376	780.725	25,3	7,2	—	15	5.250	—	—
532	860.677	58,4	—	—	38	5.250	—	—
688	860.677	58,4	—	—	38	5.250	—	—
844	860.677	58,4	—	—	38	5.250	—	—
1.000	860.677	58,4	—	—	38	5.250	—	—

Kuadruko azken lerrorako kontuan eduki, baserritarra irabazteko asmoa duen 1.000 pezetatik 1.000 arriskatzeko prest badago, arriskurik haintzat ere ez hartzea dela.

Emaitzek egoera arretagarri bat ematen dute: arrisku muga oso ttikia bada, baserritarrak atera dezakeen tarte gordin osoa, ia laurden bat ttikiagoa da. Arrisku tamainia handitzen bada, baserritarrak egoera normalean baino % 58 gorago jaso dezake bere tarte gordina, baina ia hortik gorantz ezin inola ere igo, arrisku elementua zeharo ahazturik ere. Hau da, baserri tradizionalako baldintzetan euskaldun baserritarrak harrapa dezakeen tarte gordinaren goia 860.000 pezeta dela, bere gaien prezioak aldatu ezik.

Ohar, nola arrisku laburreko zifretan arrisku txikiagoko gaiak diren ekoizpenaren oinharri. Ia esnea eta arto/indabak bakar bakarrik, barazkien proportzio apur-apur batez. «Arrisku gogoak» igo ahala ekoizpen hauk txikitu eta barazkiak gehitzen dira, baita urte txahalak ere, hauk arras nagusitzen direlarik beren errentaren % 50 inguruko arrisku tamainiatik gora. Pinuak berak ere, desagertu egiten dira faktore guztiak bi gai hauetantxe bakarrik biltzeko.

7.7. *kuadrua.—Sistemaren posibilitateak tamainaren arabera.*

6	—	12,6	—	17,6	906.912	15	12,12	30.050	86.400	4.500	25.500	18
6,5	—	11,3	—	17,8	919.350	15	12,12	31.500	78.400	4.450	26.000	18
8	—	9,9	—	17,9	931.005	15	12,12	32.500	72.000	3.500	27.000	18
9,5	—	8,5	—	18	942.660	15	12,12	33.500	65.600	2.950	28.500	18
11	—	7,2	—	18,2	954.314	15	12,12	34.500	59.200	2.000	29.500	18
12,5	—	5,8	—	18,3	965.969	15	12,12	35.450	52.800	1.400	30.500	18
Tamainia Hak.	Erosiak Hak.	Alokatuak Hak.	Transferentzia Hak.	Gutziz Hak.	Onena Pezetak	Behiak	Urtekoak	Patatak	Sagardo sagarrak kiloak	Art./Ind.	Artoa	P. N.

Kuadrutik zer hauk ateratzen dira:

1.—Tamainia handiagoak hobekuntza handiak dakartza tarte gordin osoetan, «onena» habeak erakusten duenez, eta zifrak milioiaren inguruan dabilta.

2.—Tamainiarik onena, 18 ha.ren inguruan dabilenak dirudi. Kontutan hartu, ordea, honek, egoera ereduzkorako bakarrik balio duela, baina aldatu egingo da eragiten dioten elementu batzu aldatuz gero, mekanizazioa edo lan esku erabilgarria, esaterako. Tamainiarik onen hau, *faktore gehigarri eman batzuren barruan* bakarrik aipa daiteke.

3.—Ekoizpeneko konbinaketa arras aldatzen da ekoizpena handitzean. Bidezko denez, lurraren probetxamendu intentsiboko gaietatik —barazkiak adibidez— probetxamendu txikiago intentsibokoetara jotzen da, hala patatak, artoa edo sagardo sagarrak.

Artoarentzat lorturiko emaitzek gure susmoa baieztatzen dute, aurreko irtenbideetan zergatik agertzen ez zen arrazoinei buruz. Han esaten genuen bezala, artoa etxalde handietan bakarrik da errentakor, eta ez lur txikiko baserrietan. Puntu honek, bere garrantzia praktikoaz gainera, argi erakusten du, ez dagoela baserri gaien errentakortasunaz hitz egiterik, hala baserriaren nola beraz konpetitzen duten beste gaien egoera konkretutik at.

4.—Abere ekoizpena baserriaren tamainiarekin batera handitzen da, baina kasu honetan, ikuiluaren tamainiak mugaturik dago. Berriro ere, tamainiarik onena aipatzea alferrik dela nabari da, dauden beste elementuez gonbaratu ezik.

Hustiratzeko behien kopuruak % 50 igoten du eta urte txahalenak % 189. (12,12 eta ez 4,9). Hala ere, komunitatearen maila osoa harturik, honek ez dakar okela ekoizpena handitzerik. Zer esan nahi du honek? Hauxe besterik ez: 18 ha 5 ha.ren 3,6 bider dela, eta 5 ha.tan 4,19 urte txahal ekoizten direla kontuan edukiz gero, $4,19 \times 3,6 = 15,08$, halegia, 5 ha.tako baserrietan ekoiztuko liratekeen urte txahalen kopurua bera, 18 ha.tako baserrien irtenbi-

deak ematen duena baino gehitxoago. Beraz 18 ha.tako baserriak 5ekoak baino txahal gehiago ekoiztu arren, komunitate mailan okela ekoizpena ez litzateke handituko, baserritarrek irabazirik gorenak lortzeko. Hau oso garrantzizkoa izan daiteke, baldin gerorako etxaldean tamainia handitzera jotzen bada beste gabe, zeren familia bakoitza hobeki biziko bait da bai, baina komunitateak ez luke ekoizpen handiagorik ukanen.

5.—Kuadruko irtenbideetan hau ere ikusten da, halebria, etxaldea handiagoa denean, belarkien ekoizpena belardi artifizialetik berezkora pasatzen dela. Hauxe izango da, beharbada, oinharri programa onenak belardi artifizialaren komenentzia agertzen zuen arrazoinetariko bat: etxalde oso ttikia bada, belardi artifizialera jo behar da, handia bada, ordea, hobe lan txikiagoa ematen duen berezko belardia. Baserri ttikietan beretan ere, gerta daitekeena da, baserritarrek lan txikiagoa eta onen matematikotik pixka bat beherako sarrerak nahiago izatea, esan dugun denbora osoan jo eta ke lan egin baino.

Ikuspen orokorra

Kapitulu honetan irazkindu ditugun alderdiek baserri tradizionalan ager daitezkeen konbinaketa posible bakarrak dirudite, baserritarrak dituen ekoizpen faktoreak funtsez aldatu ezik *. Kontutan eduki, prezioen handitze posibleak aztertzean, produktibotasunaren handitze posibleak ere jotzen direla. Horregatik, baserritarraren egoera alda dezaketen elementu guztiak osorik bildu direla esan daiteke. Aipaturiko emaitzak argiago zehazturik uzteko, hona laburki zeintzu diren:

Planik onenen ekoizpen konbinaketel buruz

—Tamainia handiko etxaldeetan izan ezik, beste egoera

(*) Etxaldearen tamainia gehitzea izan ezik.

guztietan, abere gaiak dira baserriko ekoizpenaren oinharri. Oraingo egoeran, esne behien hustirapena da baserriko oinharri lana. Urte txahalen hazkuntza urria da, oraingo baldintzetan. Oso handitzen da okelaren prezioa handitzean, edo hala okelaren nola barazkien arrisku kontuan aldakuntza dezenterik izanez gero. Okela ekoizpenaren galgetariko bat segurtasunik eza dela, argi dago. Beraz, ekonomiako agintariek okela gehiago ekoizterik nahi badute, ihardun honetako arriskuak guttzeko erak oso seriozki aztertu beharko dituzte, zeren ez ahaztu arrisku hau gure eske-man merkaturatze sistema eskas batetik datorrela.

—Oinharriko soro-gaiak barazkiak eta arto/indabak dira. Barazkiak oso errentakorak dira, baina bai arrisku handikoak ere, besteak, ordea, askoz estableagoak dira, bien artean orekaturik nekazariak jasan behar duen arrisku osoa.

—Edozein kasutan ere, aukeratzen den ekoizpen konbinaketan, arriskuak zenbat garrantzi duen oso kontutan hartzekoa da.

—Etxaldearen tamainia handitzean, beste faktorerik aldatu gabe, gaiaren konposketa ere errotik aldatzen da. Abere ekoizpenak nahiko orekan irauten du, etxean jaiotako txahal guztiak hazten bait dira. Lur ekoizpena oso handitzen da, baita gainezko diren gaiak berak ere, patatak, esaterako. Zer behar litzatekeen zehazki aztertu beharra legoke, etxalde handi bat herriko premiei dagozkien gaiak lantzen ihardun dadin.

Atzeman daitekeen sarrera mailari edo tarte gordin osoari buruz

Hauxe da, zalantzarik gabe, baserriarrentzat elementurik garrantzikoena, eta horrexegatik utzi dugu azkenerako, honela arreta handiagoa emango diogulakoan.

Orain arte irazkinduriko irtenbide guztiak osoan azterturik, esan genezake:

—Baserri tradizionalak, ikusi ditugun baldintzetan, *eta basoak kenduz gero, ez du inola ere urteko tarte gordin gisa milioi bat pezetatik gora pasatzerik.*

—Baina gainera ikusitako bariazioetatik egiazkoenak diruditenek 700.000 *pezeta inguruko goia bakarrik harrapa dezakete*. Hemendik gora pasatzeko honelako zeren bat gertatu behar:

- esnearen prezioa % 53tik gora igotzea,
- edo okelaren prezioak % 60tik gora igotzea
- edo urte abereen arriskua osorik desagertzea
- edo baserritarrak darabilen arriskurik ez haintzat hartzea
- edo barazki ekoizpenaren arriskua osorik desagertzea
- edo baserriak 18 ha lur langarritik gora edukitzea.

Eta aldakin hauk eta guzti ere, berriro diogu, tarte gordin osoa ez litzateke inoiz milioi bat pezetatara helduko. Kontuan eduki gainera praktikan neurri hauetariko bat ere ez dagoela baserritarraren beraren eskuan (arrisku gehiagotan sartzea izan ezik), den-denak berak nekez eragin diezaiekeen kanpoko elementuk emanik datozela baizik.

—Herrialdean okela ekoizpenak duen garrantziagatik, ikus dezagun zehazkiago zer behar den ekoizpen hau handitzeko:

Tarte gordinaren % 40rainoko handitzeak okelaren prezioa handitzeaz baino askoz ere lorterrazago dira, esne prezioen handitzeaz. Esnearen prezioaren % 17ko gorakadak okelaren % 30eko gorakadak ainako handikuntza dakar eta esnea % 35 altxatzeak okela % 45 altxatzeak bezalako ondorioak ditu. % 40tik gora ordea, okelaren prezioa handituta esnearena handituta baino errazago igoten du tarte gordinak. Okelan % 60ko gorakadak esnean % 70eko gorakadak bezalako ondorioak ditu. Baina % 60 eta 70eko prezio gorakadak hain ezinezkoak direnez gero, bidezko da baserritarrek esnearen prezioari begiratzea beren sarrera gordinak hobetzeko —gorakada motzagoek okelan baino ondorio hobeak dituzte—. Honek esplikatu luke zergatik diren baserritarrak hain burrukariak esnearen prezio handitzeak lortzeko, okelaren prezioan, ordea, ez dute hainbes-

te tematzen, zeren esnearen prezioa % 17 jasotzea, esaterako, askoz posibleago bait da okelarena % 30 jasotzea baino, eta biek handitze berdina dakarkiote tarte gordinari.

—Tarte gordinak harturik eta eginiko lan orduetz zaturik, lan ordu bakoitzeko ordainaren lehen guti-beherako bat atera genezake, baina kapitalaren, lurraren eta entrepresal ihardunaren irabazia ere sarturik. Kontzeptu hain zabal horretaz ere nekazaritzako lan orduak 60 pezeta ematen ditu orain baino arrisku gutiagok jokatzekotan, 76 pezeta inguru oraingo arrisku baldintzetan eta 100etik gora prezioetan, arriskuan edo etxaldearen tamainian aldakuntza oso haundiak daudenean bakarrik, lan orduko 125 pezetatik gora azkeneko supostu honetan bakarrik pasatzen delarik. Hau da, *baserriaren tamainia handitu ezik, baserritarren lanaren orduko ordain osoa inoiz ere ez daiteke 125 pezetatik gora jaso.*

Beste aukera batzuetaz gonbarazioak

Oinharri baserrirako egin zen bezala, baserritarrak azaldu ditugun aldakuntzez bere baserrian atera dezakeena eta bere baliakizunak beste ihardun batzutara dedikaturik atera lezakeena gonbaratu behar dira. Gonbarapen honetatik —eta zehaztasunak, esanik dagoen bezala, lan honen testu osoan aurki ditzake irakurleak— puntu hauk atera daitezke:

—Lur langarria metroko 100 pezetatan saldu ahal izanez gero, ez du merezi baserrira dedikatzerik.

—Lurra prezio horretan saldu ezin bada bakarrik eta baserritarrak industrian peoi gisa bakarrik lan egin ahal badu hilean 15.000 pezeta kobratuz, orduantxe bakarrik ematen du gehiago baserri lanak, baliakizunak beste ihardun batzutara dedikaturik baino. Esnearen prezioak % 35 igozten badu eta baserritarrak obreru gisa bakarrik lan egin ahal badu hilean 18.000 pezeta irabaziz, orduan ere hobe zaio baserriari ekitea, baina ez askorik. Eta etxeko buruak hori baino gehiago irabazi ahal izanez gero, baserri lanak

ia ez du merezi okelak kiloko 192 pezeta igon ezik behintzat.

—Lanegun normaletik gorako baserri lana dedikazio osoko langileek egin beharrekoa bada, orduan baserria inola ere ez da errentakor. 543.000 pezetatako tarte gordina ekoizteko 6.246 ordutatik gora behar bada, hiru langile industrial baino gehiago behar dira, eta honek peoi alokairu hutsez ere $210.000 \times 3 = 630.000$ pezeta ematen du, baserriko tarte gordinetik gorako zifra, noski.

—Baserritarrak lurra saldu eta 7.685.000 pezeta hartu ahal izanez gero, orduan inola ere ez zaio nekazaritzarik komeni 5 ha.tako etxaldean. Kopuru horrek 8.790.000raino igoz gero, orduan baserri askoz haundiagoan ere (18 ha) ez zaio nekazaritzarik komeni.

Dedikazio osoko baserri tradizionalerako irtenbidea

Kapitulu honetan azaldu dugunetik atera daitekeenez, baserriko sarrera zifrak globalki eta azalki harturik egoki samarrak ematen badute ere, azterketa sakonago batek berehalaxe adierazten du baserriko sarreraren urritasuna, haik ateratzeko behar den lana, entpresaritasunari dago-kion ordaina eta darabiltzan baliakizunen erabilera alternatiboen ahalbideak kontuan edukiz gero.

Eginiko azterketak erakusten duenez, oraingo egoeran, industrian 15.000 pezetatetik gora ezin irabaztekotan bakarrik merezi du nekazaritzak eta orduantxe ere neurri ttikian, eta lurrik saldu ezin bada. Baserriko gai nagusien prezioek edo horien merkatu egoerak gorakada dezentea eginez gero, nekazaritza tentagarri bilaka daiteke industrian hilean 18.000 pezeta bakarrik irabaz dezakeenarentzat, lurrik saldu ezinik segitzen badu, eta askoz nekezago hilean 25.000 pezeta irabaz dezakeenarentzat. Eta hau zifra globalak bakarrik harturik, zeren sarrerak eta orduak joz gero, orduan kasu guztietan dira apalagoak eta gainera beste ihardun batzutara etxeko lanaren sarrera posibleak eta familia

osoaren baserriko lanak dakarren tentsiorik kontuan eduki gabe.

Lurra metroko 100 pezetatan saldu ahal izanez gero, baserria ezein kasutan ere ez da ia errentakor.

Datu guzti hauei baserriaren arrisku maila erantsiz gero, eta gainera baserriko bizimoduko beste hainbat eta hainbat modutako gaitz, nola bait dira aipu sozialik eza, gizarte bizitzarik eza, eskola eta osasun kontuko problemak, segurantza sozial kařkarra, etab., etab., orduan ez da harritzekoa, beren adinagatik industriara jo ezin dutenak bakarrik baserrian geratzea eta baserritar guztiek beren seme-alabak kalerako prestatzea.

Dedikazio erdizko nekazaritza

Baserrri tradizionalaren azterketa biribiltzeko, ikus ditza-gun erdizko dedikazioko baserriak, gure Herrialdean gaurregun asko eta asko ikusten dena. 5. kapituluari esan dugu baserririk erdiek gaur modu horretara jotzen dutela.

Dedikazio erdizko baserriak baserri hutsera dedikatzen den familiako partaide aktiborik bat ere ez dutenak, (jubilazio adinetik behera) jotzen ditugu. Gure Herrialdean dedikazio erdizko nekazaritza argi dago zertan den, halebria, baserri lanean eta kanpoko beste enplegu batean jokatzea*. Gehiengoen industriako lana da nagusi, hemengo orduetatik kanpora baserrian lan eginez eta enplegu industrialik ez duten etxekoen lanari lagunduz. Dedikazio erdizko sistema hau, zalantzarik gabe, etxeko unitate ekonomikoaren ahalegin bat da, industrian enplegu bat lor dezaketen etxekoen lan industrialaren ahalbideak probetxatzeko, industriara jotzerik ez duen lan eskuak baserriari ekiten dion bitartean.

(*) Kanpoko enplegu hori hala baserrikoa nola Industriakoa edo zerbitzuakoa izan daiteke, nahiz eta gure Herrialdean ia Industriako hutsa izan.

Dedikazio erdizko nekazaritza zer menpeko gisa

Dedikazio erdizko nekazaritza fenomeno zabalago baten zatitzat jo eta aztertu behar da, nekazaritzaren eta laterriko aurrerapen ekonomiko orokorraren eboluzio osoaren pentzudan dagoena. Lurlantza sistema hau iragapen prozesotzat jo daiteke ekoizpen kapitalistako egiturak laterri baten ekoizpen bide guztiak irensteko daraman martxan.

«...etxeko esplotazio tikiak, aurreko gizarteetako hondarra, itzulirik gabeko krisi prozesotan sartu du teknikaren eta ekonomiaren eskakizun berrietara ondo egokitu ezinak. Baldintza hauetan baserritar tikiak eta etxekoen laguntzak, etxean sobratzen zaizkien gaiak salduta hornitu ezin duten diru premiari aurrea emateko, baserrian lan guti dagoen aldietan sobratzen zaien lan indarra ere saldu egin behar» *.

Dedikazio erdizko nekazaritza sarritan lur artisauaren desagerpenaren kontrako dema bat besterik ez da, aurreko denboretan hain garrantzizko zitzaizkion lur baliakizunak hustiratzen irauteko ahalegin bat.

Aldi berean laterriko hazkunde ekonomikoak aurrerantz egin ahala, industriako langileen egoera lur entpresari tikiarena baino azkarrago hobetzen ari da. Baserritarrak bere burua alhora ikusten du besteen ondoan eta berak ere goragoko bizi-maila bat nahi du. *Besteei buruzko maila* da okertu zaiona, nahiz eta duela berrogei eta hamar urtetako baserritarren bizimoduaz gonbaraturik hobekuntza handiak izan.

Jo dezagun, honez gainera, baserritarrak desegurtasun ekonomikoak ebitatzeko duen gogoia, bi sarrera iturritz, baserriko eta industriakoaz, errazago izango zaiona, noski. Jo dezagun baita, bitartean industrian lan eginez, geroko balio posibleagatik lurren jabetasunari eusteko duen gogoia ere, etab., eta orduan ikusiko dugu zeintzu elementuk eragiten dioten baserritarrari bere baserria erdizko dedikazioan era-

(*) J. M. Naredo. *La evolución de la agricultura en España.*

biltzeko. Nolanahi ere, gure ustez behintzat, baserritarrek erdizko dedikaziora jokatzeko arrazoin nagusia, zera da, halegia, baserri hutsez ezin dutela baserritik kanpoko enplegu batez lor dezaketen pareko irabazirik eta bizimodurik atera.

Barruko elementu hauei kanpoko bi elementu erantsi behar zaizkie: lehen, industrian lan egiteko enpleguak egotea.

«Espainian erdizko nekazaritzak garrantzirik ttikiena duen herrialdea, Galizia da. Hemen arrazoina hau da, halegia, herrialde honetako nekazariak nekez aurkitu ahal dutela beste sail batzutan lan gehigarririk... Euskal Herrian, Asturiasen eta Santanderren hainbat mehatze eta industria dagoenez gero, errazago da erdizko nekazaritzan jokatzea, nekazarien baserritik kanpoko lanak garrantzi handia duelarik».

Bigarren, lur lanak eta industriakoak batera eramateko modua ematen duen teknologia modernoa.

Laburturik: Kapitalismoaren hazkundeak artisau erako esplotazio ttikien errentakortasun ttikia ttikiagotu egiten du, batez ere, beste sail batzutako langileen sarrerez eta bizimoduaz gonbaraturik. Era batera, industriako hazkundeak enplegu alternatiboen ahalbidea dakar. Faktore bitzuek lirateke, gure ustez, erdizko dedikazioa eragiten duten elementu nagusiak. Arriskuaren kontrako segurua industriako enpleguan, etxeko sakada, etxaguntzari eustea, etab. era horretako baserri joera handitzen segitzen laguntzeko elementuak dirateke. Geroago ikusiko dugu erdizkako baserriei negatiboki eragiten dieten elementuak ere badirela.

Badira, erdizko dedikazioa laterri aurreratuetako kontua dela batez ere uste dutenak. Eritzi hauek baserri lanaren gozamen ez diruzkoei garrantzi handia damaiote. «Gure tresna ekonomikoez neurturik, gutiago efikaza dirudien ekoizpen eta enplegu egitura nahiago duten gizonak badaude, ez da nahikoa tresna horik halako egitura akabatzeko modukoak direla demostratzea». Interpretazio honen

arabera, erdizko nekazaritza laterri aurreratuetan gorantz doan kontua litzateke, halegia, bizi-maila haundiagoa edukitzean, pertsona ekonomikoek errentakortasun txikiagoko baina beste balio batzuren aldetik gozamen handiagoko ihardun ekonomiko bat aukeratzen dutela. Erdizko nekazaritza, orduan, bizimaila garaiei eta laterri aurreratuetako ekonomiari dagokien fenomeno bat litzateke.

Baina interpretazio honek, erdizko nekazaritzak osoan hartuta dituen elementu nagusiak ahazten ditu. Baliteke, era honetako nekazaritza bizimaila garaiko laterriei loturik egotea, baina ez pertsonen hautapen «ez ekonomikoengatik», laterri honetan bi ihardunak batera eramateko behar diren enplegu industrialak egon daudelako baizik. Duela berrogei urte ez zegoen erdizko dedikazioko baserririk, bi ihardun motak konbinatu ahal izateko enplegu industrialik ez zegoelako. Orain badaude, ordea, arrazoina hauxe da, halegia, baserriko familiak ezin duela ez baserri hutsez, ez industriako enplegu hutsez bizimaila dezenterik eduki. Erdizko nekazaritzak aurrera jarraituko du industria hutseko lanak bizimaila dezenterik ematen ez duen bitartean, baina apurka-apurka galduz joango da industriazko ekonomia kapitalista batean, honelako ekoizpenaren dinamika berak bait dakar hori. Areago oraindik, erdizko baserriek arrazoin ez ekonomikoengatik jarraituko balute, horik ez lirateke laterri batek behar dituen baserri aurreratu eta efizienteak. Nekez izango dela uste dugu bizitzaren alderdi ez materialak batez ere maite dituen inor, erdizko baserriak behar dituen eguneko 16 orduz lan eginez edo gaurko teknikak eskatzen duen bezala masiboki ekoiztuz.

Erdizko nekazaritzaren garrantzia

«Documento del Consejo Económico Sindical Nacional» delakoaren ustez, erdizko nekazaritzaren hedadura, honelakoa da ondorengo laterrietan:

Norvegia	%60
Italia	%49
Irlanda	%40
Austria	%40
Ipar Irlanda	%26
Grezia	%25
Jugoslavia	%19
Britainia Haundia	%15
Turkia	%15
Txekoslovakia	%12tik 15era
Alemania	%44
Japonia	%66
Gipuzkoa	%36,1
Bizkaia	%58,5
Herrialdea	%50,7

1972ko zentsuko informazioa.

Ikustenenez, Espainia osorako zifrarik ez dugu. Naredok dio «gure laterrian erdizko nekazaritza beste laterri aurreratatu batzuren pareko mailetan dabilela».

Kuadrutan agerienez, ez dago laterri bateko aurrerapen mailaren eta nekazaritzaren artean zerikusirik hersturik dagoenik esaterik. Honela, Japonian eta EE. BB. etan, erdizko hustirapenen portzentaia oso goi egonik, ez da hala Ingalaterran, munduko nekazaritzarik aurreratuen berton egon arren. Hustirapenen tamainaren gorabehera datzala uste dugu asko. Hustirapena ttikia bada, entpresariak bere sarrerak beste lan batzuz hornitu behar, lan horik egon badaude. Horregatik erdizko hustirapenen portzentaia oso handia da Japonian, Norvegian eta Italian. Enplegurik izan ezik, proportzioa laburra da, nola Grezian hala Turkian eta, segur asko, Espainian. Laterri aurreratua bada edo baserriak handiak, orduan ia ez dago erdizko dadikaziorik, Britainia Handian bezala. Baserriaren tamainiak determinatzen du haren errentakortasuna. Hau apala bada, eta enplegu alter-

natiborik badago, erdizko dedikazioa indartsua izango da aurrerapen industrialaren epe batean.

Erdizko dedikazioa Bizkaian eta Gipuzkoan

Gure Herrialdean, baserriko antolamendua berdina da erdizko dedikazioko baserrietan eta dedikazio osokoetan. Alde bakarra, eta haundia, lan faktorean dago: lehen nekazaría industriako langile bilakatzen da. Egoera hauetan baserriko zama nagusia, andreak darama. Gizonak egunean ordu batzutan, eta batez ere asteburuetan lan egiten du baserrian, andreak egin ezinako lan gogorragoei ekinik, batez ere. Ahal izanez gero, entpresako oporrak baserrian lanik gehien dagoen denboraz bat egiten dira eta inoiz lan istripu ttikitxo batzu probokatu ere bai, baja-egun batzu hartu eta baserriko lan garrantzitsuren batzu egiteko, belarketa, esaterako.

Lan eskuaren gutxitze honek, baserriko familiak erabil dezakeen lur hedadura ere txikitzea darama. Horregatik, egun baserri askotan ez dago lur gehiagoren premiarik, aitzitik, ordea, lur «gehiegi» dute. Lehen belardizat erabiltzen ziren lur batzu pinu-edo sartzen dituzte, urtean oso lan txikiz sarrera nahiko dezenteak ekarriko dizkietenak, sartu eta urte gutitara. Gure Herrialdean basoak zenbat gehitu diren begiratzea besterik ez dago, horrantz zein joera dagoen ikusteko.

Lan eskua urritzeak ekoizpena ere urritzera, hustirapen eskala txikitzea darama. Gehienez honelako baserriak oso mekanizaturik daude, batetik lan eskurik ezagatik, eta bestetik, etxeko ekonomian bi sarrera iturri dituztelako. Baina honetan, dedikazio osokoez ez dute alde handirik, zeren, esanik dugunez, Herrialdeko baserrietan mekanizazio handia bait dago.

Oro har, hustirapeneko ekoizpen sistema hustirapen osokoa bezalakoa da, alde bakarra izanik lan esku gutiago eta hustirapen eskala laburragoa dutela. Horregatik, erdizko

baserrien azterketa baserri tradizionalaren atal barruan sartzen dugu.

Dedikazio erdizkoan etxeko buruak, egunean zazpi ordu inguru arte, edo baserriko egun erdi, ematen dio baserriari *. Andreak, gehiago ekin behar dio baserriari, egunean hamar bat ordu baserri lanei emanik urterik gehienean, eta gainera, etxeko lanak. Beste laguntzak, dedikazio osokoen berdintzat jo ditugu, nahiz eta sarritan laguntza gehiago izan —aitona-amonen laguntzagatik batez ere— eta andrearen dedikazioa pixka bat txikiagotuz.

Erdizko dedikazioko eredia eta honen emaitzak

Izendatu berri ditugun alderdiak kontutan edukirik, beste baserri «ereduzko» bat muntatu genuen, dedikazio erdizkoa berau, eta esan dugunez, dedikazio osokoa bezalakoa, lan esku gutiago duela izan ezik. Dedikazio erdizko baserri ereduzko horretarako ere, irtenbide bat atera genuen, lor daitezkeen sarrerarik handienak zeintzu diren eta horretarako zer egin behar den emango diguna. Ateratako irtenbidea hauxe da:

[*] Zifra hau posible da industrian txandaka ari delako edo industriako laneguna hasi aurretik ordu batzu eta ondoren beste batzu sartuta.

7.9. *kuadrua.—Dedikazio erdizko baserrietako programarik onena, zulo eta guzti.*

Zer	Zenbat	Pezetak	% s/osoa tarte gordina
Tarte gordin osoa		423.943	
Ekoizpen konbinaketarik onena:			
Abereak: buruak			
Behiak	9,5	165.300	30
Urte zekorrak	3,8	83.600	15
Urte bigantxak	3,8	64.600	12
Gutziz, abere larriak		313.500	57
Oiloak	50	4.200	1,7
Untxi amak	10	13.000	2,3
Zerriak	10	10.000	1,8
Gutziz, abereak		340.700	61,8
Lur gaiak: m ²			
Barazkiak	2.000	160.000	29,3
Arto/indabak	5.250	44.940	8,2
Gutziz: ez belarkiak	7.250	204.940	37,5
Belarkiak	42.500		
Belardi artifiziale	42.500		
Belar freskoa:			68
Maiatzean zuloratua			4
Abuztuan zuloratua			13
Abuztuan idortua			14
Sarrera gordinen kopuru osoa gehi 20.000 pezeta pinu hektarea bakoitzeko		545.640	100

Erabilitako baliakizunak

Lur langarria: 5 hektarea dira lur langarri guztia.

Lan orduak: 6.192,66, 6.611ko osotik, beraz %94.

Ikuiluaren edukiera: %60 erabilia.

Zenbateko arriskua: 115.267 pezeta.

Ikusten denez, baserri honetan atera daitekeen tarte gordinik gorena 523.943 pezeta da edo, kontzeptu guztiak

jota, lan ordu bakoitzeko 86,60 pezeta. Honi industriako soldata erantsiz gero, baserriko familiaren sarrera osoak ditugu. Esaterako, etxeko buruak peoitzan hilean 15.000 pezeta, edo urtean 210.000 pezeta irabazten baditu, etxeko sarrera osoak urtean 733.943 pezeta lirateke. Hilean, 18.000 pezeta irabazten dituen ofiziala izanez gero, sarrera osoak urtean 803.943 pezeta lirateke.

Dedikazio erdizko baserrian atera daitekeen tarte gordin osoa ia dedikazio osokoaren parekoa da. Emaidza honen arrazoina zera da, halegia, dedikazio erdizko baserrian senar-emazteek askoz lan handiagoa egiten dutela eta horrela industriako enplegu eta guzti ere, ia lan ordu berdinak geratzen direla baserriko. Izan ere gure ereduari lan erabilgarria % 25 bakarrik txikiagotzen da dedikazio osokotik. Baina, oraindik gehiago dago. Erdizko baserriko irtenbideak lan esku erabilgarria dedikazio osokoa baino askoz bizikiago erabiltzea eskatzen du, osokoa bertan ere bizi izanik. Dedikazio osoko baserrian, urtean 8.053 ordu erabilgarritatik 7.087 sartzen dira, % 88ren erabilera delarik hau. Apiriletik abuztura eta urrian lan osoa erabiltzen da, baina badira beste hile batzu lan eskua soberatzen dena, honela nolabait urteko lanaren gogortasuna orekatuz. Dedikazio erdizko baserrian, ordea, programarik onenak guztiz 6.611 ordu erabilgarritatik 6.193 ordu dedikatzea eskatzen du, % 94 erabil tasa emanik eta lan erabilgarri guztiaren usoa Irailean izan ezik. Hemen ez dago dedikazio osoko baserriko aipatu berri dugun oreka hori salbatzerik.

Zalantzarik ere ez, erdizko nekazaritzak baserriko familiaren bizikera oso hondatzen duela, andrearena batez ere. Honentzat lan denboraren totala asko handitzen da eta bestalde ez du industri lanak bere senarrari dakartzkion abantail tikiatarik bat ere gozatzerik, aitzitik ordea, hain lanpeturik bizi da, non ezin bait du lehen baserriaren emakumearen harreman-bide sozialaren oinharri ziren astero azoketara joan ere. Erdizko dedikazioak irabazi gehiago ematen du, bai, baina maila ekonomiko batzutatik gora baliteke halako bizikerarik ez justifikatzea. Erdizko

dedikazioak irauteko, lan erritmo patxadatsuagoz lortzeko moduko irabaziak beharko lirateke.

Ekoizpen konbinaketa

Dedikazio erdizko baserrirako irtenbideak dedikazio osokoaren antz-antzeko ekoizpen konbinaketak eskatzen ditu. Bien arteko alde nagusia da, dedikazio erdizkoan dedikazio osokoan baino urte txahal gehiago hazi behar dela. Oiloak, ordea, eta lan-lurra, arto/indabena batez ere, txikia-gotu egiten dira. Irtenbide guztietan nabari da gairik eskasen errentakorrena arto/indabak direla. Ekoizpen sistemako beste premia batzuren betegarritzat balio dute, baina behar izanez gero, berak dira programarik onenetik lehen baztertzen direnak.

Baserriko sarrerak lanorduetatik

Lanordu bakoitzeko tarte gordina, kontzeptu guztiak sarturik, 84,60 pezeta dira. Dedikazio osokoan baino gorago dago hau, zeren, esan dugun bezala, erdizko dedikazioan lan ritmo biziagoa eta baserrian ordu «motel» gutiago behar bait da. Hala eta guztiz ere, industriako peoiaren alokairu-ordukotik urrun dago.

Baserriko lana etxeko buruarentzat peoiaren industriako alokairutik joz gero eta andrearena etxe laguntzaileen prezioetik, hona zein maila atzeman lezaketen:

Gizonak: egunean 7 ordu, 50 astetan, orduko 113,6 pezetatan	238.560
Andreak: egunean 10,5 ordu, 50 astetan, orduko 50 pezetatan	157.500
Guztiz kanpoko sarrerak	396.060
Guztiz baserriko sarrerak	523.943
Dedikazio erdizko baserriaren aldeko diferentzia	127.883
edo ordu berak industrian lan eginda baino %32,2 gehiago.	

Hau da, erdizko dedikazioan kanpoan baino baserrian lan egitea hobe dela, andreak orduko 50 pezeta eta gizonak 113,60 pezeta bakarrik ateratzekotan.

Bere baliakizunak beste ihardun batzutan erabiltzeaz gonbarazioa

Dedikazio osoko baserrian ez bezala, hemen ez dago baserritarra *alternatiboki* industriako langile izan daitekeela esaterik, zeren, kasu honetan *izan bait da* industriako langilea. Beraz, lehen egin dugun bezala, andrearen lana albora utzirik —eta ez da guti albora uzten— lurra eta baserrian inbertituriko kapitala bakarrik sartu behar dira baserriaren aukera kostuaren kontuan. Hiru kasu jo genituen: 1. 5 ha lurra pinu sartzea, edo berdin dena, lurra metroko 25 pezetatan saltzea; 2. Lurra metroko 100 pezetatan saldu ahal izatea eta, 3. Lurra metroko 250 pezetatan saldu ahal izatea.

Hiru kasu hauei kapitalaren aukera kostua erantsiz gero, hurrengo kuadruko lehen habea dugu:

7.10. *kuadrua.*—*Baserriko sarreren gonbarazioa aukera kostuaz.*

Baserriaren aukera kostua		Dedikazio erdizko baserriko sarrerak	Alde osoa	Lanorduko alde
1. kasua	144.000	523.943	379.943	61,35
2. kasua	444.000	523.943	79.943	12,90
3. kasua	1.044.000	523.943	520.057	84,00

Kuadrutik ateratzen denez, lurra metroko 100 pezetatan saldu ahal izanez gero, ia ez luke mereziko baserriari ekiteak (79.943 pezetatako alde positiboa gastu indirektoek jango lukete). Lurra metroko 25 pezetatan bakarrik saldu ahal izanez gero, orduan dedikazio erdizko baserria diruz errentakor litzateke, 379.943 pezetatako lur gainki garbia aterako litzateke eta. Areago oraindik, diru hau etxeko buruaren industriako alokairuaz gainera atera ahal bada.

Dedikazio erdizko etxaldeek zein ahalbide duten mailarik onenaren azpitik

Argi dago, dedikazio erdizko baserrien okerrik handiena, familia osoaren erritmoa dela. Litekeena da, ordea, dedikazio erdizko baserriar familiak baserrian lan txikiagoa egin eta sarrera urriagoak ateratzea, hauetaz eta industriako sarrerez sarrera neurri dezentea lorturik lan erritmo orekatuagoz. Honetara, denbora erdizko baserriek urtetan eta urtetan iraun lezakete eta, beharbada, horixe litzateke eskal nekazaritzaren irtenbidea. Noraino da, ordea, posible hau?

Lehenik esan dezagun, hau ia zati bat gertatzen ari dela. Badira dedikazio erdizko baserriak hustirapen eskala ttikia bakarrik dutenak —hiru-lau behi eta horien txahalak, eta inoiz, horixe ere ez—. Baina kasu honetan, jakina, sarreak ere ez dira guk emanak izango, askoz apalagoak baizik, eta horrela izatekotan ere, ez du segur asko sistema honi eusteak mereziko.

Baina honez gainera, kontuan eduki behar da, baserriko lana neurri bateraino bakarrik gutitzekoa dela, eta ez dago hortik beheratzerik, abereak dauden bitartean, behintzat. Beste hitz batzutan, baserriarrak abelazkuntzari ekiten dion bitartean behintzat, gehiago jaitsi ezinako lan orduen minimo bat du. Esaterako, bost ala hamar behi ikuiluan edukitzeak ez du esan nahi, bigarren kasuan double lan egin behar denik, bietan berdintsu baizik, zeren ikuilu lanak eta eguneroko belarketa lanak oso antzekoak izan bait daitezke. Egun ezagutzen diren bezalako dedikazio erdizko baserriak izateko, derrigorrezkoa dela esan daiteke, urte osoan zehar egunean zazpi ordutako lanaldia, gutienez. Honez gainera, negurako belarkiak prestatzeko behar den lana, udako hiletan egunean 10 ordu onak behar dituena, eta hona hauek eta lehengoek urtean 2.500 lan ordu inguru ematen dutela. Lan orduen zifra hau, baserriko familiak pentsa dezakeenik ttikiena da, dedikazio erdizko baserriarako.

Era honetako baserri batek atera ditzakeen sarreraren irudi bat edukitzeko, honelako baserri batek eman ditzakeen sarrerak adierazteko kalkulu batzu egin ditugu. Bitariko baserriak aztertu ditugu, abereduna eta barazkiduna. Emaizak 7.11. kuadrutan datoz.

Kuadrutik ateratzen dugu:

—egunean zazpi ordutako lanaz bakarrik ez dagoela abereetara dedikatzerik, horrenbeste ikuiluan bakarrik behar da eta. Beraz, barazkintzari ekin behar.

—egunean 11 lanorduz 5 behi edo 15 txahal edo 3.950 m² barazki hustira daitezke, bakoitzak bere habeak dioena ekoizten dutenak.

—egunean 14 orduz behiek 8ra, txahalek 24era eta barazkiek ha. 1/2ra igotzen dute.

—txahalak eta barazkiak, behiak esne hutsera baino errentakorrago dira, baina arrisku mailak ere askoz handiagoak dira eta baserritarra jasateko gertu zegoela esan genituenak baino ere handiagoak, noski. Txahaletan, tarte osoaren % 50 eta barazkietan % 40 arriskatu behar da. Baliteke, ordea, premia nagusiak industriako lanaz hornituta edukitzean, baserritarra erdizko dedikazioan gehiago arriskatzeko gertu egotea.

Sarrera posible honek, bere baliakizunak beste ihardun batzutan erabilia gonbaraturik, hauxe ematen du:

7.11. *Kuadrua.—Tarte gordin osoaren balio posibleak lan ttikiagoz.*

Eguneroko lanordiak	DEDIKAZIO BAKARRA				BARAZKIAK				
	BEHIAK		URTE TXAHALAK		Metro karratuak		Arriskua pezetak		
	Buruak	Tarte gordina pezetak	Arriskua pezetak	Buruak	Tarte gordina * pezetak	Arriskua pezetak	Metro karratuak	Tarte gordina pezetak	Arriskua pezetak
7							2.500	200.000	80.000
Pezetak/orduko								92,50	
11	5	117.940	1.790	15	180.000	90.000	3.950	316.000	126.400
Pezetak/orduko					69,7			95,70	
14	8	188.704	2.864	24	288.000	144.000	5.000	400.000	160.000
Pezetak/orduko					100,40			95,20	

* Txahal guztiak zekorrak direla emanik. Zenbat eta bigantxa gehiago, hainbat eta kopuru txikiagoa.

7.12. *kuadrua.—Lan ttikiagoko tarteen eta aukera kostuen gonbarazioak.*

Diferentzia tarteaz	Aukera kostua		
	Lurra metroko 25 pezetatan salduta edo pinu sartuta	Lurra metroko 100 pezetatan salduta	Lurra metroko 250 pezetatan salduta
	144.000	444.000	1.040.000
7 ordutan			
Barazkiak	56.000	244.000	844.000
Orduko	22,40		
11 ordutan			
Behiak	26.060	326.060	926.060
Urte zekorrak	36.000	264.000	864.000
Orduko	13,95		
Barazkiak	172.000	128.000	728.000
Orduko	52,12		
14 ordutan			
Behiak	44.704	255.296	855.296
Orduko	15,59		
Urte zekorrak	144.000	156.000	756.000
Orduko	50,2		
Barazkiak	256.000	156.000	756.000
Orduko	60,95		

Berriro ere ikusten da, lurra metroko 100 pezetatan saldu ahal izanez gero ez duela merezi, jarri ditugun modalitateetarik batera ere dedikatzerik. Lurra metroko 25 pezetatan saldu edo pinu sartu ahal izanez gero, orduan ere ez du merezi eguneko 14 ordutako abelazkuntza izan ezik. Eguneroko ordu hauk baserri lanera emanik ere, 100.000 pezeta garbi inguru bakarrik atera daitezke 24 txahalez, hauek gainera 180.000 pezetatako arriskua dutelarik.

Beraz eguneko 14 ordutatik beherako abere dedikazioa ez dela diruz errentakor esan genezake.

Barazkintzak, kuadru hoberik ematen du. Egunean zazpi ordu bakarrik emanik errentakor ez bada ere, egunean 11 orduz 172.000 pezeta atera daitezke eta 14 orduz 256.000. Sarrera hauek 126.000 eta 160.000 pezetatako arriskua dute, eta hau, zalantzarik gabe, barazkien ekoizpenean alderdi negatibo gogorra da.

Sarrera hauk etxeko buruak egunean bi ordu extraz lan eginda atera dezakeenaz gonbaraturik —eta orduok 150 pezetatan baloraturik urtean 90.000 inguru ematen dute— irtenbide hau, nahiago izango duela pentsa dezakegu urtean 82.000 pezeta egunean bederatzi ordu gehiagoz lan eginda ateratzea baino, edo egunean, 12 ordu gehiagoz lan eginda 166.000 gehiagora heltzea baino.

Laburturik: Egunean 20 ordutatik beherako hustirapen erdizkoa, ez da errentakorra. Abere hustirapenatarako ez behintzat. Egunean 11 ordutatik gora errentakor izan daiteke, arrisku handi samar bati eusteko gertu badago eta industrian lan extrarako aukerarik ez badago. Erdizko esploatazioa errentakor izan daiteke, baserrian lan eta lan egiteko prest izanez gero —egunean 21 ordu inguru—, baina ez da errentakor lan ordu guttiagorekin konbinatu nahi izatekotan.

Erdizko hustirapena desegurtasun maila desberdinez

Erdizko nekazaritzarako ere, desegurtasun mailan aldakuntza batek zein ondorio lekarkeen aztertu dugu. Baserri-tarren zenbait «arrisku gogo» desberdinetarako atera ditugun emaitzak hauexek dira:

7.13. *kuadrua.*—Erdizko hustirapenerako emaitzak desegurtasun maila desberdinez.

Desegurtasun maila	Tarte gordimik onena	% zenbat normaletik	PRODUKZIO KONBINAKETA					
			Behiak	Urte txahalak	Barazk. m ²	Art./ind. m	Pinuak	Arrisku maila pezetak
100	399.070	—23,87	10	4,5	250	9.000	6	39.907
200	501.618	— 4,26	10	6,2	1.500	5.500	6	100.323
300	638.022	5,36	9,1	9,9	3.500	2.000	1,7	191.406
400	679.631	12,53	5,1	22,14	3.500	2.000	1,5	271.852
500	740.347	20,77	0,7	35	3.750	2.000	0,6	370.017
600	762.610	22,64	—	39	4.000	—	—	457.566

Berriro ere, argi dago, zein garrantzi duen baserritarra jasateko prest dagoen arrisku mailak. Sartzeko prest dagoen arrisku maila handituz gero, tarte gordin posiblea ere handitu egiten da, baina arriskua proportzio handiagotan handitzen da. Sarrerak 523.000tik 762.000 pezetatara gehitzean, —% 45eko gehikuntza— arriskua lehendik % 140 handitzen da —% 60ra lehengo % 25etik—. Gainera sarren balio osoak ez du inoiz ere zifra handiagorik harrapatzen, eta horregatik, baserritarra nekez izango da urtean ia milioi erdi arriskatzeko prest, 760.000 pezeta irabazteko.

Denbora erdizko baserrirako ondorioak

Denbora erdizko baserriei buruzko ondorioztat hauk eman daitezke:

—Lurra metroko 100 pezetatan saldu ahal izanez gero, gaurko baldintzetan baserria inoiz ere ez da errentakor. Are gutiago, jakina, lurra prezio honen goitik saldu ahal izanez gero.

—Lurra metroko 25 pezetatatik gora saltzerik izan ezik, dedikazio erdizko baserria diruz errentakor da, egunean 21

ordutatik gora baserrian lan egiteko prest izanez gero urte osoan zehar. Hogeitabostetik ehunera bitarteko lurraren prezioetarako, baserria errentakor da bere errentakortasuna galduz lurraren salmenta prezioak ehun pezetataraino igo ahala, eta hemendik aurrera ez da errentakor.

—Baserrian lan gutiago egin nahi izanez gero, orduan, behe bat dagoela ikusten dugu eta hortik behera ez da posible baserririk, abereen kasuan bezala, edo ez da errentakor, barazkien kasuan bezala, biak egunean zazpi orduko lanaz. Gutienez, egunean hamaika ordu sartzeko prest izan behar, erdizko baserria haintzat hartzen hasteko.

—Egunean 11 orduz baserrian lan eginda, abere hustirapena ez da errentakor. Egunean 14 orduz bakarrik lan eginda, urte txahalen hustirapenak urtean, gehien jota ere, 100.000 pezeta garbi inguru atera erazten du, baina 180.000 arriskatuz. Beraz, abelazkuntza ez dela errentakor atera dezakegu egunean 14 ordutatik behera lan egiteko base-rientzat.

—Lana txikiagoturik barazkintza bakarrik ageri da errentakor, planegindako errentatik % 40 arriskatzeko prest izanez gero. Famili buruak, ordea, industrian egunean pare bat ordu extra sartzeko modurik ukanez gero, barazkien errentakortasun gonbaratiboa oso kazkarra da.

—Dedikazio erdizko nekazaritzak nekez iraungo duela uste dugu, zeren:

a) lan txikiagoa eginda, ateratzen zaion errentakortasuna apalegia da.

b) irabazi dezente samarrik ateratzeko, baserritar familiari komeni ez zaizkion lan erritmo eta bizikera behar dira, beste bideren batzutatik bizimaila taiuzko bat lortu ahal izanez gero.

c) Egun, erdizko baserri asko egotearen arrazoina, zera da, halegia, oraingo famili egituran lehen baserri hutsera dedikaturiko jendea geratzen dela, eta ez daudela baserria uztera. Honek indar handia du, gehienez etxaldea guraso zaharren eskuetan bait dago. Gainera, etxeko buruak

lanbide industrialik ez edukitzean, sail horretan irabaz lezakeena gutitxo da, eta bietara jokatu behar, sarrera maila dezenterik ateratzeko; eta azkenez, oraingo baserri jabea eta andrea hain lan erritmo gogorretara ohiturik izanik, hortik dator ihardun bitzu konbinatzea.

d) Baldintzaile hauk agudo galtzen ari dira. Zati batez baserriari atxikien zeuden belaunaldiak hiltzeagatik, baita baserriko andreak ez duelako erdizko baserriak eskatzen duen lan erritmorik eta bizikerarik jasan nahi, zati batez atsedenari eta jolasari, errenta maila garaiagoak lortzean, balio handiagoa ematen zaiolako, eta batez ere, baserriko seme-alabei kaleko eta industriako hezibidea ematen zaielako, industriako lanbidez errenta maila gizenagoak ukan ahal izateko.

Zalantzarik ere ez, industriaren aurrerapen azkarraren lehen epean erdizko nekazaritza gehitu egin dela. Errenta absolutu edo erlatiboaren maila apala duen baserriarrak, enplegu aukera alternatiboak bilatzen ditu. Diruari gehiago begiratzen dio lanari baino. Ordu luzetan lan egiteko prest dago, bere sarrerak gehitzeko. Baina, laterriko aurrerapen ekonomikoa handitu ahala, haren errenta ere gorantz doa. Haren kualifikazio industrialala ere gorantz doa eta beraz baserritik kanpoko lanak gero eta gehiago ematen dio. Lan bikoitz horretatik, baserritik eta industrietatik, ondasuntxo bat egiten ari da seme-alabentzat hezibide hobea eta berentzat ere etorkizun seguragoa emango diena. Industriagintzarako, lurraren balioa ere gorantz doa, edo arboladien balioa gorantz doa, eta honela lurraren etorki balioa segur dago. Aldakuntza hauek baserriarren gaurko errenta maila jaso egiten dute, eta seme-alabek ere industri sailean enplegu ondo ordainduak lortzeko moduan daude.

Hezibide teknikoko prozesura sartzeak belaunaldi gaztea kale bizitzara sartzera darama. Bigarren belaunaldi honi, posible zaion errenta mailan, denbora libre handiagoa eta bizimodu lasaiagoa eramateko gogo oso handitzen da. Familiako lana, etxeko buruaren industriako eta gazteen ez-

kondu arteko lanean geratzen da. Apurka-apurka, erdizko baserriak galduz goaz.

Guzti honegatik, uste dugu, gure Herrialdean denbora erdizko nekazaritza, aldi batean fenomeno gehikorra izanik, gutituz joango dela ia guztiz galtzerarte, zeren iragapenezko sistema bat bait da, artisau erako esplotazioen —baserriaren— eta nekazaritza moderno eta txit teknifikaturiko esplotazioen artean, eta hauxe da baserriko antolamenduari etorkizunean sumatzen zaion bide posible bakarra. Honetan Naredorekin * bat gatoz. Honek ere erdizko hustirapena iragapenezko sistematzat jotzen du, aurrerapen kapitalistaren eta bere hiri-baserri dinamikaren aldi berezi baten fruitu bezala:

«Erdizko nekazaritzaren geroko eboluzio posibleari buruz, nahiz eta oraindik laterri aurreratuetan kanpoan lan egiten duten nekazarien eta etxeko laguntzen portzentaia gorantz joan, alderdi oso aurreratuetan une bat heltzen dela ikusten da, erdizko nekazaritza garrantzi erlatiboa galtzen hasten dena. Eboluzio hau bidezkoa da, bere tankera iragankorra ikusirik ekoizpen egituraren aldakuntzan.

Puntu honetan, oso argigarri da, nekazaritzaren eboluzioko aldakuntza eta joerei buruzko estudio bat, Alemania Federatuko Errepublikako Nekazaritza Ministergoak aparte-ko ale bat dedikatzen diona bere «Nekazaritzako Estudioak» aldizkarian. Estudio honek sei herrialde oso industriatuetan sakabanaturiko 44 udaletan ateratako emaitzak ditu oin-harri. Emaitza hauek ematen dutenez, 1.949tik 1963ra lur hustirapenen kopuru osoa 5.700dik 4.000ra pasa da, % 30 txikituz. Txikiagotze hau, denbora erdizko esplotazioak % 40 galtzeak eta denbora osokoak % 13 gehitzeak ekarri zuen, hauek bataz besteko lur azala handiturik. Prozesu honen ondorioz, denbora erdizko hustirapenen portzentaia osoari buruz % 55etik 48ra jaitsi zen. Laterri osoan ordea, por-

(*) J. M. Naredo. *La evolución de la agricultura en España*, (1 argitalpena) 90. or.

tzentaia honek aipaturiko % 44etik, 1960an, % 55era igo zuen 1964ean».

Jakiteko gaudena, jakina, noiz izango den Herrialdean joera hau aldatzen hasiko den unea. Egun, dedikazio erdizko baserriak gehituz doazela dirudi, baina geroagoko epe batetan, segur asko, gutitu egingo dira. Ez dago esan beharrik prozesua bizkortu edo atzeratu dezaketen hainbat alderdi albotiko sartzen dela dinamika honetan. Esaterako, industriako krisiak gazteei industriako enplegua zail ipintzen badie, baliteke dedikazio osoko baserriak gehitzea eta beraz dedikazio erdizkoen portzentaia jaitea. Alternatibako industriako alokairuak apalak badira, baliteke dedikazio erdizko fenomenoak irautea bi ihardunen konbinaketaz errenta dezenteak ateratzeko. Nolanahi ere, handi-handika, zenbat denbora beharko den iragarri gabe, denbora erdizko baserriak apurka-apurka galdu egingo direla esan daiteke.

Ondorio hauen balioztapena

Iragartzen dugun denbora erdizko baserrien desagertze honi zer deritzagun azaltzea jakingarri delakoan gaude, bere geroko ahalbideen azterketa zehatz batetan oinharriturik. Aztertzen ari garen Herrialderako, denbora erdizko baserrien desagertzeak ez luke atsekaberik edo kezkarik eman behar, arrazoin hauengatik:

Baserritarraren eta honen familiaren aldetik:

Ikusitako kasurik onenean ere, baserriko familiak egunean 14 orduz lan egin beharko luke hustirapen eskas errentakor batetara heltzeko. Halako bizi-ritmorik inori ez zaiola opa behar uste dugu, sarrera gehigarri labur batzu besterik ez lortzekotan. Are gutiago, oraindik bizitzaren kalitateari garrantzi apur bat —teoriaz behintzat— eman nahirik dabilen zibilizazio industrial honetan. Berez, gizarte erdi zentzudun batek lan erritmo horien kontra egin behar luke.

Herrialdearen aldetik:

Denbora erdizko nekazaritza, hondar-nekazaritza da, ihar-dun nagusiaren bigarrenezkoa eta azalezkoa. Hortik ateratako sarrerak, familiaren errentaren gehigarri politak dira, baina inoiz ere ez, etxeko ekonomiaren oinharri nagusia. Nekez pentsatzekoa da, beraz, familiaren iharduneko irabazpide azalezko bat sail dinamikoa bilakatzea eta datorren eboluzio teknologikoari adi dagoena. Baserriko lana aurrezteko moduko berrikuntza teknologikoak sartzea baliteke, baina nekez egongo da ardurarik eta sakada gehikorrik beste hobekuntza batzutarako, esaterako, abere eboluziorako, kultibo berrietarako, etab.

Bestalde, nekazaritzako eboluzio teknologikoak, egunean baino egunean etxalde handiagoak eskatzen ditu —Inglaterra 60 ha.tako etxaldeak ttikitat dituzte ia—, teknologia berriak eta antolamendu industrialak dakartzan eskala ekonomiak probetxatzeko moduko etxaldeak, noski. Berez dedikazio erdizko baserria oso ttikia da, eta izango ere, beraz nekazaritzak etorkizunean edukiko dituen ahalbiderik gehienetatik albora geratuko dena. Laterriko lur baliakizun osoen probetxamenduari buruz, denbora erdizko nekazaritzan ez dago sektorearen antolamendu arrazoinetarako modurik. Beste kontu bat litzateke, aurreragoko denboretan bezala, lan eskuaren gainki haundi bat balego, baserriari gogor ekinez eta bizimaila apalez konformatuz, sektorean enplegaturik irautekoa. Egun, bizi-mailari buruzko pentsamenduek gora egin dute. Inguruan enplegu industrialik izanez gero, lehengo martxarik ez da onhartzen, eta gutiago onhartuko dira antolakera ekonomiko horik. Lur sektorea osoki eta arrazionalki probetxatu behar dugu, baina hori egingo duenak bizikera egokia edukita, noski... Dedikazio erdizko baserrietan, ez bat ez beste egiterik ez dagoela, uste dugu. Ez gaitu beraz horien desagerpen probableak hain atsekabetu behar, industria modernoek lekua utzi dieten

artisau lantegi ttikien desagerpenak ere atsekabetzen ez gaituen bezala *. Lantegi haiek historiaren une batean beren eginkizun handia bete zuten, baserriek gure aldion bete duten bezala. Batzuri eta bestetzuri, iraunerazi nahi izatea begiak errealitateari herstea, eta gure nekazaritzaren eta gure Herrialdearen aurrerapena bahitzea da.

Orain arte baserri tradizionalaren erproduzioaren egoera ez-tertatu dugu. Baina, bistan dago, arteak horrek ez dituela baserriko zeharbidetza gutxiak jutzen. Errepa tekniko eta gurea aldatu ahal, baserri tradizionala aboiziotuz doa, baldintza berrietara egokituriko elementu berriak arte. Baserri tradizionalaren iraupidari buruz, aurreko kapitulu-
an aurretako ondorioak negatiboak izan arren, baliteke zeharbidetza aldatzea, baserria modernatuz gero teknologik-
o artetara. Horregatik kapitulu honetan baserriek gure

[*] Iragapen honetan sortzen diren giza problemak, beste kontu bat dira, jakina, eta problema hauk baserriarentzat okerrik gabe konpondu behar dira.

8. Kapitulua Baserriaren modernakuntza

Orain arte baserri tradizional ereduaren egoera aztertutako ahalbide guztiak jotzen. Ekoizpen teknikak eta ingurua aldatu ahala, baserri tradizionala eboluziotuz doa, baldintza berrietara egokituriko elementu bat bilakatu arte. Baserri tradizionalaren iraupideari buruz, aurreko kapituluaren ateratako ondorioak negatiboak izan arren, baliteke ahalbideak aldatzea, baserria modernatuz gero, teknologia berria hartzeko. Horregatik kapitulu honetan, baserriak orain arte ikusi dugun famili hustirapeneko egitura barruan zein modernapide duen aztertuko dugu. Modernakuntza honek,

baserriko ekoizpen osoari buruz inbertsio handi samarrak eskatzen ditu.

Baserriko modernakuntza posiblearen elementurik garrantzitsuenak hauk direlakoan gaude:

- a) abeltegien zabaltzeak.
- b) abelazkuntzako sistema berriak, abelazkuntza intentsiboa.
- c) mekanizapena gehitu.

Elementu hauk elkarrez eta baserriaren tamainiaz, desgurtasun egoeraz eta gairik garrantzitsuenen prezioez konbinatuko ditugu. Aldakuntza hauetaz gainera, aztertu ditugu:

- d) barazkintza
- e) abere hustirapenak industriako prozedimenduez
- f) ardiakuntza.

Honela, oraingo baserriak dituen eboluzio mailatuko eta modernakuntzako ahalbide guztiak bildurik geratzen direla uste dugu. Barietate guztiok aztertzeko, aurreko kapituluko baserri tradizionala, dedikazio osokoa eta zuloduna oinharritzat hartu eta kasu bakoitzari dagozkion aldakuntzak sartuz goaz bertan.

Ikuiluaren zabaltzea

Aztertzen ari garen Herrialdean, baserriarrik erremangutsuenak edo modutsuenak beren abere hustirapenen tamainia handitzen ari direla ikusten da. Horregatik, arretagarrizat jo genuen baserriko ikuiluaren tamainia haunditzeak zein ondorio lekarkeen aztertzea.

Lehen ere edukiera dezente samarra —hogei buru— ezarri zitzaion ikuilu tradizionala handitu eta 50 burutaraino edukitzeko moduko berri bat egiten zela jo genuen. Eginiko ikuilu modua gorta lotua edo gorta librea izan zitekeen zabaltze horretarako, 750.000 pezetatako kostua josten zen, 12 urtetan amortizatu beharrekoa, amortizakuntzaren kopuruari kontserbazioa, konponketak etab. erantsi-

rik, eta denak jota, urteko zabaltze kostuak urtean 70.000 pezeta inguru ematen du *. Gainera ikuilu zabalduak instalazioen hobekuntza dakarrenez gero, lehengo lan beraz orain berrogei eta hamar buru zain daitezkeela, jotzen dugu. Baldintza honetan, baserriko egoerarik onena zein izan zitekeen aztertu genuen.

Soluzioa atera eta hona zer ematen zuen: 5 Ha lur langarri dituen ikuilua, esan dugun bezala, handituz gero, baserritarra ikuiluaren zabaltzea egin aurretik baino egoera okerragoan geratzen dela. Beste hitz batzutan, 5 Ha bakarririk dituen baserriak ez duela ikuiluaren zabaltzea justifikatzeko moduko ekoizpen ahalmenik. Zabaldutakoan, beraz, gastuek sarrera berriek baino gehiago igotzen dute eta baserritarrak ikuilu berria egin aurretik baino urtean % 12 tarte gordin txikiagoa edukiko luke. Izatez baserritarrek badakite nonbait emaitz honen berri, zeren ez bait dago baserriarik 5 Ha lur bakarrik eduki eta ikuilua zabaltzen duenik. Berriro ere, argi erakusten du honek, baserritarrek, beren erara, kalkulu ekonomiko oso zuzenak egiten dituztela.

Baina, badira Herrialdean lur handiagoko baserriei dagozkien ikuilu berri handiagoak. Horregatik berriro aztertu genuen baserri handiago batetan ikuilua haunditu eta zer gertatuko litzatekeen. Baserri tamainia desberdin batzuetan ikusi eta bakoitzaren soluzioak atera genituen. Baita ikusi genuen, ikuilua nahi zen buruen kopururaino zabal zitezkeela, buruko 25.000 pezetatako kostua jarri eta ez 50 buruentzat 750.000 pezetatako kostu finkoa. Honela, soluzioak lur hedadura bakoitzeko ikuiluak eduki behar lukeen tamainarik onena emango liguke. 8.1. kuadrantean agertzen ditugu lorturiko emaitzak.

(*) Zabaltze honi ezarritako kostua oso behetik dabilela badirudi ere, kontutan eduki lehendik dagoela hogeituro burutako edukiera eta ez dugula Herrialdean egiten diren batzuetan bezalako ikuilu «lujuzkorik» jotzen, ikuilu moderno eta efiziente, baina soil bat baizik, abelazkuntza moderno baterako nahikoa dena, noski. Bestalde, kostu apalari eutsi nahi izan diogu ikusi nahi ditugun hobekuntza berrioi ahalbide ekonomikorik handienak eman ahal izateko.

8.1. *kuadrua.—Ikuiluaren zabaltzea baserriaren tamainiatik*

Baserriaren tamainia Ha.	Ikuiluaren tamainiarik onena. Zenbat abelgorri buru	Tarte gordinik onena. Pezetak	% zenbat baserri tradizionaletik	Beharrezko inbertsio osoa. Pezetak. Ikuilua + abereak
5	10,5	473.875	—12,7	750.000
10	26	881.088	62,25	538.000
15	41	1.124.704	107,1	803.525
20	53	1.413.289	150,2	2.021.000
25	65	1.667.768	260	2.675.000

Garbi agiri da, 5 Ha.tako tamainiarako, kuadruko lehen lerroak dioenez, errentakor ez zen ikuilu zabaltzea, baserriaren tamainia haunditzean, ordea, oso interesgarri dela, ikuiluaren zabaltze gustua buruko 25.000 pezeta inguru, izanez gero.

Onenak gomendatzen duen eta 8.2. kuadruan azaltzen dugun ekoizpenaren konbinaketari begiratu gero, hauxe ikus dezakegu, hategia, baserriaren tamainia handitu ahala, urte txahal gehiago haztea komeni dela eta gainera abere hauen preziorik handitu gabe. Honek erakusten bide du baserri handiagoak egitea, abeltegi zabalduz, izan daitekeela eskariak nahi duen okela-abereen hustirapena handitzeko biderik onenetarikoa.

8.2. *kuadrua.*—*Abere zabaltzetarako ekoizpen konbinaketak.*

Zerbitzaren	Baserriaren tamainia Ha.	Zerbitz abelgorri buru	PRODUKZIO KONBINAKETA							
			Behiak	Urte txahalak	Berezk. m ²	Art./Ind. m ²	Pinuak	Berezko belardia m ²	Belardi art. m ²	Belar artoa
1	5	50	10	4,19	2.250	7.500	6		40.000	
2	10	26	17,3	23,4	2.000	9.000	6		88.500	
3	15	41	22,9	47	250	13.000	6		136.500	
4	20	53	29,9	52		14.500	2,8	14.000	170.500	
5	25	65	36,8	62,6		11.500		51.000	180.000	6.500

Baserriaren tamainia handitzean, soluzioak berezko belardia hustiratzeko eskatzen du baserri tikiagoetarako gomendatzen zuen belardi artifizialen orde. Alderdi honek, gure eritzia baieztatzen duela dirudi, halegia, baserri tradizionalako programarik onenak baserriaren tikititasunagatik eskatzen zuela, lurra belardi artifizialeterako erabiltzea. Orain, ordea, baserri handiagoan, soluzioak bietariko belardiak konbinatzen dituen sistema gomendatzen du. Laburturik: baserri handietarako, irteerak urte txahalak batez ere hustiratzeko ematen du, nahiz eta behiak ere gehitu, ahal den neurrian lurra belardi artifizialez lantzeko, berezkoarekin —lehenengorako behar aina lan esku eduki ezik— eta arto/indaba hutsezko kultiboaz konbinaturik. Kultibo honek soluzioan badirau, urte txahalen arriskua hornitzeko izango dela sumatzen dugu, txahalen kopurua handitzeak arrisku osoaren zifra ere asko jasotzen bait du.

lhardun berrietara jokatzea

Euskaldun baserriak lur guti eta lan esku guti du. Horregatik, irteerarik izatekotan lur eta lan esku guti behar duten gaietatik jo behar lukeela dirudi, familia batek gai horietatik unitate asko hustiratu ahal dezan. Horrelaxe ba-

karrik atera daiteke sarrera nahiko dezenterik familiaren ekonomiarako.

Bide honetatik aurrerapen modu posible bat, abere gaien ekoizpen intentsiboa, «industriatua» litzateke. Hegazti etxeak dira egoera honen ertzeko kasua: lurrik ez da ia behar eta buru bakoitzeko lan oso txikia. Horregatik, arretagarri litzatekeela pentsatu genuen beren ekoizpen industriatua ondoen ezagutzen den abere hauen horrelako hustirapen batek zein ahalbide ematen duen aztertzea. Honelako ekoizpen moduari «ihardun berri intentsiboak» esango diegu, eta hauen artean daude:

- Oiloak, arraultze salmentarako.
- Untxi emeak, okelarako umeak saltzeko.
- Zerriak, okelatarako.
- Urte zekorrak, okelarako, pentsu nahasi hutsez elikatua.

Ihardun hauk baserri tradizionalen aurreko atalean esan dugun bezalako behi ikuilu zabalduarekin batera hartzen dira, eta ez abere mota hauetara beste gabe dedikaturiko hustirapentzat. Hustirapen «intentsibo» bakoitzerako ikuilu aparteko bat egin beharko da. Hauen kostua ere jo beharko da eta gure lanean honako balio hauk eman dizkiogu:

8.3. *kuadrua.*—*Ihardun intentsiboetarako ikuilugintzaren kostua eta lana.*

Zeren ikuilua	Zenbat buru	Ikuiluaren kostua Inbertsioa	Urteko kostua	Gizon batek egunean zaintzeko abereak
Urte txahalak	50	250.000	25.000	200
Zerriak	750	750.000	75.000	750
Oiloak	5.000	500.000	50.000	10.000
Untxi emeak	250	250.000	25.000	750

Kuadruaren azken habean gizon batek egun bateko lanez goberna dezakeen mota bakoitzeko abere kopurua dator.

Honelako ihardun intentsiboek, ordea, aparteko berezitasun bat dute, halegia, ez dutela lurrik behar. Eta honek, problema haundi bat dakar: estudio honetan euskaldun baserritarraren sarreren ardura besterik ez bagenu, berezitasun honek ez luke interesik, aurrenen begiratzekoa baserritarraren egoera litzateke eta. Baina, lan honen haseratik esanda gaude, baserritarren egoera eta laterriko lur baliakizunen erabilera aztertzen ari garela. eta honek, ikuspegi zehatzagoa eskatzen du. Beraz, ihardun industriatuak baliteke baserritarrentzat irteera bat izatea, baina ez dute inola ere Herrialdeko lur baliakizunen problema konpontzen, zeren problemarik handienetariko bat baserri lurraren erabilera bait da. Honela, sistema «Industrialen» bidezko abere hustirapen intentsiboek ez dute euskal nekazaritzako arazoa konpontzerik. Baliteke oraingo baserritarrentzat irteera bat izatea, industriari edo kontratista egiteko esatea litzatekeen antzera, baina hauetariko kasu batean ere, ez da oinarrizko problemarik jotzen, halegia, lur baliakizunen probetxamendua. Hauxe da kasu argi bat, bakoitzaren soluzioa bilatzeak denen problemarik konpontzen ez duena, eta hau bakoitzarena baino askoz zabalagoa eta garrantzitsua da. Horregatik, lan honetan bietariko problemen soluziora eramanez dezaketenez beste ahalbide batzuek ikusten saiatzen gara, hau da, baserriaren problema eta lur baliakizunena jeneralki era batera.

Horretarako, irazkindu ditugun ihardun intentsiboekin batera, beste ihardun «modernatu» batzuek sartu ditugu, ondorengo sailetan datozenak:

—esne behiak Apiriletik Azarora larreetan bazkatzen direnak, ikuiluko abereen pentsu gobernu beraz.

—belarki hutsez gobernaturiko esne behia. Honek, jakina, oraingo behiek baino esne gutiago emango du, baina merezi lukeena, beharbada, pentsuak hain gora doazela iku-

sirik. Urtean 2.500 litro esne inguru emango duela jotzen da, behi «normalak», ordea, 3.500 inguru.

—behi txahalgina bere txahalaz, okela «arrosatutzat» saldu arte (6tik 8 hiletara), belarki hutsez gobernatuak eta txahala amaren esnez. Okelara dedikaturiko abere mota bat da hau.

—larrean hazten eta azkenengo gizenaldietan pentsua ematen zaion urte txahala.

Ihardun guztiok buru bakoitzeko beharko litzatekeen lan eskuaren gutikuntza lekarkete, eta honela baserritar bakoitzak askoz abere gehiago goberna lezake, nahiz eta eragozpen bat eduki, halegia, lur erabilgarri handiagoa behar dela. Baina horrexegatik, hain zuzen, lur elementuaren hustirakera egoki bat izan daiteke, bestela, era «industrialeko» abelazkuntzan apenas behar bait da lurrik.

«Ihardun berrien» atalean, beraz, alde batetik abelazkuntza intentsiboak edo industriatuak sartuko ditugu, eta bestetik aipatu berri ditugun tankera zabalekoak. Azken hauek, ikuilu normala, zabaldua, erabiliko dute.

Abere mota bakoitzerako tarte gordinak hauexek dira:

—Oilo, zerri eta untxi emeek: baserri tradizionalen bezala.

—Urte txahalak sistema intentsiboan (pentsu hutsez): 5.000 pezeta buruko.

—Gobernu normaleko behiak: udan larreaz baserri tradizionalen bezala.

—Belarki hutsez gobernatutako behiak: urtean 20.000 pezeta + txahala.

—Behia + zazpi hiletako txahala belarki hutsez: urtean 27.500 pezeta.

—Larre txahala + pentsua: baserri tradizionalen bezala.

Soluzioak

Ihardun guzti hauk baserrian sarturik, baserri desberdinetarako soluzioak atera genituen:

- a) 5 Ha.dun baserria.
- b) 5 Ha.dun baserria baina lurra errentan har lezakeena edo Ha.ko 80.000 pezetatan eros.
- c) 10etik 30 Ha.tara bitarteko baserria eta gainera, etxaldea handitzea interesatuz gero, aurrekoak bezala lurra errentan har edo eros lezakeena.

Soluzioak 8.4. kuadruan bilduta datoz. Kuadru honetan, kasu bakoitzerako behar den inbertsio kopurua ere sartzen da.

Kuadruak adierazten duenez, IHARDUN BERRIAK sarzteak egun zutik dirauen sistema arras aldatzen du. Hona aldakuntza nagusiak: tarte gordinak oso handitzen dira, baserri tradizionalakoak baino lau bider eta erditik gora.

—Errentakortasunik handiena, zerri hazkuntzari dagokio. Berau da ia hustirapeneko ihardun guztia, abelgorria gehigarri bakarrik delarik.

—Abelgorrietan bakoitzeko buruak guti dira eta beraz ez da ikuilua handitzerik komeni. Arretagarri da ordea, gomendatzen den abere mota larrean bazkatzen diren behiak izatea eta etxalde haundiagoetarako behia + txahala belarki hutsez. Hemen beharbada etorkizunerako jokabide eta hazkunde bide arretagarriak daude, ikuiluetako behi lotuen orde.

—Errentakortasunaren zerrenda honela doa: zerriak, untxi emeak, eta oso axola ttikia oiloentzat eta hazkuntza intentsiboko txahalentzat.

—Lur gaiak guztiz desagertu dira.

—Etxaldearen tamainiarik onena 12tik 23 hektareatara bitartean dabil, baina tarte gordinean alde oso ttikia dute biek —79.000 pezeta—. Praktikan beraz, 12 Ha-tatik gorako extaldeek ez dute merezi.

Laburturik: Ihardun intentsiboak sartzeak, baserriko sistema ekonomikoaren aldakuntza osoa dakar. Zenbait gai gehigarriz artisau hustirapena zena, nekazaritza industriatu bilakatzen da, gai baten edo biren ekoizpenean espezialdua eta lur beharrik gabe. Berez aldakuntza honek errentakor emango luke eta honen emaitzek guztiz baieztatuko lukete, baserri lurraren probetxamenduari buruz atal honen haserari aipatu dugun problematika, baldin baserri sistema hau jeneralduko balitz.

Hustirapen modu honek errentakor dirudiela eta lan eskurik ezaren muga besterik ez duela ikustean, lan esku alokatua kontratatzea errentakor ote zitekeen aztertzea pentsatu genuen. Horretarako, soluzio berri bat atera zen, aurreko kasuari langileak kontratatzeke ahalbidea erantsirik, industriako peoiaren alokairu beraz —hilean 15.000 pezeta— eta segurantza sozialean sarturik. Langile hauek astean sei egunez lan egingo lukete, eguneko zenbat orduz zehazki berezi gabe *.

Soluzioak egoera txit berezi bat eman zuen, problema ipintzean uste ere ez zena, baina oso arrazoinezkoa nolahi: soluzioak zioen, behar aina langile edukiz gero, hauen kontratapena ihardun intentsiboetara dedikatzeko errentakor zela, merkatuak gaiak irensten dituen mugaraino. Laburkiago: alokairu horretan langileak kontratatzea errentakor dela ihardun intentsiboan, batez ere zerrien, hustirapenerako.

Soluzio honen arrazonamendua bidezkoa da, esan dugun bezala: langile bat kontratatzea errentakor bada, nola lurrik bat ere behar ez den, errentakor izan behar ekoizten jarraitzea, merkatuak gaiak prezio horretan hartzen dituen bitartean. Industriako ekoizpenean gertatzen denarekin berdin-berdina, industrian ere ez bait dago ekoizpena mugatzeko arrazoirik merkatuaren beraren muga besterik. Kasu honetan gure ihardunak ere «industrialak» dira, ez bait dago

(*) Hau artifiziala dela badakigu, baina berriro ere baserriari ahalik eta ahalbiderik handiena eman nahi genion.

beste kasuetan ekoizpena mugatzen duen lur faktorearen beharrik.

Soluzio honek egiazko munduan muga bat luke, merkatuaren irensmena, baina nahiz eta hain bakana izan, gure estudiorako arreta handikoa zaigu, zeren alde batetik, aurreko atalean ikusi denez, ihardun intentsiboen errentakortasuna agertzen du, eta bestetik abere gaien sistema intentsiboko ekoizpena errentakor dela ematen du, familiako hustirapenak erabil dezakeen baino maila askoz haundia-goan. Hau da, ekonomiaz zuzena dela zenbait abere gairen hustirapena eskala oso haundian, era industriatuz eta lur-lantza tradizionala utzirik. Izatez hegazti etxeetan badira holako entpresak Espaninian, eta laterri aurreratuetan ez da harrizkoa beste abere batzuren ekoizpen intentsiboko etxeak aurkitzea.

Honelako entpresen eta entpresa industrialen arteko alde nagusia segur asko arrisku mailan dago, aberezko intentsiboetan askoz haundiagoa industrialetan baino, eta ez bakarrik elementu biologikoengatik, sarri aipatu ditugun merkatalengatik baizik, zalantzarik ere ez, tankera honetako hustirapen handietarako beren arriskua txikiagotzeko bideren bat aurkitu behar dela, baina baliteke ekoizpenaren tamainiak berak ematea, hain arrisku haundia ezabatzeko bideak topatzeko erraztasuna. Izatez kontuan eduki behar da hegazti eta zerri hustirapen handiak badaudela eta gehituz doazela.

Ateratako soluziotik gai mota bakoitzeko ekoizpen mailak zehazterik ez badago ere, bai esan daiteke errentakortasunik handiena zerriei dagokiela eta gero oiloei. Untxiemeak ordea, galdu egiten dira eta urte txahalen hustirapen intentsiboak oso garrantzi txikia du. Abelgorrian belarki hutssez gobernaturiko behi-txahalek garrantzi handia hartzen dute —ekoizpen tankera egokia, noski, lur asko edukiz gero— baita behi tradizionalak ere, udan larre sistemara pasa beharko luketenek. Ihardunak, bi ertzetan biltzen direla, ageri da: intentsiboak, lur gabe, lan esku erabilgarriaren

probetxamendurik gorena ematen dutenak, eta estentsibok, oso lan esku guti behar dutenak. Arlo honetan, argi dago, geroagoko inbestigazioetarako ikuspegi zabala dato-rra.

Mekanikapena intentsifikatu

Baserriko mekanikapen bideen sailik aurrenetariko bat ikusteko geratzen zaigu: mekanikapena gehitzea, edo hobeki, mekanikapena intentsifikatzea.

Euskal baserria nahikoa mekanikaturiko hustirapena da. Haren tamainia eta ekoizpen ahalmena kontuan edukirik, baserrietako makineria nahiko maila goian dago, 4. eta 5. kapituluetan agertzen denez. Bestalde, Herrialdeko orografia ez dela mekanikapenerako egokiegia kontuan eduki behar da. Beraz, Bizkaiko eta Gipuzkoako mekanikapen kontua ez da makineria beste gabe gehitzea, euskal baserriko premiei dagokien eta hartara ondo zuzenduriko mekanikapena baino, pertsonako produktibitatea handitzekoa eta, hau bezain garrantzizkoa, segur asko, neke txikiagoko laneguna eta bizi-erritmo gizakorragoa familiarentzat *.

Baserri tradizionala lehen ere nahikoa mekanizaturik dagoenez gero, atal honetan «mekanizazioaren bigarren maila» aztertuko dugu, hau da, baserri tradizionalan lehendik dagoen mekanizazioa intentsifikatzea. Bigarren maila honetan belar-makina legoke batez ere, belarkien ebaketa, bilketa eta garraiorako behar den denbora asko gutxitzen duena. Gure Herrialderako eragozpen haundi bat du halegia, lur lauak eta nahiko haundiak behar dituela. Lan honetan, ordea, alderdi negatibo hauk albora utziko ditugu, eta gure

(*) Oso kontuan edukitzekoa da, makineria lana gutxitzeko erosten bada, askoz ere zailago dela horren komenentziaren kalkulu ekonomikorik egitea, erosteko arrazoiak ez baitira ekonomikoak, kontsumokoak baizik. Ikuzgailu automatiko edo telebista bat erostearen azterketa ekonomikoa egin nahi izatea bezalatsu litzateke. Hala ere, guk makineria erostearen azterketa ekonomiko bat egingo dugu, lehen antz bat emateko.

baserrietan belar-makinak sartzeak zein ondorio lekarkeen aztertzen saiatuko gara. Bigarren maila hau osatzeko, traktorea indartsuagoa dela jotzen da, 50 zaldi inguru, eta bi errodun eraizgailu elektriko bat erabiltzen dela. Bigarren maila hau harrapatzeko inbertsioak ohiko baserrian baino 500.000 pezeta gehiago izan beharko lukeela jotzen da, 7 urtetan amortitu beharreko inbertsioa, beraz, makineriaren urteko kostua 80.000 pezeta inguru litzateke.

Makineria berri hau sartzeko baserri modernatuen zenbait konbiketa ikusiko dugu:

—Familia erako baserri modernatua, 50 burutako ikuilu zabalduz, lehen dituen 5 ha.tatik beste bost gehiago errentan hartu ahal izanik. Gure ustez «eredu» honek mekanikapen intentsifikatu nahirik dabilen gaurko baserria adieraziko luke.

—Baserri familiarra ihardun intentsiboez, baina maila bateraino bakarrik. Bestela, berak izanik errentakorrenak, soluzioan nagusi lirateke eta ezin izango genuke baserri errealistagoko ondorioak aztertu. Ereduak «ematen duen» ihardun intentsiboen goren maila hauxe litzateke: 50 urte txahal, 750 zerri, 5.000 oilo eta 250 untxieme. Aurreko kasuan bezala lehengo 5 Ha.tatik beste bost gehiago bakarrik errentan har daitezke. Eredu honek ihardun intentsibodun baserriko mekanikapenaren ondorioak aztertuko ditu.

—Eredu honetarako lorturiko soluzioetan urte txahalak ez direla errentakorrak agiri zen. Gai honek politika ekonomikorako eta geroko eskarirako duen garrantzia jorik, baldintza hauetan zer gertatuko litzatekeen ikustea erabaki zen, abelgorriaren prezioa handituz gero. Beraz, aurreko ataleko baldintza beretan, prezioak kiloko 112tik 212 pezetara bitartean aldatzearen ondorioak aztertu ziren.

—Azkenez, «entrepresa gisako» baserri batez esperimentuak egin genituen. Hemen abeltegiak komeni den punturaino zabal daitezke, lurra erosi edo errentan hartu eta langileak kontratatu. Eta guztia, ihardun intentsiborik gabe.

Soluzio honek epe luzeko egitamuetan baserriaren geroko tamainiaren berri eman beharko luke.

Ateratako soluzioak lan honen testu nagusian datoz, zeren, hain asko izanik, laburpen hau oso luzatuko bait lukete. Gogorik duen irakurleak han aurki ditzake. Arretagarriago delakoan gaude aipaturiko soluzioetatik datozen ondorioak ematea:

—Bigarren mekanikapen mailak ez du atzeman daitekeen tarte gordinik hobetzen 10 Ha.tako baserri eta guzti ere. Egitez, azken tarte gordina txikitu egiten da bigarren mekanikapen maila nagusituz gero, ikuiluaren zabaltzea nagusitzean handitu zen bezala. Gainera barazkien eta arto/indaben ekoizpena handitzeko agintzen du soluzio berriak, abere ekoizpenaren orde, eta hau eskariaren geroko joeren kontra dago. Beraz, esan bezalako makineria erostea ez dela errentakor esan daiteke. Ez baserritarrarentzat, ez bait zaio tarte gordinik handitzen, ez komunitatearentzat, egokiek ez diren ondasunen ekoizpenera bait darama.

—Sisteman ihardun intentsiboak sartzean, hau berriro ere nagusi dira soluzioan jarri zen maila mugaketa eta guzti ere. Hau da, intentsiboak beste edozein ihardun baino errentakorragoak direla. Esan beharra dago, ordea, urte txahalen hustirapen intentsiboa (pentsu hutsez gobernaturik) ezein prezio mailatan ere ez dela errentakor 212 pezetataraino. Hobe zaio baserritarrari urte txahalak sistema tradizionalerantz eta gutiago haztea. Ateratzen diren soluzio guztietan ageri da zein errentakortasun ttikia duen urte txahalen ekoizpenak beste abere ihardunen ondoan. Okelaren prezioak kilo 212 pezetataraino igorik ere, beste abere ihardun intentsiboak (zerriak, oiloak eta untxiemeak) urte txahal tradizionalak baino errentakorrago dira, eta esan dugunez, hau urte txahal intentsiboak baino errentakorrago dira. Abelgorrikiaren ekoizpena da, bada, errentakortasunik txikieneko abere ihardunetariko bat.

—«Entrepresa gisako» deitu dugun baserriari buruz, hustirapenik onena 200dik 236 Ha bitartekoa litzatekeela ema-

ten du, soluzioak 9-11 langile industrialen lan eskuz. Baina honetarako lurraren baliorik sartu gabe, 20 milioi inguruko inbertsioak beharko lirateke, batez ere ikuilutan, urte txahalen hustirapenerako aberetan eta esne behitan. Hustirapen hauek pertsona enplegatu bakoitzeko 750.000 pezeta inguruko edo Ha lur erabili bakoitzeko 35.000 pezeta inguruko emaitza gordinak aterako lituzkete. Herrialdearen oraingo azterketan argi dago soluzio hau utopikoa dela, baina arretazko informazioa ematen duelakoan gaude baserri idealak nolakoa izan behar lukeen oraingo maila teknologikoz.

Elementu honetaz bukatutzat ematen dugu baserriko zenbait modernakuntza bideren bilduma. Orain arte ordea, ateratako emaitzak azaldu besterik ez ditugu egin, modernakuntza horien kostuan sakondu gabe. Aurreko kapituluan bezala, baliakizun hau nekazaritzan erabiltzea beste sail batzutako aukerekin gonbaratu behar dugu eta horixe da ondoren egingo duguna.

Baserriaren modernakuntzaren errentakortasuna

Baliakizunen emankortasuna enplegu alternatiboetan

Baserriaren modernakuntzak hustirapenean baliakizun berriak erabiltzea dakar. Horregatik, baliakizun hauen emankortasuna beste enplegu alternatiboetan kalkulatzeko, aurreko kapituluetan erabilitako zifrak aldatu beharra dugu eta kontuan eduki beharra, orain, baserrira dedikatzen diren eta beste ihardun batzutara dedika litezkeen baliakizun gehigarriak.

Lana.—Baserri lana peoi lantzat jotzea lehen ere oker bazegoen, are okerrago orain, zeren baserri modernatuan lan espezialduagoa eta nahasiagoa behar bait da. Horregatik, gure gonbarazioetan baserri lanarekin gonbaratzeko modukotzat ofizial mailako langile industrialak bakarrik hartuko dugu. Nahiz eta industrial artisauena egokiagoa dela

uste izan, ofizialena erabiliko dugu baserriari abantail gehiago emateko. Gogoan eduki, honek, hilean 20.000 pezeta ematen duela edo urtean 280.000 pezeta (14 pagamendu). Artisauena hartuz gero, urtean 350.000 pezeta litzateke eta erdi mailako teknikoaren kasuan 490.000.

Kapitala.—Hauxe da gorabeherarik handiena datorkion faktorea, zeren, esan dugunez, modernakuntzak inbertsio handia eskatzen bait du. Gainera, orain ez dago kapital inbertiturako zifra bakar bat jartzetik, baizik modernakuntzako elementu bakoitzak inbertsio desberdina behar du eta, beraz, kasu bakoitzean aukera kostu desberdina. Modernakuntz eredu desberdin bakoitzerako kostu alternatibotzat haserako baserriarena jotzen dugu —44.000 pezeta—, gehi modernakuntzako alderdi bakoitzean inbertitzen den kapitalaren % 8.

Lurra.—la egoera guztietan baserri modernaturako baserriaren berezko tamainia baino handiagoa jo dugu. Alderdi hau kontuan edukitzeko, aukera kostuan bi aldakuntza sartu ditugu: a) lur erabili guztia pinu sartu ahal izatea. b) 5 Ha bakarrik saldu ahal izatea, metroko 100 edo 250 pezetatant, eta gaineko lurra pinu sartu ahal izatea. Bigarren alderdi hau, honegatik sartzen dugu, halegia, balitekeela, baserri handiak izatean, lur guztia metroko 100etik 250 pezetatara ezin saltzea. Honela, baserri eredia prezio horretan sal litekeela, baina gaineko lur erabiliak pinutarako bakarrik balio duela jotzen dugu.

Baserriaren modernakuntzaren errentakortasuna, honetarako behar diren baliakizunek beste sail batzutan eduki lezaketen errentakortasunari buruz

8.5. kuadrantean azaltzen dugu modernakuntz kasu desberdinetako soluzioak eman dizkiguten baserriko sarreraren eta baliakizun hauek baserrietik kanpora dedikaturik emango litzaketan sarrera alternatiboaren gonbarazioa. Diferentzia baserriko errentakortasuna edo baserriko gankia deitzen dugu.

8.5. kuadrua.—Baserriko sarrerak aukera kostuen goitik.

(1) MODERNAKUNTZA EDO BERRIKUNTZA	(2) BASERRIAREN TAMAINIA		(3) TARTE GORDIN OSOA	(4) % zenbat ba- serri tradizio- nalaren goitik	(12) Pinuak 20.000 pezeta	(13) Ha-ren sal- menta m'ko 100 pezeta	(14) Ha-ren sal- menta m'ko 250 pezeta	(15) ERABILITAKO LAN ORDUAK	(16) Pinuak	(17) m'ko 100 pezeta	(18) m'ko 250 pezeta
	Ha-k (a)	Buruak (b)									
1) Ikulu zabaltea	5	11,4	473,815	-12,75	—	—	—	6,296	—	—	—
2) Ihardun berrak	5	9,8	2.609,837	3,88	1.738,537	1.438,537	838,537	7,444	233	193	112
3) Ikulu zabaltea	10	26	881,089	62,25	314,048	—	—	7,046	44	—	—
4)	15	41	1.124,704	107,1	436,422	136,704	—	6,862	64	20	—
5)	20	53	1.413,289	148,4	527,609	237,609	—	7,042	75	32	—
6)	25	65	1.867,768	185	629,768	329,768	—	7,117	88	46	—
7) IA+ihardun berrak	12	19	2.851,100	402	1.812,754	1.610,754	918,754	7,759	234	203	118
8)	15	20	2.889,005	409	1.796,099	1.696,099	896,099	27,654	228	190	114
9)	20	21	2.918,703	415	1.721,333	1.481,333	821,333	7,857	219	181	104
10)	23	22	2.930,658	417	1.671,614	1.371,614	771,618	7,658	178	178	100
11) IA+20 mailako me- kanikapena	10	25	837,917	543	232,557	—	—	5,954	39	—	—
12) ID+intentsiboak	10	19,4	1.827,270	214	1.019,954	729,954	119,954	7,637	133	95	15
13) ID Entrepresariala	236	427	8.397,375	1.420	1.461,375	1.161,375	56,375	37,887	38,5	30	15

Ondorioak baserriaren modernakuntzaren errentakortasunari buruz

8.5. kuadruaren azterketatik eta analisitik soluzio hauk ateratzen dira:

—5 Ha bakarreko baserrian, aipaturiko modernakuntza ez da bat ere errentakor, ihardun intentsiboak izan ezik.

—Baserrien tamainia bi bidertu eta 10 Ha. lur langarri edukiz gero, orduan ere, modernakuntzak ez dira errentakorak ihardun intentsiboak sartu ezik behintzat.

—15 Ha-tatik gorantz bakarrik igoten dute baserriko errentakortasunaren zifrek, eta orduantxe ere lurrik saldu ezin bada edo pinu sartu ezin bada bakarrik. Kuadru hone-tatik ateratzen den Lehen puntu garrantzitsua hauxe da, be-ratz: HAMABOST HEKTAREATATIK BEHERA BASERRIAREN MODERNAKUNTZA EZEIN KASUTAN ERE EZ DA ERREN-TAKOR IHARDUN INTENTSIBORIK EZ BADAGO; TAMAI-NIA HORRETATIK GORA BOST HEKTAREA LUR M²KO 100 PEZETATAN SALDU EZIN BADIRA BAKARRIK DA ERREN-TAKOR BASERRIA.

—Ihardun intentsiboek, ordea, baserriko errentakortasu-naren hobekuntza handiak dakartzate. Hala 5 Ha-tako nola tamainia handiagoko baserrian, ihardun intentsiboak sar-tzeak sarreraren hobekuntza ederrak dakartza. Kontuan har-tzekoa da, ordea, baserriaren tamainia handitu ahala, base-rriko errentakortasuna ihardun berriez txikituz doala. Hau da, ihardun intentsiboez baserritarrari hobe zaiola 5 hek-tarea lur bakarrik landu 25 baino, baserriko errentakortasu-naren goia baserriak 12 Ha dituenen izanik. Baserrira de-dikaturiko lurraren, kapital inbertituaren eta lanaren eman-kortasuna gero eta ttikiagoa dela esan nahi du honek, eta ez ditu behar diren baliakizun alternatiboak konpentsatzen haren emankortasun alternatiboa baloratuz gero. Honek, gu-re susmoa baieztatzen du, halegia, ihardun intentsiboak sar-tzeak apurka-apurka beste edozein lur eta abere hustira-kuntz motaren bazterkuntza dakarrela, berriro ere, Herrial-deko lur baliakizunen probetxamendu problema sorraraziz.

12. zerrendan, ihardun intentsiboak sartzen dituen baserriko emaitzak agertzen ditugu, baina bere ekoizpen eskalan gaineko ihardunen euspenaz adosago dagoen tamainietara mugaturik. Suposatu horretan, baserriko errentakortasunak nahiko goian dirau oraindik. Baserri mota hauxe dela dirudi baserriaren sarrera handiagoen beharra eta komunitatearentzat lur baliakizunen probetxamendua epe laburrera ondoen lotuko lituzkeena, zeren ihardun intentsiboak 10 Ha lurren lanketaz konbinatzen bait dira. Nola ordea, baserriarrak ihardun intentsiboetan ekoizpen eskala horretan planto egin, edo nork planto eragin ihardun intentsiboak gehitzean sarrerak 1.700.000 pezetatik 2.700.000ra pasa daitezkeela ikusten badute? Ihardun ekonomikoa irabaziaren logikaz dabilen bitartean, nork behartu baserriarrak harrapa dezaketen onenaren azpitik geratzera? Bakoi-tzaren interesen eta denen premien arteko kontradikzio gogorra dago hemen.

—Bigarren mekanikapen mailak baliakizunen lur emankortasuna txikitu egiten du. 10 Ha-tako baserri-rako mekanikapen gehitzea edo intentsifikatzea ez dela errentakor esan nahi du honek.

—«Entrepresa gisako» baserriari buruz, ekoiztu ahal duen lur emankortasuna oso apala dela esan behar, zeren baliakizunak beste sail batzutan inbertiturik baino milioi bat eta hirurehun mila pezeta bakarrik gehiago aterako bait lirarteke 236 Ha-tako baserrian 11 pertsonaren lanez eta 23 milioi pezetatik gorako inbertsioa. Milioi bat eta hirurehun mila pezetatako kopurua bakarrik irabaztekotan nekez hasiko du inork honelako hustirapenik.

—Soluzioak atera ditugun hustirapen guztietan, batean izan ezik, familiak ohiko baserrian baino lan gehiago egin behar du. Honek lan ritmo izugarriak dakartzkio familiari eta beraz mekanikapena sartzeko alderdi okerra izan behar. Gainera, kontuan eduki, lana beste sail batzutan baloratzean, industriako lanegun bat bakarrik jotzen dela. Beraz, zenbat eta lan gehiago egin baserrian, hainbat eta lan gehiago ge-

ratzen da baloratzeko. Atera ditugun lur errentakortasunaren zifrak, nahiko lar-balioztaturik daudela esan nahi du honek eta hau kontuan eduki beharko dela sistema modernatzea komeni den ala ez hortik ateratzekotan.

Lan gehigarriaren balioztapena, zeinen garrantzizkoa zen ikusteko, industriako lan alditik gorako lan gehigarriari etxe-laguntzaile baten alokairua ezarri genion, orduko 50 pezeta. Ordain hau, lan alternatiboan sartuz gero, hona 25 Hatako baserriak ere ez direla errentakorak. Abelazkuntza intentsiboak sartzan dituztenek bakarrik ematen dute irabazirik. Etorkizunean segur asko egiten den lan guztia balioztatu beharko denez gero, honelako baserriei bide motza ikusten zaie gerora, eta hau kalkulu guztietan nekazaritzari ahalik eta abantailik handiena emanda gero.

Baserri espezialduak

Baserriko modernakuntzaz hainbat alderdi aztertutik ere, oraindik zenbait era gehigarri ikusteko geratzen zaigu. Era hauk dira ea zein ahalbide duten ekoizpen adar bakar batean espezialtzen diren, gai bakar batera jokatzen duten baserriek. Azter ditzagun ondoren, hustirapen mota hauk.

Hauta ditzagun hiru hustirapen mota espezialdu:

a) okelarako txahalen hustirapena.

b) abelxehearen hustirapena.

c) barazkien ekoizpena

eta baserri normalak, familiarrak, gai hauetariko bakar bati beste gabe ekiten diola jotzen dugu.

Guztizko espezialpena orain arte irazkinduriko ekoizpen egitarauak baino gutiago errentakor dela badakigu, zeren, honela ez izatera, aurreko soluzioek emango bait zuten, ihardun intentsiboen errentakortasun handiagooa, adibidez, eman duten bezala. Baina errentakortasun ttikiago hau eta guzti ere, baliteke arretagarria izatea zein ahalbide duten

ratzen da baloratzeko. Atera ditugun lur errentakortasunaren zifrak, nahiko lar-balioztaturik daudela esan nahi du honek eta hau kontuan eduki beharko dela sistema modernatzea komeni den ala ez hortik ateratzekotan.

Lan gehigarriaren balioztapena, zeinen garrantzizkoa zen ikusteko, industriako lan alditik gorako lan gehigarriari etxelaguntzaile baten alokairua ezarri genion, orduko 50 pezeta. Ordain hau, lan alternatiboan sartuz gero, hona 25 Hatako baserriak ere ez direla errentakorrak. Abelazkuntza intentsiboak sartzan dituztenek bakarrik ematen dute irabazirik. Etorkizunean segur asko egiten den lan guztia balioztatu beharko denez gero, honelako baserriei bide motza ikusten zaie gerora, eta hau kalkulu guztietan nekazaritzari ahalik eta abantailik handiena emanda gero.

Baserri espezialduak

Baserriko modernakuntzaz hainbat alderdi aztertutik ere, oraindik zenbait era gehigarri ikusteko geratzen zaigu. Era hauk dira ea zein ahalbide duten ekoizpen adar bakar batean espezialtzen diren, gai bakar batera jokutzen duten baserriek. Azter ditzagun ondoren, hustirapen mota hauk.

Hauta ditzagun hiru hustirapen mota espezialdu:

a) okelarako txahalen hustirapena.

b) abelxehearen hustirapena.

c) barazkien ekoizpena

eta baserri normalak, familiarrak, gai hauetariko bakar bati beste gabe ekiten diola jotzen dugu.

Guztizko espezialpena orain arte irazkinduriko ekoizpen egitarauak baino gutiago errentakor dela badakigu, zeren, honela ez izatera, aurreko soluzioek emango bait zuten, ihardun intentsiboen errentakortasun handiagoa, adibidez, eman duten bezala. Baina errentakortasun ttikiago hau eta guzti ere, baliteke arretagarria izatea zein ahalbide duten

jakitea. Horregatik, aztertzea eta atal hau dedikatzea pentsatu genuen.

Oklarako txahalen hustirapena*

Ikusitako ihardun intentsiboetan garbi ageri da, abere gaien artean errentakortasunik txikieneko urte txahalen hustirapena dela. Hala ere eskari perspektibarik onenak dituen gaietariko bat abelgorrikoa dela badakigu. Horregatik abelgorri ekoizpenak hustirapen intentsiboan (pentsu hutsez) eta bakarrean (baserriak gai honixe bakarrik ekinda) zein ahalbide duen aztertzea pentsatu genuen.

Herrialdean abelgorriaren hiru hustirapen mota nagusi daude:

- a) esne txahala, esne hutsez gobernatua eta hiru hilabetera saltzen dena. Merkatu urria du.
- b) txahal kazkondua, sei-zazpi hilabetera saldua, 175 kilo inguru kanalean. Honek ere merkatu urria du.
- c) urte txahala, 12tik 16 hilabetera bueltan saldua, 250-275 kilo inguru kanalean. Hauxe da Herrialdeko abelgorriki «estandarra», eta merkatu ugaria du.

Arretagarri da ekoizpen mota hauk Europan ekoizten den abelgorriki motarekin gonbaratzea. Hemen bi urte inguruko eta kanalean 400 kilo inguruko abereak hazten dituzte. Baina Herrialdean ez da honelako abererik ekoizten, aurrekoek baino merkatu askoz urriagoa eta zalantzaszkoagoa bait dute. Ekoizpen honek zein ahalbide duen estudiatzea oso arretagarri litzatekeelakoan gaude, baina ez diogu heldu beharreko informazio teknologikorik ez genuelako** eta uste dugulako ekoizpen honek aldakuntza txit sakonak

(*) Zerrien edo hegaztien hustirapena ere berdin azter zitekeen, baina gai hauen errentakortasuna ihardun intentsiboan analisia argi geratu zelakoan gaude, eta ez dago berriro ekin beharrik.

(* *) Informazio teknologikoa egon badago modu jeneralez, teorikoz, baina ez gu gagozkion Herrialdera aplikaturik, eta alderdi honixe begira egin ditugu lan honetako zer guztiak.

eskatzen dituela, hala baserriko antolamenduan nola batez ere merkatu kontsumatzailearen gustuetan.

Abelgorri mota hauen errentakortasunaren kalkulua buruko tarte gordin hauetatik egin da (urteko tarte gordinari ez dagokiona, noski):

Urte txahala. 4.500 pezeta buruko tarte, 0,85 ziklo urteka, 3.825 urteko tarte.

Txahal kazkondua: 3.250 pezeta buruko tarte, 1,7 ziklo urteka, 5.525 urteko tarte.

Esne txahala: 2.000 pezeta buruko tarte, 3 ziklo urteka, 6.000 urteko tarte

eta ikuilu egokien eraikintza kostua, abereko lehen inbertsioa, etab. erantsirik, emaitza hauetara heldu gara:

8.6. *Kuadrua.*—Abelgorriaren errentakortasunaren kalkulua errejimen intentsiboan eta bakarrean.

Zer	Urtekoa	Kazkondua	Esnekoa
1 Edifiziotan inbertsioa	1.000.000	1.000.000	1.000.000
2 Aberetan inbertsioa	3.900.000	4.600.200	5.366.000
3 Inbertsio osoa	4.900.000	5.600.200	6.366.000
4 Tarte gordin abereko/urteko	3.825	5.525	6.000
5 Urteko tarte gordin osoa	956.250	1.657.500	2.100.000
6 Edifizioen amortizapena	100.000	100.000	100.000
7 Urteko tarte gordin	856.250	1.557.500	2.000.000
8 Beharreko lan orduak	4.400	4.400	4.400
9 Orduko tarte gordin osoa	195	354	454
10 Inbertsioaren aukera kostua	392.000	448.000	509.360
11 Lanaren aukera kostua	280.000	280.000	280.000
12 Aukera kostu osoa	672.000	728.000	789.000
13 Baserriko gainkia	184.000	829.000	1.211.000
14 Baserriko gainkia orduko	42	188	275
15 Hartzen den arriskuak	478.000	994.500	1.260.000

Ikusten denez, urteko tarte gordina dezentea eta hone-lako hustirapenak baserrirako soluzio bat direla pentsa liteke. Baina aukera kostua joz gero, baserriko gaintia ere asko mozten dela ikusten da (13. zerrenda). Eta hala moztu ere, non urtekoen ekoizpena ia ez errentakor bilakatzen bait da, batez ere baserriko gaintia, hau lortzeko hartu behar den arriskuarekin gonbaratzen bada. Baserritarrak urte batean arrisku kopuru osoa galduko balu, bi urte eta erdiko gaintia beharko, galera hori kitatzeko.

Txahal kazkonduen edo esnekoen egoera hobea da, zeren, nahiz eta arriskua handia izan, urtebeteko ekoizpenaren antzekoa da eta gaintia berriz dezentea. Txahal kazkonduen eta esnekoen ekoizpena errejimen intentsiboan eta bakarrean errentakor zaiola dirudi baserritarrari.

Emaitza hau, garrantzizkoa da. Lehen, berriro erakusten duelako baserritarren soluzioa litekeenak ez duela Herrialdeko lur baliakizunen problemarik konpontzen, eta bigarren, soluzio hau kontradikzio osoan dagoelako politika ekonomikoko joerez eta kalitate oneko okela horniketaren eta abere transformazioko indize garaiaren premiez. Eta honetarako abere handiagoak, Herrialdean ekoizten diren urte txahalak berak baino ere handiagoak behar dira, esanik dugun bezala. Beraz baserritarren interesen eta komunitate osoaren artean kontradikzio garbia dago. Kontradikzio hau zorionez ondo konpontzen da honelako abere ekoizpenak merkatu urria bait du. Oso jende gutik eros dezakeen gai txit garestia izanik, baserritarrak ez dira honelako abere ekoizpenera dedikatzen, irtenbiderik ezin edo nekez eman ahal bait diote. Hau da, abere mota hau errentakor *litzateke* merkatu-rik balu, baina ez du, eta horregatik, ezin askorik ekoiztu. Hona ordea, agertu dugun emaitza hau gerorako garrantzitsua izan daitekeela, zeren okela eskasirik gerta baledi, merkatuan hain balio handia duen honelako abere ekoizpena dedikatzeko modua luke Herrialdeak.

Oro har, urte abereen ekoizpena, edozein aldetatik az-

tertirik ere, oso guti edo batere errentakor ez dela esan daiteke, eta beste okela mota batzuren, lujozkoen ekoizpena errentakor izan litekeela merkaturik izanez gero. Honak, baserritarren eta komunitatearen, oro har, interesen kontradikzioa lekarke.

Abelxehearen hustirapena

Hustirapen mota honen azterketa arretagarritzat jo genuen, okela ekoizpena handi lezakeelako eta, abelgorrien hustirapen intentsiboetan ez bezala, Herrialdeko lurra probetxatuko lukeelako. Egun, abere hauetara beste gabe dedikaturiko hustirapenik ez badago ere, bihar-etzi sor litezkeenak dira, eta interesgarriak. Gainera, hauen estudioa egin daitekeena da, zeren dauden artaldeek ematen bait dute beharreko oinharri informazioa, nahiz eta guti gorabeherako datuak baino ez izan. Datu hauk biribiltzeko Nafarroako eta abere hauk intentsitatez hustiratzen diren Burgoiko Diputazio Probintzialeko artetik informazioa ere kontuan eduki da.

Errentakortasunaren kalkulurako datu nagusiak hauexek izan dira:

—25 ardi manten daitezke belardi Ha-ko, gehi 20 bat kilo ardiko, eta aldiko.

—Gizon batek dedikazio bakarrean 250 ardi zain ditzake.

—250 arditako artalde batek 500.000 pezetako inbertsioa behar du.

—Bi ekoizpen maila jartzen dira ardiko/urteko: A) 1,25 arkume, 50 litro esne eta kilo bat artile; eta B) 1,5 arkume, 75 litro esne eta kilo bat artile.

—Lehen aukeran (A) buruko/urteko tarte gordina 3.300 pezeta da. Bigarren aukeran (B) ardiko/urteko 4.500 pezeta.

Lortutako emaitzak 8.7. kuadrutan datoz:

8.7. *kuadrua.—Ardi hustirapenaren aukera kostuak eta baserri gainkia.*

Lana (ofiziala)	Kapitala (% zenbat 500.000tik)	Lurra, aukerak		
		Finuak edo m ² -ko 25 pez.	m ² -ko 100 pezeta	m ² -ko 250 pezeta
280.000	40.000	200.000	800.000	2.000.000
Gutziz aukera bakoitzean:		520.000	1.120.000	2.320.000
Tarte gordina: A) aukeran:		825.000		
Tarte gordina: B) aukeran:		1.125.000		
Baserri gainkia: A) aukeran:		305.000	—295.000	—1.495.000
Baserri gainkia: B) aukeran:		605.000	5.000	—1.195.000

Kuadru honetatik ondorio hauk ateratzen dira argi:

- Metroko 25 pezetatik gora lurrik saldu ezin bada, ardi hustirapena errentakorra da. Baserritarrak irabazi gehigarri handiak atera ditzake, hustirapen horri ekinik.
- Lurra metroko 100 pezetatik gora saldu ahal izanez gero, ardi hustirapena ez da inola ere errentakorra, aitzitik ordea, baserritarrak hartara dedikatzeagatik, diru mordo galanta gal lezake.

Ardi hustirapenak kale ingurutik urrun, lurrak hainbeste balio ez duen lekuetan ipintzekoak direla kontuan edukiz gero, euskal baserriaren etorkizunerako hustirapen ego-kienetariko bat, ardiena izan litekeela, dirudi.

Honelako hustirapenen gakoa gizartezkoa da gehiago, diruzkoa baino. Artzain bizitzak, orain arte behintzat, familiaratik eta gizarte bizitza orotik urruntasuna darama beraz. Izango ahal da etorkizunean, honelako bizikerarik onhartzeko pertsonarik? Ardi hazkuntzari eragitekotan, artzaintza familiako eta gizarteko bizitza arruntaz batu be-

harko, artzainari une eta aldi batzutan, abeltzaintza uzteko modua emanik.

Beharbada etorkizunean ez da hau hain zaila izango. Pertsona bat baino gehiagoko hustirapenak sor daitezke, elkarrekiko ausentziaz eta ordezkuntzez; autoak mugikortasun gehiago ematen du; ardi hustirapenak baserrietan jar litezke, eta ez mendian, etab. Gako sozial hori konponduz gero, eta lurra metroko 100 pezetatik gora saldu ezin bada, ardi hustirapenak arretagarriak direla ematen du. Areago, oraindik ardi hustirapenak pertsona baten lana bakarrik behar duela kontuan edukiz gero, familiako beste lan eskua guztiz edo ia guztiz libre utzirik, eta esanik dugu, alderdi hau baserriko familiari oso gogoko zaiola.

Gainera, hustirapen honek beste abantail gehigarri haundi bat du, halegia, baserriarren eta komunitatearen, oro har, interesak elkartzeko modua ematen duela, Herrialdeko lurraren probetxamendu arrazionala ekarririk.

Barazki hustirapenak

Euskaldun baserriarrak duen beste ahalbide bat, barazkintza hutsera dedikatzea da. Baserriak hain ttikiak direnez gero, hustirapen mota hau, euskal nekazaritzaren soluzio-erikiko bat litekeela, beharbada, pentsatu genuen.

Abere hustirapenetan bezala, gogora dezagun lehendik dakiguna, halegia, honelako baserriek ez dutela baserri arrunta baino errentakorrago izaterik, zeren izaterik balute, haien soluzioak adierazirik zukeen. Nolanahi ere, barazki hutsezko ekoizpenez noraino hel litekeen ikustea, arretagarri gerta daiteke.

Barazkintzaren errentakortasuna honelako barazkien konbinaketan oinarritu zen: letxugak, bainak, tomateak, porruak, biperrak, azak, eta beste zenbait gairen portzentaia ttiki bat (Bruselako azak, espinakak etab.). Baserriko lan erabilgarriaz 8.750 m² inguru barazki kultiba daitezke. Honek, urtean 700.000 pezetatako tarte gordina emango luke eta baserri gainkitan (aukera kostuak deskontaturik) 250.000tik

382.000 pezetatara, lurra metroko 250 pezetatan saldu ala pinu sartu ahal den kontu. Kasu honetan, barazkintzara dedikaturiko lurra baserriko zati bat besterik ez denez gero, pinu sarturiko lurretik atera daitekeena erantsi behar zaio gainkiari. Sarrera horik barru direla, atera daitezkeen gainkiak hurrengo kuadruan bildurik datoz:

8.8. *kuadrua.—Barazki hutseko hustirapenerako emaitzak.*

	Gainki osoa	Beharreko lan orduak	Industriako lan egunetik gorako lan orduak	Ordu ez industrial bakoitzeko gainkia
A konbinaketa	465.500	6.791	4.591	103,3
B konbinaketa	412.500	6.791	4.591	89,8
C konbinaketa	332.500	6.791	4.591	72,4

Kuadru honen arabera, barazki hustirapenak euskal nekazaritzaren oraingo egoeran joko errentakorra dela dirudi, zeren hauxe baita konbinaketa gutitarik bat baserria lurra metroko 250 pezetatan salduta baino ongarriago dena, eta gainera gainkien kopuru orokorrak dezenteak dira. Pentsatzekoa da, beraz, barazkitara dedikatzea Herrialdeko nekazaritzaren aurrerapen bideetariko bat dela.

Badira, ordea, geroko aurrerapen posible hau iluntzen duten puntu batzu. Hona zeintzu:

1.—Barazkitara dedikaturik baserrian urtean 6.791 lan ordu behar dira. Hau da, industriako hiru lan-eguni dagokiona baino gehiago. Aukera kostua neurtzean, estudio honetan ohi bezala, pertsona baten alokairu industrialak bakarrik jo ditugu, baina hiru langileren alokairuak joko balira, orduan gainkia negatibo bilakatuko litzateke eta kopuru haunditan bilakatu ere.

Orain arte ikusitako konbinaketa guztietako kontua dela

hau esan daiteke, baina ez da guztiz horrela. Baserri tradizionalen famili buruaren gainetik lana familiako bertako beste lagun batzuk egin dezakete, pertsona nagusiek edo hurrek. Barazkintzan, ordea, hau askoz ere zailagoa da, praktikan pertsona heldu bat baino gehiago behar bait da, dedikazio osoan esaniko lur zati hori lantzeko. Kuadrutan bildu dugun gainkiari bi edo hiru pertsona helduren lana kenduz gero, gainki hori ezerezean geratuko litzateke. Baserritarrek berek frogatzen dute hau honelaxe dela, barazkintzari oso proportzio txikian ekiten bait diote. Herrialdean ikusten dena gainera hustirapenik barazkitsuenean hartara beste gabe dedikaturiko pertsona heldu bat baino gehiago behar dela.

2.—Barazkitara dedikaturiko baserriak jeneralduko balira, segur asko dagoen merkaturako gehiegi ekoiztuko litzateke eta gainera prezioa jaitsiko, gainkia ere gutiturik beraz. Barazkintzara intentsiboki dedikatzeke, merkatuak gaia irentsiko duela seguratzeko moduko merkatalgo sare egokiak jarri behar lirateke. Gaur bertan ere badira Herrialdean saldu ezinako barazki gehiegiko herri azokak.

3.—Aurreko puntuarekin guztiz loturik: beste herrialdeetako gaien konpetentzia agudo handitzen ari da garraiorako erraztasun handiagoa dutelako eta ekoiztu ere haietan gehiago ekoizten delako.

4.—Barazki hutsera dedikatzeak, baserritarra jasateko prest dagoen baino arrisku handiagoa du gainean. Orain arte oinharri honetaz lan egin dugu, halebria, baserritarra bere tarte gordinetik % 25 arriskatzeko prest dagoela, baina barazkintzarako % 40 arriskatu behar eta hau gaiaren hustirapen jeneralduak dakarren arrisku komertzialaren handikuntzarik jo gabe. Baliteke baserritarrak hain arriskupe haundira sartzeko gogorik ez edukitzea. Baserritarrek berek ematen digute, berriro ere, argibidea, oso guti bait dira barazkintza hutsera dabiltzan baserriak.

Plastikapeko barazkintza

Negutegiko edo plastikazko tunelpeko barazkintzak barazki lana interesatzen zaien baserritar askori tiratzen dio. Era hauk sartzeak, beharbada baserriak errentagarritu egingo lituzke eta beraz, gerorako tentagarriagotu.

Sistema hau sorrerazten ari den arreta dela eta, Candido Iturriaga Fundazioak sistema honi buruzko entsegu edo inbestigazio proiektu ttiki bat bere finantzamenduz lagundu zuen. Plastikapeko kultibo mota baten entsegu kontroldu bat egitea pentsatu zuen, Bilbo aldeko baserri herrietako baserritarrek egina eta Fundazioak finantzatua. Esperimentu hau, lur perito batek * eta ekonomista batek kontroldua eta azterkatua izan zen.

Plastikapeko kultiborik ugarienak bi dira: negutegiko kultiboa eta plastikapeko tunelpeko kultiboa. Esaten ari garen esperimenturako plastikapeko kultibo mota aukeratu zen. Tunelpean, tomatea, biperra, pepinoa eta beharbada porrua lantzea zen asmoa. Baina entsegua laburrago geratu zen. Baserrietan bestela ere nahikoa lanpeturik zeudelako, nahiko zaila izan zen laguntzeko prest zegoen baserritarrik aurkitzea, eta azkenean, biperren lantzea bakarrik aztertu ahal izan zen zehazki soro batean. Alderdi hau kontuan eduki beraz, ondoren esango dugun guztian. Entseguaren laburtasun eta guzti ere, ordea, interes handiko informazioa lortu genuelakoan gaude eta horrexegatik agertzen dugu ondoren:

Esperimentuaren emaitzak: Frijitzeko biper berdearen lantzea, plastikapeko kultibo bortxatuaz gonbaraturik.

Arlo bakoitzean, guti gora-behera, larehun metro karra-tuko kultibo saila, biak Mungia aldean. Landarediaren barrutia 50 x 50 giza lanetan.

(*) Lan honetako alderdi tekniko guztia, haserako programaren gidari eta laguntzaile izan zen M. G.ri zor zailo.

8.9. *kuadrua:*

Zer	Tunelpeko kultiboa	Ohizko kultiboa	Tartea
Tarte gordina. Pezetak	32.608	22.521	10.087
Ekoizpenean beharreko lana. Orduak	74	20,25	53,70
Lan orduko ordaina. Pezetak	440,6	1.112,14	187,6

Ikusten denez, tunelpeko kultiboak ohizko kultiboak baino 10.087 pezeta gehiago ematen du giza laneko —380 m²—, edo berdin dena, ohizko sistemak baino 187,6 pezeta gehiago, ordu extra bakoitzeko. Berez, sistema honek oso errentagarri dirudi.

Baina berriro ere analisisan sakonduagotu beharra dago, lehen soluzioa ontzat jo baino lehen, eta gure testuinguruan zehazketa hauk egingo ditugu:

a) Baserritarrak kultibo honi eman dizkion 53,75 ordu gehiago horietan gelditu izan balitz, beste ezer egin gabe, orduan egiatan 187 pezeta aterako zituzkeen lan ordu extra bakoitzeko, edo 10.000 pezeta gehiago giza laneko. Baina, badakigu, baserri euskaldunetan zein lan erritmo dabilen, eta nekez pentsa daiteke biperrak lantzen ekin ezik, baserritarrak ez zuela beste ezer egingo. Abereak zaintzen edo beste gai batzu ekoizten izan balitz, hortik irabazi batzu aterako zitzuzkeen zalantzarik gabe eta, beraz, ez zen azkenean halako diferentzia izango tunelaren alde. Berriro ere, sarri aipaturiko aukera kostuaz topo egiten dugu. Baserri tradizionalako orduko ordainaren zifra hartuz gero, esaterako 69 pezeta, 53,75 ordu horietan 3.708,75 pezeta dira, eta hauk behintzat kendu egin behar tarte gordin gehigarritzat jotako 10.000 pezeta horietatik.

b) Tunel kultiboak behar duen lan extra guztia, edo ia guztia, Apirilean eta Ekainean pilatzen da, biak hain zuzen euskal baserrian lantsuenetarikoak. Orduan, beraz, aukera

kostua aurreko atalean esandakoa baino askoz haundiagoa izango da, segur asko, zeren baliteke aldi horietan bost egun extra biperrei emanaz gero, aurreko atalean kalkulatu ditugun hiru mila pezetak baino gehiago utzi beharra izatea, abere hustirapen guztien oinharri den belar bilketa-rekin batera gerta daiteke eta. Biperrei ekinez gero, baserritarrak abere gobernuaeren horniketa bertan behera utzi beharko luke zati handi bat, eta hauxe izanki baserriko oinharria. Hau kontuan edukiz gero, kitatzen ahal dio baserritarrari aldi horretan bost egun gehiago ematea 10.000 pezeta horik ateratzen? Ezezkoan gaude.

c) Aurreko puntua zehatzagotzeko, jar dezagun kalkulu hau: tunel kultiboak, Apirilaren batetik Maiatzaren 15era (45 egun, jaiak barru), lanegun osoko lana behar du 380 m² lantzeko. Pertsona bat plastikapeko biper lantzerak barru emanaz gero, 10 gizalan lan litzake. Bestalde, kultibo tradizionalak aldi berean giza laneko egun eta erdi bazarrik behar ditu (13,50 ordu) eta honela pertsona batek 26 gizalan lan litzake. Nahiko lur erabilgarri izanez gero, bi sistemetan atera litezkeen tarte gordin osoak hauk lirateke:

Tunelpean: 32.608 pezeta x 10 giza lan (3.800 m²) = 326.008 pezeta.

Normala: 22.521 pezeta x 26 giza lan (9.980 m²) = 585.546 pezeta.

Hona, bada, 259.538 pezetatako diferentzia *kultibo tradizionalaren alde* *.

Esan berri dugun guztiagatik, gure esperimentuaren barruti laburraren barruan hauxe atera daiteke, halegia, nahikoa lur eta lan esku gutiko baserrietan biper tradizionalaren hustirapena tunelpekoa baino komeniago dela, lan txi-

(*) Hau ertzeko adibide bat da, eta ez du besterik adierazten, kontuan hartu beharreko elementu batzuek daudela baino, halako gai baten emankortasuna aztertzerakoan. Segur asko beste problema batzuek ere agertuko lirateke baserritar bat piper lantze hutsera deditakotako balitz. Baina erabilitako adibideak argibide ona ematen du zenbait elementu bakarka ikusteak duen arriskuari buruz.

kiagoz lur gehiago lan bait daiteke eta lur gutiagoko baina lan handiagoko ekoizpenaren antzeko emankortasunak atara. Lur guti eta lan handidun baserrietan bakarrik pentsa daiteke plastikapeko kultiboak sartzeak hobekuntza dezentea lekarkeela. Bizkaiko eta Gipuzkoako baserririk gehienatan honelakorik ez denez gero, lan eskua bait da faktore urria, plastikapeko kultiboa ez da hain tentagarri ageri, eta hortik gure Herrialdean kultibakera hau hain guti erabilteza*.

Barazkintza erdi-industriatua

Beste barazki hustirapeneko sistema bat geratzen zaigu ikusteko: erdi-industriatua. Hemen lur entpresariak, bere lanez gainera, jende alokatuta jotzen du bere ekoizpenerako. Entpresa ttikiak ipintzea errentagarri ote da, lan alokatuan oinharriturik?

Demagun baserritar batek 5 Ha lur langarri dituela, hustirapeneko oinharri gisa, etengabe ematen ari garen bezala. 6.3. atalean zenbat lur barazkitan lan daitekeen kalkulatu dugu, eta zenbat tarte gordin eman dezakeen pertsona baten laneguna 7,11 eta 14 ordukoa izanik. Han emaniko kalkuluetatik, pertsona batek egunean 7 orduz lan egingez gero, —industriako lanegunetik urrago—, $7 \times 6 = 42$ ordu astean. Ordu hauetaz 2.500 m^2 barazki lan litzake, 200.000 pezetatako tartearekin. 11 eta 14 orduetarako zifrak 3.950 m^2 eta 316.000 pezeta eta 5.000 m^2 eta 400.000 pezeta ziren. 8.10. kuadrutan azaltzen ditugu suposatuta bakoitzerako errentagarritasun kalkuluak, 5 Ha.tako baserria oinharritzat emanik.

(*) Baserriko barazki ekoizpenari begiraturik, argi dago baserritarrak plastikapeko teknika ezagun duela, bai bait daude kultibakera honi dedikaturiko lur zatitxo batzu. Honek esan nahi du hartara proportzio handiagok dedikatzea ez zaiola baserritarrari errentagarri gertatzen. Teknika honen erabilera urriak esplikatzen dituzten beharbadak, halebak, baserritarraren emaztearen denbora «geldia» probetxatzeko modu bat dela. Ez da gehitzen, zeren, denbora geldi hau emandakoan, beste gai alternatibo batzuri lana kentzeak ez bait du kitatzen.

8.10. *kuadrua.—Barazkien hustirapen erdi-industriaturako errentagarritasun kalkuluk.*

Eguneroko lan orduak	Zenbat pertsona behar diren	Sarrerak	Alokairuen kopurua Peolak = 315.000	Tarte gordina	Kapitalaren kostua % 8 hiru milioitatik	Aukera kostua Lurra, pinuak	Entrepresako lur-gainkia
7	20	4.000.000	6.300.000	—	240.000	100.000	-2.640.000
11	12,6	4.000.000	3.969.000	31.000	240.000	100.000	-309.000
14	10	4.000.000	3.150.000	850.000	240.000	100.000	750.000

Kuadru honetan argi dago oraingo baldintzetan lan esku alokatuzko barazkintza ez zaiola errentagarri entepresariari, langile alokatuari peoi alokairuaz egunean 14 orduz lan eragin ezik behintzat, lan eskua superhustiraturik. Industrian lan egiteko aukerak dauden Herrialde batean horrelako lan sistema onhartzekorik nekez pentsa daitekeenez gero, ortuari ekoizpenaren hustirapen erdi-industriatuak ez duela irtenbide handirik atera behar.

Hustirapen espezialduetarako emaitzen laburpena

—Txahal kazkonduentzat eta esnekoentzat merkaturik izanez gero, hauen hustirapena, gobernu intentsiboan eta bakarrean errentagarri da. Okelarako urte txahalen hustirapena, ez da errentagarri. Hustirapen mota intentsibo eta bakar honek, ez du euskal nekazaritzako problemarik konpontzen, nahiz eta bai baserritarrena, eta kalitate garestietako okela motak ekoiztera darama.

—Ardi hustirapenek errentagarriak dirudite, komunitatearen aldetik lurraren probetxamendu arrazionala dakarte eta baserritar familiarentzat baserriko beste hustirapen sistemak baino lan maila motzagoak behar dituzte. Egitez, famili buruaren lan hutsez funtziona dezakete, aldirik lantsuenetan bakarrik laguntasun apur bat hartuta. Baserritarren gizarteko eta familiako harremanen problema dute, ordea, artzaintza aldian, nahiz eta problema honek ez bide

eduki hain konponketa zailik. Guzti honegatik, gaurkoz, hustirapen mota honek, geroko euskal baserrirako irtenbide bat izateko modukoena dela ematen du.

—Barazki irtenbideek, kasu batzutan, tentagarri izateko moduko baserri gankia agertzen dute. Baina hori ateratzeko baserritarra, arrisku handian sartu behar, lan esku espezialdua eta gorputz sendokoa behar, eta gainera gai horietako merkatuan hainbat problema dago. Barazkintza beraz, ez bide da jeneralduko euskal baserriaren irtenbidetzat, nahiz eta itxuraz errentagarritasun handikoa izan. Plastikapeko teknikek ere, ez bide dute egoera hau askorik aldatzen ez eta lan alokatuzko hustirapen erdi-industriatuek ere. Gainera barazki hustirapenek lurrak hain prezio handiak dituzten kale ingurutik hurbil egon behar dutela kontuan edukiz gero, oso litekeena da lurra esaniko prezioetan edo askoz handiagotan * saldu ahal izatea. Horregatik, euskal nekazaritzaren irtenbideak barazki hustirapenean egoitea zer gakotsua da.

Euskal baserriaren garako perspektibak zehatzu diran jakin gabian, baserri tradizionalaren aldatzearen sistemaren barruan zein bide duen aldatzeko eta modernizatzeko artetera dugu. Erain baserriko antolatamenduan arloko garako alde-kuntza dugu, baina sistemak ikusita geratzen zegoen eta horixe egizko dugu ondoren.

Aurreko kapituluaren aztertzan dugu «entrepresa gisakoa» delako dugun baserria, irtenbideak berrikuntza jorzan zuan sarturikoa zein zitekeena eta bere emaitzak xehatuz di-

(*) Metroko 1.000 pezetatatik gora ia eskainita zeuden lurretan ikusita gaude barazki lantzeak.

9. Kapituluua Baserriaren eraldakuntza

Euskal baserriaren geroko perspektibak zeintzu diren jakin nahian, baserri tradizionalaren ekoizpen sistemaren barruan zein bide duen aldatzeko eta modernatzeko aztertu dugu. Orain baserriko antolamenduan azpikoz gorako aldakuntza dakarten sistemak ikustea geratzen zaigu eta horixe egingo dugu ondoren.

Aurreko kapituluuan aztertutik dugu «entrepresa gisakoa» deitu dugun baserria, irtenbideak komenizko jotzen zuen punturaino zabal zitekeena eta bere emaitzak xehaturik dituguna. Kapitulu honetan, lehen, ekoizpeneko kooperatibak aztertuko ditugu, eta ondoren «baserri hedatsuak» deitu

ditugunak, «entrepresa gisako» baserria bezala, oraindik ez dagoen baina beharbada geroan merezi lezakeen sistemari dagozkionak.

Ekoizpeneko baserri elkartuak

Baserriez arduraturik edo harremandurik dagoen zenbait jenderengan, baserriko problemen irtenbidea kooperatibek ekar ote lezaketen, esan ohi da. Baserritar batzu bide honi emanik daude, bere egoera hobetzeko ustetan. Horregatik ekoizpeneko baserri kooperatiben gorabehera ere estudio hontan sartzekoa zela pentsatu genuen. Bego, ordea, argi egingo dugun azalpena ez dela nekazaritzako kooperatibagintzaren azterketa osoa, egindako estudio osoaren barruan sarturiko kooperatiba azterketa baizik. Bakoitzaren baserriak batu eta eginiko ekoizpen kooperatiba ttikiak baserritarrentzat zein ahalbide duten bakarrik aztertuko dugu.

Ekoizpen kooperatiba ttikiak egitera jotzean, baserritarren helburua galduz doazen baserriei iraupide bat ematea dela uste dugu. Sarritan, kooperatiba bat egiten duten pertsonak euskal baserriari maitasun handia diotenak eta baserriei eusteko gogo handia dutenak dira. Beste batzutan, kooperatibistak adin helduko pertsonak dira, baserrian ondorengorik gabe, nola edo hala jarraipide bat bilatu nahi dutenak, industriara lanera ezin sartzean. Kooperatibarik gehienetan bietariko pertsonak batera lanean aurkituko ditugu, edo hobeki esanda, lankidegoko kide bakoitzarengan bi alderdiak aurkituko ditugu, nahiz eta bizitasun desberdinez. Nola nahi ere, arrazoin batzurengatik edo bestetzurengatik, euskal nekazaritzaren iraupena antolatzea da nahi dena.

Gehienean, baserri kooperatibek autokudeakuntza osoa daramate. Hau da, ez dute beren zuzenpen edo antolamendurako kanpoko elementuetara jotzen, nahiz eta jeneralean bakarreko baserritarrak baino joera handiagoa eduki, kanpoko organismoen laguntza hartzera —esaterako «Exten-

sión Agraria» delakoarena—. Kooperatibek baserritar adintsu samarrak baino maila teknologiko handitxoagoa dute, baina beren baserriari eutsi nahirik dabiltzan baserritar gutxi horien antzekoa.

Lan honetan, kooperatiben azterketa egiteko, sei baserritarrerainoko taldeak egin daitezkeela jo da. Lankide baikoitzak bere baserria jartzen duela, hau da, bost Ha lur langarri, dedikazio bakarrera dabilen pertsona bati dagokion lana eta 150.000 pezeta kapital likidotan. Trukean, urtean alokairu gisa gutienez 125.000 pezetatako ordaina * eskatzen duela jotzen da eta irabazien zati bat ipinitako lurra-
ren proportzioz.

Aurrerago ikusitako soluzioetan bezala, problema bat jartzen da, eta soluzioak eman dezala zein den egoerarik onena. Kasu honetan, soluzioak esango du kooperatibaz elkartzea merezi duen eta zein den lankide kopururik errentagarriena, ematen zaizkion eta gorago aipatu ditugun baldintzen barruan. Beraz, sei lankidetaraino elkar daitezkeela jotzen da, baina soluzioak baserritar gutiago elkartzea hobe dela ager dezake.

Azterturiko kooperatiba motak

Honako konbinaketa hauk jarri ditugu:

- K.1. eredia.—Hustirapen modernatua, 50 abere-larri buru edukitzeko ikuiluaz. Sei lankide bil ditzake eta 5 Ha lur alokatu, berek jartzen dutenez gainera. Modalitate honetarako esnearen prezioak litroko 8,5etik litroko 16 pezetara igotzeak zein eragin lukeen aztertu da.
- K.2. eredia.—K. 1. eredia bera, baina ihardun intentsibo apur batzuz. Hauk eransten dira, zeren lan esku eta makineria gehiago edukirik, horre-

(*) Hain alokairu kazkarrekin konformatzea posible da lankideel ideologiak asko eragiten dielako eta geroko irabazien Itxaropena dutelako.

9.1. Kuadrua.—Baserri kooperatibetarako itenbideak.

EHEDUA	Tarte gordin osoa	Zenbat lankide	Lankideko ordain osoa *	Hak lur erabilia	Abera edukiera	Beharreko inbertsio osoa	EKOIZPEN KOMBINAKETA													
							Behiak	Urte txahalak	Oiloak	Untxi emeak	Zerriak	Patatak	Sagardo sagarrak	Barazkiak	Arto/Indabak	Artoa **	Belardi artifiziala	Arbia	Belar artoa	
K. 1 (esane prez. 8,5) (* * 10)	1.181,340 1.320,488	2,6 2,6	579,362 632,880	18 18	41 37	2.762,900 2.475,000	41 37	— —	100 100	10 10	10 10	— —	3,1 4,75	0,6 0,6	1,05 0,05	— —	14 12,2	— —	— —	
SOLUZIO BERBERA ATERAZEN DA ESNEAREN PREZIOA 16 PEZETARA HELDU ARTE																				
K. 2 Harg. prez.—20	3.065,318	5,3	703,361	31,75	50	6.442,775	50	—	5,100	260	760	—	10,2	0,85	—	—	—	—	—	—
" normala	3.065,318	5,3	703,361	31,75	50	6.442,775	50	—	5,100	260	760	—	10,2	0,85	—	—	—	—	—	—
" + 20	3.115,784	5	748,156	30	47,8	5.930,375	37,8	30	5,100	260	760	9,7	0,66	—	—	—	—	—	—	—
" + 40	3.398,772	3,5	1.096,677	22,5	43	5.814,475	15,6	86	5,100	260	760	7,7	—	—	—	—	—	—	—	—
" + 60	3.878,086	2,8	1.510,030	19	43	5.726,775	15	87	5,100	260	760	3,3	—	—	—	—	—	—	—	—
" + 80	4.356,720	2,8	1.680,971	19	43	5.726,775	15	87	5,100	260	760	—	3,3	—	—	—	—	—	—	—
K. 3	3.102,898	6	642,149	55	127	7.469,000	107	60	100	10	10	—	—	11	—	—	—	—	—	—
K. 4	4.158,640	6	901,440	55	122	10.295,175	95	80	5,100	260	760	—	3,4	—	—	—	—	—	—	—

* Lanaren ordaintzeko 125.000 pezetak sarturik.

** Habe honen batuketak lur erabilii guztia —5. habea— baino gehiago ematen du, sagasti lurra beharizat ere zati bat erabili daiteke eta.

lako ihardunak sartzea arretagarriago izan bait daiteke. Modalitate honetarako okelaren prezio aldakuntzen eragina aztertzen da.

K.3. eredia.—Hustirapenaren tamainia handitzen da lankideen kopururik aldatu gabe: 25 Ha lur gehiago eta abeltegia 250 buru edukitzeraino handitu.

K.4. eredia.—K. 3 eredia bera ihardun intentsibo apur batzuz.

Emaitza hauetan oinharriturik, alderdi hauk ateratzen ditugu:

Elkartearen tamainari buruz

a) Ihardun intentsiborik gabeko ereduentzat,

—5 Ha lur baino alokatu ezin badira eta ikuiluak 50 bururentzako edukiera bakarrik eduki (K. 1), ez da erretagarri hiru lankidetik gora elkartzea.

—25 Ha alokatu eta ikuilua handitu ahal izanez gero (K. 3), sei lankide elkartzea erretagarri da.

Hau da, ihardun intentsiborik egon ezik, 55 Ha lur inguru eta 122 burutarako gai den ikuilua behar direla sei baserritar elkartzea merezi izateko. Baserritar bakoitzeko 5 Ha lurrez bakarrik, hobe hiru baserritako elkarte ttikia goa.

b) Ihardun intentsibodun ereduentzat,

—lur gutiz, aurreko kasuan bezala. Intentsiboak sartzeak lankideen kopurua bosterraino gehitzera daramala ikusten da. Arretagarri da, ordea, nola okelaren prezioak igo ahala, intentsiboen ekoizpenari eutsirik ere, lankideen kopururik onena 3tara gutitzen den. Emaitza honen interpretazioa hau xe izan liteke, hategia, elkarte ttikia intentsiboez gainera okelara batez ere dedikatzeotan, ez direla sei lankide elkartzeko zifrarik egokiena.

—Hustirapen handia intentsibo eta guzti. Lankideen kopurua seiraino heltzen da eta kooperatiba honek 55 Ha hus-

tira ditzake, 95 behi eta 80 txahalez; 5.000 oilo, 260 untxiama eta 750 zerri, gehi Ha 1 barazki lur eta 10 Ha beste kultibo batzutakoak. Ekoizpen maila hau eta guzti ere, lankide elkartuei beren lanegunean asti librea geratzen zaie Abuztuaren 15etik Azaroaren 1a arte izan ezik. Honek esan nahi du ekoizpen maila honetara heldu ezik, sei pertsona-tako baserri elkartuan lan esku erabilgarria subenplegaturik dagoela.

Emitza hauetatik, irtenbide hauxe ateratzen da, bistakoa baina inportantea: kooperatiba baten tamainiarik onena harrapa dezakeen ekoizpen mailaren pentzudan dago. Maila hau inbertsio maila ahalgarriaren pentzudan dago. Hau da, ekoizpen maila ahalgarria lankide kopuru egokiaz lotu behar dela. Gehienez, dauden kooperatibetan prozesua alderantziz izan da: pertsona batzuk beren baserriez elkartu eta ahal dutena ekoizten hasi dira. Eta nola ahal ziren inbertsioek ez zuten beti ekoizpen maila egokirako behar zen zifrarik harrapatzen, lan esku erabilgarria bere ahalmen osotik behera enplegatu da.

Emitza hau ikusita, arretagarri gerta liteke elkarte baten sortzapena planteatzean, indar elkartu guztiei lana emateko behar diren inbertsio hondoak edukitzeko modua aztertzea, edo bestela lankide guti hasi eta gehituz joan elkar-tearen inbertsio ahalmena handitu ahala.

Tarte gordinei buruz

9.1. kuadrak tarte gordinei buruz ematen digun informazioak ez digu askorik esaten, bakar-baserrian lor litekeenekin gonbaratu ezik behintzat. Saia galtezen gonbarazio hau egiten, aurreko bi kapituluetan aztertutako bakar-baserrietan alde batetik baserri tradizionala harturik eta bestetik 10 Ha.tako baserria abeltegi zabalduz eta bigarren mekanikapen mailan. Honela kooperatibak zein ahalbide duen agertuko da hala baserri tradizionalako baserritar «norma-lentzat», nola etxalde handiagoak dituztenentzat.

9.2. *kuadrua.—Tarte gordin elkartuen eta bakarrekoen gonbarazioa.*

ZER	(1)	Bakar-baserrri tradizionala 5 Ha.	Bakar-baserrri mekanikatua 10 Ha.	Koop. K. 1 Intentsibo gabe. Tamainarik handiena 35 Ha.	Koop. K. 3 Intentsibo gabe. Tamainarik handiena 55 Ha.	Bakar-baserrria Ikuilu zabaldua eta intentsiboak 5 Ha.	Bakar-baserrri mekanikatua. Intentsiboak 10 Ha.	Koop. K. 2 Intentsiboak. Tamainarik handiena 25 Ha.	Koop. K. 4 Intentsiboak 55 Ha.
1. Tarte gordina. Pezetak	543.055	837.917	1.181.340	3.102.898	2.489.837	1.707.270	3.065.318	4.658.640	
2. Zenbat lankide			2,6	6			5,3	6	
3. Lankideko ordaina *			579.372	642.149			703.361	901.440	
4. Lur landua. Ha-k	5	10	18	55	5	10	31,75	55	
5. Lan orduak	7.087	5.954	11.669	25.317,8	7.444	7.678	22.104	26.750	
6. Beharrezko inbertsioak	—		2.762.900	7.469.000	0	0	6.442.775	10.295.175	
7. Orduko ordaina	76,62	140,7	101,2	122,5	334,4	222,3	138,6	174,15	
8. Lankideko lur landua	5	10	6,9	9,16	5	10	6	9,16	
9. Lankideko beharrezko inbertsioa	—	1.017.000	1.062.654	1.244.833	5.591.250	3.541.450	1.215.618	1.715.862	
10. Lan orduak laguneko			4.480	4.219			4.170	4.458	
11. Beharrezko arrisku osoa			259.894	682.637			674.369	1.024.900	
12. Lankideko arrisku osoa	119.471	184.341	99.959	119.773	547.764	375.599	127.239	170.816	

9.2. kuadrak baserriak atzeman ditzakeen tarteen arteko lehen gonbarazio bat agertzen du, bakarka ala elkar-turik jokutzen den kontu. Gonbaraziorik egokienak hauen artean egin behar dira: 2. eta 4., 3. eta 5., 6. eta 8., 7. eta 9. Sarrerei buruz, bakar hustirapenetako lehen ilada hustirapen elkartuetako 3. iladaz gonbaratu behar da —lan-kideko ordaina—.

Has gaitezen baserri tradizionala eta hiru kideko kooperatiba adierazten duten 2. eta 4. habeetatik: tarte gordina bietan ia berdina da, baina kooperatiban lan esku gutiago behar da. Baldin baserritarrak, dirudienez, bere familiak lanik ez egiteari baliorik ematen badio, oso ahalgarri da ekoizpen kooperatiba ttiki bat egiteko gogoia edukitzea, diruagatik ez bada ere, bai familiaren lanagatik. Abantail honen orde ez esan beharra dago baserri tradizionalan ez dela inolako inbertsio gehigarririk behar, kooperatiban ordea, kideko 1.000.000 pezeta behar dira, berak ipini beharko dituenak edo kanpoko finantzamendu bat lortu beharko.

3. eta 5. habeek esaten digutenez, baldin baserritarrak 10 Ha eta milioi bat pezeta inbertitzeko baditu, bakar hustirapena elkartua baino askoz komeniago da diruz. Gainera lan kontuan kooperatibaren alde diferentziarik badago ere, ttikiagoa da eta inbertsioari buruz bakar hustirapena hobeki dago. Hau da, baserritar «modutsuari» kooperatiba ez zaiola hain tentagarri. Ikus nola emaitza hau ere esperientziak baieztaturik dagoen, zeren, errealitatean ikusten denez, baserritar «sendorik» gehienek eta lan egin ahal dutenek ez bait dute kooperatibagintzarako joerarik bat ere.

Baserri intentsibodunei begiraturik, are arrazoin gehiagoz esan daiteke aurreko atalean baieztatu berri duguna: inbertitzeko dirurik duen baserritarrarentzat kooperatiba ez da errentagarri. Intentsiboen kasuan, ordea, bakar-baserritarrak inbertitu beharreko kopuruak handiak direla esan beharra dago, eta segur asko baserritar oso gutik, inor badago, edukiko du hainbeste inbertitzeko modurik. Lanari buruz, ordea, kooperatibak tentagarriago dira, zeren bakar-

-baserrian urtean 7.500 ordu inguru behar badira, kooperatiban 4.200 bakarrik behar bait dira. Kapitalak lana ordeztearen kasu argi bat. Baina bakar-baserriaren alde diruzko diferentzia handia dagoenez gero, baliteke baserritar familiak lan gehigarri guztiei heltzea, edo baita kanpoko lan eskua kontratatzea ere, diferentziak horretarako aina ematen bait du. Nolanahi ere baserritarrak ez du segur asko inbertitzeko hainbeste hondo edukiko. Lankideko behar diren 1.200.000 pezeta kooperatibarako inondik finantzatu ahal izanez gero, ordea, baliteke honelako elkarteak aukera ona izatea.

Horregatik, baserritarrak intentsiboak jartzeko hondorik ez duela emanik, intentsiborik gabeko bakar hustirapenak intentsibodun kooperatibekin gonbaratu ditugu. Baserritar tradizionalak 543.000 pezetatako tarte gordina du, intentsibodun kooperatiban, ordea, 703.000 edo 901.000 pezeta har ditzake. Diferentzia tentagarria da, baina kontuan eduki lankideko 1.200.000 edo 1.700.000 pezeta inbertitu behar direla, kideak berak finantzatu beharrekoak, edo kanpoko finantzamendu bat lortu.

Baina baserritarrak bere bakar hustirapenean inbertitzeko 1.000.000 pezeta edukiz gero, 837.000 pezetatako tarte gordina atera lezake. Honela hau, kooperatiba baino errentagarriago gertatzen da; beraz, milioi bat duen baserritarrari kooperatibagintzarik ez zaiola komeni esan dezakegu.

Kredituaren kasua ikusteko geratzen zaigu. Inbertitzeko bere dirurik ez duen baserritarrarentzat kooperatiba izan daiteke inoren hondoak lortzeko bidea, eta kasu honetan merezi dezake kooperatibak egitea. Baina intentsibodun kooperatiba baterako, 6 ta erditik 10 milloi pezetatarako inbertsioa behar da eta orduan zer ote da errazago, sei lankideko kooperatiba baterako kopuru hori kredituz lortzea, ala milioi bat bakar-hustirapenerako? Galdera honen erantzunaren pentzudan dago kooperatibagintza baserritar pobreentzat hobekuntza izatea ala ez, *ihardun intentsiboak ere barru direla beti*. Izatez, kooperatibak bakar-hustirapenak baino komeniago diren ala ez, zer biren pentzudan dago; lehenik,

ihardun intentsiboak ere edukitzea; eta bigarren, kooperatibak bakarkako baserritarrek eduki ezinako hondoak edukitzea inbertitzeko.

Alderdi guztietatik agiri da euskal baserritarren egoera hobetzeko bide gutietariko bat ihardun intentsiboak direla, bai bakarka bai elkarturik. Honek esan nahi du, ekoizpen erabakiak pribatuak diren bitartean, lurra pixkanaka bertan behera geratuz eta abere hustirapen intentsiboak gehituz joango direla, eta hauk nekez jo daitezke lur hustirapentzat.

Baserriko errentagarritasunari buruz

Tarte gordinak oinharritzat harturik egindako azterketa biribiltzeko, kooperatiben aukera kostua ikusiko dugu ondoren eta kide bakoitzeko sarrera elkartuekin gonbaratu. 9.3. kuadrutan azaltzen dugu gonbarazio hau.

Kuadruek ematen duen informaziotik alderdi hauk atera daitezke:

1.—Lurra metroko 250 pezetatan saldu ahal izanez gero, kooperatiba ez da *ezein kasutan ere* diruz errentagarri.

2.—Lurra metroko 100 pezetatan saldu ahal izanez gero, orduan ere kooperatiba ez da praktikan errentagarri. Intentsiboak sartuta eta abelgorrikiak kilo 40 pezeta igorik bakarrik hasten da kooperatiba errentagarri izaten.

4.—Lurrik saldu ezin bada bakarrik hasten dira zifrak positiboak izaten. Zifra hauetan, ordea, —6. habea— kontuan eduki beharra dago:

—gaien oraingo preziorako, intentsiborik gabe, kooperatibaren aukera kostutik gorako errentagarritasun zifrak ez du kooperatibarik justifikatzen. Esne prezioak litroko 1,50 igota ere berdin esan daiteke.

—intentsiboak sartzean bakarrik arrazionaltzen dira errentagarritasun tarteak. Hala ere kontuan eduki behar zein arrisku duen honek. 200.000 pezetatako sarrerarako lan-kideak 127.000 pezeta arriskatu beharko lituzke eta 300.000

9.3. *kuadrua.*—Aukera kostuaren gonbarazioa sarrera elkartuekin.

EREDUA	(1)	AUKERA KOSTUAK			NEKAZARITZAREN ALDE DIFERENTZIAK			ORDUKO LUR ORDAINA			
		(2)	(3)	(4)	(5)	(6)	(7)	(8)	(9)	(10)	(11)
		Kideko ordain osoa	Lurra Pinuak	Lurra m'ko 100 pezeta	Lurra m'ko 250 pezeta	Lurra Pinuak	Lurra m'ko 100 pezeta	Lurra m'ko 250 pezeta	Lan orduek	Pinu lurrak	Lurra m'ko 100 pezetan saliduta
K. 1 Esne prezio normala		579.362	503.012	917.012	1.745.012	76.350	—	—	4.480	33.50	—
» prezioa 10 pezeta		632.880	494.153	1.736.153	908.153	138.727	—	—	—	60.80	—
K. 2 Okela prezioa — 20		703.361	497.250	1.577.250	857.250	206.111	—	—	4.170	104	—
» prezio normala		703.361	497.250	1.577.250	857.250	206.111	—	—	4.170	104	—
» prezioa + 20		748.156	494.880	1.564.886	854.886	253.270	—	—	4.170	128,5	—
» » + 40		1.096.277	541.471	1.697.902	927.190	554.603	168.887	—	4.080	295	89,8
» » + 60		1.510.030	579.336	1.800.622	986.022	930.694	524.008	—	3.780	589	331,6
» » + 80		1.680.971	579.336	1.800.622	986.022	1.101.635	694.949	—	4.283	529	333,5
K. 3		842.149	562.787	2.211.599	1.112.387	79.362	—	—	4.219	39,3	—
K. 4		901.440	600.468	1.150.068	2.249.265	300.972	—	—	4.458	133	—

pezetatako sarrerarako 170.000 pezeta. Nola nahi ere, oraingo baldintzetan hauexek dira kooperatibak tentagarrien izateko konbinaketak.

—intentsibodun eredueta okelaren prezioak asko igoko balu, kooperatibako emankortasunak ere igo egingo luke, lankideen kopurua, ordea, jaitsi. Kiloko 40 pezetatatik gorako gehikuntza gertatuz gero, kooperatibak lurra metroko 100 pezetatan saldu ahal izanda ere errentagarriak lirateke, esanik dugunez.

Esan dugun guztitik atera daiteke, kooperatibak ez dira errentagarriak, intentsiboak sartuta izan ezik. Ihardun intentsiboak sartuz gero, errentagarriak dira, baina ez gehiegi. Emaiza hauek tarte gordinak ikustean eginiko irazkinak baieztatzen eta indartzen dituzte. Zifra ekonomikoetan, beraz, ez dirudi kooperatibazko lurlantza geroaren irtenbidetzat jo daitekeenik.

Bakarkako eta elkarrekiko hustirapenen ekoizpen mailak eta konbinaketak

Kooperatibetako konbinaketak aztertzean, alderdi hauk aipa daitezke:

—Ihardun intentsiboak sartu diren bakar-problemetan bezala, intentsibok soluzioan ahalik eta mailarik gorenetan agertzen dira. Bakar-hustirapenetan bezala, kooperatibetarako ere ihardun intentsiboak direla errentagorrienak esan nahi du honek.

—Lankidego ttiketian —3 lankide— urte txahalik ez da agiri. Alderdi hau garrantzizkoa da, zeren esaten eta esaten ari garenez, hauxe da geroan perspektibarik onenak dituela dirudien gaia. Sagardo sagarren komenentzia ere agiri da soluzioetan, eta kasu batzutan —lan guzti honetan zehar kasu bakarrak segur asko— patatak ekoizteko komenentzia. Kooperatibetan hustirapenaren tamainari buruz lan esku ugari dagoelako izango da patata kontu hau.

—Beste zer guztietan, ekoizpen konbinaketak funtsean bakar-hustirapenen antz-antzekoak dira. Kooperatiba siste-

ma sartzeak baserriko antolamendurik egokienerako aldakuntza sakonik ez dakarrela esan nahi du honek. Besteak bezalako hustirapen bat litzateke handiagoan.

Kooperatibetako eta bakar-baserrietako ekoizpena gonbaratzen hasteak problema asko lekarke, eta horregatik, hortik ateratako baieztapenak oso kontuz erabiltzekoak dira. Lan honen testu osoan azaltzen da zehazki eragozpen hauk zer diren eta zein muga jartzen duten gonbaraziorako. Atal honetan datozen elementu guztiak, beraz, gogotan eduki, ez daudela oinharri zehatzegetan finkaturik eta guti gorabeherakoak baino ez direla, gagozkion alderdiei buruz. Ohar hauk kontuan edukirik esan dezakegu:

—Ezin daiteke esan, kooperatibek bakar-hustirapenak baino produktibitate gehiago dutenik pertsonako eta Ha-ko. Ez abelazkuntzan ez kultiboetan ikusten da kooperatiben abantailik honetan, aitzitik ordea, bakar-hustirapenetan kooperatibetan baino produktibitate handiagoa dagoela dirudi.

—Abelazkuntzan ez dator aldakuntza handirik intentsiboak sartzean. Honek esan nahi du, abereak eta intentsiboak ez direla ihardun kontrakoak, lagunak baizik.

—Kooperatiben eta bakar-baserrien arteko ekoizpen mailen eta konbinaketen begirada zahatsetik datorren ondorioz argiena, zera da, halegia, kooperatibak ez dakarrela bakar hustirapenetik gorako ekoizpen handikuntzarik*. Beraz, lur ekoizpena handitzea nahi bada, kooperatiba tikiak ez bide dira hartarako egiturarik egokiena. Bestalde, okela ekoizpena handitzerik nahi bada, esanik dugu kooperatiba tikiak ez dutela balio, horien soluzioetan urte txahalak desagertu egiten bait dira, eta kooperatiba nagusiak ere —6 kide— ez dira soluzio hobeak, ez bait da proportzioz baserri familiarretan baino okela gehiago ekoizten. Hau da, komunitatearen aldetik, kooperatiba ez da lur

(*) Pertsonako ekoizpena, jakina, zeren guztira bistan dago 3 edo 6 lankidetako kooperatibak baserri familiarrak baino gehiago ekoiztu behar duela.

baliakizunak, ez lan eskua, ez lurra hobeki erabiltzeko bidea. Kooperatiba fenomenoaren neurketa orokorrean oso elementu garrantzizkoa da hau.

Konklusioa

Esaniko guztitik atera daitekeenez, ekoizpen kooperatiba ttikiak egiteak ez bide du gerorako ertainbide handirik. Oro har, ez tarte gordinen maila, ez irabazi garbiak, ez ekoizpen maila ez dira tentagarri ez baserritarrentzat ez komunitatearentzat. Ez dirudi euskal baserrien bilakaerak hortik joko duenik geroan.

Beraz, baserri kooperatibek baserriko lan eskua gutitze-ko egokiera eman lezakete. Baina intentsiborik gabeko kooperatibak industriako lanak baino gutiago ematen du; beraz, lan eskua gutitze kontua baino ez bada, industrian lan egitea errentagarriago da, kooperatiba bat ipintzea baino. Hona zergatik hainbeste baserriar gaztek kooperatiba bat hastea baino nahiago duten langile industrial izatea.

Lurra saltzerik ez bada, kooperatiba ongarri gerta liteke, inbertsio bideak dituzten baserriarrei ihardun intentsiboak sartzeko bidea emanez gero. Kasu horretan 200dik 300 mila pezetarainoko irabazi gehigarriak atera daitezke, baina horretarako kooperatibentzako kreditu bide preferenteak egotea behar, eta hau *praktikan* nekez gertatzen da.

Azkenez lurra metroko 100 pezetatan edo gehiagotan saldu ahal izanez gero, orduan kooperatibagintza ez da ezein kasutan ere errentagarri.

Kooperatibak bi pertsona motarentzat izan daitezke onak: alde batetik baserriar etxagunentzat, industrian edo baserrian lan egiteko zaharregiak direnentzat eta beren adinagatik pinadien fruiturik ikusteko ere usterik ez dutenentzat. Bestetik bizikera hura atsegin zaielako baserrian iraun nahi duten gazteentzat, nahiz eta beste aukera batzutan baino gutiago irabazi. Bi pertsona klaseok elkar-tzeak dakar lur osoa hustiratzeko bidea, eta honela base-

rritar adintsuek zerbait atera dezakete eta gazteek nekazaritzan iraun dezakete, langile industrial bilakatu beharrean baserritar segitzeagatik prezio bat bezala «ordainduz». Kooperatiba iragazpenezko formula bat besterik ez da, beste konponbiderik ez den egoeretan; eta horretara sartzen diren baserritar gazteek idealismo dosi dezentea behar dute. Bestela, ez dirudi euskal nekazaritzaren geroko aurrerapena noratzeko eta gidatzeko formula gazte, eragikor eta dinamikoa denik.

Kooperatiben porrota

Euskaldun baserritarren artean nahiko zabala da baserriko ekoizpen kooperatibek porrot egiten dutelakoaren ustea. Kooperatiben martxa ikusita gainera, porrot horik gertatu egiten direla dirudi. Aurkitu ahal ote dugu gure azterketan kooperatiben porrota ulertzeko daturik?

Batzutan, erakunde hauen esplikaziotzat barruko antolamenduko problemak jotzen dira: «Denek agindu nahi...» «Ez gaude prestaturik» etab. Guk ez dugu alderdi horietan gehiegi sinesten, nahiz eta azken emaitzetan zerbait eragin beharbada. Baserritar euskalduna beste edozein pertsona bezain prestaturik dagoela uste dugu elkartasunerako, eta beraz, alderdi ekonomikoetan bilatu behar dira porrot gertagarrien arrazoinak. Gure azterketari jarrai, kooperatiben porrota, honako arrazoin hauetatik datorrelakoan gaude.

a) Elkarrekiko hustirapenaren errentagarritasun urria.

Kooperatibei zegozkien atal guztietan garbi geratu da ekoizpeneko kooperatiba ttikiak oso errenta eskasekoak direla. Oso bidezkoa da, beraz, bere errentagarritasuna handitzekotan kooperatiba batean parte hartu zuen baserritarra, urte batzuz elkartean lan egin ondoren, etsirik aurkitzea eta elkarrekiko ahaleginak ez duela merezi sentitzen hastea. Egoera horretan erraza da irabazi urriek sorrerazitako ondoezagatik elkartea kraskatzen hastea, baina ez da ondoez hori porrotaren sortzailea.

b) Inbertsioen problema.

Beren errentagarritasun apal eta guzti ere, kooperatiba batzu egon daude. Zergatik edo hargatik —eta esanik dugu kooperatiba batzu zergatik muntatu diren—, hustirapen talde bat elkarrekin hasten da, instalazio eta makinerian hainbeste inbertitzen da eta... orduan eragozpenak. Hauk behar aina inbertsio hondo erabilgarri ez edukitzetik datoz batez ere (egin beharreko inbertsioei buruz).

Gehienez, kooperatibak baserrian inbertitzeko hondo urriak dituzten baserritarrek muntaturik daude. Honela, kooperatibara jotzen dute, beste helburu batzuren artean, sistema honen bidez instalazioak handitzeko eta mekanikapena azkartzeko. Kooperatiba bidez bakarka ezinako hondoak lortzeko itxaropena dago.

Esperientziak dioenez, kooperatiba bat muntatutakoan kideak berehalaxe hasten dira instalazioen eta makineriaren hobekuntza handi bat asmatzen. Sarritan, beren abertan ere bai, eta inbertsio prozesu bat hasten dute sarritan baserriaren aurrerapenerako honek planteatzen dituen esijentziak kalkulatu gabe. Hondo hauk ala kanpotik lortu behar dira ala barruan atera behar, kontsumurako zifra erabilgarria ahalik txikienera jaitsi erazten duen pilaketa prozesu txit azkar baten bidez.

Esaterako, guk aztertutako ereduaren, kasu bakoitze inbertsiorik txikiak, urtean 125.000 pezetatiko alokairu minimoetarako izan ezik, hustirapeneko beste sarrera guztiak, *hiru urte baino gehiagotan*, hartaraxe dedikatzea eskatzen du. Hau da, baserritar kooperatibistak hilean 10.000 pezeta bakarrik lituzke bizitzeko, *eta bat ere ez gehiago*, hiru urtetatik gorako denboraldi batean. Eta hau finantzamendu problemarik jo gabe, zeren, nahiz eta egoera herstu honi eusteko prest egon, aurreratzeko behar den likidoa eduki behar bait du.

Ikus ditzagun orain kreditu ahalbideak. Finantzamendua errazteko kreditu bat lortzen bada, horrek esan nahi du, gero urtean honenbesteko bat interesak ordaintzeko eta

prestamena amortizatzeko dedikatu behar dela. Ikus dezagun kreditua kitatzeko zein urteroko beharko litzatekeen guk azterturiko kooperatibetan.

—Kreditua 5 urtetarako eta % 4ean (kreditu preferentea) emanaz gero, bere geroko sarreretatik (segun zein kooperatiba mota) bost urtetan zehar, % 50etik 65era dedikatu beharko luke kreditu hori amortizatzeko.

—Kreditua, 5 urtetarako, baina % 8an emanaz gero, kreditua amortizatzeraz dedikatu beharreko sarrera zatiak % 59tik 70era bitartera igoko luke.

—Kreditua 10 urtetarako eta % 5ean izanez gero, % 29tik 35era amortizaziorako beharko litzateke, baina orain 10 urtetan zehar.

—Kreditua 10 urtetarako eta % 8an izanez gero, % 35etik 41era dedikatu beharko litzateke, hura ordaintzera 10 urtetan zehar.

Datu hauek argi diotenez, kooperatiba erdi efiziente bat egiteko behar diren inbertsioek haren ekoizpen ahalmenaren proportziotik arras kanpora dagoen pisua dakarte lehenengo urteetan eta horrela baserritarren tarte erabilgarriak ia hutsak dira. Egoera honek hainbat eta hainbat eragozpen dakar, baita elkarteko kideen artean elkartea desgaitera erraz eraman dezakeen ondoez haundia ere.

Baldin alde batetik kooperatibaren errentagarritasun laburra eta bestetik lehenen urteetan beharrezko zaion derrigorrezko pilaketa kontuan hartzen badugu, oso erraz ulertzen da zergatik orain arteko kooperatibek hain garaitza urria eduki duten. Inbertsioak derrigorrezkoak dira baserri efizienteagoak egiteko, baina era batera nekez eramateko moduko pisu bat sortzen dute. Gurrpil zoro baten aurrez gaude eta honelako baserri kolektiboek oso zaila zaie hortik irtetea. Epe luzeko kredituek bakarrik, kondizio oso onetan, konpon lezakete problema hau.

Honek beste zerbait gaineratzeraz garamatza, alegia, dena delakoagatik kooperatiba bat muntatzea erabakitzen bada, egingo diren inbertsioen eta hustirapen berriko eko-

nomian sortuko duten pisuaren arreta sakona eta azterketa zehatza behar dela. Oso zaila da bost edo sei baserriar pobrek aberats bat egitea, eta hau sarritan ahaztu egiten dela dirudi kooperatiba bat egiterakoan. Segur asko zentzuzkoago eta garaipide handiagokoa litzateke ondo begiratuta inbertitzea eta hustirapenak berak hartarako hondoak ematen dituen neurrian. Honek prozesu astirokoa baina eraginkorra dakarke, jendeak elkarri lagundu behintzat egingo diona beren lanetan, nahiz eta instalazio bikainetako baserri «eredu» bat ez izan... handik urte gutitara desegiterra behartua, lankideek bizkarreratu zaien pilaketa erritmoaren sakadari eutsi ezin diotelako.

Kooperatiben porrotean garrantzia eduki dezakeen azken faktore bat ikusteko geratzen zaigu, haien errentagarritasun motzaren oinharrian bait dago. Eta hauxe da: gehienean hemen aztertu ditugun bezalako kooperatiba ttikietan, gizon/lur erlazioa ez da bakar-baserritik asko aldatzen. Nahiz delako kooperatiba sorturik ere, pertsona bakoitzeko landu ahal daitekeen Ha mordera gehitzen ez den bitartean, oso zaila da lankideko tarte gordinak askorik igotzea. Bakar-baserritarren bost edo hamar Ha-ren lanketa eraginkorra bada, tarte gordinak nekez hobetuko da pertsona batzu elkartzeko hutsez *lehen baino lur gehiago lantzerik ez badute*. Zoritzarrez, Herrialde honetan baserriei lur gehiago dedikatzea diruz tentagarri izateko moduan oso zail ikusten da, mendian pinuaren eta ibarrean hirigintza zorrotzaren kompetentziari eutsi behar zaio eta. Honelako baserri egituraren perspektibak, beraz, ez dira fanfarrerria handirik jotzekoak.

Abelazkuntza estentsiboko sistemak

4. kapituluaren azaldu dugun nekazaritzan laguneko produktibitatea industrian baino askoz ttikiagoa dela; eta hortik dator nekazarien sarrerak industriako langileenak baino apalagoak izatea. Laguneko produktibitatea handitu ezik,

behintzat, ez dago baserriko errentarik gehitzerik, eta gainera komunitatea ere bere ahalmen produktibo osoa galtzen egongo da, bere lan eskua baserrira eta ez industriara dedikatzean*.

Baserrirako aztertu ditugun hainbat barietateren artean, baserriko lanaren emankortasuna handitzeko moduko zenbait era aztertu dugu, hala nola abeltegiak handitzea edo makineria gehitzea. Baina txit mugatuki bakarrik aztertu dugu laguneko emankortasuna handitzeko biderik garrantzikoenetariko bat, halegia, lagun bakoitzeko lur gehiago landu ahal izatea, baserri handiagoa hustiratzea. Horregatik orain lur hedadura handi bat lantzeak euskaldun baserritarrari zein ahalbide dakarkion aztertuko dugu.

Herrialdeko ingurunean, makineria sartzeara eragozten duen orografiatik, batez ere, baserritar familia batek hedadura handirik landu ahal izateko, era estentsiboko abelazkuntzako tekniketara jo beharko du. Hau da, abereak lurrean bertan hazi eta gizendu beharko ditu, abereak beti libre edukirik, hala okelarako abereen ugalmendurako behien bitartez, nola txahalen beren hazkuntzaz, gero urtekoztat saltzeko. Abelazkuntzako sistema hau da abere bakoitzeko lanik gutxien behar duena, nahiz eta, jakina, abere lotuentzat baino buruko lur proportzio askoz handiagoa behar izan. Laburki, *lanaren* baliakizuna lur gehiagoren eta abere gehiagoren artean zabaldu nahi da. Hau abere edo lur unitate bakoitzak oso lan esku guti behar izanda bakarrik lortzen da. Pertsona batek, esaterako, 80 behi hustiratu ahal baditu, nahiz eta bakoitzaren ekoizpena sei hustiratzen zituenean baino itikiagoa izan, baserritarraren egoera osoa hobea izango da, lehengo sarrerei eta irabaziei buruz.

Sistema hau gure estudioan sartzeko, honako modalitate hauk aztertu ditugu:

1. hustirapen intentsiboa.— Oraingo baserritar familia bati —orain arte bezala lan eginez, ikutilu moderno batez

(*) Industrian lan leku erabilgarriak badaudela emanik.

eta bigarren mekanikapen mailaz— zein aukera lekarkiokeen ikusten da 500 Ha lur edukitzeak, era estentsiboko abelazkuntzara dedikatzeak. Soluzioak berak izendatuko du zein den baldintza hauetan baserriaren tamainiarik onena.

2. hustirapen estentsiboa.—Baserriko problema, diruzkoa ezezik, baserriko lan baldintzen kontra egotea ere badenez gero, aurreko egoera bera aztertu zen, baina famili buruak bakarrik lan eginez, eta gainera industriako orduak berak bakarrik. Aldakin honetarako lurraren prezio aldatzeak ekarriko lituzkeen ondorioak ere aztertu ziren, errentan Ha-ko 5.000 pezetatik edo, berdin dena, Ha-ko 62.500 pezetatiko eros-preziotik 50.000 pezetatiko errenta prezioraino edo, berdin dena, metroko 62,50 pezetatiko eros-prezioraino. Hemen ere 500 Ha erabilgarriz.

3. hustirapen estentsiboa.—Baserritar familiari 5 langiletaraino kontratatzeak eta abere lotuen ikuilua 250 abere burutaraino heltzeko modua ematen zaio, hemen ere 500 Ha lur erabilgarriz. Aldakin hau entresa gisako hustirapen mota bat da, aurreko kapituluan aztertu genuenaren antzekoa.

4. hustirapen estentsiboa.—Errealitatetik hurbilago ibiltzeko, ihardun estentsibo eta intentsiboko baserri bat aztertzea pentsatu genuen, 10 Ha lur erabilgarriz bakarrik. Lana, familiak bakarrik egingo luke. Eredu honetaz ihardun estentsiboak eta Intentsiboak konbinatzearen komenentzia aztertu nahi genuen.

Irtenbideak

Lau mota hauetarako atera diren eta 9.4. kuadrantean datuzen irtenbideetatik alderdi hauk atera daitezke:

1. Ihardun intentsiborik izanez gero, berriro ere hauk dira nagusi soluzioan, eta gainera ihardun estentsiboegi agertzen ere ez diete uzten. 10 Ha lurrez, estentsiboetara baino Intentsiboetara eta abelazkuntzara dedikatzea hobea da. Hau erraz sumatzekoa zen, lur erabilgarri guti edukitzeak, probetxamendu intentsuagoa eskatzen bait du.

2. Baserriaren hedadura handitzean, ihardun estentsiboak indartsu agertzen dira. Lur askoko baserriak baserri estentsiboak bilakatzen dira batez ere, sistema tradizionalako txahal hazkuntzaz osaturik: baserri batek, industriako lanegun hutsez, 65 behi eta beste hainbeste txahal zain ditzake 80 Ha lurrez. Gaurko familia batek 98 behi eta 142 txahal hustira litzake 146 Ha lurrez, eta zazpi laguneko enpresa batek 301 behi eta 500 txahaletatik gora hustira litzake 424 Ha lurrez.

3. Hustirapen bakoitzeko tarte gordinak kasu guztietan handitu egiten dira, aurrerago ikusitako intentsibodunetan izan ezik, laguneko eta familiako zifrarik gorenak emanik estudio honetan aztertutako guztien artean. Laguneko produktibitatea handitzera joz gero, sistema hau da, izan ere, helburu horri egokien datorkiona.

4. Hala ere, lurraren prezioa bi bidertuz batera —Hako 10.000 pezetako errentari dagokiona—, ihardun estentsiboak soluziotik desagertu egiten dira, enpresa berri ere ihardun tradizioaletara bildurik eta hustiratu beharreko tamainia oso oso mozturik. Lurraren prezioa jaso ahala, hustirapeneko tamainia txikitu egiten da eta baldin lurra metroko 62,50 pezetatik gora bada, orduan baserriak 10 Ha lur bakarrik edukiko ditu eta tarte gordina baserri tradizionalakoa baino tikiagoa izango da. Horregatik, nekez pentsa daiteke hustirapen estentsiboa oraingo baldintzetan komenizkoa izan daitekeenik, zeren, baserriarrek ez bait dute lurrik emango, gutienez pinu sartuta hartuko luketenen azpitik.

5. Egera hau baieztatu egiten da, baldin, ohi denez, gure azterketan aukera kostuak sartzen eta lur gainki garbia bilatzen badugu. Lurra pinuen errentagarritasunaren prezioetik balioztatuz gero, hustirapen estentsiboak ezein kasutan ere ez dira errentagarriak.

Emaitza honetaz ez dugu zertan harritu, zeren, lurraren hustirapen apaleko egoera jotzen bait genuen haseratik eta, beraz, haren prezioa ezin handia izan. Pentsatzekoa zenez,

une bat heltzen da pertsonako produktibitatea —tarte garbia— oso garaia dena, baina ez faktore osagarriarena, lurra-rena. Lurrak, ordea, merkatuan oso prezio garaia duenez gero, kontradikzio handi baten aurrez aurkitzen gara; alde batetik baserritarrarentzat sarrera gizenak lortzeko soluzioaz, eta bestetik soluzio hori lortzea ezinezkotzen duen lurraren prezioaz.

9.4. kuadrua.—Hustirapen estentsiboen irtenbideak.

EREDUA	SOLUZIOAREN OSAKUNTZA																				
	Tarte gordina. Pezetak	Beharrezko inbertsioak Pezetak	Behiak lerreen. Udp	Urte txahalak	Oiloak. Buruak	Zerriak	Untxi emeak	Barazkiak	Arto/ind. m ²	Artoa	Pinua. Ha.	Berezko belardia. Ha.	Belardi artifizialak. Ha.	Arba. Ha.	Belar artoa Ha.	Urte txahal intentsioak	Txahalak + behiak larre hutsez	Urte txahalak larreen + pentxua	Ikultuaren zabal- trea. Unitatea	Luraren errenta. Ha.	Langileak.
1. Hust.	3.175.555	5.234.000		44,7	—	10	10		2.500			4,6			0,75		99,6			141	
2. Hust.	1.821.303	3.099.000	9,24	11	—	10	10		3.300		5,75				2,22		55,5	28,6		74,7	
	1.240.411	3.099.000	42,1	20	—	10	10		14.050	6.600	21		3,75		1,90			1		31,1	
	903.667	3.099.000	15,1	74	—	10	10		10.450		18				2			0,82		15,9	
	744.970	3.099.000	14,9	69	—	10	10		10.700	7.300	17				0,5			0,75		15,7	
	684.978	3.099.000	13,1	59	—	10	10		11.050		—		11,2					0,56		7,87	
	532.246	3.099.000	10	46	—	10	10		11.450		3,45		9					0,56		5,1	
3. Hust.	10.000.179	16.905.000		267	—	10	10		18.750			34			5,35		301			4,9	
4. Hust.	2.105.576	4.091.750	22,2		5,100	187	260		8.700	7.500		7,2		0,88		12,4		1	0,07	5	

una bor horietzag di bertsoz, di kuki, di go —farta gar-
 dia— eta gerala, eta baina eta hartori, eta garrarero, eta
 zena, eta at, eta go, eta gortutua, eta —prazis— garaia duenez
 gero, eta hori hori hori hori hori hori hori hori hori hori hori hori
 boratik bera, eta hori hori hori hori hori hori hori hori hori hori hori
 zena, eta hori hori hori hori hori hori hori hori hori hori hori hori
 kurrerari, eta hori hori hori hori hori hori hori hori hori hori hori hori

1968	1969	1970	1971	1972	1973	1974	1975	1976	1977	1978	1979	1980	1981	1982	1983	1984	1985
2.102.715	2.232.395	2.447.815	2.721.310	3.023.965	3.351.815	3.701.710	4.071.810	4.461.810	4.871.810	5.291.810	5.721.810	6.171.810	6.631.810	7.101.810	7.581.810	8.071.810	8.571.810
10.509.115	10.709.115	10.909.115	11.109.115	11.309.115	11.509.115	11.709.115	11.909.115	12.109.115	12.309.115	12.509.115	12.709.115	12.909.115	13.109.115	13.309.115	13.509.115	13.709.115	13.909.115
10.509.115	10.709.115	10.909.115	11.109.115	11.309.115	11.509.115	11.709.115	11.909.115	12.109.115	12.309.115	12.509.115	12.709.115	12.909.115	13.109.115	13.309.115	13.509.115	13.709.115	13.909.115
10.509.115	10.709.115	10.909.115	11.109.115	11.309.115	11.509.115	11.709.115	11.909.115	12.109.115	12.309.115	12.509.115	12.709.115	12.909.115	13.109.115	13.309.115	13.509.115	13.709.115	13.909.115
10.509.115	10.709.115	10.909.115	11.109.115	11.309.115	11.509.115	11.709.115	11.909.115	12.109.115	12.309.115	12.509.115	12.709.115	12.909.115	13.109.115	13.309.115	13.509.115	13.709.115	13.909.115
10.509.115	10.709.115	10.909.115	11.109.115	11.309.115	11.509.115	11.709.115	11.909.115	12.109.115	12.309.115	12.509.115	12.709.115	12.909.115	13.109.115	13.309.115	13.509.115	13.709.115	13.909.115
10.509.115	10.709.115	10.909.115	11.109.115	11.309.115	11.509.115	11.709.115	11.909.115	12.109.115	12.309.115	12.509.115	12.709.115	12.909.115	13.109.115	13.309.115	13.509.115	13.709.115	13.909.115
10.509.115	10.709.115	10.909.115	11.109.115	11.309.115	11.509.115	11.709.115	11.909.115	12.109.115	12.309.115	12.509.115	12.709.115	12.909.115	13.109.115	13.309.115	13.509.115	13.709.115	13.909.115
10.509.115	10.709.115	10.909.115	11.109.115	11.309.115	11.509.115	11.709.115	11.909.115	12.109.115	12.309.115	12.509.115	12.709.115	12.909.115	13.109.115	13.309.115	13.509.115	13.709.115	13.909.115
10.509.115	10.709.115	10.909.115	11.109.115	11.309.115	11.509.115	11.709.115	11.909.115	12.109.115	12.309.115	12.509.115	12.709.115	12.909.115	13.109.115	13.309.115	13.509.115	13.709.115	13.909.115
10.509.115	10.709.115	10.909.115	11.109.115	11.309.115	11.509.115	11.709.115	11.909.115	12.109.115	12.309.115	12.509.115	12.709.115	12.909.115	13.109.115	13.309.115	13.509.115	13.709.115	13.909.115
10.509.115	10.709.115	10.909.115	11.109.115	11.309.115	11.509.115	11.709.115	11.909.115	12.109.115	12.309.115	12.509.115	12.709.115	12.909.115	13.109.115	13.309.115	13.509.115	13.709.115	13.909.115
10.509.115	10.709.115	10.909.115	11.109.115	11.309.115	11.509.115	11.709.115	11.909.115	12.109.115	12.309.115	12.509.115	12.709.115	12.909.115	13.109.115	13.309.115	13.509.115	13.709.115	13.909.115
10.509.115	10.709.115	10.909.115	11.109.115	11.309.115	11.509.115	11.709.115	11.909.115	12.109.115	12.309.115	12.509.115	12.709.115	12.909.115	13.109.115	13.309.115	13.509.115	13.709.115	13.909.115
10.509.115	10.709.115	10.909.115	11.109.115	11.309.115	11.509.115	11.709.115	11.909.115	12.109.115	12.309.115	12.509.115	12.709.115	12.909.115	13.109.115	13.309.115	13.509.115	13.709.115	13.909.115
10.509.115	10.709.115	10.909.115	11.109.115	11.309.115	11.509.115	11.709.115	11.909.115	12.109.115	12.309.115	12.509.115	12.709.115	12.909.115	13.109.115	13.309.115	13.509.115	13.709.115	13.909.115
10.509.115	10.709.115	10.909.115	11.109.115	11.309.115	11.509.115	11.709.115	11.909.115	12.109.115	12.309.115	12.509.115	12.709.115	12.909.115	13.109.115	13.309.115	13.509.115	13.709.115	13.909.115
10.509.115	10.709.115	10.909.115	11.109.115	11.309.115	11.509.115	11.709.115	11.909.115	12.109.115	12.309.115	12.509.115	12.709.115	12.909.115	13.109.115	13.309.115	13.509.115	13.709.115	13.909.115
10.509.115	10.709.115	10.909.115	11.109.115	11.309.115	11.509.115	11.709.115	11.909.115	12.109.115	12.309.115	12.509.115	12.709.115	12.909.115	13.109.115	13.309.115	13.509.115	13.709.115	13.909.115

24. Knektu: Hurrebeu esietzebeu areitupideak

ELIZKIRIEN OIBUNTIA

10. Kapituluua Azterketa ekonomikoaren laburpena

Orain arte baserriko hainbeste ahalbide bakarka, bana-ka aztertu ditugu. Ondoren, barietate eta ahalbide guztiak batera harturik, baserria zertan den azaltzera goaz, ikuspen orokorrago honek, euskal baserriaren perspektibak hobeki ulertzeko eta neurtzeko modua eman diezagun.

Tarte gordina eta baserri gainki garbia

Orain arte irazkinduriko soluzioen arabera, baserrian atera daitezkeen tarte garbien balio desberdinak kontuan harturik, halegia, kasu bakoitzari dagokion arriskua, baserria-

ren tamainia, beharreko inbertsioa eta bariedade bakoitze-rako baserri gainki garbia, —lan honetako argitalpen osoko 10.1. kuadrutan biltzen dira elementuok—, hona zer ateraz-zen dugun:

1. 5 Ha-ko baserri batez lor daitekeen tarte gordina-ren zifrarik gorena 543.000 pezeta da esnea esnetxeari sal-duz gero, edo 871.000 esne guztia kontsumatzaileari zuzen salduz gero. Oraingo baldintzetan hauexek dira baserriko aukerarik onenak, baita urte txahalen okelak kiloko 212 pe-zetataraino igoko balu ere.

Honek esan nahi du, baserritarrak baserritar izanik, lu-rra pinu sartuta edo lantegian lan eginda baino, urtean 19.000 pezeta bakarrik gehiago ateratzen dituela lehen ka-suan, eta urtean 337.000 pezeta gehiago baserrian ekoizten duen esne guztia kontsumatzaileari zuzenki saldurik. Era batera, urtean 119.000 pezeta arriskatu behar ditu lehen kasuan eta 192.000 bigarreanean, eta gainera industrian bai-no, urtean 4.889 ordu gehiagoz lan egin. Lehen kasuan argi dago baserritar izateak ez duela merezi, eta aurrerantzako ere esan daiteke errentagarritasun bide handirik ez dagoela esnetxeek ordainduriko esne prezioak askoren bat igo ezik behintzat.

Beraz, bada, bost Ha-ko baserriak iraupide txikia duela.

2. Ez abeltegien zabaltzerik ez mekanikapenik ez da errentagarri 5 Ha-ko baserrirako. Bide hauetatik, beraz, ez dago hobetzerik pentsatzerik.

3. Erdizko dedikazioak 523.000 pezetatako tarte gordina eta 279.943 pezetatako gainki garbia ematen du. Beraz, egoera tentagarria dirudi. Baina horretarako industriako lanaldiaz *gainera*, 6.193 lan ordu behar dira. Famili buruak bere industriako lanaz eta pinadiez hilean 30.000 pezetatetik gorako sarrerak atera ahal izanez gero, prest egongo ote da bere burua eta familia hainbeste sakrifikatzeke, gehiago irabazteagatik? Ez segur asko, eta areago oraindik gazteriak asti librea bere gurasoek baino askoz gehiago baloratzen duela kontuan edukiz gero.

4. 10 Ha lur eduki eta ikuilua zabalduz gero, 881.000 pezetatako tarte gordina atera daiteke eta 241.000 pezetatako gainki garbia. Horretarako, baserrian milioi erditik gora inbertitu behar da eta 194.000 pezeta arriskatu. Gainera tarte hauk gaineko bost Ha gehigarriengatik ezer ez dela ordaindu behar emanda ateratzen dira. Erosi beharrekoak eta beraz ordaindu beharrekoak badira, berriro ere baserria ez da errentagarri gertatzen. Beraz 10 Ha dituen baserriari errentagarri zaio ikuilua zabaltzea, baina ez da errentagarri baserria handitzea, lurra metroko 25 pezetatan erosi behar bada.

5.— Baserritarrak baserri handiagoa badu, tarte gordina handitu egin behar jakina. Honela 15 Ha baditu, tarte gordina 1.124.000 pezetataraino heltzen da; 20 Ha baditu, 1.413.000raino eta 25 Ha baditu, milioi eta erdi inguruko sarrerak eta milioi erdiko baserri gaintia atera ditzake. Baina hau, lurra eduki badu eta erosi beharrik ez badu. Baldin lur gehigarria metroko 25 pezetatan erosi behar bada, aurreko egoeran bezala gaude, ez da errentagarria baserria 5 Ha-tatik gora handitzea. Hau da, bidezko den bezala, baserri handiak 5 Ha-ko baserri ttikiak baino tarte gordin handiagoa atera dezakeela, baina tarte gordinen diferentzia hori ez da nahikoa, baserria handitzeko lurra erosteko, eta hori lurra merkatuan agertuko den preziorik ttikienean. *Baldin lurra metroko 25 pezetatan edo gehiagotan erosi behar bada, ez du merezi baserria 5 Ha-tik gora handitzerik:* Lurra prezio apalagoetan erosi ahal bada bakarrik, merezi lezake lurra erosteak, baina hau nekez gertatuko da, zeren pinu sartuta metroko 25 pezetatan salduta bezalako errentagarritasuna bait du, eta horrela nekez salduko du inork prezio apalagoan.

6.—Ihardun intentsiborik sartu ezik, baserri kooperatibek ere ez diete industrian lan egin dezaketen baserritarrei irtenbiderik ematen. Kooperatiba, egun, industrian sartu ezin duten baserritarrei bakarrik zaie errentagarri.

Ihardun intentsiboei buruz, hauk errentagarri dira hala

bakar-baserritan nola kooperatibetan, baina hartarako behar aina diru edukiz gero, bakar-baserrian errentagarriago dira. Kooperatibako abantailak beharbada honetan daude, halagia, horren bitartez errazago lortzen direla behar diren kredituak eta ez dutela familiaren lanik behar. Baina azken alderdi honetarako, famili buruak industrian lan egitea hobe da. Herrialdean ohi diren baserri ttikiez eginiko kooperatibek ez bide dakarte baserrirako soluziorik, ez gure nekazaritzak behar duen bezalako antolamendu sistema modernorik eta eraginkorrik.

7.—Aurreko zifrak berriro laburturik hauxe dugu:

—ez du merezi baserria handitzeko lurra metroko 25 pezetatatan edo gehiagotan erosterik,

—5 Ha-ko baserrietan baserri gainkiaren zifrarik gorenak —obreroa gabe, baserritarra izateagatik sarrerak— hauexek dira:

a) esnea esnetxeari saldurik: urtean 19.000 pezeta.

b) esne guztia kontsumatzaileari zuzen saldurik: urtean 337.000 pezeta.

c) erdiko dedikazioan: urtean 279.000 pezeta.

—baserri handiek edo lurra oso merke erosi ahal dutenek bakarrik atera ditzakete 1.000.000 pezeta inguruko tarte gordinak eta milioi erdi inguruko gainki garbiak.

Etorkizunerako, zein aukera ematen dute zifra hauek?

Etorkizunean, baserriko semeak lanbidez hobeki koalifikaturik izango direla, eta beraz, industrian gehiago irabaz lezaketela, eta baserriko alabek beste adar batzutan lan egiten dutela eta ezkondata gero ere lanean segi dezaketela kontuan edukiz gero, hona 18 Ha-rainoko baserrian atera daitekeen gainkirik *goren goren*a urtean 120.000 pezeta dela, eta horretarako familiak industrian baino 2.000 ordu gehiagoz lan egin behar eta urtean 200.000 pezeta inguru arriskatu behar... Baserriaren etorkizunari buruzko erantzuna argi dago. Emakumeak lanik egin gabe ere, baserria pinu sarturik eta famili buruak hilean 25.000 pezeta iraba-

ziz, urtean 500.000 pezeta inguru dira eta horrela nola baserriko familiak urtean 6.000 ordu gehiagoz lan egingo du orduko 67 pezeta goiagatik? Zergatik egin behar dute hori baserritarrek, milioi erdi inguru irabazten duen edozein langile industrialari bere andrea etxe-laguntzaile bidaltzerik ez bazaio bururatzen, nahiz eta orduko kopuru hori baino handiagoa irabazi ahal izan?

8.—Lurraren prezioa metroko 25 pezeta izanda baserriak jarraipide handirik ez badu, zertan esanik ere ez lurraren prezioak igo ahala baserriaren ahalbideak beherantz doazela. Metroko 100dik 250 pezetara bitarteko lurraren salmenta prezioetarako ez dago baserrian irauteko ahalbide errentagarririk.

Etorkizunean beraz, ihardun tradizioaletan oinharrituriko baserriak ez duela bizipiderik uste dugu, nahiz eta mekanikatu, abeltegiak zabaldu, gai nagusien prezioek igo, nahiz kooperatibak sortu, Herrialdeko industriakuntza desagertzen ez bada behintzat eta lan esku guztia ezin irentsi.

Ba al dago beste ahalbiderik abere teknika berrien bidez edo barazkintzara jokatzu? Ikus dezagun:

1.—Barazkiak.—Barazkintzak Ha bat baino lur txikiagoan (7.500 m²) urtean 700.000 pezetatako tarte gordina ematen du eta 283.000 pezetatako galkia, lurrak pinu sartuta emango lukeenaren goitik. Badirudi beraz, lur hustirapenak iraun dezakeela etorkizunean, nahiz eta kontuan eduki behar honelako hustirapen batek urtean 280.000 pezetako arriskua duela. Gainera, tarte gordin hau lortzeko, gu esaten ari garen baserritar familia «normalean» nekez horni daitekeen lan esku espezialdua behar da. Segur asko bi pertsona nagusi eta espezialistaren dedikazio osoa beharko da, eta kasu horretan aipatu dugun baserri galkia —dedikazio osoko langile bakar baten presentzia jota atera duguna— guztiz desagertuko litzateke. Zalantzazkoa da, beraz, barazkintza geroaren irtenbidetzat askorik zabaltzea.

2.—Ihardun intentsiboak.—Hauen artean bitarikoak ditugu: a) abere ekoizpen mota batera beste gabe dedikaturiko

baserriak eta b) «ihardun intentsiboak» deritzatenak baserri tradizionaleko sistema barruan, hau da, urte txahalen, untzien, oiloen eta zerrien ekoizpen industriatua.

a) Urte txahalen, esne txahalen eta txahal kazkonduen eta ardien ekoizpenera beste gabe dedikaturiko hustirapenak.

Urte txahalak ez dira errentagarriak, txahal kazkonduek eta esne txahalak baliteke errentagarriak izatea, tarte gordinen eta gainkien zifra handi samarrak bait dituzte. Baina arrisku handia dute, horien merkatua oso laburra eta ez-baikoa bait da. Inbertsio hondorik duten eta arrisku hori jasateko prest dauden entresarientzat, plan errentagarria izan daiteke. Ardiak, hauen ekoizpena ikusi ditugun bietatik gorena bada, baserrirako arretagarriak gerta daitezke. Abantail bat dute gainera, lur erabilgarri guztia erabiltzen dutela.

b) «Ihardun intentsiboak».—Inbertitzeko hondo sendoak behar dituzte (3.500.000 pezetatik gora) eta arriskua ere handia, baina baldintzaile hauen barruan, zalantzarik gabe euskaldun baserritarrentzat ikusi ditugun ihardun guztietarik errentagarrienak dira. Desabantail gogor bat dute, halagia, lur guti behar dutela eta beraz «baserriaren irtenbidetzat» ez dutela balio.

3.—Ihardun estentsiboak.—Lurra oso merkea izanez gero, metroko 6,50etik behera, orduan honelako hustirapenak errentagarriak dira. Gero eta gutiago luraren prezioak igo ahala eta ez da errentagarri luraren prezioa pinuen errentagarritasunarekin berdina denean. Beraz baserritarrak berak erabaki behar badu, lurra pinu sartzea nahiago izango du abelazkuntza estentsibora dedikatzea baino.

4.—«Entrepresa gisako» hustirapenak, lan esku alokatua eta lur hedadura handiak behar dituztenak.

Hustirapen hauetako tarte gordinak, handiak dira, eta gainkiak milioitik gora daude beti, baina horretarako, inbertsio izugarriak behar dira eta arriskua ere galanta, gainkia bera ere gainditzera inokoa. Nekez izango da sei langile kon-

tratatzeko, 23 milioi inbertitzeko eta urtean 1.800.000 arris-
katzeko entpresaririk, lurra, lana eta kapitala beste nola-
bait erabilia aterako lukeena baino 1.400.000 pezeta baka-
rrik gehiago ateratzekotan. Gainera lurraren prezioa bi bi-
dertuz gero, gainkia desagertu egiten da. Eta nola lurraren
prezioa guk jarriaren doblea izatea oso litekeena den, gain-
kia guztiz zalantzazkoa da. Inbertsiorako kapital erabilgarri
horretaz ihardun intentsiboak askoz emankorragoak lirateke.
Horregatik, bidezkoago dirudi, entpresariak intentsiboak
hautatzea eta ez tamainia handiko entpresa hustirapena.

Ekoizpenaren osakera

Soluzio desberdinek ematen dituzten ekoizpen konbina-
ketetatik ateratzen diren alderdirik garrantzitsuenak haue-
xek dira:

—Lehen eta behin, gure baserrietan abelazkuntzaren ko-
mententzia guztiz indarturik geratzen da. Soluzio guztietan
abere ihardunak dira nagusi, gai landuen, barazkien eta
arto/indaben proportzio ttiki batez. Barazkiak soluzio guz-
tietan agertzen dira, baina kantitate ttikietan, segur asko
lan esku pila handia behar dutelako eta arrisku handia du-
telako.

—Abere gaitan, esne behien hustirapena errentaga-
rriago da okelarako urte txahalen hustirapena baino. Esne
behiak dira soluzio guztietako elementurik egonkorrenak,
hala dedikazio osoan nola erdizkoan, nahiz eta erdizkoan
urte txahalen proportzioa bestean baino handiagoa izan.

—Oraingo baserrietan urte txahalen ekoizpena ez da
hain errentagarria. Behietan txahaletan baino askoz gehiago
dago, eta txahalok aisa desagertzen dira soluziotik merka-
tuko baldintzak aldatzean. Esne txahalen eta txahal kazkon-
duen ekoizpena gobernu intentsiboan oso errentagarria dela
esan dugu, baina merkatu urria du. Kooperatiba sisteman
ez dira urte txahalak hain errentagarri ageri, eta baserri
estentsiboetan behia eta zazpi hilabeteko txahala batera
gomendatzen da, baina ez urte txahalik.

—Urte txahalak honelakoetan dira interesgarriago: a) «normaletik» gorako eta abeltegi zabalduen baserrietan. Baserriaren tamainia handitu ahala, okela ekoizpenaren komenentzia handituz doa esnearen orde, baserri ttikian alderantziz delarik. b) urte txahalen arriskua ttikitu ahal baltz, behiak baino errentagarriagoak lirateke. Guk ikusitako arriskua, batez ere, merkaturatzekoa dela kontuan edukirik, aisa ulertzen da okelaren merkaturatzea hobetzeak nolako garrantzia lukeen gai honen ekoizpenari eragin nahi izatekotan. Entrepresa gisako hustirapen handietan urtekoak behiak baino emankorrak dira. Honek esan nahi du hustirapen unitate handiak jartzea, interesgarri izan litekeela, kontsumatzaileek nahien duten abelgorri motaren ekoizpenari sakatzeko.


Esaniko guztitik ateratzen denez, urte txahalen errentagarritasuna oso gakotsua da oraingo baserrietan. Pentsuen prezioak igo eta okelaren prezioak berdin igo ezik, agur honelako abereen errentagarritasuna eta beraz ekoizpena. Bestalde, okelaren prezioak kiloko 60 pezetaraino igo arren, ez da horren ekoizpena handitzeko aukera handirik ageri. Ihardun intentsibodun baserriek urte txahalen batzu haziko dituzte, baina beste abereak —zerri, oilo eta untximeak— baino askoz gutiago. Baserri estentsiboetan ez da urte txahalik gomendatzen, txahal kazkondua baino. Oro har, urte txahalen errentagarritasun urria argi dago, zeren oso gutitan ageri bait da gai hau irtenbideko nagusi. Baserrien tamainia oso handiturik edo arriskua desagerturik edo entrepresa handiak eginik bakarrik bilakatzen da errentagarri urte txahalen hustirapena.

Beste gai batzu

Ez dugu belarki gairik aipatuko, ez bait dira azken galak eta horietaz beste toki batzutan ari izan bait gera.

Hauxe bakarrik esango dugu, halebria, baserri tradizionalaren tamainia handitzean, eskari handirik edukitzeko an-

tzik ez duten bi gai agertzen dira soluzioan, patatak eta indabak. Beraz baserriaren tamainia bakarrik handitzen bada, abeltegirik handitu gabe, baliteke hortik datorren ekoizpena komunitateak nahien dituen gaiena ez izatea. Horregatik, oso garrantzizkoa da sartu behar liratekeen faktore desberdinen sailak eta ez elementu bakartuak aztertzea, nahi diren emaitzak lortzekotan. Baserriaren tamainia handitzea hutsean hartzen bada, beharbada baserritarrarentzat errentagarri izango da, baina ez komunitatearen premiei dagokiena. Handikuntza horrek, abeltegiez batera, segur asko goi eskariko gaien ekoizpenera eramango du.



11. Kapitulua Egoeraren azterketa honen elementurik garrantzizkoenei begiraturik

Orain arte euskal nekazaritzaren azterketa baserriaren ikuspegitik azaldu dugu. Baina lan honetatik informazio handia atera dezakegu baserria bera ezezik baserriari eragiten dioten eta baserri sektoreak eragiten dien anitz elementuren egoera argitzen duten hainbat alderdiri buruz, hala nola alderdi guzti horien multzoa bait da baserriko egoera determinatzen duena. Elkarren arteko eragin horien lerro nagusiak aurreko azalpenean agertu baditugu ere, elementu horik banaka aztertzea komeni delakoan gaude. Horrela baserriko eta Herrialdeko egoeran duten garrantzia eta etorkizuna argiago geratuko da. Kapitulua honetan, beraz,

euskal nekazaritzari eragiten dioten eta horren geroko aurrerapena baldintzatzen duten elementu nagusiak banaka aztertuko ditugu.

Lurra

Zalantzarik gabe hauxe da baserriko etorkizun ahalgarria gehien determinatzen duen elementua. Eta ez baserrikoa bakarrik, Herrialdeko lur hustirapen guztikoa baizik, den bezalakoa dela, ondoren ikusiko dugunez.

Aurreko kapituluetatik dakigunez, 5 Ha-ko baserriak ez du etorkizunean irauteko modurik. Baserriaren tamalnia handitzea ere badakigu ez dela errentagarri, horretarako lurra metroko 25 pezetatan edo gehiagotan erosi behar bada. Baina pinadien errentagarritasuna, lurraren salmenta prezio horren parekoa da eta horregatik nekez salduko du inork lurrik muga horren azpitik. Soluziorik gabeko egoera da hau, *zeren lurraren Ha-ko errentagarritasun garbia * lur eta abere hustirapenean pinadietan baino ttikiagoa bait da*. Honek esan nahi du, industrian lan egin ahal izanez gero, lurra pinu sartzea baserriar izatea baino errentagarriago dela. Honela euskal lurrek pinuz jantzi behar erremedio gabe —aspaldiko urteotan gertatzen ari dena noski—, pinu sartzea zigortzeko politika bereziren bat hartzen ez bada behintzat edo Ha-ko errentagarritasun garbia handitzen ez bada, hartarako behar den lanik handitu gabe.

Ha-ko errentagarritasuna bi modutara bakarrik handi daiteke: lur unitate bakoitzeko produktibitate fisikoa handiturik, edo baserri prezioak handiturik. Lehenerako hobekuntza teknologiko sendoa behar da, Herrialde honetan larreen ekoizpena eta probetxamendura eta abere arrazen hobekuntzara eta egokierara jo beharko duena. Hauxe da, zalantzarik gabe inbestigazioa urgenteen eta beharrezkoen ageri den arloetariko bat. Baserri sailean aurrerapen tekno-

(*) Ha-ko baserri galkia, hura ekoizterazteko behar den lana eta kapitala deskontaturik.

logiko harrigarria izan dela dirudi eta hortik itxaropen handia dagoela gerora. Baina dauden ezagutzak euskal lurreko nekazaritzako eta abelazkuntzako baldintza konkretuetara egokitu behar dira eta alderdi hori oso makal dago oraindik, zeren, praktikan, inolako ahaleginik ez bait da alde horretarantz egiten.

Ha-ko errentagarritasuna handitzeko, bigarren modua gaien prezioa handitzea da, jakina. Baina kontuan eduki prezioen gorakada orokorrak ez duela balio, baizik gaien prezioek pinadiari buruz igo egin behar dutela. Hau da, lur eta abere gaien prezioek pinadienak baino proportzio haundiagoan igo behar dute, zeren, bestela, elkarren arteko erlazio egoerarik ez litzateke aldatuko. Prezioak etorkizunean zertan izango diren iragarri nahi badugu, eskarian eta ekoizpenean sumatzen diren mugimenduei begiratu behar-ko. Horrela, esnearen prezioa nekez igoko da, probableago delarik okelaren eta pinuen prezioak handitzea. Gai hauen eskaria gorantz joango dela dirudi, beraz baserriko abere gaien eta pinuaren arteko azken erlazioa jakiten ez dago erraz. Beraz, ez dirudi abere gaien alde eta pinuaren kontra hobekuntza handirik izango denik. Hau da, baserriko lurren errentagarritasuna pinadiari buruz abelazkuntzaren alde oso aldatzerik nekez espero daiteke. Bestalde, eta abere gaien prezioek asko igorik ere, galdera hau datorkigu: gorakada horik industriarako bizi-kostuaren oinharritzko elementuetariko bat izanik, ez ote dute gero industriako prezioen kiribila biziagotuko, nekazarien egiazko errenta lehenean geraerazirik, industriako gai gehiago erostera beharturik bait dago etengabe? Nekazaritzako problemen egiazko soluzioak prezioen etengabeko gorakadaz beste oinharri sendoagorik behar du.

Guzti honetaz gainera, esan beharra dago, baserria Ha-ko produktibitatearen handikuntza bidez handitzeko, handikuntza handi semarrak izan behar dutela. Ha-ko produktibitatearen % 3 edo 5eko handikuntza ez litzateke nahikoa lurraren eros-prezioa hornitzeko pinuen errentagarritasunari dagokion prezioaren goitik. Alderdi honek egoera oke-

rragotu egiten du, zeren, zalantzarik gabe errentagarritasunean gorakada handirik lortzeko, produktibitatearen edo prezioen gorakada handiak behar dira, eta maila horik lortzea oso zaila da.

Hau da, baserri lurraren produktibitate urriak ia ezinezko egiten duela baserria handitzeko lurra erostea, baita lurraren preziorako beherengo mugatzat jo daitekeen prezioan ere. Baina gainera zein ahalbide dago lurra benetan beherengo prezio horretan salgai aurkitzeko?

Ia bat ere ez. Gure Herrialdea, sarri esan dugunez, ttikia eta malkartsua da. Industriakuntza eta beraz hirigintza hedatzean, kale inguruak oso handitu dira, lurrarentzat prezio oso garalak eta etengabe gora doazenak ekarririk. Oso arretagarria litzateke lurren salerosketari buruzko datuak aztertzea industriakuntzarik handieneko inguruetan, hala nola Eibarren, Errenderian edo Hernanin, Gipuzkoa, eta Santurtzin, Portugaleten, Durangon eta Mungian, Bizkaian. Inguru hauetan eta beste askotan, lurraren prezioek tximistan igo dute, lurraren espekulazioa delarik Herrialdeko ihardun ekonomikorik errentagarrienetako bat. Hirigintzak eta industriakuntzak dakarten lur prezioen gorakada honetaz gainera, beste joera bat dago, oraindik ttikia baina handituz doana, bigarren opor edo atsedeen etxe bat edukitzekoa langile industrial modutsuen artean. Era berean kontuan eduki beharra dago mendira irteerak nolako indarra hartzen ari diren eta honela kanpo-establezimenduek gero eta garrantzi handiagoa dute gure herrietatik urruneko tokietan ere... Dinamika guzti honen ondorioz, lurraren prezioak, gure geografiako bazterrik baserritarretan ere, gorakada izugarria egin du. Eta are gehiago igo du baserritarren itxaropenak, bere lurren prezio ahalgarriari buruz. Hau da, baserritarrek beren lurrek asko balioko dutela uste dute eta ez daude saltzera prezio on-onetan izan ezik, baina gaur inork ez die hainbeste eskainiko. Bizitzeko lurrik saldu beharrik ez dutenez gero, presarik gabe daude prezio horik lortzeko edo hobetzeko zain. Lurrarentzat prezio handien itxaropenak gauza arretagarri bat dakar, halegia,

lur zati handi bat nolabait «jelaturik» geratzen da, ez da merkatura azaltzen, espero den preziorik inork eskaintzen ez duelako, baina ez du inork saltzerik ere nahi prezio horretantxe izan ezik. Lurraren merkaturia orduan hedadura txikiagotan mugatzen da, honek prezioak altxaerazten ditu, eta horrela itxaropenak egia bilaka daitezke.

Salbuespen bakarra, kale ingurutik edo baserri-turismozko lekuetatik oso urrun dauden lur gaizki komunikatuak dira. Honetan, baserri-tarra sinetsirik dago baserri asmoetarako bakarrik saldu ahal izango dituela. Beharbada, lur hauk pinuaren errentagarritasunaren pareko prezioetan sal litezke, edo gutxiagoan ere bai pinutarako balio ez badute. Baina pinutarako balio ez badute, baserri asmoetarako are gutiago balioa dute, baserri estentsiboetan ikusi ditugun larre abereen —ardien eta behien— bitartez probetxatu ezik behintzat. Honela izanez gero, lur merke hauek —inon badaude— baserri estentsiboen balorapena aldaerazi egingo lukete, lehen esaten ibili ginena baino askoz hoberago ekarriko, zeren orduan aukera kostua guk lpinia baino askoz apalagoa bait litzateke. Baina pinurik ere sartu ezin den lurretan, abereak larratzea gauza zaila izango da. Nola nahi ere, ahal izanez gero behintzat, baserri estentsiboak lurra probetxatzeko modu ederra lirateke.

Azkenez, egin ditugun irazkin eta guzti ere, esan beharra dago inoiz merkaturian badi-rela lurrarentzat metroko 25 pezetatik beherako prezioak. Zergatik hau? Gehienez lurrik merkeenak aurreko atalean esan bezalako mendi urru-nekoak dira; badira salerosketa txikiak ere egoera berezietan gertatzen direnak, hala nola jabea ondorengo gabe hiltzea, beren pinadiak saldu nahi dituzten jende adintsuak, pinuak hazi arte bizitzeko esperantzarik ez dutelako, etab. Baina hauek ez dute lurren benetako merkaturik prezio horietan egiten, hauk merkatu normaleko albuespenak besterik ez dira, eta normala lehen esan ditugun prezio garaia eta itxaropenak dira. Azken urteotan beren inguruetan saldu diren lurren prezioari buruz baserri-tarrek berek emandako informaziotik, eta alpatu berri ditugun lur malkartsuak

kenduta, prezioak gure irazkinetan erabili dugun behe-mugatik —metroko 25 pezeta— oso gora dabilta. Oso sarri gertatu da metroko 300dik 500era ibiltzea eta askotan —lur zelaia eta kaletik hurbil— metroko 1.000 pezetaraino eta hortik gora. Prezio guzti hauk 1973tik 1975aren azken-era bitarteko aldietan. Zifra hauetatik ateratzen denez, lurra metroko 25 pezetatan lortzeko modurik ia ez dago.

Laburturik, lur gose handiko industria lekuan sarturik dagoen nekazaritzaren egoerak ia konpondu ezineko problema sorrerazten du baserriak handitzeko kontuan, zeren lur merkatuan nagusi diren prezioak hiri eta etxagintza lurrarenak bait dira, baserriko produktibitateak urrunetik ere hornitu ezineko prezioak noski. Gure kasua latzagoa da oraindik, zeren baserriko produktibitate garbiek pinadien produktibitateak ere ezin bait dute hartu, eta horixe da baserri lurraren beheengo prezioa. Beraz, baserri produktibitatearen eta lurraren jabego pribatuaren egoera honetan ez dago beste erremediorik, baserri errentagarriak eta baserri sektorera dedikaturiko baliakizunei basoz beste erabilera bat emateko modukoak sortzea guztiz ezineko dela ateratzea baizik. Ala Herrialdea pinuztaturik ikusi behar dugu —prozesu hau biribiltzeko ez da ia askorik falta— ala lurraren produktibitatea pinadiena baino askoz gorago altxatzeko moduren batzu aurkitu behar dira, ala baserri lurraren jabego pribatua amaitu egin behar da, baserriak iraungo badu. Alderantziz, lurraren jabego pribatuak irautekotan, aztertu ditugun lur hustirapenek ez dute irauterik.

Beharrezko kapitala, honen finantzaketa, kreditua

Kapital premiak aztertzean, baserri tradizionalako egoera eta modernakuntza nahi duten baserrietako premiak bereizi beharra dago.

Baserri tradizionalari buruz, eta pixka bat errazkiegi generaldurik, finantzaketa problema handirik ez dagoela esan daiteke ez bertako kapital geldirako, urteen eta ur-

teen buruan apurka-apurka bildua, ez kapital mugikorrerako. Ikus bestela Herrialdean zeinen guti jotzen den kreditua eta nola ia baserritar guztiek dituzten beren aurrezpenak Herrialdeko finantza erakundeetan sarturik.

Gai hau gero eta arduragarriago da baserriaren modernakuntza eta eraldakuntza bide desberdinak aztertzean. Modernakuntza prozesu batzu hasiz gero, inbertsio dezenteak behar dira. Beharrezkotzat jo ditugun zifrak, zabaltze kasuko lur erosketa sartu gabe, 750.000 pezetatik 3.000.000-ra bitartean dabilta, berrikuntza ttikiak ala handiak egin kontu. Intentsiboak edo estentsiboak sartuz gero berriz, inbertsio zifrak askoz gorago doaz, ia 6.000.000 pezetaraino heldurik muga gabeko intentsiboentzat. Eta baserri elkartuek edo entrepresa gisakoek, bakoitzaren atalean esanik utzi dugunez, oraindik zifra askoz handiagoak ematen dituzte.

Edozein ihardun ekonomikotako finantza problema aztertzean, bi alderdi kontuan eduki behar dira: pentsaturiko inbertsioaren errentagarritasuna eta hura hasteko behar diren hondoak edukitzea. Baserrirako ikusi ditugun inbertsioetan errentagarritasuna hornitzen zen *. Gakoa bestea zen, hategia, inbertitzen hasteko hondoak eduki ala ez. Baserri tradizionaleko —haxe bait da modernatu nahi dena— baserritarrak urtean milioi erdi inguruko tarte gordinak ateratzen ditu. Hortik ordaindu behar ditu gastu finkoak eta amortizaketak eta bera eta bere familia bizi. Guzti hau kontuan edukiz gero, euskaldun baserritarraren pilaketa ahalmena ezin handia izan. Honen aurrean, esan berri dugu ia kasu guztietan beharreko inbertsioek milioitik gora eta sarritan askoz gorago daramatela. Beraz aisa atera daiteke baserritarrak ez duela bere kontura baserria ganoraz modernatzen hasteko finantzaketarik, nahiz eta inbertsio errentagarria izan. Kanpoko hondoetara jo beharko du.

Azter dezagun, bada, baserritarrentzako kreditu erabilgarria. Lan honen testu nagusian beharrezko inbertsioak

(*) Modernakuntza errentagarri ez den 5 Ha-ko baserrian izan ezik.

baserritarrak eska ditzakeen kredituez gonbaratzen dira, honako ondorio hauetara heldurik:

—makineriarako kreditu erabilgarriak makinaren finantzaketa premiak ongi horni ditzake.

—eraikuntza ere horni liteke, «etxaldeetarako eta baserri industrietarako» kreditua lortuz gero.

—lurra erosteko, errentagarri ez izanez gainera, nekezago lortzen da beharrezko kreditua, horretarako ere «etxaldeetarako eta baserri industrietarako» eskaintzen dena aplikatu ezik behintzat.

—abereetarako kreditu erabilgarriak ez dira nahikoa.

Hau da, eraikuntzako eta makineriako premiak kredituz horni daitezke, lur erosketako finantzaketa gakotsuagoa da, eta azkenez, abereak —oraingo baserri politikaren oinharria— gehitzeko finantzaketa premiak nekezen hornitzekoak dira.

Hau baserritarrak eskaturiko kredituak eman egiten zaizkiola jorik. Baliteke paperean behar aina kreditu egonik ere, hauk halako erizpidez banatzea, non baserritarrik ausartenak lortu ezinik geratzea. Esaterako, kreditu askotarako, lurraren jabegoaren garrantzia eskatzen dute eta horrela jabeak ez diren baserritarrak deskalifikaturik gertatu behar. Eta gure Herrialdean okerrago dena, baserritar gazteek, bihar-etzi beren baserriaren jabe izango badira ere, oraindik ez dute haren titulutasunik, gurasoen eskuetan dagoelako, eta hauk sarritan ez daude gertu, eskatzeko kredituaren garrantiatzat titulutasun hura seme-alabei prestatzeko. Gehienez, baserri kreditua ematerakoan, egiazko ondasunen garrantiei gehiago begiratzen zaie eragiketaren geroko errentagarritasunari baino. Sarri gertatzen da etxaguntza handiko baina enpresa gaitasun txikiko baserritarrari kreditu bat ematea, gaitasun handiko eta aurrerapen proiektu arretagarriak dituen baserritar gazteari, ordea, ukatzea, lantzen dituen lurren titulutasunik ez duelako. Kooperatibei ere berdin gerta dakieke, kideak lur jabeak ez badira. Alderdi hau oso garrantzitsua dela uste dugu

eta baserri kredituak ematen dituzten erakundeek beren erizpideak serioski birplanteatu behar lituzketela hartzen duten zenbait kreditu eskarien neurketari buruz*.

Nola nahi, baliteke horren beharrik ez egotea ere. Herrialdeko berezitasunik handienetariko bat, hain zuzen, kreditu erabilgarrira oso guti jotzea da. Kontsultaturiko bi kreditu-etxe handietariko batek zioenez, ESKATURIKO baserri kredituak hain guti dira, non ia bateztzat jotzen bait dituzte; eta bigarrenak eman zigun informazio kantitatezkoak zioenez, Gipuzkoan 1972an EMANIKO baserri kredituak 17.000.000tik behera ziren. Hortik atera baserri kredituak zeinen garrantzi urria duen gure probintzietan. Alderdi honek, gure ustez, hemen irazkinduriko beste zenbait alderdi baitetsi egiten du: a) 5 Ha-ko baserriaren ahalbiderik eza, bere hobekuntzetarako kreditura jotzerik bururatzen ere uzten ez duena. b) finantza premiarik eza baserri tradizionalan, eta c) kreditu erabilgarriak eta hauk emateko erizpideak, erabiltzeko prest dauden lur entrepresari eta erakunde apurren premiei egokiturik gabe egotea.

Teknologia

Baserri familiarrak Herrialde honetan iraupiderik edukitzekotan, baserriko produktibitatearen gorakada handi bat ekar lezakeen aurrerapen teknologikoan dago gorabehera. Gure ustez hauxe ere ez litzateke nahikoa baserria salbatzeko, baina nola nahi ere, baserri familiarraren iraupiderik nahi badugu, teknologiaren eboluzioa da gehien begiratu behar zaion alderdia.

Era batera, bide honetan egiten diren ahaleginek *efizientzia urria* dutela ikusi beharra dago. *Herrialdeari dago-kion* informazio tekniko bilatzerakoan, lorturiko emaitzak oso etsigarriak dira. Informazio teknologikorako bi erakunde iturri bakarrik daude: alde batetik «Extensión Agraria»

(*) Ekintza Batuko eta Abere Desarrolloko programetan pauso bat eman dute honuntz, ez bait da bahiturazko garantiarik edo baserriaren jabetasunik eskatzen kredituak eta laguntzak emateko.

delakoa. Honek, agenteen ahalegin eta guzti ere, Estatuko lurralde osorako ematen den informazioa ematen du, agenteek beren lanean ipintzen duten arduraz hobekiago edo gaizkiago egokitua. Bestetik, badira bide honetan ahalegin batzu egiten ari diren erakunde ofizial edo para-ofizial batzu ere, hala nola Beyenaren *Eredu Ikuilua*, Bizkaian, edo Gipuzkoako Diputazioaren *Fraisoroko Ikuilua*, edo *Zabalegiko Baserri Eskola*, Donostian, nahiz eta baserritarrek oso gutitan aipatzen dituzten horik beren ezagutza teknologikoen iturritzat. Sarritan ezagutza teknologiko hori ez da berari dagokion neurketa ekonomikoz biribiltzen, eta horregatik, askotan alferriko informazioa gertatzen da.

Badira aurrerapen teknologikoa emateko beste iturri desformalago batzu ere. Honetan albaiteruak oso garrantzitsuak dira. Egun abereen janari gaiak, edo ongariak saltzen dituzten etxeek ere eginkizun handia dute, baserritarrei lankera berriak eta batez ere abereen gobernaketa berriak entseia erazten bait dizkiete. Hala ere, beren berezko izatez, iturri hauei beren gaia saltzea gehiago ardura zaie, baserritarren benetako aurrerapen ekonomikoa baino.

Baserritarren jokabidean ardura handia ikusten da, lan eskua aurrezteko balio duten berrikuntzetarako, batez ere makina berri kontuan. Bestalde baserritarrek ez dute bestelako ezagutza zientziazkorik jakiteko gogo handirik; adibidez, abereen gobernu sistemak. Gure ustez, lehen berrikuntza sailetik bigarrenetik baino hobekuntza askoz handiagoak espero dituztelako da hau batez ere, eta ez baserritarren psikologiaren berezitasun bakanengatik. Herrialdeko baserritarrentzat uztagailu baten abantailak ikustea askoz errazago da abereen gobernu sistematik egokiena zein den egiaztatzea baino. Eta ez bakarrik egiaztapena lehenengoan bigarrenean baino azkarragoa delako, sarritan bigarren berrikuntz motan informazio okerra eman zaio-lako baizik. Horregatik, baserritarrak askoz erreparatu haundiagoa du berak agudo neurtu ezin dituen «hobekuntza» horietaz, eta ez ditu martxan jarriko beste baserritarren bategen benetan onak direla esan arte.

Herrialdeko nekazaritzan egiten diren aurrerapen teknologikoak guztiz azalki, han-hemenka eta inolako koordinatarik edo egitamurik gabe egiten direla uste dugu. Ez dago inola ere helburu jakinik ez helburu horik lortzeko egitamu koherenterik. Hauxe da, ordea, Administrazio Zentralean beharreko erabakirik ez denez gero, Herrialdeko erakundeek lan ederra egin lezaketen arlo bat. Herrialdeko erakundeak Herrialderako aurrerapen teknologikorik egokiena koordinatzeko eta aztertzeko ikerketa etxe bat sostengatzeko prest baleude, euskal nekazaritzak, eta segur asko Estatu osokoak, norabide eta laguntza txit baliotsua hartuko luke.

Arriskua eta merkaturatze sistemak

Arriskuaren eta merkaturatze sistemen garrantzia luze irazkindu eta nabarmendu dugu. Baserri tradizionalerako gure oinharri ereduan argi ageri da baserritarren erabakietan arriskuaren eraginak zein garrantzi duen. Inguruko baserritarren egoeran desegurtasunak garrantzi izugarria duela ikusten da. Beraz, arreta handiz begiratu behar zaio.

Desegurtasunak bi alderditan du, batez ere, garrantzia: lor daitekeen tarte gordinean eta gaiaren osakuntzan. Lehen baserritarrari dagokio zuzenki, bigarrena, komunitateari. Baserritarrak, arrisku handikoak direlako, gai batzu lortzen ez baditu, irabaziak ere izan litezkeen baino apalagoak izango dira. Baserritarrak gai «seguruak» ekoiztea erabakitzen du, eta horregatik prezio bat ordaintzen du sarrera apalagoak harturik. Inork ez dezake baserritarra «zentzugabetzat» jo, irabazi apalagoak baina seguruagoak nahi izategatik. Egoera desegurutik berari datorkio okerrik handiena, ezin bait du goragoko maila ekonomikorik atzeman, nahiz eta hartarako elementu produktiboak eduki, baina arriskutsuegia izaki bere ahalmen ekonomikorako.

Baina desegurtasuna komunitatearentzat ere kaltegarri izan daiteke, ekoizten diren gaiak nahien dituenak ez bada. Esaterako, gure Herrialdean kontsumurako okela ekoiz-

tea komeniako litzatekeela dirudi Estatu mailan. Baserritarri, ordea, desegurtasunaren erruz, esnea ekoiztea komeniako zaio. Desegurtasunak, beraz, oker galanta ekar diezaioke komunitateari, okelaren prezioak kantitate handiagoetan ekoizturik baino garestiagoak izango bait dira.

Desegurtasunak zein ondorio duen neurtzeko, hala baserritarrentzat nola komunitatearentzat, 11.1. kuadrutan azaltzen ditugu arrisku mailaren aldakuntzek garrantzirik handiena duten ereduak, eta gonbarazio bat egiten dugu urte txahalen prezioan aldakuntza bat eginda lor daitezkeen emaitzekin.

Kuadruko «tarte gordin segurua» habeak tarte gordin osoari kasu bakoitzean arriskutzen den kantitatea kenduta esan nahi du, hau da, baserritarrak hartuko lukeen kantitatea, galerak baserritarrak uste dituenak izanez gero.

Kuadru honetatik hona zer ateratzen den:

1.—«tarte gordina» eta «tarte gordin segurua» gonbaraturik, tarte gordinei bakarrik begiratuta hain tentagarri ziruditen programa batzuk, zati ederra galtzen dutela ikusten da, duten desegurtasunari begiratzuz gero. Esaterako, dedikazio osoko baserrian arrisku mailak % 50etik gora—kuadruko 12. ilada— igoten badu, tarte «segurua» baserri normalaren oso azpitik geratzen da, nahiz eta tarte gordin osoa askoz handiagoa izan. Kuadruak beste hau ere ematen du, halegia, baldin baserritarrak, tarte gordin garaigoaren itxaropenak bultzaturik, konbinaketa arriskutsuagorik ekoiztea erabakitzen badu, galera handiak ukan ditzake baserritarraren uste negatiboak betetzen badira.

2.—3., 9. eta 10. iladetako ereduak ez dute esan nahi, baserritarrak jasaniko arriskuaren muga osoa aldatzen denik, zenbait gairen arriskua gutxitzen edo desagertzen dela baizik. 3. iladak agertzen duenez, zenbait gairen—urte txahalen— arriskua pixka bat txikitzeak ez dakar gorabehera handirik ez ekoizpen konbinaketarako ez tarte gordinerako. Gaiaren arriskua guztiz desagertzen bada, ordea, —9. eta 10. iladak— tarte eta ekoizpenaren osakuntza oso aldatzen dira, bietan urte txahalen ekoizpena oso handiturik.

11.1. *kuadrua.—Ekoizpeneko diferentziak desegurtasun mailen arabera*

Eredua	Tarte gordina	Tarte gordin «segurua» (Gordina-desegurtasuna)	Zenbat urte txahal
1. Oinharritzko eredia	543.000	424.000	4
2. Erdizko dedikazio normaleko eredia	523.000	408.000	7
3. Urte txahalen arriskua erdia dela	567.000	442.000	7,2
4. Erdizko dedikazioa, arriskua % 30	638.000	447.000	9,9
5. » » » % 40	679.000	408.000	22,5
6. » » » % 50	740.000	370.000	35
7. » » » % 60	762.000	305.000	40
8. Dedikazio osoa » % 37,5	780.000	487.000	15
9. Urte txahalak desegurtasun gabe	794.000	619.000	39
10. Barazkiak desegurtasun gabe	841.000	656.000	30,5
11. Urte txahalak, hustirapen bakarra	856.000	378.000	250
12. Baserria, arriskua % 53tik 100era	860.000	405.000	38
13. Kazkonduak, hustirapen bakarra	1.557.000	563.000	300
14. Esne txahalak, » »	2.000.000	740.000	350
15. Okelaren prezioa kiloa 112 pezeta	540.000	421.000	—
16. » » » 132 »	543.000	424.000	4
17. » » » 152 »	574.000	448.000	7
18. » » » 172 »	609.000	475.000	7
19. » » » 192 »	689.000	538.000	21
20. » » » 212 »	778.000	607.000	21

3.—Arrisku mailak aldatuak lortzen diren emaitzak eta urte txahalen prezioak aldatuak lortzen direnak gonbaratuak gero, hona zer dugun.

—arrisku egoeran hobekuntza ttiki batek —3. ilada— okelaren prezioa % 30eraino gehitzeak bezalako ondorio berdinak ditu ekoizpenean —18. ilada—.

—gairik garrantzizkoenen arriskua oso ttikituz gero, urte txahalen ekoizpena oso gehiagotzen da, okelaren prezioak % 45 edo 60 igota baino.

—baserritarren arrisku ahalmena edo gogoia handituz gero, urte txahalen ekoizpena ere oso handitzen da.

Guzti honetatik ateratzen da arriskua elementu nagusi bat dela baserritarren sarreretan eta egingo duen ekoizpen konbinaketan. Beraz, gai batzuren ekoizpena, gure kasuan, urte txahalena, akuilatu nahi bada, gakorik haundietariko bat gai honen arriskua nola eliminatu dela dirudi. Ezinezkoa da, jakina, desegurtasuna lur eta abere ekoizpenetik arras kentzea, baina bai dela oso litekeena desegurtasunaren merkatal alderdia oso txikitzea merkaturatze sare egoki baten bidez. Gure estudiotik behin eta berriro ateratzen dena da, gai nagusietarako merkaturatze sistema egokiak zeinen garrantzi handia duen. Ez dago inola ere ihardun produktiboaren plangintza egokirik egiterik, gaien merkatuetan prezioek gorabehera handiak eta sarri badituzte. Esaterako, hilabete eta erdiren barruan, 1972ko Abuztu-Irailean, urte txahalen kanaleko kilo prezioa 110 pezetatik 130era pasa zen eta berriro 120ra. 1973ko Otsailetik Irailera bitartean kanaleko kilo prezioa 130etik 150era joan zen eta berriro 130era. Kontuan eduki *kilo prezioaren* aldakuntzak direla eta horrek txahal bakoitzeko 5.000 pezetatik gorako aldakuntza dakarrela sarrera osoan. Horretaz gainera, abere bakoitzeko tarte osoa 12.000 pezeta dela kontuan edukiz gero, argi dago aldakuntza hauk direla eta, nolako aldea dagoen gaien errentagarritasunean. Gorabehera hauetaz ez dago inolako plangintzarik egiterik eta baserritarrek zentzuzko irtenbide bakarrera jotzen du, hategia, sistema egonkor samar bat planifikatu, nahiz eta sarrera ahalgarri osoak tikiagoak izan.

Merkaturatze sistema segurua jartzearen garrantzia argi dago esnetxeek gai honen ekoizpenean eduki duten garrantziari begiratuta. 1959ko esne ekoizpena 100tzat joz gero, 1969-70 bitartean Gurelesak 906 biltzen zuen, eta «Beyenak» 515 *. Geroagoko urteetan kantitate hauk 666ra eta

(*) Kontuan eduki «Beyena» ez dela Bizkaiko esnetxe bakarra.

400era jauzten dira 1974ean, baina nolana ere zifra hauei kontsumatzaileei zuzenki salduak erantsiz gero, argi dago esne ekoizpenak nolako gorakada izugarria egin duen, eta honetan, zalantzarik gabe, elementurik eraginkorrena merkatu segurua egotea izan da.

Baliteke, irakurle askok gure irazkinari muzin egitea, gauza jakina bait da baserritarrek esnetxeen jokabidea zenbat kritikatzan duten. Esnetxeen eginkizuna ikustean, bi gauza desberdin bereizi behar dira: alde batetik, horien existentzia, esnetxeak egote hutsa, gure azterketatik alderdi oso ona iruditzen zaiguna; eta bestetik, horien funtzionamendua. Gure ustez, hauxe da hainbeste maiseatzen den kontua, baina hau ez da estudio honen arloan sartzen. Bigarren alderdi honetan, baliteke, esnetxeen jokabideari egiten zaizkion maiseoak arras zuzenak izatea, baina hemen lehen alderdiari gagozkio eta honetan esnetxeen izateak nolako alderdi positiboak dituen aitortu beharra dago. Esnetxeen eginkizunari begiratzean, baliteke baserritarrak hauen esne prezioa kontsumatzaileari zuzen saltzen zaionarekin gonbaratzea ere. Kasu honetan, baserritarrak zerbait ahazten du, halegia, esne ekoizpen guztia zuzen saldu behar balitz, merkatuaren irensmena askoz tikiagoa litzatekeela. Beraz, esnetxeen funtzionamenduan akats gogorak badaude ere, gauza bat da alderdi hau eta beste bat horien izatea, gure emaitzei begiraturik oso positibotzat jo behar duguna, noski.

Beharbada irakurleak abelgorri merkatua ere arauturik dagoela uste izango du. Izparringiek eta beste organismo batzuk sarri aipatzen dituzte okelaren «garanti prezioak». Baina 3. kapituluaz luze azaldu dugunez, sistema honek ez du funtzionatzen, arrazoien hauengatik batez ere:

—garanti prezioak merkatuko prezioetatik urrunegi daude,

—ez da jarraituki eta sistemazki funtzionatzen duen sistema. Prezioak asko eroritakoan bakarrik mugitzen da eta sarritan atzerapen handiz.

—sistemaren jokia nahasia eta konplikatua da, tramite burokratiko handiak bait daude.

Hau da, praktikan okelarentzat ez dagoela benetako garrantiazko merkaturik, eta honela okela ekoizpena desegurtasun latzaren menpe dago eta beraz ekoiztu ere gutiago ekoizten da.

Okela ekoizpenaz zerikusia duen eta okela ekoizpenean faktore negatiko gisa jokatzen duen beste zer garrantzizko bat ere badago, halegia, hazkuntzarako txahal jaio berrien eskaintza urria. Baserrian bertan jaiotako abereak hazten diren bitartean ez dago problemarik, baina baserritarrak zenbat eta urte txahalen hazkuntzara gehiago jo, beharrezko abereen lorpena oztopo gogorrago bilaka daiteke. Zein eta ekoizpen eskala handiagoa izan, hain eta handiagoa, hartarako abere egokiak lortzeko lanak. Urte txahalen hazitzailaren desegurtasuna berretu besterik ez du egiten honek, zeren, bere ekoizpenerako behar duen «lehengaia» lortzerik ez badu, sistema horrek galera handia ekar bait diezaioke. Abelgorrikiaren merkaturik begiratzean, beraz, oso kontuan hartzekoa da, gai bukatuarenak bakarrik ez estudiatzea eta aztertzea, baizik eta baita elementu nagusiaren horniketa egokia seguratzten dutenak ere, ekoizpen modu horretan espezialtzea hautatu duen baserritarrak ekoizpen jarraitua eta segurua ukan dezan.

Laburturik: Desegurtasuna oztoporik handienetarikoa izan daiteke zenbait gairen ekoizpenerako. Bestalde, gai horiexek dira gero eta eskatuagoak eta baserri politika horiexen ekoizpena bultzatzen ari da. Beraz, desegurtasuna txikitzea faktore nagusietariko bat izan daiteke, baserri joriagoak eta kontsumuaren premietara hobeki egokituriko ekoizpena lortzeko, eta horretarako elementurik aurrenetarikoa merkaturatze sistema egokiak jartzea dirudi. Abelgorrikiaren ekoizpenari begiraturik batez ere, merkatu erregular bat eta merkatu librekoen antzera samar dabilzan prezio garantizatuak antolatzea izan daiteke horren ekoizpena handitzeko elementu nagusietariko bat.

12. Kapituluia

Ondorioak eta zenbait gomendio

Euskal baserriaren azterketa luze honen ondoren, estudio hau sorrerazi duen galdera nagusiari erantzun beharrean gaude: zein perspektiba du baserriak etorkizunerantz?

Erantzuna era batera bistakoa eta zaila da. Bistakoa, zeren handi-handika behintzat azaldu dugun azterketatik argi argi ateratzen bait da. Zaila ere bai, zeren erantzun orokorrik egotekotan, beldur gara guztiz ezezkoa izango ez ote den, euskal baserriak orain arte bezala, etorkizunean ere euskal baserri bizitzako ardatza eta nekazaritzako unitatea izaten jarraitzeko dituen ahalbideei buruz. Sentimenduz oso zaila da baserria bezalako erakunde hain maite eta

gure historian hain errotuaren azkena iragartzea, zaila den bezala lagun maite baten heriotza sinestea, nahiz eta datu objektibo guztiek horixe eman.

Hala ere, Euskal Herriari mesede txikia egingo genioke, baldin, sentimenduzko erromantismoengatik, egoera objektibo guztiz egiazko hau estaliko eta baserriaren eboluzio probablea, edozein azterketa inpartzialek biziki erakusten duen joera, agertu gabe utziko bagenu. Eta joera hori ez da besterik, baserria, gaur ezagutzen dugun bezala, nekazaritzako unitate ekonomiko bezala, segur asko galdu egingo dela baizik. Guk honelaxe ulertzen dugu estudio hone-tatik ateratzen den egoera:

Baserriak ez du zereginik etorkizunean. Baserri ttikiak, gaur dagoen modukoak, —ihardun intentsiboetan izan ezik, baina hauek, hainbeste bider esan dugunez, ez dute baserriko problemarik konpontzen—, ezin dezake lan industrialeko eta lur kapitalen erabilera alternatiboko sarreren pareko errentarik inola ere eman. Horregatik belaunaldi berriek industriako lanera joko dute, nekazaritzari ekin beharrean.

Tamainia handiagoko baserrietan bi kasu bereizi behar dira: beharreko lur gehigarria erosi beharko luketenak eta ukan daukatenak.

Beren tamainia handitzeko behar den lurra erosi beharra duten baserrientzat, lurraren prezio garestiek soluzio hau guztiz hankaz gora botatzen dute. Areago oraindik, lurra salmenta preziorik merkeenean —pinuen errentagarritasunari dagokiona noski— erosi ahal balitz ere, ez lukeela erosterik mereziko ikusi dugu, baserria handitzeagatik. Baita esan dugu, pinuen errentagarritasuna baino prezio apalagoan lurra errentan egotea zaila dela eta, beraz, errentan hartzeak ere ez dakar soluziorik. Guzti honegatik oraingo baserri ttikiek handi bilakatzeko modurik ez dutela atera dezakegu.

Bigarren, egun bertan lur gehiago eduki duten baserriak badaude egon, nahiz eta oso guti. Egitura kapituluan ikus daitekeenez, ba ote daitezke hauk geroko nekazaritzaren

muinak izan, lur entrepresa bilakaturik, inbertsio handiez, zenbait lan esku alokatuz eta espezialpen produktibo zorrotzez? European, nekazaritza aurreratugoko laterrietan —Ingalaterran esaterako— badira lur ekoizpeneko entpresak industriako elkarte anonimoen antz handiagoa dutenak, famili egiturako baserri frantsesena baino. Gure baserriak eduki ote lezake aurrerapenik bide horietatik?

«Baserriaren modernakuntza» kapituluan aztertu dugu, baserriak zein eraldabide duen gorago aipaturiko haritik entrepresa gisako egitura bilakatzeko. Ekoizpen sistema berriak sartzeak zenbat inbertsio eta lur beharko lukeen eta sistema horiek zein ahalbide ekonomiko emango luketen aztertu dugu. Hainbat ahalbide ikusita gero, ondorio hauek heldu gara, halegia, berriro ere ihardun intentsibo horik kenduz gero, dauden baserri handietarako ikusi ditugun ahalbiderik gehienen errentagarritasunak ez duela biderik ematen, etorkizunean aukera dezenterik izango den sinesteko. Gogoratu, esaterako, 25 Ha-ko baserri batek abeltegi berriez eta makineria eta guzti urtean milioi erdiko baserri gainki garbia bakarrik ematen duela. Baserritar gazteen lanbide gaitasun industrialala handitu ahala edo horien emazteek kale lanen bat topatu ahala, gainki hau oso laburturik geratuko dira eta ez du mereziko nekazaritzari ekiteak. Hau da, baserri handiok luzarago irautea oso ahalgari bada ere, nekez izango dira etorkizuneko baserriak, hain errenta diferentzial urria bait dute.

Kooperatibek edo gai bakarrean espezialduriko baserriek ere ez dutela egoera hau aldatzen ikusi dugu. Eta ez dugu beste erremediorik baserria galtzen ari dela ateratzea baizik, ekoizpeneko unitate ekonomiko bezala guztiz galduko dela * eta euskal lurra egoitzaz eta pinadiz jantziko dela.

(*) Ikusi dugu baserriek egoitza inguru gisa iraun ahal izango dutela. Baliteke batzuk lur eta abere hustirapenari zaletasunez eustea ere, hobby gisa, beste batzuk mendian txalet bat duten bezala. Nola nahi ere, baserrian zaletasun hutsez lan egiteko askorik egongo denik ez dugu uste, lan gogorra bait da. Balna balego ere, ez letorke estudio honetako ondorioen aurka, zeren honelako erabakiak ez bait

Aztertu dugun Herrialderako enpirikoki atera ditugun emaitza hauek ekoizpen moldeen eta hauk osatzen dituzten ekoizpen unitateen aurrerapen eskema teorikoa baieztatu egiten dute: Ekoizpen molde nagusiak —kasu honetan ekoizpen molde kapitalistak— aurreragoko ekoizpen moldeei dagozkien eta oraindik iraun dirauten ekoizpen moldeak menperatu eta irentsi egiten ditu, apurka-apurka desagerreraiz. Baserrikoak ez diren ondasunen ekoizpenean, artisau erako establezimenduak, feudal haroan elementu nagusiak zirenak, galdu egin dira sistemaren hondakin bilakaturik, inolako garrantzi ekonomikorik gabe. Baserria ere Euskal Herriko antolamendu ekonomikoko alderdi nagusietarik bat izan da, eta mendeetan zehar ia nekazaritzako era bakarra izan da. Baina ez dago pentsatzerik eta pentsatzekoa ere ez da, artisau erako antolamendu honek bere hartan zutik iraungo duela gure mendeetan gertatu diren eta aurrerantzean bizikiago gertatuko diren izugarritzako aldakuntza teknologiko, ekonomiko eta sozialen aurrez. Hau uste izatea itsukeria historikoa litzateke, eboluzio teknologikoak dakarren aldakuntza ekonomiko-sozialaren indarririk ez haintzat hartzea. Azken mendeotan gertatu den indar produktiboaren aldakuntza hain biziaren aurrez, artisau erako egitura batek mugigaitz irautea guztiz harrigarri litzateke. Historiaren aurrerapeneko lege guztiak hautsiko lituzke. Ekoizpen indarren aldakuntzak ekoizpen egituren aldakuntza dakar eta indar horien bilakaera galgatzen duen ekoizpen moldeak, lehen edo geroago, lurra jo behar derrigor. Baserriko krisia honetan datza, halegia, ekoizpen moldetzat ez dela ia balio eta beraz galdu egin behar.

«Ekoizpen sistema baten krisia gizartearen oinharria gertatzen diren aldakuntzei erantzuten ez dienean hasten da. Biztanleriaren eta merkatuaren hazkuntza, aurrerapen teknikoak, beste sistema batzuekiko konpetentzia eta gorago-

lirateke arrazonamendu ekonomikoz hartuak izango eta egoera hori ez litzateke jeneralduko. Baserriaren geroko perspektibak alpatzen ditugunean, ez gaude kasu bakar batzuri begira, erakunde horren jeneralarri baizik.

ko aurrerapen mailara pasatzea ez dira, inola ere, egoera berriaren atzetik geratu den ekoizpen moldeak irenstekoak»*.

Bi azken mendeotan, kapitalismoa haziz eta eboluziotuz joan da, gaur duen aurrerapen maila txit garaia atzeman arte. Ekoizpen molde kapitalistak kapitalismo aurretik zirauteen ekoizpen indar guztiak —artisauena beren artean— irentsi ditu, pixkanaka eta erremedio gabe desagerrera zirik. Artisau erako, famili erako nekazaritza Europa guztian galitzen ari da, eta horren ordez, entpresas gisako nekazaritza nagusituko da, egunean baino egunean tankera «industrial» handiagokoa. Hustirapen hauk oraindik zenbaitetan familiarrak badira ere, ez ahaztu pixkanaka ekoizpen egitura kapitalistaren barruan integratu behar dutela eta artisau egituratik «entpresas gisakora» pasatzea bakar-hustirapen pribatuan oinharritzen ez diren beste sistema batzuek ikustea bezain aldakuntza funtsezkoa dela. Familiaren lan hutsean oinharritzen den artisau estrukturatik lan esku alokatuan oinharrituriko baserri entpresara —nahiz eta prozesu produktiboaren izakeraz langileak gutxi izan— halako alde koalitatiboa dago nola artisau egituratik hustirapen kolektibora dagoena. Ekoizpen sistema kapitalistaren logika da hori: bere eragin ingurua hedatu ahala, artisau hustirapenak baztertu egiten ditu. Nazioko eta munduko nekazal egitura kapitalistaren barruan guztiz murgildurik dagoen eta inguruan antolamendu industrial gogorra duen baserri sektoreak ez du beste erremediorik, bere artisau egitura galtzea eta irabazirik handienaren bilaketaz adosago dauden elementuak sartzea baizik.

Ekoizpen unitateen eboluzio eskema teorikoaren arabera, berez, artisau gisako baserri sektorearen eraldakuntzak merkatal baserri egitura jartzera eraman behar lukeela ematen du, baserri askoz handiagoak, noski, entpresas gisara efizientzia handiagoz antolatuak, inbertsio haundiez, gero eta espezialpen eta ahalmen handiagoko ekoizpen egi-

(*) E. Bayo, *El manifiesto de la tierra*. 10 or.

turaz. Kapitalismopeko ekoizpen unitateen aztertzaile klasi-koek iragarritako ondorioa da hau. Horixe ari da, lehen esan dugunez, Ingalaterran edo Frantzia gertatzen, baita Espainiako nekazaritzan ere. Hemen nekazari ttikiak lurra uzten ari direnean, «entrepresa gisako» lur eta abere hustirapen handiak sortzen ari dira, antzinako lurdunek edo lur kapitalista berriek muntaturik, lan esku alokatuan oinharrituriko hustirapenez.

«Familia nekazaria pixkanaka bere eginkizun historikoa galduz joango da, faktore produktibo guztiak —lurra, lana eta kapitala— eta gainera baserriko zuzendaritza bera ere berak eramateari utzirik. Nekazaritzak hain etxalde handiak —eta halako lur, kapital eta ekipo zuzentzaile pilarekin— beharko ditu, non pertsonak bakarrak ezin izango bait du guzti hori osoan hornitu.

Merkatal nekazaritza nekazari familiaren antzekoena haxe izango da, halegia, lur hartan bere familiarekin bizi den enkargatuak lurra errentan hartu, beharreko dirua prestatu lortu eta beharreko lan eskua kontratatu. Honela hartuko ditu bere erabakiak faktore produktibo guzti horien konbinaketari buruz, hala ekoizpeneko faktoreak nola hustirapeneko gaien salmenta kontrataturik» *.

Hau ez da, ordea, gure Herrialdean gertatzen, eta oraingo baldintzetan ezin gerta daitekeela ere gertatu uste dugu, lurra prezio handia egiten bait du, eta honela ez dago, esanik dugunez, lur hustirapenen zabaltze errentagarrikerik egiterik. Gure Herrialdean aldakuntzaren haria ez da eredu teorikoak dioen bezain lerrozkua, nekazaritza industriakuntzaren eta honek dakarren hirigintzaren eraginpean bait dago. 1899an bertan ere Kautsky ondorio honetara heldu zen: «Nekazaritzaren aurrerapenak ez darama zuzenki baserri ttikien bazterkuntzara, handien onerako. Bazterkuntza hau ingurumenen menpe dago» **. Aztertzen ari garen inguruko

(*) Don Pearlberg, USDAko Nekazal Ekonomialako Zuzendaria, «El Campo»n bildua. 1975eko Iraila-Urria.

(** *) K. Kautsky, *La cuestión agraria*. 1899. Gaztelaniazko argitalpena 1974.

baserriak hustirapen handi bilakatzea galgatzen duten ingurumenak ez dira besterik, industriakuntzaren prozesua baizik: lurraren prezioak bere baserri errentagarritasunetik oso gora igotzean, ez dago baserrien tamainia handitzerik. Hemengo baserri ttikien eboluzioak ez du hustirapen handiak egitera joko, baserri ttikiak galtzera baizik, lurra pinadiz eta egoitzaz jantzirik, hauk bait dira jabeari irabazirik gehien dakarkioten hustirakerak.

Gure ondorioak indartzeko, baserrietako benetako egoera aipatu gabe ezin utzi. Oraingo baserrietaz arduraturik daudenak berak ere pixkanaka bertan behera utziz doaz, gazteriari datozkion aukera alternatiboak tentagarriagoak diren neurrian. Argi eta garbi dago ez dela ia gazterik geratzen bihar-etziko nekazaritzat. Eta nahiz eta kontu hau baserri ttikietan gehiago gertatu, inguruan handitzat dauden baserrietara ere heltzen da. Egitura kapituluan zehazki azaldu genuen nola dagoen gauza hau. Urte gutiren barruan oraingo baserriek nekazaritza utzi egingo dute, (honek ez du baserrian bizitzea uzterik esan nahi), «lur entresa» bilakatzea lortuko duten eta, esan dugunez, hain errentagarriak izango ez diren hustirapen guti guti batzu izan ezik. Euskal lurra pinuz jantziko da —gaur inguru osoak daude ia pinuztaturik, adibidez, Arrasate eta Bergara aldea Gipuzkoan eta Durango aldea eta Arratiako Harana Bizkaian—, kaletar-industrial biztanleriaren bizileku eta atsedan lektzako lur zati batzu izan ezik.

Norbaitek beharbada pesimistegi gabiltzala uste izango du, azaltzen dugun bihar-etziko kuadrua beltzegia dela eta «nola edo hala» oraingo baserrien aldakuntza eta iraupena —nahiz eta gutirena— ahalgarri izango dela, lur eta abere entresa aberats bilakaturik. Uste honen aurrez, guk ez dugu hemen azalduko kalkuluetara jotzea beste erremediorik. Ez da nahikoa zerbait «nola edo hala» gerta dadila nahi izatea, hala gerta dadin. Egin dugun azterketa ikusita, aldakuntza hori gertatzeko eta luzaro irauteko ahalbide askorik ez dago. Hala ere, iragarpen pesimistetan bakarrik ez geratzeko, eta azterketa honek *orain* baserritar di-

renentzat onura pixka bat ukan dezan, ikus dezagun zeintzu diren beren baserriari gehien ateratzen eta lur entrepresa efizienteago bilakatzen lagunduko duten elementu nagusiak. Ikuspen posiblistaz eta epe laburreko, oraingo baserririk handienen iraupen eta eraldakuntzarako neurri ekonomikorik garrantzitsuenak, estudio honetatik ateratzen denez, ondorengo hauk lirateke.

Gomendio batzu

Hobekuntzak gaien merkaturatzean.—Haxe da zalantzarik gabe oraingo baserria hobetzen eta eskari gehikorra ikusten zaien merkantzien ekoizpena handitzen lagun lezakeen elementu nagusienetariko bat. Sarri ikusi dugu, nola merkaturatze sistemako hutsek desegurtasuna dakarten eta nola desegurtasunak errenta gizenagoak eta zenbait gairen ekoizpenak eragozten dituen. Beraz, merkatu sistema egoiak jartzea derrigorrezkoa da baserrien aurrerapenerako.

Okela ekoizpenari buruz, prezio behereneko ezarpena eta garantiako errejimena lortzea pausu handia litzateke esaniko bide horretarantz. Baina 3. kapituluan esan dugunez, arauketa horretaz ez da beste gabe merkaturatze sistema erraz eta efizienterik egiten. Horrants da jo behar dena. Sistema hauk berez Administrazioak jarri behar litzuzke, baina honen ezaz, baserriarrek berek eta batez ere hauen egoeraz arduraturik daudela dioten erakundeek, hala nola Diputazioek, Aurrezki Kutxek, Nakazari Anaiarteek, kooperatibek, etab. baserrien iraupenari zerbitzu handi bat egin liezaiekete gai nagusietarako merkaturatze sistema egoki bat jarriarik. Haxe da, baserriarrek, lagundu nahi dioten erakundeei, eskatu behar dien gauza konkretu bat.

Giza teknologiaren eta kapitalaren garrantzia.—Bigarren behar litzatekeena, zera da, halegia, prozesu teknologiko berriak baserriarrek irensteko, egokitzeko eta berenganatzeko moduko sistema bat jartzea. Hemen ere, badago *Extensión Agraria*-ren lana, nahiz eta fokapen faltaz behar bezain

ongarri ez izan, gure ustez. Borondatezko elkarteen lanari arretagarriago deritzagu, esaterako, Azpeitiko Lurgintzari (Gipuzkoan), nahiz eta elkarte hauek ere diru faltaz ezin lan sakonegirik egin *. Ikerketa organismo bat behar litzateke Herrialdeko errealitatean ondo finkatua, eboluzio teknologikoak euskal baserritarrentzat dituen ahalbideak etengabe aztertuko lituzkeena eta haietaz komunikazio sistema egozia lukeena, emandegi bat bezala izanik, bere elementu hartzaileez harreman osoan, hauk izanik, haren lan oinharri eta biok elkarren berri etengabe jakinik.

Honetan, berriro esan beharra dugu, baserritarren eta laguntzeko prest dauden erakundeen ekintza batuak nolako garrantzia lukeen. Beharrezkoena, eta eraginkorra, ikerketa eta zabalkunde etxeak Herrialdeetan jartzea litzateke **. Baina, honen ezaz, baserritarren eta lehen aipaturiko erakundeen elkarrekiko ariketa gauza handia izan liteke.

Baina hain azkarki aldatzen ari den teknologiak, hura irensteko gauza diren eragileak ere behar ditu. Nekazaritza egunean baino egunean «zientifikoago» egiten ari bada, eta prozesu honek jarraitu behar badu, baserritarren kultur prestaketak ere hura ulertzeko eta praktikatuzeko moduan izan behar du. Etorkizunean baserritarrik izango bada, hezkuntza kultural eta teknologiko handiko gazteek izan behar dute, lur entpresari gisa jokatzeko eta egunean baino egunean teknika nahasiagoen erabiltzaile izateko gai izango direnak. Gaurko baserritarra, gure ustez, gehienez gizon argia eta trebea da, baina ez dago gertaturik aurrerapen teknologiko azkarrerako eta entpresa gisako lan sistemarako. Baserria lur entpresa moderno bilakatuko bada, nahi eta nahiezkoa da, giza kapital egokia edukitzea.

(*) Lurgintza-ko lanean beren ahaleginei buruz pesimismo sakonik ere nabari delakoan gaude, baserriari geroko perspektiba urriak ikusten bait dizkiote.

(* *) Berez **Extensión Agraria** herrialdeka antolaturik dago, baina banaketa hau gehiago dela uste dugu administratiboa eta agenteen antolamendukoa, eta ez Herrialdeetako ikerketa eta lanaren benetako zentruak.

Nola daude gauzak honetan? Formalki baserriko haurren eskolaketa kalekoena bezalakoa bada ere, lehena maiz gertatzen da, bigarrena baino eskola maila urriagoan. Honen erru zati bat, eskolara joan etorrien zailtasunak du, eta batez ere, eskola gaztelaniaz izateak*.

E.G.B. (O.I.O.) mailan, ordea, baserriar haurren eta kaletarren artean ez dago hain alde handirik.

Lanbide hezkuntz maila heltzean, orduan beste soinua bat da. Ez dago baserriar lanbide hezkuntzarik emateko eskolarik. Espainiako probintzien artean Gipuzkoa da lanbide hezkuntz eskolaz hornituen dagoena (honek ez du esan nahi gazteriarren premietarako maila egokia denik). Guk dakigunez, ordea, eskola horietariko batean ere ez da nekazari ikasketarik ematen. Nekazari ikasketarako Bizkaia ez dago bat ere hobeki. Gipuzkoan *Zabalegiko Baserri Eskola* dago Donostiako Udal Aurrezki kutxak muntatua. Hauxe da, inguruan nekazari lanbide hezkuntzari buruzko ahalegin bakarra, baina hemengo ikasaldiak beste edozein lanbide eskola industrialetakoak baino askoz laburragoak dira. Goragoko mailan ez dago Herrialdean nekazari irakaskuntzarik emateko erakunderik bat ere.

Hona, ordea, arlo honetan horrelako eskolak sortzeko eragozpen berezi bat dela, hategia, ez dagoela eskaririk horietarako. Euskaldun gazteriak ez du inolako gogorik nekazari bizitzarako gaitzeko. Honela baserriko seme-alabek Erdi Mailako Ikastetxeetara edo lanbide Heziketa Industrialekoetara eurrez jotzen dute, baina ez dago bat ere gogorik lur-abere gaitasunik lortzeko. Areago oraindik, bazen Baserriar Gazteen Eskola saialdi bat (neskentzat), baina bigarren urtean itxi egin behar ikaslerik ezagatik. Eta Zabalegiko Baserri Eskolako ikaslerik gehienak ere industriako enplegurako behar den jakinduria oinarrizkoa lortzekotan doazela hara esango genuke. Ez dago, beraz, lur entresariaren kul-

(*) Gauza txit arretagarria da, nola baserriar haurrak ikastoletara baino gehiago eskola nazionalera doazen ikustea. Ikastolak euskaraz arduraturik dauden kaletarren haurrentzat gehiago direla ematen du.

tur eta lanbide hezkuntzaren hobekuntzarik egiterik, nekazari izan nahi duenik ez den bitartean. Gaur baserri eskola bikain batzu jarriko balira, hutsik izan beharko lukete.

Honek berriro ere esan nahi du, gazteek ez dutela nekazaritzak hoberantz joko duen itxaropenik. Eta horra problema handi bat: nekazaritza errentagarriago ez den bitartean, ez da hartarako gazte gaiturik izango, eta gazte ondo gaiturik ez den bitartean, nekazaritza ezin errentagarri izan... Gorpil zoro latza noski, gazteek baserrian bizi-maila ona espero dezatenean bakarrik hautsi ahal izango dena. Baina ez ahaztu baserriak irauteko baserriar eskolatuak eta teknikaz oso ondo gaituak behar direla. Baina halakoak izatea, eta baserrira dedika daitezela nola lortu, horra egun irtenbiderik gabekoa dirudien problema.

Izan liteke hala ere, esperantza bidetxo bat honetan. Euskal Herriko problemen eboluzioaz eta aurrerapenaz arduraturiko gazteen artean axola dezentea ageri da baserri arloari buruz. Beharbada beste zenbait laterritan bezala —Israel da honetan adibiderik ezagunena—, baliteke faktore ideologikoa izatea zenbait gazte trebe eta gertatari beren lanbidea baserrira dedika eraziko dien eragilea, nahiz eta beste enplegu batzutan baino gutiago irabazi. Joera hau, egon balego eta bizikera gogor eta neketsuari eusteko aina indar balu, baliteke gazte horik izatea biharko lur entresariak. Horrelako jokabideen aurrean, azterketa ekonomikoak ez du zer esanik, Karitateko Anaia bihurtzeko erabakiaren aurrean isilik egotea besterik ez duen bezala. Hala ere, bai erants dezakegu zenbait gogoeta ekonomiko, gure ustez arretagarri:

Sistema ekonomiko kapitalista baten azpian, nahiz eta entresariok gutiago irabazita lan egiteko prest egon, ezin dute ahanzi hustirapenak errentagarri izan behar dela. Hustirapen batek ez du irauterik eta lan sistema batek gutiago du jeneraltzerik, irauteko behar den baliakizun ekonomikorik eta sistemaren dinamika jarraitzeko behar den kapital pilaketarik ematen ez badu. Sarritan ideologia sen-

doak eragindako pertsonengan errakuntza astuna izaten da bilakarazten ari diren sistemako lege ekonomikoei kasorik egin beharrik eta makurtu beharrik ez dutela edukiko uste izatea. Sistema ekonomiko kapitalista baten barruan, nahiz eta hustirapeneko tituluduna «normaletik» beherako ordaina hartzeko prest egon, hustirapenak, nahi eta ez, berrekoizteko eta handitzeko behar diren irabaziak sorrerazi behar harko ditu. Euskal nekazaritzaren ingurunean hau gehienean gertagarri izango den zalantza handiak ditugu, nahiz eta gazte batzuk gogotsu ekin *. Nola nahi ere, eta inoiz gerta baledi, argi ikustea komeni da euskal nekazaritzak beharreko entpresariak edukitzeko bide bakarra ideologian datzala. Nahiko zaila da ideologian oinharrituriko soluzioak ekonomiaz funtzionatzea, ideologia hori nagusi den ekonomi sistemako legeen aurka doanean, baina biderik izatekotan, hauxe da bakarra.

Azpiegitura eta zerbitzuak.—Joanetorri erraza eta azkarra edukitzeko moduko bidez baserria hornitzea ere derrigorrezkoa da, bai baserriar familiak kaleko bizikera eta gizarteko harremanetan parte hartu ahal dezan, bai bizimodu garai eta modernorako behar diren zerbitzuak eduki ahal ditzan. Haurren eskola arazoa konpontzea ere oso garrantzizkoa da (eskolako garraioa hobetu, eskoletan egokera hobek, etab.), baita osasun asistentzia ere. Bihar-etziko baserriarra lur entpresari joritzat jotzen badugu, guztiz derrigorrezkoa da antzeko diru sarrerak ezezik, diru ahalmen berdintsua duen kaletarraren antzeko bizikera ere edukitzea.

Baserriko gaien prezioak.—Baserri gaien prezioei zor zaien garrantzirik ez diegula ematen pentsa lezake beharbada zenbait irakurlek. Baserriarrek, batez ere, baliteke eritzi hau edukitzea, zeren, gehienean, beren problemak,

(*) Beste gauza batzuren artean kontuan eduki behar da baserriko familia osoaren irabazi alternatiboa jotzean, industriako ofizialaren aldean oso azpiko maila jarri zela, eta maila horretatik beherako bizikera onhartzea nahiko zaila da.

gaien prezioak jasoz gero, konpondurik leudekeela uste bait dute. Bistan dago, baserri gaien prezioek igo eta beste guztiak berdin geratuz gero, baserriko egoera ekonomikoa hobetu egingo litzatekeela. Baina guk, zenbait baserri gairen prezioek igotzea bidezkoa eta komenizkoa dela emanik ere, ez dugu uste euskal nekazaritzako problemen konponbidea prezioak igotzetik datorrenik; eta hona arrazoinak:

—oso gertagaitz delako baserri gaien prezioek bakarrik igotzea. Aitzitik, ordea, esperientziak erakusten digu, prezio guztiak bateratsu igotzen dutela eta baserri gaien prezio igotzeak industriako prezioen igotzea ekarriko duela, etab. Beraz baserriarren haserako abantaila laster geratuko da ezerezean. Kostuen inflazio problema da hau, eta sektore bakarrak lorturiko abantailak, berehalaxe irensten ditu igoe-ra orokorrak. Horregatik, gure ustez, prezioen igotzea hain unetan edo hain programa berezitan haintzat hartzekoa izanik ere, ez da hartara jo behar nekazaritzako problemen irtenbide definitiborako, problema horik ez bait dira adiuntzazkoak, egiturazkoak baizik.

—prezioen igotze hutsean ez dela irteerarik bilatu behar uste dugu, zeren honek industri sektoreko bizi kostuaren handitzea bait dakar eta ez da komeni formula errazera jotzerik, biztanleriaren sailik ugariarenen bizkarretik, batez ere igotze horrek irteera egonkorrerako behar den egitur aldakuntzarik ekarriko ez duenean. Gainera, igotze hori gomendaturik ere, oso zaila da era iraunkorrez lortzea, —beste prezio batzuren ondorengo igotzeak irentsia izan gabe—, sarritan ahazten diren elementu hauen kateaduragatik: baserri gaien prezio igoerak, kaletar biztanleriaren bizi-kostuaren igoera dakar. Bizi-kostua handitzean, jendeak alokairuak igotzea eskatuko du eta alokairua igotze hau industriako prezioetara pasako da... Eta bestetik industriako enpresariak lur enpresari ttikiak baino ukalondo gehiago dutenez gero Gobernuan, baserri sektoreko prezioen igoerari eustera behartuko dute Gobernuak, hau da, baserriko prezioek ez dutela igoko, edo igotzekotan, industriako prezioek ere igoko dutela, baserriarren hobekuntza pikotan ge-

raturik eta behar duten egitur aldakuntzarik inola ere sortu gabe. Beste kontu bat litzateke baserriarrentzako prezioak igotzea, baina kontsumatzaileei preziorik ligo gabe, merkaturatze prozesuak eta kanaleak hobetuz eta alferreko bitartekoak baztertuz. Hala ere, merkatuzko ekonomian, ekoizleak oso tamainia ttikiko hustirapen unitate askotan banaturik daudelarik, emaitza hau lortzea oso zaila da.

Hau da, prezio handitzeek, baserriarrentzat mementuko asnapidea izanik ere, ez dezakete sektoreak behar duen berrikuntza sustraizkorik ekar. Horregatik, alderdi honi ez diogu zenbait irakurlek nahi izango lukeen bezalako arreta zehatzik ematen.

Beharbada, baserriko lehen gaien prezioen eragina aztertzea bai litzatekeela garrantzizkoa. Batez ere abereen gobernurako pentsuen prezioa; eta horik ez igotzea ez ezik jaistea lortzen saiatu. Honela gaiaren salmenta prezio beraz tarte handiagoa atera liteke, alpa berri ditugun kostu inflazioaren ondorioak ebitaturik. Hemendik atera, abere gobernuan kostua txikitzeko, ikerketak nolako garrantzia duen edo abere gobernuan belarkien proportzioa handitzeko lur gehiago edukitzeak.

Egoera larritik irteteko, prezioen igotzera jotzea, emergentziatzako irteera besterik ez daiteke izan, baserriak dituen problema astunak konpontzera gabe luzatzera daramana. Prezioen igotzea minaren kontrako aspirina bat bezala izan liteke, baina gaixoak biziena badu, erremedio eskasa du hori.

Lurra eta kapitala.—Lehen ere esanik dugu, elementu hauek zein garrantzi duten baserriko egoerari eta etorkizunari buruz. Baserri eraldakuntzarik nahi bada, zalantzarik ere ez, nola edo hala lur erosketa erraztu behar dela. Lur erosketa ez dela errentagarri erakutsi dugu guk, baina hartatik edo horregatik baserri handiagoak sortzea bultzatu nahi bada, lurra lortzeko erraztasunik handienak ematea, beste erremediorik ez dago. Egun, lur erosketari buruzko politika ekonomikoak oso garrantzi urria du baserri sek-

torea hobetzeko jartzen diren neurrietan. Gai honetaz egiten diren agerpen agerien aurrez, baserri politikako neurriak gehiago dira adiuntzazkoak egiturazkoak baino, eta horrela ez dago inola ere baserri sektorea eboluzio ekonomikoko premiei egokitzerik.

Baserri kredituaren berrikuspen sakon bat ere behar-beharrezkoa litzateke, entrepresari gazte, ekile, gogotsu eta trebearen premiei gehiago egokitzeko, zeren honek beharbada arreta handiko proiektuak azal bait ditzake, baina etorki ondasunik eduki ez, garantia gisa eskaintzeko. Beharrezko dirudien egiturazko aldakuntzak inbertsio handiak behar ditu eta horretarako formula biziak eta onurakorrak asmatu behar dira, eskalearen dinamikan eta perspektibetan gehiago finkaturik, bere etorki ondasunetan baino.

Hauk lirateke gure «posibilista» erako gomendioak, baserri handiak sistema ekonomikoko antolaketa kapitalistak eskatzen dituen bezalako lur entpresak bilaka daitezten etorkizunean. Hala ere, sarri esan dugun bezala, eraldakuntza honi ez diogu irtenbiderik ikusten, Bizkaiko eta Gipuzkoako nekazaritza inguru ttiki eta oso industriatuan murgildurik dagoelako.

Gure azterketak frogatzen du, baserri handi hauek ere ez dutela etorkizunean irauteko moduko errentagarritasun zifrarik ematen. Ez ahantz, lur gehigarria metroko 25 pezetatan erosi behar izanez gero, ez duela merezi baserria handitzerik, eta lurra metroko 25 pezetatan saldu ahal izanez gero ez dagoela inolako baserri egoera errentagarririk.

Hona, ordea, Bizkaian eta Gipuzkoan hainbat baserri ingurutan lurra prezio horretatik gora saltzen ari dela eta kale inguruan metroko 1.000 pezetatetik gora. Alferrik da alferreko esperantzei atxikitzea: askatu ezineko kontradizioa dago lurraren jabeago pribatuaren eta euskal nekazaritzaren hustirapen arrazional eta eraginkorraren artean. Irabaziaren soinura dantzatzen duen sisteman guztiz bidezko denez, jabe bakoitzak bere ondasunez ahalik eta errentagarritasunik handiena ateratzera jotzen du, eta hau, Biz-

kaiko eta Gipuzkoako baldintzetan, ez dago lur-abere hustirapenarekin batzerik. Baserrien utziera, gure ondorioak indartu besterik egiten ez dituen gertaera, argia da, eta berdin esan daiteke bi probintzietan dagoen hainbeste eta hainbeste pinadirengatik ere. Baserria kanposaindurantz doa, bere esistentziaren azken aldian gaude, gizarte eta ekonomi bizitzako bazterrik ezkutuenak harrapatzen dituen kapitalismoaren aurrerapenak irentsiko bait du*.

Kasurik optimistena jota, nahiz eta hau ez dela gertagarri frogatu dugula uste izan, gure aurreko iragarpenak bete ezik eta nolabait lurraren prezioaren eta beharrezko inbertsioen problema konpondu ahal izanez gero, bihar-etziko nekazaritzaren esperantza bakarra hauxe da, halegia, empresa gisako hustirapen guti baina txit «Industriatu» batzu sortu, inbertsio handiez eta lan eskua alokatuz, esan dugun bezala, lur empresa kapitalista handion bidetik joko dutenak. Baina iso, horrelako hustirapenak ez dira BASERRIAK izango. Lurraren jabego pribatupean, euskal nekazaritzaren perspektibak segur asko egoitzak eta pinadiak dira. Aldrebestasun logiko izugarritz, hautabidetzat jo daitekeen zer bakarria lur empresa kapitalista moderno batzu sortzea da; oso guti noski.

Gure ustez, hala ere, euskal lurraren probetxabideak ez dira horretan bukatzen. Sistema ekonomikoak ez dira betikoak eta ahalik eta irabazi pribaturik handienaren bila doan baliakizunen probetxamenduak ez du zertan sistemarik bidezkoena izan. Aitzitik, ordea, azterketa honetan frogatu duguna zera da, hain zuzen, halegia, sistema pribatua desbidezkoa dela probetxamendu arrazionalerako, bai

(*) «Iragarpen» hauk txit arriskutsuak dira beti, baldintza jeneralak ez direla azterketa honetan ikusietatik aldatuko ematen bait da. Munduko eta Herrialdeko industri aurrerapena arras galgatzeko moduko krisi ekonomiko izugarri bat gertatuko balitz, orduan, jakina, baliteke «berriro baserriratzea» subsistitzeko soluzio gisa. Baina hau, nahiz eta batzuk probablezat jo —ikus Erromako Klub-eko txostenak, Mansholt-en iragarpenak, etab.—, ez dago gure ingurunean iragartzetik. Beraz esaten dugun guztia, hondamendi ekonomikorik edo ez-usteko aldakuntza handirik gabeko egoerari gagozklola ulertu behar da.

komunitatearen aldetik, bai euskal nekazaritzaren ikuspegi baserrizko, diruzko eta ekologiko aldetik.

Euskal Herriko diru eta gizarte antolaketa berezgarriak handienetarikoa baserria izan bada ere, indar produktiboen aurrerapenak eta ekoizpen sistema kapitalistak antolaketa hori deuseztu egiten dute. Horregatik, baliakizunen probetxamendu sistema berriak bilatu behar dira, gaurko teknologiako medio guztiak azkenera aurrera eraziko dituztenak, eta baserriko langileentzat bizi-maila egokia eta komunitatearentzat sektorearen aurrerapen armonikoa ekarriko dutenak. Hau ez da posible bakarkako irabazi pribatuaren bilaketa nagusi den ekoizpen errejimenaren menpe. Irabazi pribatuaz beste erizpide batzuren arabera, baliakizunak ikuspen kolektiboz erabiliko eta planifikatuko dituen sistema ekonomikoaren barruan bakarrik da gertagarri hori. Euskal nekazaritzaren irtenbide jatorrerako, lurraren eta gaineko baliakizun produktiboen jabeago pribaturik suposatzen ez duten probetxamendu sistemak bilatu behar dira. Sistema hauk, jakina, ez dira egingarriak izango, ari garen egitura ekonomikoa eta politikoa sistema kapitalistakoa den bitartean; eta sistema honek diraueino, euskal nekazaritzako hustirapenak desarrazoizko eta inefikaza izan behar, komunitatearen ikuspegitik. Baina soluzio bat halako une historiko batean ezinezkoa izateak hau ikuserazi behar digu, halegia, orain proposatzen diren aldakuntza posibilista guztiak ez direla egitura oso zaharkituaren txaplak, adabakiak baizik. Soineko zaharrear bezala, adabakiek zulorik haundienak estali eta pixka bat iraunerazi besterik ez dute egiten, baina nahi eta nahi ez, berria behar da. Sistema kapitalistaren barruan harturiko neurriak ez dira euskal nekazaritzaren soluzioak, nahi eta ez gertatuko den hondamendi osoa ekiditeko emergentziatzko erremedioak baizik.

Horregatik, gure azterketaren ikuspegia arras aldatu beharra dago. Enpirikoki nabari denez, eta azterketaz atera dugunez, ez dago ahalbide ekonomikorik oraingo baserriak nahiz baserri modernatuak geroan iraun dezan. Horregatik oraingo eginkizuna, zera da, halegia, hustirakerarik egokie-

na zein izan daitekeen bilatzen saiatu, bi helburu hauk betetzeko: a) aztertzen ari garen bi probintzietako lur baliakizunen probetxamendua ahalik eta efikazkien antolatu oraingo komunitatearentzat eta geroko belaunaldientzat, eta ez bakarrik bi probintzietako jendearentzat; baizik baita hauk integraturik dauden komunitate zabalagoentzat ere; eta b) baserriko langileari bizi-maila eta kalitate egokia eman, gutienez industriako langileak duen antzekoa.

ekoizpideen jabego kolektiboan oinharrituriko sistema berri bat jarriko balitz, eta Euskal Herriko sistemak aurrera jarraituko lukeela emanik, gure ustez, agertu dugun azterketa oinharri dela, era estentsiboko baserriak lirateke arretagarrienak. Honelako baserriak faktorerik urrienaren, lan eskuaren, probetxamendurik gorena lekarke eta industriako lan eskuaren antzeko produktibitatea eduki erazteko biderik efikazena litzateke. Baserri estentsiboko langileak —halako sisteman ez litzateke ia baserri jabea, gaur hitz honi damaiogun esanahian— abere mordo handi baten ardura eraman lezake, bakoitzak oso lan guti beharko bait luke. Orduan, segur asko, nekazaritzara dedikaturiko langile oso gutiz abere ekoizpen erlatiboki handia lor liteke.

Sistema berri honen ezarpena hain urruti egonik, ordea, alferrik da orduko irtenbide ahalgarriak eman nahi izatea. Plangintza orokor batean baliteke arretagarri izatea euskal lurrari emankortasun handiagoa ateratzea. Bestalde, lurra eta kapitala komunitatezkoak izanik, baliteke lanak industriako langilearen antzeko ordaina edukitzea, eta beharbada baserrira dedikatu nahiko langileak ez lirateke hain guti izango, nahiz eta produktibitate txikiagoren gakoak han jarraitu... Dena dela, azterketa honetan ez dago zertan soluzio zehatzik eman, baizik ikusi ekonomiaren antolaketa alternatiboak, komunitatezkoak bakarrik eraman dezakeela gure lur baliakizunen hustirapen armoniatu, arrazional eta eraginkorrera.

Hitz batzu erantsi nahi ditugu baserriaren desagerpen gertagarria ikustea —eta are gehiago, ondorengo eperako

planifikatzea— genozidio antzeko zerbait dela uste duten lurzaleentzat, Euskal Herriko balio nagusien kontra doalakoan. Lagun hauei hauxe esan behar diegu, halegia, herri batek bere bizitasuna eta irauteko ahalmena baldintza aldakorrei egokitzeko ahalmenaz erakusten duela, eta ez antzinako egoeretan pot eginda. Baserriko artisau egitura gal-tzean, herria edo euskal balioak ere galduko direla uste izatea, herriarengandik oso guti itxarotea da, guztiz ezgau-zatzat jotzea, hirugarren iraultza industrialeko aroan doan gizarte modernoko baldintzei egokitzeko. Euskal Herriak ez du uste hori merezi, bere historian zehar etengabe jakin bait du baldintza aldakorrei egokitzen eta egoera berriek eskaintzen zizkioten aukerak probetxatzen. Gure Terrano-barako emigratuek, gure mundu guztiko itsas ikertzaileek, Bizkaian eta Gipuzkoan lehen industriak jarri zituzten entre-presariak, baserriak utzirik lantegietan eta industrietan lan-ean hasi eta Herrialdeko industri aurrerapenerako lehen epea bete zuten baserritarrek... guzti horiek egiaztapen bi-ribila ematen dute, Euskal Herriak baduela bizitasunik, bal-dintza aldakorrei aldatuz erantzuteko. Herri bat agertzen zaizkion aukera berriak probetxatzeko gauza den neurrian bakarrik da historian zehar aurrera jotzeko gauza. Euskal Herria ezezik, munduko herri guztiak dira lege historiko honen adibide biziak. Horregatik Euskal Herriaren izaera gaurko baserriaren iraupenaren pentzudan dagoela uste iza-tea ikuspen arras erromantiko eta antzinakoia da, erreali-tatearen ikuspen zientifikotik baino ulerpen utopikoetatik hurbilago dagoena noski. Halako aro historiko batetan ain-guraturik irautea, historiako dinamikak hondamendira arras kondenaturiko jokabidea dugu.

Hiztegia

abantail: ventaja
abelazkuntza: cría de ganado
abelki: producto ganadero
abelteria: ganadería
aberaskunde: enriquecimiento
abere aurrerapen: desarrollo ganadero
adierazkor: significativo
adierazle: Indicativo
adiuntzako: coyuntural
aieru: conjetura
ainguratu: anclar
aldakin: variante (subst.)
alokatu: asalariado
aldakor: variable
anitz: mucho
anizkun: complejo
antolamendu: organización
arauketa: regulación
ardiazkuntza: cría de ovejas
arrosatu, kazkondu: rosado
arto bihidun: maíz grano
aukera kostu: costo de oportunidad
autokudeakuntza: autogestión
bahitu: hipotecar
bahitura: hipoteca
baldintza: condición
baliakizun: recurso posible
balioztapen: valoración
banako: unidad
barazki: hortaliza
barazkintza: horticultura
bazterkuntza: abandono
begiramendu: consideración
beheko interbentzio: Intervención Inferior
behiki: carne de vaca

behitegi: granja, vaquería
belar arto: maíz forrajero
belarki: forraje
bididertu: doblar
bihi: grano
bilakatu: convertirse
bilakera: desarrollo
birrekoiztu: reproducir
Birrearaikuntza eta Bultzapen:
Reconstrucción y Fomento
bizgarri: incentivo
bizien: cáncer
bizitza-ikuilua: vivienda-establo
biztanleria: población
desabantail: desventaja
desegipen: destrucción
ebatzi: decidir
edukiera: capacidad
edukin: contenido
egiakor: veraz
egiaztatu: comprobar, verificar
egikera: realización
egoitza: residencia
ekidn: evitar
ekin: dedicación
Ekintza Batu: Acción Concertada
ekolzen: producción
ekoiztu: producir
elikamendu: alimentación
elikatura: alimentación
emaltza: resultado, fruto, producto
emandegi: centro emisor
emankortasun: productividad
entrepresa: empresa
entrepresari: empresario
eragiketa: operación aritmética

eragotzi: impedir
eraikuntza: edificación
eraisgailu: ordeñadora
erakunde: institución
eraldatu: transformar
eralketa: gasto
eratorri: derivado
eredu: modelo
ereduzko: ejemplar
erizpen: juicio
erizpide: criterio
ernalkuntza: cubrición
erremangutsu: emprendedor
errentagarri: rentable
errentagarritasun: rentabilidad
errentagarritu: rentabilizar
eskolakuntza: escolarización
etorki balio: valor patrimonial
etsigarri: decepcionante
etxagun: propietario de una casa
etxaguntza: casa propia
ezabatu: borrar
ezagukizun: incógnita
ezaldi: tiempo de penuria

fokapen: enfoque
funtsez: fundamentalmente

gainditu: superar
gainki: excedente
galga: freno
galgatu: frenar
garaipide: éxito
garaitza: éxito
goiko interbentzio: intervención superior
gurpil zoro: círculo vicioso
gutikuntza: disminución

hautaketa: opción
hazkuntza: cría
hegatziki: carne de ave
hezbide: educación
hirigintza: urbanización
hobari: prima
hondakln: deshecho (subst.)
hondo: fondo
horniketa: provisión

hornitu: proveer
hustrapen: explotación

idiki: carne de buey
idortu: secar
ihardun berri: nueva actividad
ikertu: investigar
ikurdun: señalado, marcado
ikuspen: visión
industriakuntza: industrialización
iragapen: transición
iragarpen: anuncio
iragarri: anunciar
iraul-ongarriketa: abonado de fondo
irazkin: comentario
irazkindu: comentar
irensmen: absorción

kateadura: concatenación
kazkondu: rosado
kítatu: compensar
kopuru: cantidad
korritu: interés

labore: cereal
lan esku: mano de obra
lanabeseria: conjunto de aperos
landaredi: vegetación
landun: empleado
lankidego: cooperativa
Laterrri: Estado
lur eraketa: ordenación rural
lurdun: terrateniente
lur-gai: producto agrícola
lurlangailu: rotavator
lurlantza: agricultura

manu: disposición
mehatzeria: minería
ments: déficit
menstun: deficitario
merkaturatze: comercialización
muğadura: delimitación

negutegi: invernadero

okela: carne muerta comestible

ordenagailu: ordenador

orekatu: equilibrar

ortuari: verdura

pentzudan: a merced

plangintza: planificación

preikusi: prever

primu: primogénito

primutza: primogenitura

programazio lerrozko: programación lineal

Sail bilkuntza: Concentración parcelaria

sakada: empujón

sekulabelar: trébol rojo

soroka: en parcelas

sortzapen: creación

tarte garbi: margen neto

tarte gordin: margen bruto

ugalmendu: aumento (?)

uhao: desembocadura

ukan: tener

urbildegia: aguada

uzpen: abandono

uztagailu: máquina cosechadora

zehagailu: triturador

zerriki: carne de cerdo

zuhaizti: arbolado

zulo: silo

zulatoratu: ensilar

Baserria da euskal nekazaritzako era oinharritzkoa, bakarra, tradizionala, bai familiaren eta baserriko gizartearen antolamenduaren muina ere...

Azken urteotan, ordea, erakunde garrantzitsu honen zorteak bere kezka sorrerazi ditu. Baserriko gazteria lurra bertan behera uzten ari da eta baserriak hutsik geratzen...

Baserrian geratzen diren apurrek ere ez dute beren geroa argiegi ikusten.

Zer egin eta norantz jo, horra baserriaren zorteaz arduratzen diren guztien galdera larria...

Liburu honek galdera honi erantzuten dio. Baserriaren oraingo egoera ekonomikoa sakonki aztertzen du, horrela baserriaren geroko bidea eta etorkizuna neurtzeko.

Gipuzkoako eta Bizkaiko Baserria aztertzen ditu **Miren Etxezarreta**-k.